Universidad de Deusto
Biblioteca

Universidad de Deusto
Biblioteca

N

REN

AN AFEC-
ta Dotrina-
pen llen

N

A

BIBLIOTECA
VASCA
F. de Abrisqueta

Universidad de Deusto
Biblioteca

180697

✠

AITA SAN

# IGNACIOREN

EGERCICIOEN GAÑEAN AFECtoac, beren Egemplo, ta Dotrinaquin: edo Egercicioen Ilen Partea:

# JAINCOAREN

MINISTRO CELOSOAI

*JESUS EN COMPAÑACO AITA*

Agustin Cardaberaz ec *esqueñtcen*,

*ta dedicatcendiena.*

1761. Urtean.

*BEAR DAN BEZALA.*

Iruñean: Libruguille Antonio Castilla-ren Echean.

Universidad de Deusto
Biblioteca

# SACERDOTE JAUNAI JESU *Cristoren paquea.*

IRugarren aldian, Jaungoicoaren Ministro andiac: irugarren aldian, San Pabloc Apostoloarequin esan dezaquet, Zuetara nere centrora bezala, orañgoan natorrela: ,, Ecce tertio hoc venio ad vos. 2. Corin. 15.,,

Zuen diñaco presente, edo Obra berrizco doairic ezdacart: ta ez nator ez orien, edo beste gaucen billa. Era onetan Obra berriac ateratcea, edo asmatcea, da amets oro bat eguitea, edo utsa billatcea. Salomonec esanzuena, munduan gauza berriric ezda: ,, Nihil sub sole novum. Eccles. 1.,, Mundu gucia Obra zarrez, edo Dotore Santu, ta Maisu jaquinsuen Libru ederrez betea dago. Ala Latinez, nola Gaztelaniaz gauza andiac ditugu, ta chit aberatsac gaude; gure Eusquera añ pobre orañdaño izandu badere. Orietatic onena artcea, ta bearrena ateratcea da guretzat lanic, egoquiena, ta consejuric seguruena.

Eznator, ez zuen ondasunen, ezpada zuen anima estimatuen billa: ,, Non quæro, quæ ,, vestra sunt, sed vos. 2.Corin.12.,, Ondasunen zale ez naiz, ta orien bearric ezdet: nere

Universidad de Deusto Biblioteca

guela pobre utſa onen teſtigu ona da. Len Jaincoaren pobre, edo Santuenzat, onguilleac eman, ta ecer izan badet, orañ gogo oñ ere quenduzat. Ez eguiequi, nere Jaunac, ez orrelacoric uſte. Janean, ta jancian, Jaincoac ematen didanarequin, contentu naz, Apoſtoloac berac eſatendigun bezala: „ habentes alimenta, & quibus tegamur, his „ contenti ſimus. 1. Tim. 6. Bacoitzac zuen joia bacar preciatuena indazute niri: ta zuenarequin batean, zuen provechoen anima eſtimatuac indazquidatzute niri; eta beſte gauza guciac zuenzat: „ Da mihi animas; cætera tolle tibi. Gen. 14.„

Zuen, Jaun veneragarriac, Apoſtolo, edo Obiſpoen urrengo Preſonac, ta Jaincoaren Eleizan aurrenecoMiniſtro paregabeac cerate. Zuec Eleizaco Gorputz miſticoaren animac, animen eſpirituac: Izarren artean Eguzquia, Jaincoaren arteco Iſpillua, ta anima fielen bicitza, Jaunac berac dion bezala, zuec cerate: „ Quonian eſtis Presbyteri in Populo „ Dei, ex quibus pendet anima eorum. Judit 8. „

Zuec ceruan, ta lurrean munduac duen eſtadu, ta lecuric altuena dezute. Zuec Jaunaren Suerte dichoſo, ta zorioneco beraren ordecoac cerate. Zuen diñadadea lurreco Erregue



regue gucien, ta ceruco Ainguera gucien gañecoa, ta goragocoa da: bada Ainguerual Jaincoac eman ezdien eſcu, autoridade, ta poteſtadea zuei emandizute, dio San Aguſtin batec: „ Quod datum non eſt Angelis, „ conceſſum eſt hominibus. In Pſal. „ Zuec Jaincoaren beraren Perſona, beſte guizon, edo Ainguеruc ez bezala, eguitendezute: ala Meza eſan, ta conſagratcean, nola confesioac enzun, ta pecatuac barcatcean.

Baldin Jeſu Criſto bera, edo en Perſona, zuen errira etorri, ta len bezala aguertuco baliz, Jaincoa izanic ere, ecin gauza andiagoric eguingoluque, Meza bat, berac eſangoluquean bezala, eſatea, edo pecatari bat abſolvitcea baño. Zuec zuen eſcu conſagratuetan Jeſu Criſto darabiltzute: orregatic gucien artean aldatequean erreverenciaric andiena zor zatzute. Jaincoari berari ematenzaion onra bezala, edo aren antcecoa zuei eman bear zatzute: „ Vide Sacerdotum dignitatem, quod divina ſit: Dei enim eſt re„ mittere peccata: ſic igitur illi honorandi „ ſunt, ut Deus. Theophilact. in c. 20. Ioan.

Ta ala da, Jaunari alabanzac, gure artean: Sacerdoteac munduan onra, ta erreſpeto andiagoric bear bada, gure alde oietan baño eztute: ta emen adiña non? Alacoa da gu-

re provechoen fede, ta legue ona. Oien anima zuen contura daudenetan, Jesu Cristoren odola zuen escuetan, ta zuen cargura dago: eta Abel justu, ta Josef santuarenac baño deadar andiago emangodu: eta orren contu estua zuen biciera, egemplo, dotrina, ta misericordiazco obren gañean eman beardezute: „ Ecce vox sanguinis fratris tui clamat „ ad me de terra. Gen. 4. En sanguis eius ex„ quiritur. Gen. 42.

Eguia da, Jaunac, zuen lan, neque, ta icerdi dichosoen paguric munduan izango ezdezutela. Lurreco ondasun guciac, zuen merito, ta irabacien aldean, oñ peco auts pusca bat dira. Eztago emen lurrean cer uste, ta cer ichiden, ezpada goien ceruan zuen sari justua. Zuen seniparte edo herencia ezta bestearquin batean, ta ez lurrecoa, baicic Jainco guztia bera, berac dionez. „ Non habe„ bunt Sacerdotes partem, & hæreditatem „ cum reliquo Israel... Dominus ipse est hæ„ reditas eorum. Deut. 18. „

O ceñ altura andia dan au! Baña beguira ondo, burua zorabiatu ta erorteco cer peligroan zauten. Altura andian cegoen deabrua beste Ainguerua quin; baña Jaincoac emanciozcan favore ta erregalo gueieguiaz gaizqui bere naiez usatu, ta bea jozuen, ta galduzan. Ar

Ar ezquero janari erregalatuen zale da, dio Jaincoac: „ Cibus eius electus. Habac. 1.„ Eta Sacerdote bat galtcea naiago du beste asco baño. Badaqui zuetatic bat on, edo gaistoa izatea, ascoren salvacio, edo condenacioa dala. Sacerdote bat gueienean, ez beretzat bacarric, ezpada ascorenzat da ona.

Orregatic, nere Jaunac, zuetatic bat Egercicio santuetan irabaztea, ta zuen altura miragarrian Jaincoarenzat seguratcea, ta ona bada, egunoro obe eguitea, da nerequico erri oso bat irabaztea. Ala deritzat, eta esan oidet, Jaunaren onelaco Ministro fiel batec, bere egemplo, dotrina, ta misericordiazcó obraquin, santu ez izanic ere, edo santu izan baño len, gure esaeran milagroac bere errian eguiten dituela.

Bai Jaunac, bai, ta deabruaren damu garri gaistoan, Santuac beardezute izan, ceren Jaincoac ala dion, ta zuen estaduac ala escatcenduen. „ Sint ergo Sancti, „ quia ego Sanctus sum. Exod. 21. Zuen estimacio, ta veneracioac, gucioc Jaungoicoaren deseo-onezaz batean, Santu izateco gogo andi irazaqui batec ematendit. Oñen gañean ozta nago: auts eguiña, edo orren aldean nago: ortcetan anima, esan oidana, ascotan itsusia nago: beste culpari agudoac esaten

Universidad de Deusto Biblioteca

ésatencidana: nere bicia, edo osasuna udañ cartoiezcoa, ta neguan paperezcoa dedala nago.

Baña, orregatic ere Jaun veneragarriac, nere azqueneco asnaseac zuen ondoren, zuequin, zuen artean, zuen billa, zuen oneraco, ta zuen favore eman naiditut. Zuen gañean, San Pabloc ceucan bildurra daucat, zuec beste ascori predicatu, ceruco bidea eracutsi, ta salvatcen lagundu, ta ceroc galdu etzaitezten: „ Ne cum alijs prædicaverim, ip„ se reprobus efficiar. 1. Cor. 9. „

Zuen alivio, ta provechuraco, bada, ta zuen zelo beroaz anima asco salvatceco, Egercicioen bigarren Parte au ateradet, ta ez nere buruz, baicic guizon andien consejuz. Gauza jaquinac dira guztiac. Lenengo Libruchoan animen Bicitza berria asitceco Pausoac emanciran. Egercicioetan berriz, Bicitza ondo asentatu, ta Jaincoaren bidean ondo ibiltcen eracustenda. Orañ Consideracio, ta Afecto oietan obeto aurreratu, ta irauteco anima berotcenda: ondo iltceco, ta zuec Jaunaren ceruco Ministroac bezala, ondo iltcen laguntceco, Egercicio santua, aguintcen, esqueñtcen, ta dedicatcendizutet.

IRA-

## IRACURLEARI JESU CRISTOREN GRACIA.

DAvid penitenteac dio: bere barrenean biotza berotucitzaiola, ta bere Meditacioan sua iratzaquicocitzaiola. Psal. 38 Jaincoaren graciac bere misericordiaz gure barrena arguitcen, ta berotcendu. Arguizco arrazoi fuerte, ta Consideracio indarsuac beti ere obeto anima onean, edo virtutean seguratcendute.

Alere ascotan, edo beti Consideracio luceac eguiteco Cristava ezdago: eta Jaincoac batzuetan biotza arguitcen, ta berotçendu vorondateco afecto, edo gogo bero bici batzuequin, bestelaco arrazoi andiaquin beçeñ ondo. Bata ta bestea Jaunaren ontasunac, berac daquien bezala, gure oneraco eguitendu: eta au berau Santuen bicitzac era ascotara eracustendigute.

Fede, ta biotz oneco gure gende pobrechoenzat afectoz betericaco Consideracio argui ta labur oiec asco servitucodutela deritzat. Orañ baño len Cura batec Pulpitoan gaztelaniazco Librutic, alzuen bezala, bere ardiai iracurtcencien, ta beti provechu andiaz. Maisu, ta guizonic andienac beren Zartcean, oietara biurtcendira: ta orrelacoen consejuz, animen onagatic, neque pusca au nic ere pociq artudet.

Medi-

Universidad de Deusto Biblioteca

Meditacioa luzaro ecin eguindutenac, eguia eder asco, ta laburcho emen idorocodituzte. Gucioc nolerebait, ta nola ezdaquizutela badere, Meditacio, Consideracio, edo Oracio mentala eguin oidezute ascotan. Consideracioaren faltac, dio Jaincoac, mundu gucia dauca galduric: „ Desolatione desolata „ est omnis terra, quia nullus est, qui reco- „ gitet corde. Ier. 12. „ Meditacio au, Escritura sagraduac lecu ascotan dionez, oneraco, ta gaitceraco izanditeque. Gaistoac ere beren gaitceraco pensatcendute, ta sobra, edo gueiegui.

Baña emen diogun Meditacio ona da beñ, ta berriz, edo berriro biurtuaz, zure salvacioraco gauzac pensatcea, ta orretatic biotceco afecto santuac ateratceco pensatcen egotea: eta afecto oriec Libru onetan dituzu. Ezta asco oriec beñ, edo nola nai iracurtea. Munduco gaucetan sarturic dagoen biotz bat arguitu, berotu, ta beraatceco, ascotan, ta soseguz onelaco Consideracioac igaro beardirade.

Gure Jaungoico emalle ona beti on eguiten, ta bere graciac ematen dagoquigu: orregatic ere esatendigu, bear, edo nai deguna, Jesu Cristoren icenean escadiozagula, ta emangodigula: eta Meditacioaren fiña au da:

Baña

Baña cembat bider oracio, edo peticio eguin, edo escatu bear degun, ezdio. Ta ala beti beardegunac bezala, beti escatu beardegu, ta oracioa eguin: au da Jesu Cristoren consejua: „ Oportet semper orare. Luc. 18. „

Beñ, ta berriz, ta ascotan afecto oiec, edo onelacoac bacoitzac bere biotcetic eguin, edo atera bearditu: ta beñ ezpada bestean, gaur ezpada biar arguitu, ta berotucoda: egunoro argui guciago, ta Jaunaren favore andiagoac izangoditu. Beñere Egercicio santu au utci bear ezta: leor, ta otza zaudenean iracurri pusca bat: munduco gauzac burura etorriarren, ezta antsi; equin orregatic: ta ez contentatu aoz iracurriaz beñ, baicic afectoac biotcetic eguin, ta soseguz, ase ase artean aldezun moduan pensatu: eta icusico dezu, cer provechu andia ceregan arquituco dezun.

Orañ Consideracio oriec ceren gañean diran, ta oriezaz nola baliatu bearceran laburcho esangodizut.

Zure erretiro, edo bacarrean, Jaincoaren aurrean jarri, ta escazaiozu bere arguia, ta gracia, berac naiduen frutua Consideracio artatic ateratceco. Egercicio bacoitcean cere burua, edo zuri ondo dagoquizun gauzaren bat, Ispillu argui batean bezala, bereala arquitu, ta Consideracio bacoitcean icusicodezu.

Lenen-

Universidad de Deusto Biblioteca

Lenengo Egercicioan, zure dicharic andiena, ta azqueneco fiñ, edo zori ona, edo nola ceruraco eguiña ceran.

Bigarrenean, fin altu orren contraco etsairic dezun andiena: au da pecatua, alde gucietatic arrigarri itsusia: eta Pecatuaren calteac.

Irugarrenean, Erioaren arpegui illuna, ta eriozaco trance icaragarria: ta Gorputz illaren ispillua.

Laugarrenean, bacoitzaren Juicioco contu estua, eriotzan, ta Juicioan naicodezuna bera orañ eguiteco.

Bostgarrenean, Pecatuaren saria, infernuco pena, ta tormentu beticoetan.

Seigarrenean, gucien Juicioa, contua, ta betico sentencia: edo gucioc gueren Gorputz, ta Animaquin nola Jaunaren Tribunalean aguertu beardegun.

Aita San Ignacioc bere Egercicio gucietan naiduen frutua nola dan, bacoitzac biciera santu batequin bere burua gauza gucietan moldatu, ta Jaincoaren paquean bici, ta eriotza on batequin beraren amorio santuan acabatcea: ala Consideracio oien ondoren, ondo, ta berariaz becala Eriotza onaren gañeco ematen ditudan Egercicio biac, gucien coroa bezala, azquenean datoz. Nic deseatcen dizudan provechu gucia zuc ateratcea, Jaungoicoari nai daquiola. Amen.

JAIN-



## *JAINCOAC GUIZONA CERTAco eguinzuen: edo zure fiñ azquenecoaren gañean, Consideracio, ta Afectoac.*

### LENENGO CONSIDERACIOA.

O Nere Jaungoicoaren Ontasuna! O Misericordia paregabea! O nere Jaun maitea! Zuc bacarric ecerecetic eguin ninduzun, ta Zuc bacarric aldatequean dicharic andíeneraco eguin ninduzun. Onelaco beneficio, edo oneguin soberanoagatic, cembat Jauna, zordizut? Onen fa-

vore

Universidad de Deusto Biblioteca



vore andia Zuc niri eguiteco, cer merecimentu nigan arquitucenduen? Zuc nere bearric ecertaco etcenduela, ni añ andi eguitea! O nere Eguillea, ta nere Onguillea! ¡O Jauna! Nic beſte On, beſte fiñ, beſte dicharic, Zu cerori baicic ez iduquitcea, nai izandezu! Zu nere Jaungoico bacarra, Zu ontaſun cabu gabea: Zu Jaquintaſun neurri gabéa. Zu, nere Jaun aundia, cera nere atſedena, atſeguiña, ta betico gloria. Zugana, ni zori onecoa izateco, nere gogo, intencio, itz, obra, ta aleguin guciac zucendu bearditut.

Ay Jauna! Munduco beſte fiñ guciac, onen aldean beude iſillic. Quen ortic, bada, lurreco beſte fiñ, edo deſeo eroac: quen nere beguietatic, guizonac lurrean dicha ta zori ona eſan oiduten gucia: bada munduco dicharic eraguiñena, ta gogora alditequean andiena, nere fiñ onen aldean, ſarra puſca bat, edo eguiaz ecerez da. O Jauna! Lurreco gauzac Zurequin cer dute cer icuſi? GucienEguillea Zu cera. Acabatcendiran gauzac, caburic eztuenarequin cer dute, Jauna, cer icuſi. Gueroenean, nere fiñ azquenecoa nere Jaungoico guztia bera da.

Ta Jaun andi au beti icuſi, ta beti alabatceco, berac eguiña nago ni? Bai. Ay ene bada! Ta onelaco bere dichaz conturic eguin ezdue-



ezduenac cer merecicodu? Lurreco ona (ona eſan albadedi, ta ez deſventura) bere Jainco eguiazco On gucia, ta on gucien gañecoa baño naiago duenac, cer merecicodu? Cer criatura, ecer ez utſa, ta dembora guchian, Zu gucien Criadorea betico baño, gozatu naicoluqueanac? Ta orren lotſagaberic, ta lurreco gauzac Jaincoa baño gueiago eſtimatcendituenic iñor oteda? Balanza batean Jaungoicoa, ta gauza billau bat paratu, eta ori artu, ta Zu, nere Jaun, ta Ondaſun gucia utcicozaituenic? Ay, ta cembat, Jauna! Zuc daquizu ondo. Ay ta nic ere ori eguindet?

Ay nere dichagabea! Non zan nere ſedea, ta leguea? Abereac baño abereago eguin naiz. Ceruac, eta lurra enzunezazute: añ lotſagabe, añ itſua izan naiz, non da nere Jainco, ta nere Aita onari onelaco agrabioa eguindiodan! Au eguinduenac cer merecidu? Nere caſtiguraco milla infernu aſco ezdira. Ay nere Jauna, ta zure beguietan cer lotſa daucadan. Ay, ta nola beguiratucodizut? Ametſa, ala eguia da au? Ay! Eguia, ta ciertoeguia! Bada nere bici gucian, Zu ofenditcea baicic eguin ezdet.

Erraz, Jauna, ta arrazoiaz quejazaitez ŋue nizaz, ta niri eſan: Ni onela tratatceco, cer gaitz eguindizut Nic? Ecerecetic atera, ta cerana

rana eguincindudan, eta aldatequean azquen fiñ altueneraco, edo ceruraco: len, orañ, eta beti, nere eternidade guztitic amatuzaitut: eta zuc orrela eranzundidazu? Esquer, ta pagu ori ematendidazu? Zure dicharic andienaren igueli orrela zabiltza? Ay nere itsua! Ay nere zoroa! Ay ta gaitz onen gañean odolezco negarrac emateco, iturri bi, nere beguiac norc eguin litzaquean!

Ay! zurequin det, nere biotza: zurequin nere anima! Ceren onela utci, ta desamparatu nazun, zure quejanaiz. Cer zoraqueria eguindezu? Cer atrevimentu da au onen arrigarria? Jauna, misericordia nizaz. Misericordia arren, Jauna. Nere erremedioa zugan dago: zugan nere esperanza. Zure misericordia andiaz usaeza, niri nere pecatu, ta zure ofensac barcatceco. O norc biotz guztitic, ta ceruetarañoco deadarraz esan, ta barcacioa esca lezaquean! Barcacioa, bada, Jauna, piedadea nizaz, barcacioa.

Ea ceruco Ainguerua, ea Santuac, laguntzadazute, ta deadar eguizute: lastima, Jauna, misericordia: Jaun piadosoa, barcacioa pecatari itsu galdu onenzat, ceren cer eguinduen, jaquinezduen. Ceruetaco Erreguiña, Jaincoaren Ama, Virgiña Ama, ta pecatarien Ama gozoa: bitarteco jarrizaite, escua arrezazu, eta ondoen daquizunac bezala, zure Seme maiteari barcacioa neretzat escazaiozu. Ea Santu, ta Ainguera guciac, zuen Erreguiñaz batean: barcacioa, Jauna, anima galdu onenzat.



Ea nic ere zuequin batean animatu, ta deadar eguindezadan. Misericordia, Jauna, nizaz, ceren nere culpac ezagutu, ta Zu aimbeste ofendituaz damudedan. Ea, Jauna, ez nic merecidedan bezala, baicen zure Ontasunac escatcenduen bezala, nerequin eguizu, ta indazu arguia, Zu billatu, ta arquitceco. Ceruco guciac esan bezate: fiat, fiat: izan bedi, ta eguin bedi. Zure aotic, enzundezan, Jauna: izan bedi: ta zuc naizuna eguin bedi. Amen.

### BIGARREN CONSIDERACIOA.

CEruco glorian Jaungoicoaren edertasuna beti icusi, ta gozatceco ni izanic: dicha ori izangodedan, edo ez, dudan nago. Ay! Ta ori baño gueiago! Cierto nago, icusi, ta jaquiñaren gañean, ori galdu nai izandedala! Erreal guchiren promes bat, orren erraz galduco eznuen, Jauna, nola zure gloria gozatceco Zuc niri eguindaco promes andia galdu nai izandedan! Baña cer diot erreala?

Universidad de Deusto Biblioteca
lac? Champon gaisto bat orren erraz emango eznuen. Ta champon bat, Jauna, Zu baño gueiago éstimatudet? Ta quarto bat galtcea, gueiago nic sentidezadala, Zu, nere Zorion gucia, galdu izana baño.

Ay au lana! Ta cer daquit beñ galdua berriz cobratucodedan! Edo nere zoraqueriaz fin dichoso ori betico galducodedan! Ta nere onra galdua cobratceagatic nic cer eguitendet? Baña, cer eguiten ezdet? Ta nere animaco calte onen andia icusi, ta jaquin nere Jaungoicoa galdudedala: ta cer eguitea convenico da? O nere Jaun ona: Zu arquitceagatic gucia galducodet pocic. O zorioneco gucien Ondasuna! Prest nago, Jauna, munduco ondasun, interes, atseguinac, ta nere onra, ta bicia galtceco, Zu bacarric irabazteagatic.

Ah! Beste gauzac billatu, ta eriotza arquitcendet: Zu billatu ta nere bicia arquitcendet. Zu bacarric, Jauna, Zu, ta ez besteric, nere eguiazco onra, ta gloria bicia cera. Zu bacarric nere guztia, ta guztizcoa cera. O Jauna: zurequin dagoena, ceñ aberatsa dan: eta Zu gabe, munduco aberatsena ere ceñ apoita galdua dan! Ez, Jauna, lurreco gauzacgatic, orañdaño bezala, Zu galdu nai etzaitut. Itz au cumplitceco, ta biciera berri santubat eguiteco, arren indazu gracia. Amen.

IRUGAR-



IRUGARREN CONSIDERACIOA.

O Ceñ dichosoa dan Justu, ta Santuen suertea, bada Jaincoa beti icusten, ta gozatcen daude aren glorian! Au nolabait arrasteatceco, contu daguidan, Ceruco Cortea, eta an Espiritu, edo Anima zorionécoac gloriaz, ta contentuz beteric icusten nagoela: guero fedeaz beguiratucodet, ni aien lagun izateco, ta aien artean egoteco Jaincoac eguin ninduela. O zorionecoac! Mundu galdu onetaco ondasun guciac baño cembat gueiago zuen dichazco suerte orrec baliodu? Lurreco Erregue gucien aizezco anditasunac eguiazco zuen orren aldean, cer du cer icusi? Ta orañ zuec cer deritzatzute, zuequin batean or egoteagatic batec eguinlezaqueala? Emengo neque, ta aleguin guciac, eguiaz ecerez dirala, arrazoiaz esangodidazute.

Zuec bada ondo daquizute, Jaincoac niri eguindidan mesedea: eta nic naibadet, betico zuen lagun izateco eguiñic naucala. Ta dicha au cembat nic estimatu bearnuen, ta estimatu beardet? Esazute. Baña ay nere dicha gabea! Estimatu bearrean, ori añ erraz galdudet! Ta ez Erregueen, ezpada Satanas--en esclaboen suertea, zuena baño naiago izandet! Suerte batetic bestera orrembeste dijoa-



la,

Universidad de Deusto Biblioteca

la, nere pecatuaquin dicha ori galdu, ta desdicha gucia artudet! Cembat aldiz au enzundet, ta aleric sentitcen ezdet!

Ta nic eraqueria ori eguin, ta penaz iltcen eznaz? O itsutasun arrigarria! O arriac baño sortuago ceran nere anima! Cer eguindezu? Esazu, albadezu. Cer eguindezu? Baña nere zorigaistoa, ecin adieraci! Ay cer utci, ta cer artudet? Cer galdu, ta cer irabacidet? Arrizaitezte: ceruac, eta izutuac bezala zoraqueria oni beguirazaiozute. Ceruco bidean zoazten guciac ondo icusi, ta esadazute, nere damugai onen antcecoric, edo dolore onen pareric otedan?

## LAUGARREN CONSIDERACIOA.

EA bada, nere Eguille, ta Jaungoico ona! Contuetan sargaitean. Nigandic cer naizu? Nic Zu alabatcea, servitcea, ta amatcea? Nerea da dicha. Ori Ainguerúen oficioa da. Ta ni lurreco ar, edo arrastacaco abere au onra orretaraño igo nainazu? Eguiteco andia, ta zor justua da ori. Baña, Jauna, dacuscun, orandaño nic cer lan eguindedan. Ainguerúena, ala aberatsena? Ay ene! Abereena baño ere gaistoago: bada, demonioen oficioa zurequin eguindet! O zure pacien-



paciencia neurri gabea, ta nere zoraqueria eragabea! Nola sufritunazu? Zuc, ceran bezala, Jauna nerequin eguindezu.

Nere tratu, ta bicierac Ainguerú, ta Santuaquin izan bearzuen, ta deabruaquin izanda. Nere bici guztia zu ofenditcen igaroda. Ay! nere desdicha gucien ondarretic nere Jaincoari deadar eguingodiot: Ea misericordien Jauna, nere deia enzunezazu. Ez arren nere culpai beguiratu. Oriei beguiratcen badiez, galdua naiz. Nor zuri itzeguitera atrevitucoda? Zure Ontasun, ta piedade ondo gabe orri beguirazaiozu: ta nere culpaz sartu, te ondaturic nagoen leizondo onetatic ateranazazu. Emendic aurrera, ematendizut itza, nere biciera berri gucia, Zu alabatcea, Zu biotz guztiaz servitcea izangodala.

## BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

NEre anima, cer contu da au? Nere azquen fin, edo ceruco gloria alcanzatcen ezpadet, certan gueratuconaiz? Jaquiña da: betico infernuan. O cer fin bi, edo cabuac! O ceñ elcarren urrutiac! Ta bietatic bat beardala! Fin zorionecoa nere pecatuaz galdudet, ta barcatuzadan jaquin ez. Bandera destolatuaz, ajolacabe, corrica, ta egaca

egaca bezala, nere desdicharaco ibillinaiz. O cer eguindet? O Jesus nerea! ta nere buruá galtceco ceñ gogotic ibillinazan! Fin oien artean orrembeste dijoa: ta bata, edo bestea izan bearda: ta ni añ erreparogabe, besoac zabaldu ta nere calte, ta betico eriotzara joan izanaz! Ay, Jauna, ta cembat bider, ori ondo daquidala!

Ta orañ nizaz cer izangoda! Nere culpac barcatuac diran badaquit? Ez. Bada nola nagoque soseguz? Nola ceruraño deadar eguitenezdet? Cerua seguru baneuca bezala bicinaz? Ay! Cerua, edo infernua izan bear, ta cer izangodedan jaquin ez! Cerua galdu, ta infernuratcen banaz, cer izangoda nizaz? Urte, edo dembora guchiren buruan, cer suerte dedan, jaquingodet. Nola soseguz ló eguindezaquet? Nola lurreco gauzaric nai, edo billadezaquet?

Cer? Peligro onetan nagoela, munduan cerbait baliatu, paper eguin, cerbait jaquin, atseguin artu, jan, ta edan, guizonai ondo iriztea, onra, ta estimacioa gogoan artucodet? Ay! Cer peligrotan nagoen, ondo beguiratcen ezdet! Ah nere Jaungoico! Nere desgracia guciaren berri Zuc ondo daquizu. Misericordia, Jauna nizaz: ta arren zure argui bici bat indazu, ceruco ta infernuco eternida-

da-


dadeaz icaratu, ta bici berri bat ardezadan.

*SEIGARREN CONSIDERACIOA.*

O Nere Jaungoico maitea! Zure gloria betico nic izandezadan, Zuc cer eguin ezdezu? Ceruac, Eguzquia, ta aimbeste gauza onetaraco eguinciñituen: lurrean janaria, jancia, ta beste beardiran gauzac emandizquidatzu: Aingueruac Mandatari, ta lagun, Santuac bitarteco, eta oriequin batean inspiracio, edo barrengo argui, ta deseo onac, ta campotic egemplo, conseju, ta mirari andiac. O Jaun amorosoa! Ta nor, edo cer naiz ni, cerura ni eramateagatic Zuc orrembesteco eguiteco? O ta ni ara joateco Zure Ontasunac cembat eguitenduen! Ta ay nic ceñ guchi eguitendedan!

Criatura guciac deadarrez dagozquit: nere animaz beguiradezadala, nere fin zorionecoa billadezadala: eta ni lotsaric gabe guciari añ gorra! Gauza guciac, Zu nic amatcea, naidute, otseguiten, ta laguntcendidate: baña ori eguin bearrean, ni oriezaz gaizqui baliatu, ta orietan nere fin, ta zoriona balego bezala, Zu ofendituzaitut. Ay cer esquer gaisto itsusia! Barcazadazu arren, Jauna, ceren itsu jaquiñez bat izandu naizan: nere be-

guiac

guiac ondo argui itzatzu; Zu obeto ezagutu, ta lurrean icustenditudan criatura gucietatic zugana zucen igonadin.

Universidad de Deusto Biblioteca

### ZAZPIGARREN CONSIDERACIOA.

JAincoac nere salvacioa aimbesterano deseatudu, non da bera Guizon eguin, ta Gurutce batean, ta lapur biren artean bere odola, ta bicia desonra, ta pena andiaquin emanzuen. O nere Jesus gucizco maitagarria! Ta amorio onegatic nic cer zordizut? Ta zugan ori icusi, ta nere burua salvatceagatic cer eguindet nic? O! Cer eguin? Aleguin gucia, nere anima galtceagatic. Dacuscun, bada, oran, eguiteco au norena dan, edo nori, ta cer dijoaquion. Ni salvatcean, Jaincoari cer dijoaquio? Ta niri cer dijoaquit? Ay Jauna, ta cembat niri dijoaquidan! Guztia, ta izanal gucia. Buru, ta fede gabe ibillinaz. O Jauna, ta nere beguiac arguitcenbacindu, nic ori ondo icusteco, ta orandañoco calteac ezagutu, ta aurrera, zuc naizun bezala, nere salvacioa, bicimodu santu batequin biotz guztitic billatceco.

Ea bada, lurreco gaucetatic bereala, ta betico despeditu naidet, nere azquenfiñ au alcanzatceco laguntcen ezpadidate. Ló eguiteco



teco dembora ezta au, baicic neregan biurtu, ta contuz ibiltceco. Zuri, nere Jesus ona, jarraitu beardizut. Zure Biotz guciaz nere salvacioa naidezu: bada nic ere naidet: ta mundu gucia galduco badet ere, orrequin irten beardet.

Zu, Jauna, ni salvatceagatic, desonratua izanciñan, bada ona niri ere edocen desonra eramateco prest, ta pocic, condenatu eznadin. Zuc pena, ta dolore andiac igarociñituen: ona bada ni ere Zuc naizun guciraco. Beste gaistoric nai ezdet, zuri gusto ematea baicen: lurreco gaucetan consueloric nai ezdet, baicic bacarric zugan. Zu cera, ta beti izan beardezu nere Aita, nere Jaun, ta Jabea, ta nere ondasun gucia.

### ZORTCIGARREN CONSIDERACIOA.

O Nere Jaungoicoa! Zure gloriaco fin au seguratceagatic Santuac cer eguinzuten? Ta nic cer eguindet? S. Agustin batec, ceruraco Jaincoac eguinzuelaco mesede au cembat estimatcenzuen? Lurreco gauza, ta criatura guciac ecertan etceuscatien. Ta S. Pablo batec? Diranac basa edo cimaurra bezala: argatic lurrean bicizala, bere tratu, edo conversacioa ceruan ceucan. Ta bitartean

tean ni dichagabe au bicio, edo pecatuen lo-
ian sartua, ta ceruco ondasunaz añ aztua! Bes-
te batec au eguiten balu, nic cer esangolu-
que? Buru gabe, ta zoro anditzat iduquico-
nuque.

Bada ay nere itsua! Bestec gaizqui eguin-
goluqueala juzgatceco diña buru badet, ta
nere gaitza icusteco diña ezdet! Cer naidet,
bada, edo cer estimatcendet? Nola, edo cer
da au? Jaincoac bere Seme eguin nai nuela,
ta dicharic andien onetara combidatcen nau-
ela: ta nic Satanas-en esclavo izan naiagode-
dala! Alafede Erregueren Seme izatera dei-
tuco banindute: cer contentu, ta poza? Ta
ala izate arren, edoceñ neque onzat artuco-
nuque. Bada Jaungoicoaren beraren Seme
eguiaz izate arren, ta Jesu Cristoren glorian
eternidade gucian parte iduquitcearren, cer
nic eguitea ondo izangoda?

Baña orañdaño cer eguindet? Ay ta gloriaz,
ta onraz betericaco nere fiñ ori ceñ guchi
estimatudedan! Badirudi, fedeco eguia an-
di au sinisten ezdedala: ta amets, edo ipui
bat bezala ori gucia artcendedala. Ah! Nere
obretan beñzat ala eracustendet! Ez, ez, ne-
re Jauna, Zuc eracutsitaco eguia au ondo pi-
satu, ta berriz, ta berriro onetan firmetu nai-
det. Ea bada, contu, ta beguira ondo: Jain-
coac



coac bere Seme eguin, ta beti izateco, nau-
ca ni? Bai. Dembora etorricoda, ta laster ce-
ñean, orañ ni bearbezalacoa banaiz, Aingue-
ru, ta Santuaquin batean, atseguin, conten-
tu, ta gloriaz beteric Jaincoa gozatcen egon-
go nazan.

O egun dichoso ta zorionecoa? Ta orren
dicha andiaren beguira nago? Bai, ta ona ba-
naiz, aguinduric seguru daucat. Ta nic ori
billatcea, ta gozatcea naidu? Bai. Ta ori al-
canzatcen ezbadet, condenatu, ta infernuco
tormentuetan egon bearcodet? Bai. Ta orre-
gatic ere ajola gabe ló eguitendet? Ah! Nere
etsaiac ori eguiten ezdu, ta nic bai? Nondic
infernura ni eramango nauen errebentatcen,
edo deseguiten dabill: eta ni, ez nola nai, lò
pisuan, orrez azturic; ezbada auno eguiten,
ta iltcen aimbeste urtean, infernura cierto bo-
ta, ta ondatcen nauten deseo, ta gusto char-
rac cumplitcearren!

O arrigarrizco desdicha paregabea! O Jau-
naren piedade onetan, ta onela gordenauena!
Bada calte, ta peligro andi ori quendu, ta
cerua irabazteco cer eguin beardet? Santuac
cer eguinzuten? Munduarenzat, eta been-
zat ill: nequeac, penac, desonrac, tormen-
tu, ta eriotzac pocic ceruagatic artu. Dem-
bora guchi batean, bada, orobat cergatic nic
ere

ere eguingo ezdet ? Ay Jesus guciz ona ! Argui andi bat nere biotcean indazu : zure indarrezco gracia betor, Jauna, zugatic mundu gucia utci, ta nere burua ucadezadan, onra, ta gustoenzat illa bezala, zuretzat bacarric ta zurequin, zure gracian beti bicinadin. Amen.

Universidad de Deusto Biblioteca

## PECATUEN GAñEAN: EDO PECATUA berez, ta beregan cer dan, ezagutceco Consideracioac.

### LENENGO CONSIDERACIOA, *ta afectoac.*

CErtaco Jaincoac eguin ninduen ezagutu, ta igaro beardet, nere azqueneco fin, edo dicha onen contra nic cer eguindedan icustera. O nere Jaungoicoa ! Cembat pecatu, Jauna, zure contra eguinizanditut! Ta baldin culpa bacar bat icara eraguiteco sobra bada : cer izangodira aimbeste, ta añ pisuac, nola nereac diran ? O nola carga eraguin baten guisan, guciac ondatcen nauten! Milla errota arri nere lepoan lotu, ta ichasoaren erdian botaco banindute, cer pena, cer naigabea artuconuque?



Nere burua dacust, Jauna, zure aurrean, ecin contatu ala pecaturequin, ta arri andi guciac baño gueiago pisatcendute, ta ya infernuco ichaso cabu gabean ondatcen naute! Ay nere Jaincoa ! Cargadi pisu onetatic nola libratu, ta gora igonaiteque ? Quen arren, Jauna, zure amoreagatic, ta nere pecatuen soca, ta amarra nastu oiec ascatu, ta autsi itzatzu. Ay ta nere animaco catea oiec puscatu, ta deseguiñic noiz icusicoditut ? Nere biotceco atseguiñaz noiz esangodizut ? Nere loturac urratuditutzu, Jauna, ta nic alabanza, ta esquer onen Sacrificio emangodizut?

Ea, Jauna : izan bedi laster : bereala, bertatic libranazazu, zure izen santuagatic. Baldin Zuc laguntcen ezbadidazu, ecin libratu, ta Zugana igoconaiz. Misericordiazco Ontasuna bera cera : zure escu indarsu ori laster indazu : bestela galdua naz ni. O ceñ estu, ta cer itotceco zorian nagoen! Ay Jauna! Trance onetatic libratcen banazu, desdicha onetara gueiago munduco gauzacgatic ez ni biurtu. Zure misericordiac echedendit, ta ez alperric, ezpada ni libratceco. Ea bada, penitenciaco bidera beñ edo beñ gaitz onetatic atera nadin, zure gracia indazu, Zu gogotic billatceco, ta biciera santu batez arquitceco.

Universidad de Deusto Biblioteca



ERi, edo gaſo triſte batec cer naigabea izangoluque, bere burua leguenez, edo leparaz, ta gaitzaldi guciaz beteric, ta biotceraño co puñaladaz joſiric icuſico balu? Eri au nor da? Ni: bada burutic oñetara guciac lepraz, ta gaitcez betea nago. Ay nere anima triſtea! Ezdacutſu, nola zauden? Zure pecatuac nolacoa, eta cer peligro andian paratuzaituzten icuſten ezdezu? Nere buruaz ni erruqui ezbanaz, nor izangoda? Caleco edoceñ zacur oguei edo berroguei eſtocadaz joſiric icuſico banu, laſtima emango lidaque: ta nere anima orrela joſi ta galduaz laſtimaríc ezdet? O gaitz gucien eraguiñena! O modorra gucien piſuena!

Nere Jaungoicoa, au cer da? Nere Erredentorea, Zugana biurtcen naiz. Eri bat, cembat eta etſiago dagoen, ambat obeto Medicuaren jaquintaſuna eracuſtenda. Beſte aſco baño, onelaco eri bat curatcea, onra andiago da. Nere Medicu bacarra, Zuc ni curatcea, zure gloria andiena da. Nere gaitza baño andiagoenzat ere zure Biotceco botican, ta zure llaga etan erremedio ſeguruac dituzu. Zure odol precioſoaren Jaincozco balſamo orren tanta bat nere gañera betor, Jauna, ta eguiña dago guztia: nere anima bereala ſendatu, ta garbi garbia guelditucoda. Onetaraco añ liberal, ta lurreraño ugari iſuricenduen. Tanta bat arren niri indazu. O cer gogoa, cer anſiac ori artceco dauzcadan!



Ay Jauna! Ta baldin Zuc cerorrec badiozu, pecatu barcatuen ere bildur izan bearguerala, edo orien bildur gabe ez gaudela: nereac barcatuac diran jaquin gabe, nola bildur izango eznaz? Ta are gueiago daquidala, ichaſoco ondarrac baño, nere pecatuac gueiago dirala? Ay bildur naiz, ta are bildur gueiago iduqui nainuque! Ay nere pecatuen, ta infernuaren bildur naiz! Ea bada, Jauna: Zu eſcas, ta urri etcera: ta ondo eſcatcenzazun gucia eman naidezun, ta ematendezu. Nic zure icen ſantuan erremedioa eſcatu ezquero, ſeguru nago: ecin ucatuco didazúla. Sendanazazu, Jauna, ta ſalvanazazu.

### IRUGARREN CONSIDERACIOA.

BAldin Perſona ofenditua cembat andiago dan, ofenſa ere andiago bada: Ay nere, Jaun andiena, ta eguiaz Jaun bacarra! Nere pecatu, edo zuri nic eguindaco ofenſac ceñ andi arrigarriac izangodira? Au obeto, edo

edo nolabaït zuc aditceco, aldezûn Ondaſunic aundiena zure erara penſezazu: doblaz areago, ta andiago Ontaſun ori berriz ta aſcotan eguizu. Lauſo, edo pits airean, ta ur tanta ichaſoan diran baño gueiagotan, eta aſcoz andiago Ontaſun andi ori dala. Jaquizu bada, orañ, Ontaſun zuc penſatu al ori gucia, gure Jaungoicoaren Ontaſun, ta Aunditaſunaren aldean, ecer ezdala, ceren Jaincotaſuna fiñ, edo çabu gabea dan. Santu, ta Ainguerü guciac jaquin, ta alcanzatcen duten gucia, Jaunaren aldean beti chit guchi da, ta izangoda.

Ta nere Jaun orren guztizco Ona nic ofenditudet, ta añ aiſà, ta aimbeſte bider? Bai. O nere itſua! O cer gaitz eragabea eguindedan! O ſeculan orrelacolanic eguin ezbanu! O nere Jaun guztiz Ona, ta Ondaſuna bera! Damuaren damuz cer eſan, ta cer eguin ezdaquit. Zu ofendituaz, Jauna, damudet biotz gucitic: ta ez infernuaren bildurragatic, ta ez cerua galduagatic, ezpada zure Ontaſun fin gabeagatic, det damu. O amorezco damu garbi edo naſgabe, zure Ontaſunac aimbeſte nai, ta eſtimatcenduena! O amorez ill arterano nere biotzaren erdian, ta beti nic ori banu! Ah Jauna, zure Ontaſunagatic niri ori indazu. Bada nigandic ori naizu: nic zu-



zugabe ecindet, ta zugandic beardet. Zure Icen ſantu, ta amorezco Ontaſunagatic, amorezco damu ori indazu. Pecatua illi bedi, ta ni ere bai pecatuarenzat: munduco gaitcic andiena bezala nere biotcetic ſeculaco quen bedi, ta zure gracia nigan beti bici bedi. Amen.

### *LAVGARREN CONSIDERACIOA.*

LUrreco chingurri, edo ar chiqui batec, buruaz cerurano allegatcendan Gigante batequin cer du cer icuſi? Jeſus, ta cer bidaſtia, edo diſtancia! Orañ bada nigandic Jaincoagana cembat dijoa? Ni cer naiz? Auts puſca bat: lenago ecer ez: ta laſter arr-en janari, ta lur biurtuco naiz. Ta auts puſca bat Jaungoicoaren Aunditaſuna ofenditcera, ta gaizqui tratatcera atrebidedilla! O! o! Nic cer eguindet? Ta ni onela ſufritcean, Zuc, Jaun andia, cer eguindezu?

Baña ay! Lurreco autſari bezala, nere buruari beguiratcean, meſede gueiegui eguitendiot! Pecatuagatic ni cer naiz? Ecerez baño ere guchiago: infernuco penac eramatera obligatu, ta Satanaſ-en catibu eguiña. Ta Santu, ta Ainguerüac adoratcenduten Jaunaren Mageſtadearen contra ni atrebitu naz? O! Aimbeſte milloi Ainguerü, ta Santuen erdian,



dian,

Universidad de Deusto Biblioteca



dian, edo gañean, Jaun aundia, Zuri beguiratcendizut: Zure Mageſtadea icuſi, ta guciac icara daude. Zure Ontaſun, Juſticia, ta Poderea icuſi, ta beren aleguin guciaz alabatcen zaituzte.

Oriec diranac ondo jaquiñic, Zuc merecidezuneraco, millagatic bat ecindutela deadarrez beti diote: SANTU, SANTU, SANTUA da EGERCITUEN JAUNGOICOA: Bendicioa, arguitaſuna, eſqueronac, onra, ta virtutea izan, ta emandaquiola Jaungoico guciz Santu, juſtuari, fin gabe andiari, ſecula gucien ſeculetan. Amen. Au eſan, ta Jaunaren aurren auſpez jartcendira, ondo icuſiric aien gucien eguiñala baño gueiago beti mereciduela.

Orañ aien aldean niri beguiratu, ta nere ecerez, edo autſa icuſtendet: ta ah! Aiec Jauna, ala onratcenzaituzte: eta nic Zu ofenditu, ta munduco gauzaric billau-ena baciña bezala, oñ azpian erabillizaitut! Jauna, arrituric nago, ta cerzaz gueiago arritu, nic ezdaquit: edo ta zure Ontaſun, ta pacienciaz, edo ta nere lotſagabeco atrebimentuaz. O nola lurpetu eznazu, edo infernuan ondatu? Nola ſufritu, ta echedendidazu? Baña ez ori bacarric: ni ſufritcea baño are gueiago eguindezu: bada zure amorioaz otſe-



otſeguin, palacatu, ta erregalatunazu: Zugana biurnadilla, ta artuconazula erregutuaz niri deitu, ta eſandidazu.

O nere Jaun amoroſoa! Ta zure amorez nola ni deſeguiten eznaz? Seculan infernuric ezbaliz ere, Zu ofendituaz damudet, ta damucodet, ta beti damu beardet: Eta Zu ceranagatic, ta ceren añ Ona ceran damudet Jauna: ta mũduco gauza guciacgatic ezdet nai zure ofenſaric eguin. O Jainco, Ontaſun guciz miragarria! Ta nola ſufritunazu ni? Aimbeſte deſonra, ta alaco deſacato itſuſiac nola ni bezalaco ar billau bategandic eramandituzu?

Ainguerauac, onen gañean cer diozute? Jaunaren Ontaſunaz, ta nere lotſagabetaſunaz cer deritzazute? Zuec bada, zuec beti alabezazute: onra, ta gloria ſeculaco nigatic emaiozute, eta Jaun 'oni neretzat culpa gucien damu, ta biotceco ſentimentua didala eſcazaiozute. Orandaño eguindedan zoraqueriaz, ta nic eguinditudan pecatuaz, nerau nago arrituric. O! Nola nic ori eguinezaquean! Ta Ainguerauac beti aimbeſte eſtimatcen, adoratcen, ta amatcenduten nere Jaungoico guciz ona, aimbeſte bider nic ofenditudet? Ta Jaincoac bera ſervitceco emandizquidan aleguin, ta ſentiduaz, bera ofenditceco baliatunaz? O miñgañ dichaga-



be

Universidad de Deusto Biblioteca



be Jaunaren contra itzeguindezuna! O escu madaricatu gaizeguilleac! O zorigaistoco oñ oquer, ta pauso gaistoetan ibilliceratenac! Nere anima, nere biotza, cer eguindezu?

Ay nere Jaincoa, ay! Norgana biurnaiteque, ezbada zure Ontasun, ta paciencia andiagana? Ea Ainguera, ta Santuac, barcacioa neretzat escazaiozute: Ontasun onen berri zuec ondo daquizute. Barcacioa, Jauna, barcacioa, ta paqueac betico. Zu servitceco, ta amatceco ematendizut itza: nere gorputz, ta animaz nere caltea orañartean billatudedan baño, ascoz gueiago, ta obeto Zu billatu, ta amatu naizaitut. Emendic aurrera zugan beti, ta ez bestetan nere memoria: zugan, ta zure eguia andi santuetan nere entendimentua: Zugan, ta Zu beti amatcen nere vorondate gucia: zu alabatcen nere mingaña: zuri jarraitcen nere oñac: Zuc naidezuna, edo obra onac eguiten nere escuac. Alabiz, Jauna, ta ala beti eguiteco zure gracia indazu.

## BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

ZUc, Jauna, ecerecetic eguin, ta naizan, ta dedan gucia Zu billatceco emandidazu, ta beti ematenzaude. Zure escu podero-



derosotic esequiric nago beti, ta Zu gabe, ez izan, ta ez puntu batean bicinaiteque. Au onela izanic, nola ni Zu ofenditcera atrevitunaz: eta are gueiago pecatuari, gaitcic andienari bezala, Zuc diozun gorrotoa jaquiñic? Arrazoi bacar au sobrazan, pecatu eguin baño len, ni iltceco. Ta arrazoi oni, bear becela beguiratcen ezbanion, nere provechuari edolaric beguiratu bearnion, ta zure escutic ari batetic bezala cincillic, edo esequiric nengoela.

Torre altu batetic, ta ari batetic esequiric guizon batec banenduca, bera ofenditcera atrevituconinzaque? Ez: ez eguiequi, icusiric, ceñ erraz ari ori arc utci, ta milla pusca eguingonintzaquean. Ta añ cierto daquidala, Zugandic cincillica nagoela: Zu gabe, ez izan, ta ez ecer eguindezaquedala, ta infernura erorten añ erraz Zuc utci-nazaquezula: ta ez erorteco Zuc bacarric naucazula: orregatic ere, Zuri aimbeste ofensa eguitera, lotsa, ta bildur gabe, ni atrevitu izan naiz?

Ori baño gueiago: nic ondo daquidala, ambeste Zu sufritu, ascotan, ta chit asco barcatudidazula: ta au gucia nic icusi, ta orregatic ere, berriro Zu ofenditcera atrevitunaz? Ta Zuc ori guztia ere sufritudidazu? O nere Jaun guciz ona! O ceñ ona, ta gozoa Zu,

ta

Universidad de Deusto Biblioteca

ta ceñ gaiſto itſua ni! Zure ontaſun onec eritcen, ta movitcen nau, Jauna, ta orregatic nere culpa guciaz damudet. Ez arren Jauna, gueiago Zu ofenditcen ni utcí: ez Jauna, ez: ill lenago milla bider. Zure arguiaz, ezagudezadan ondo, nola zure gracia, ta eſcutic beti nagoen eſequia, edo cincillic: betor emendic, Jauna, nere biotcera zure bildur ſantua, penitencia eguiazcoa, ta bíci berri ſantu bat eguiteco. Amen.

## PECATUAREN GAñEAN BESTE CONſideracioac, eta Jeſus Gurutceficatuarequin Coloquio, edo afectoac.

O Nere Jeſus maitea ta nere Salvadorea! Ay! Penaz, ta damuzco ichaſo illun bat eguiñic, nere culpa, ta zure ofenſacgatic egon bearnuque nic! Ay! ta orrela banengo! Oriec icaraz bete, ta caſi deſconfiatcerano ondatcen, ta itotcen naute! Ichaſo onen jaſa deſeguin, ta eraſo andi onetan, nora biurtuconaiz, ezpada zure Gurutceco portu ſegurura? Nere pecatuen eſturac bildurtcen nau; baña Zuc ondo artuconazula jaquiñac animatcen



nau. Zure penac bildur ſantuaz batera, poeſperanza ematendidate: bada guciac, ta pocic zure amorio eſanal baño andiagoac, ni ſalvatceagatic, artu, ta eramancituen. O Jauna! Gurutce orretan cerc joſierazocinduen? Pecatarien amorio, ta erremedioac.

Beraz pecatarien erremedioa naidezu? Bai. Ea bada, Jauna: ona pecatari andi galdu bat: erremedianazazu: bada fin onetaraco Gurutcan icuſiciñaden. Ta ay ceñ erraz obra andi au Zuc eguingodezun! Ea, nere anima triſteari eſaiozu: Zure pecatuac barcatcenzaizquitu. Ta itz onequin, Jauna gucia eguindezu. Neré eſcuan balego, bereala eguiña legoque. Ta bada Zuc diozu, pecatariac edoceñ orduz, bere pecatuen damua duenean, oriezaz gueiago acordatuco etcerala. Zuc, Jauna, ori ta gucia nerequin eguin beardezu, ta damu ori ere zuc eman beardidazu. Ah! Ceñ erraz ur garbia ardo gozo biurtucenduen! Añ erraz da, zure Jaincozco ſu beroa nere biotcean irazaquitzea!

Betor, Jeſus nerea, zure Biotceco ſuſpirio: aice ſuabe, ta inſpiracio argui bero bat; nigan ſua irazaqui bedi: ta ni zugana allegatu, ta burnia ſuteguian baño irazaquiago irtengonaz. Eſcua indazu, ta lagunzadazu zure Biotceco amorearen ſutegui biciaren conſide-

ſideracioan ondo ſartceco, ta burnia baño otzago ta gogorrago banago ere, or berotu, ta beraatuconaz. O Sugar amorezco oneç nere biotza nola biguntcenduen! O nere gela nola erazaquitcenduen! Ni pecatutic libratceagatic Zuc aimbeſte eguin, ta nic pecatua naicodet? Ez erren, Jauna, ez: lenago ill naidet. Gorrotoric aldedan andiena pecatuari, zure amorioagatic, betico artcendiot. Ori, Zuc naidezun bezala, eguiteco, ta Zu nere biotz guztitic amatceco gracia indazu. Ez arren, Jauna, gueiago aſerratu: orañdañocoa zure Paſio, ta Eriotzagatic barcatu, ta zure amorean gordenazazu.

*BIGARREN CONSIDERACIOA.*

O Nere Jaungoico, ta Jabe bacarra! Zu añ Jaun andi, juſtu, ta ſantua izanic, Gurutcean orrela joſiric cergatic, norc, edo cercifiñizaitu? Eſangodidazu, Jauna, nere pecatuaegatic. Ay! Nere culpac Gurutcean joſizaituzte? Bai. Oriec orrembeſte tormentu gogor emandizute? Bai. Oriec cabuan bicia quendudizute? Bai. Ay nere Jeſus ona! Ay nere Aita, ta Aitaric onena! Milla bici, albanitu, nic zugatic, ta Zu amorezco, eman bearrean, Zu Gurutcean joſi, ta ill zai-



zaitut? O borrero gogorrac! ô pecatu madaricatuac! O milla bider lenago ill baninz, zuec ez eguiteagatic, ta nere Jainco maitea ez ofenditceagatic! O pecatu nere biciaren eralleac, ta ceñ erio, ta arerio garratzac ceraten, ta nere gorrotoraco beti izangoceraten!

O nere culpac! O zorigaiſtoco nere lanac! Zuec nere Jeſus ona onela tratatu, zuec nere Jauna gurutcean joſi, ta ill, ta ni bicinaz? Au icuſi, ta negarrez urtutcen, deſeguiten, ta iltcen eznaz? O Jeſus nere culpacgatic, ta nere amorez illa! O miſericordia gucien iturri ugaria! Zu ceranagatic, arren barçazadazu: ta nic, Jauna, nic zure graciarequin, nere culpa gucien penitencia, ta oriei dagoquien caſtigua artucodet. Ah gorputz traidore orrembeſte Jaunaren ofenſa, ta nere calte ecarri, ta eraguindidana! Onec eguinduena, onec pagadezala. Nic oni zure bildur ſantua ſartucodiot, ta merecicduen bezala, nic dana gucia, bere griña, ta gogo gaiſtoaquin crucificatucodet. Ea eſclavo billau, ta pecatuaren mendeco orañdaño izançera? Bada orañ zure damu gorrian, caſtiguaren mendeco izangocera.

Zure naiac eguindituzu orañdaño; bada orañ nai, ta nai ezdezula nic eſtutu, ta arra-

ian

Universidad de Deusto Biblioteca

ian ſartucozaitut. Nic janaria taſan, ta Jaincoa ſervitceco bear beardana emangodizut, ta ez gueiago: ta ori ére ez zuri gusto emateagatiç, ezpada Jaincoac aguintcen, ta naiduena eguiteagatic: nic loa ere neurrian, ta ecin gueiagoan emangodizut, ta ez orañartean beceñ laſai, ceren mereci ezdezun.

Ea nere mingaña: nic Jaincoaren bildur ſantuaren frenoa emangodizut, lotu, ta iſsillago egoteco: contuz, ta icuſiagoric, ta ondo beguiraturic itzeguin beardezu: nereeſcuac, zuec ere, obra onac, ta Jaunaren vorondatea eguiteco ezpada, lotuac, ta illac egon beardezute. Ea nere beguiac, ta orietatic datocen, ta biotcean jaiotcendiran penſamentu loiac: zuenac eguindu: zuec, eta beste ſentidu guciac illac bezala moldatu, ta modestiaz moderatu beardezute. Ea gorputz laſaiegui, ta aiſa aiſa zure gurari gaiſtoetan orañdaño legue gabe oitua: ya abereen guiſaco libertade eragabeac joan, edo acabatuciran. Etcera ez gueiago zureaz irtengo. Jaincoaren vorondatea bacarric gucian eguin beardegu. Ay, Jauna, nere igaroco bici galduaz lotſanaiz: propoſitu berri oiec ondo gordetceco zure gracia indazu.





IRUGARREN CONSIDERACIOA.

NEre Salvadore gucia amoriozcoa! Zure Mageſtadeac iñoren ere bearric etzuen. Zu ceregan guciz aberats, ta zugan gucia dezuna cera. Zu Juangoico, ta Eſpiritu aundi, gucia betetcendezuna cera: ta ala Ainguerù guciac adoratcen, onratcen, ta alabatcen zaituzte. Eta Zu ecin illcocerana, ta penaric ecin eramango dezuna izanic: nere animagatic, gorputza artu, ta illcor, edo mortal eguinciñan: guizon eguin, ta tormentuac, Paſio, ta eriotza nigatic eramancenduen. O zure amorio miragarri, eraguiñ, gueieguia! Onegatic bacarric, milla biotz, ta milla bici banitu, gucia zordizut.

O nere Jaun amoroſoa! Ta Zuc niri didazun amorioa onembeſterañocoa izandedilla! O anima nerea! Jaungoico fin gabe, edo infinitoac onembeſte zu amatcea baño, cer gauza andiagoric? Ala fede erraz emendic ateracodezu, zu gauza andia, ta zuc uſte baño eſtimagarriago cerala. Jauna, ta zuc, eta niri onembeſte amorio? Ta au gucia, Zu cerana izanic, ni onela amatu, ta ni zure etſai nintzala. O! o! o mirari paregabea! Onelacoric deſeatcera, edo gogoan igarotcera nor atrevi? O conſuelo pareric

eztuena! Besteac naidutenean consola, ta gloriabitez; baña nic zugan, nere consuelo, ta gloria bicia.

Zure Gurutce orretan eracusten didazun amorioan nere eguiazco consuelo gucia. Or, zure odol gucia emanaz, esatendidazu: orra, anima galdua, arrezazu nere odola: ona ni guztia zuretzat: gueiago bearbaliz, gucia emangonizuque. O liberaltasun guciz eraguiña, ta gueieguia! O nere gloria, ta consueloa! O ontasun, o amorioa! O nere Jesus gozoa! Nic nere burua baño. Zuc ni gueiago amatcen nazu. Zuc ni gatic adiña, noiz nigatic nic eguindet? Zugandic bada, cer usteco ezdet? Zugan seguru daucat gucia.

Nere Aita, edo Amagan balego, fiatuco eznuquean gauzaric oteda? Ez eguiequi. Ta ori, ta naidedan gucia nere escuan balego? Gure esaeran, ecin gueiago escatu, edo desealiteque. Bada, o dicha! Eguiaz ori, ta are gueiago, ta ascoz obeto, nere ceruco Aita, ta graciaren Jabea, nizaz baño ere, zuzaz obeto fianaiteque. Ala fiatcenaz, ceren gueiago, cerdu cer icusi? Zuc niri, nic nere buruari baño, naididazun. O! Emendic aurrera nola confianza guciaz zugana biurtuconazan! O nere gauza guciac nola zure contura utcicoditudan! Ta nerera Zu servitcea,



tcea, ta biotz guztitic amatcea nola artucodedan! O Jesus nerea, ta guztia nerea, ta nere nereago, ni nerau neretzat baño! Munduco gaucetan partetic nai ezdet, ezpada zugan guztia. Zu cera nere partea, ta nere guztia: Zu betico nere biotceco Jaun, ta Jabea.

### *LAUGARREN CONSIDERACIOA.*

O Nere Salvadore, ta amoriozco ispillu ederra! Cembat eta zuri Gurutcean beguiratuago, ambat amorio andiago. O nere osasuna: Zuri beguiratcea ezdezadan beñere utci. Jaten banengo: baña zuri beguira. Bearrean banago: zuri beguira. Lotara banoa: an ere zuri beguira: nere ametsac ere zure amorian beti: ta cicoitz, edo avarientoac ondasunetan nola ametsac eguitendituzten: nic ere ala nereac zugan; ceren munduco urre, ta ondasun guciac baño Zu gueiago, ta obeago ceran.

Gurutcean zure dolore ta penai beguiratu, ta orietan, Jauna, zure amorioa dacust. Zure buru, escu, ta oñetatic, ta gorputz guztitic issurtcendan odola icusi, ta zure amorioa or dacust. Zu erancia, edo soñeco gabe, lotsa andian icusi, ta zure amorioa or icus-

Universidad de Deusto Biblioteca



icuſtendet. Baña ay! Ori guztia amorio añ andia izanic, ur tanta bat ichaſoen aldean bezala da, campotic icuſtendan zure amorioa, barrengoaren aldean! O nolacoa izango oteda zure amorezco, ta ondo gabeco ichaſo ori!

Zure barren, zure Biotceco ſecreto onetan gu ſartcea naidezu: au da ceruco, ta Jaincozco ardoaren bodega: ondo gucizco gozo, ſantuen guiſa orditcen, edo embriagatcen duena. Arren, Jauna, ardantegui onetan ſarnazazu; bada, ni ſartceco, Longinoſ-en lanzadaz, zure Coſtadu, ta Biotceco atea idiquitcea nai izancenduen. eguia da, Jauna, eznaiz diña or ſartceco; baña edolaric ateronz allegatcen uztazu, licore chitez precioſo orren uſaiaz nere biotza animadedin. O cer uſai erregalatua! O nolaco eſpiritu, ta indarra ematenduen!

Zure Biotceco amorio au, Jauna ſu gar bici bat da, ta nere oztaſuna berotcendu, nere biotza erretcen, ta ariñ gora, ceruco gaucetara igotcendu. Zure amoreaz arritcen nintzan len, ceren zure odola, ta bicitza emateraño empeñatu cinduen. Baña orañ gueiago arritcen nau zure barrengo amorio, nere biotza airean zugana daraman orrec. Ta gogoticago ni eracartceco, eſaten za-



zagozquidala deritzat: O! Ni zugatic beñ ill nintzan, baña zure erremedioraco bear baliz, eun bider Ni iltcea, nere Biotzac amorioa du guztiraco.

O nere Jaungoicoa! Ta amorio onegatic cer zor dizut? Cer eguin bear eznuque zugatic. Ceñ obligatua nagoen Zu bacarric amatcera! Ta al-banu, amore infinito, edo neurri gabeaz Zu amatcera! Baña ay! Amatu bearrean; alde gucietatic, ta al-eguin guciaz ofenditu zaituenagatic. nic cer eſandezaquet? Eſquergabe itſuſiagoric ſeculan aditu da? Ori eguinduenac, cer merecidu? O Jauna, cer eguindezu Zuc, ta cer eguindet nic? Nola amatunazu, ta nola amatuzaitut? Ah merecinuen Jauna, criatura guciac nere contra biurtcea, ta vengantza artcea. Eguia da, ta aitortcendet.

Nerea da culpa, ta culpa guciz andia, ta itſuſia. Orañ ezagutcendet, ta guztiaz, Zu ofendituaz, damudet. Milla bicitza banitu, diranac emangonituque, ori deſeguiteagatic. Zu añ ona izanic, Jauna, nic ofenditu zaitut? Biotz gucitic damudet, ta gueiago damutcea nainuque. Ea, Jauna, igaroco gucia deſeguin bedi; ta contu berriac, bici berria, ta ez gueiago pecaturaco bideric. Lenago mundua, ta nere burua galdu, zu ofenditu baño.

BOST-

Universidad de Deusto Biblioteca



BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

O Nere Salvadorea! Ta nola Gurutce orretan isillic zaudela ere, itz eguiten didazun! Ay, ene seme, diozu: Nic zuri onembeste nai, ta Ni enemigoa bezala tratatcen nazu! ta etsai izan banintz, ecin gaizquiago tratatuco ninduzun, ta ecin gueiago eguingocenduen! Cer eguin dizut Nic, ene seme: cer? Nere lotsa, ta penac, nere odol zugatic issuria, icusten ezdezu? Nere semeari bezala, biotza partitcen ezdizu. Ni onela dolorez, urratu, ta odol usturic icusteac? Cer eguindizut? Emen nago, ta ez besteren fuerzaz, ezpada nere vorondatez, ta zure amorioz: dolore oiec pocic daramazquit, zure biotza irabazteagatic: ta orregatic ere lastimatcen etcetera, amatcen eznazu; baicic aborrecitcen, ta ofenditcen? Cer eguin nezaqueanic zugatic eguin ezdet?

O Jesus amorosoa! Zure itz gozoac saietac dira, ta erdiratcen didate biotza! Nic ezdaquit, nola esquerrac eman, ta zure amorioni nola eranzun. Cer esangodizut, Jauna? Dacust, tasa gabeco amorea zure amorea infinitoari zor diodala. O! amorio au indazu! Nere al-eguin gucia, utsa, edo guchi da. Baña guchi au edolaric daguidan, ta fin gabe amazaitzadan: ta guchi nic eguin arren,



ren, beñzat amorio, ta desco gucizço bat iduqui dezadan. Badacust, Jauna, nere amorioa laburra dala, ta orregatic lurreco gauzetan errepartitu nai ezdet, cergatic criaturai ematen zaiena, zuri quentcen zatzun. Batere quendu nai ezdizut, ezpada, dan gucia betico zuri eman.

Bertatic, Jauna, utci naidiot Aitari, Amari, ta aide, ta besteai, ta zugan, ta zugatic ezpada, ezdiet nai bear: oriec, zure amorioa niri eragoztea, nai ezdet. Utci nai diet adisquide, ta ondasunai, ta zugatic baicen nai ezditut. Bertatic utci naidut onrac, atseguin, ta consueloac, ta zugan baicic nai ez ditut. Bertatic nere buruari utci nai diot, ta saldu erosia banintz bezala, nerea izan nai ezdet, ta ez nere burua amatu, zugan ezpada. Ea beguiac ezcerate nereac, baicic Jaincoarenac, arc nai duena, ta ez zuec naizutena, icusteco. Ea mingaña, nerea ezcera, ezpada Jaincoarena, onec nai duena, ta ez zuc naizuna, esateco. Ta orobat, escuac, oñac, gorputza, ta anima zure memoria, entendimentu, ta vorondateaz. Nigan bici bear ezdet, ezpada Jaincoagan: ta Jaincoac nigan beti bici, ta aguindu beardu.

Orandaño, Jauna, nerea bezala, nere erara bici izan naiz: orañ besteric da. Ez naiz

Universidad de Deusto Biblioteca



ya nerea, ezpada zurea. Ea naizuna nizaz, zure gauzaz bezala, eguizu. Ta nola buztin puſca bat eroſi duenac, nai duena orrezaz eguin dezaquean, edo ontciac, edo zoiac, edo bazterrera bota nai badu: ala Zuc, Jauna, nizaz naizun gucia eguin dezaquezu: bada, batetic eroſi nazu, ta zure odolaren coſtuan: ta beſteric, nic nere burua aguindu, ta vorondate oſoaz emandizut. Zure guſtoa bada, onraric nic ez iduquitcea, zure vorondatea eguin bedi: zure guſtoa bada, nere bicia dolorez, ta afrentaz beteric izatea, ta guciac ni aztu, ta utci, ta ecertan ez iduquitcea, contentu naiz, ta zure vorondatea eguin bedi. Zu bacarric nai zaitut: Zu cera betico nere guztia.

## CER DAN PECATUA, BERE AFECTO, edo ondorengo calteetan ezagutceco Conſideracioac.

### *AINGUERUEN PECATUA, TA caſtigua.*

O Ceñ ederrac ciran Ainguеruac, Jaincoac eguincituenean: ta ceñ itſuſiac gueratu ciran pecatua eguinzutenean! Ceñ dicho-



dichoſoac len, ta ceñ deſdichaduac guero! Nola paratucodu anima pecatu batec? Añ itſuſi, añ deſdichadu! O! nere anima nolacoa egongoda; bada aimbeſt, ta añ andiac eguinditu! Ay ceñ dichagabea dan zure ſuertea, anima nerea, bada Satanaſ-en eſclava, ta betico penetera ſujetatu eguintcera! O nolacoa ciñan gracian ceudenean, ta pecatuaz nolacoa gueratuceran! Cergatic cerua galdudezu? Cergatic infernuco penetara obligatucera? Aingueru gaiſtoai jarraitudiezu? Bada bildurzaite orien calteaz.

Jaquizu, oriec tormentu beticoetan daudela, ta atſeden, edo erremedio gabe egon beardutela. Zure zai daude, diotela, nola culpan lagun izanceran, ala penan izan bear dezula. Su andi aietan zure toquia preſtatua daucate: eta ori ceren zuc naidezun, pecatua eguitean, edo lecu debecatuan oña ſartcean. Deadar eguin naidizut, nere anima triſtea: beguira, contu oña non infintcendezun. Falſoan zoaz, beguira: contu, infernuco leiza ondoan eman ezdezazun. Aditcen ezdezu? Añ gorra zaude? Ceruco Aingueru, ta Santuac: deadar nere animari, eguiozute deadar. Ay! ondatcen naiz: itotcen naiz! Ay, Ceruetaco Erreguiña, lagunzadazu. Nere Jeſus maitea, betor zure eſcu amoro-

Universidad de Deusto Biblioteca



amoroso, ta poderoso ori: betor nere Aita, nere Jauna betor.

Ea, zure deadar indarsu bat eguidazu, bildurtu nadin. Arren nere pecatuen demboral gaisto onec murguildu, ta onda eznazala, Jauna: infernuco putzuaren atea nere gañera ichi ezdedilla, seculaco erremedio gabe galdu eznadin. Indazu Jauna, S. Pedrori bezala, zure escu bedeicatu ori, libranadin. Ah! Ta nere desdicha onen gucizcoa dala, orregatic ere casi sentitcen ezdet, ta casi sentimentu gabe escua escatcendizut! Ichasoaren erdian ondatcen arquituco baninz: cer antsiaquin deadar eguingonuque: Ay! Itotcen nago! Ay! Itotcen naiz!

Bada cer? Infernuco ichaso ondo gabea icaragarriago ezta? Ta or betico ondatceco zorian nere burua icusi, ta nola deadarca deseguiten eznaiz? Baña cer diot, ondatceco? Baldin nere pecatuen leizondo izugarri, ta locaitz itsusian nastu, ta itoric banago? Cer eguin al-dezaquet bada? Nere biotceco indar guciaz deadar eguin. Aoa necatcen bada ere, biotza necatuco ezta. Biotza urtu, ta deseguin artean isilduco eznaiz. Salvanazazu, Jauna, salvanazazu: nere culpen locarda onetatic ateranazazu, deabruac bezala, infernuan onda eznadin. Libranazazu,



zu, Jauna, ta ez gueiago zure ofensaric: munduco gauzacgatic, ez Zu galtceco peligroan gueiago sartu. O Jesus, izanzaite nere Salvadorea: zugan daucat nere esperanza gucia.

*BIGARREN CONSIDERACIOA.*

AY Jauna! Ta pecatuari cer gorrotoa diozun! Bada Aingueruac ¡añ ederrac, aberatsac, ta zure doaiez beteac cirala, pecatuagatic etciñen barcatu! Cer izangoda, bada nizaz, gueroenean pecatuan arquitcen banazu? Jaquiña, barcatu ezdidazula. Ta criatura añ altuetan castigu añ arrigarria icusiric, nola ni icaratcen eznaiz, ta are gueiago ni culpaz beteric, ta lur pusca billau bat izanic? Aingueruac ala condenatu; ta badezu zuc Jaincoaren cedularic, zuri barcatucodizula? Ay culpa asco dituzu, ta Jaunaren justiciaren ezpata ya zure contra descargatceco dago! O cer golpe izugarria! Demonioac esan bezate, nolacoa dan.

Bada, ay zure tristea! Golpe ori bera, ta aserre guciaz dator zure contra. Beguira: contuz golpe onetatic igues eguizu: bestela, pecatuan bazaude, Jaunaren aserreac arrapatuco zaitu. Pecatua laster utci, ta orrelaco peligro, ta pausuetatic zoaz igues.

Bai,

Universidad de Deusto Biblioteca



Bai, nere Jauna, bai, naidet igues eguin, ta lenago ill pecatura biurtu baño. Lenecoen barcacioa indazu, ta ez arren, Jauna zure aserrea nere contra descargatu. Zure piedadeari, Jauna, ta ez nere culpai beguiratu. Zure Justiciaren aserrea quentceco, Jesus zure Seme maite, Gurutcearen josiari, beguirazaiozu. Neretzat barcacio esque dagoquizu. Beguira zure Semearen arpegui eder santua, ta nere pecatuaquin itsustua. Ispillu au da nere amparoa. Au beguien aurrean ifinicodizut. Zuc naidezu, ta eder deritzatzu: orregatic bada, orren amoreagatic, escatcendizut, Jauna, misericordia, ta erremedioa.

*IRUGARREN CONSIDERACIOA.*

LApur batec bere lagunac castigatcen icustean, ta are gueiago, bere lapurreta jaquiña dala deritzanean, ta ecin igues eguinduela, cer bildurra dauca? Bada Ainguerù gaistoetan Jaincoac eguinduen castigua nic icusi, ta nola bildurtcen eznaiz? Ta are gueiago, Jaincoac nere barren gucia, ta pecatu secreto gucien berri daquiela? Ta ecin igues eguin? Estura onetan cer eguingo det? Ay Jauna, badacust, nere culpa gueiac daquiz-



quizquitzula, ta eguitèn nituenean Zu beguira ceundela! Ay lotsagabeco atrevimentua! Ta ecin iñora igues eguin! Cer eguingodet, ta nora joangonaiz, Jauna, ezpada zugana?

Zure oñetan etcin, ta esangodizut: Jauna, nere pecatuac ecin contatu ala, ta guciz andiac dira; baña zure misericordia andiagoa da. Ez, arren, Ainguerùaquin bezala, nerequin eguin: orobat mereci dedala icusi, ta icaratcen naiz. Misericordia nizaz, Jauna. Pecatarien eriotza eztezula nai, ezpada converti, ta bicidedilla, diozu. Bada artcendizut zure itza; eta beguira, Jauna, eguiazco Erreguearen itza dezu: lenago mundua galducoda, zure itzeán Zuc faltatu baño. Ea bada, ori cumpliezazu, nere Jaincoa: zure Ontasunagatic, cumpliezazu, Jauna. Ta, baldin, bear bezala convertitua ezpanago, arren convertinazazu, eta eracutsi zadazu, nola ondo ori eguin.

Zu cera nere Maisua: nola eguin beardet, nola damua iduqui, ta esan beardet: Damudedala, Jauna? Bada, damudet: milla bider esangodet: Damudet biotcetic, ta milla bider damudet, zu ofendituaz. O seculan pecaturic eguin ezbanu! Zu añ ona ceren ceran, damudet, Jauna, zu ofendituaz: ez secu-

Universidad de Deusto Biblioteca

seculan pecaturic gueiago. Lengoac deseguitea, nere escuan balego, milla bicitzaren costuan baliz ere: O nola gucia deseguingo nuquean! O damu, ta deseo au norc leucaquean! O nere Jesus, arren zure arguia, ta gracia indazu: nere biotceco indar guciaz, ta al-datequean intencioric garbienaz damu ori nic iduquitceco!

Zure amorioa, zure penac, ta Zuc, nere culpacgatic zure Biotcean iduquitcenduen dolore, ta sentimentu gorrotoz betea, nere damu ordean izan bitez, Jauna. Ay! Ta onec estura, ta naigabearen pasioaz, zure negarrac, ta odola ateracizquitzun! Ta cer? Zuri negar eraguin, ta odola emanerazo, ta niri negar malco bat ere ez? Zu negarrez icusi, ta negar eguingo ezdet? Nere anima arritua, beguira Jesus onari oracioan, odolezco negarrac ematen: ta ez bere pecatuacgatic, ceren etcituen, ezpada zureacgatic. Nola urtutcen etcera? Bada or zaude, arri baten guisa bada ere. Jesus-en negarrac ta odola arriac berac betaatceco poderosoac dira. Baldin ur tantac, arri baten gañean ascotan eroriaz, zulatcen, ta deseguiren badute; odol tanta preciosoac ascotan eroriaz, zure biotza bigunducodute. Bai: ta ala ni ascotan Jesus-en oñetara etorriconaiz, ta de-

se-



seguin artean, presto au utcico ezdet.

### LAUGARREN CONSIDERACIOA.

O Cer caltea anima batean soberviac eguitenduen, bada deabruen guisa cerutic infernura botatcendu! Pecatu au nigan oteda? Ay ceñ bildur naizan, soberviac galdunazan! Dicha, ta doairic asco zuten Ainguеruac, baña orregatic ere humildadeac falta eguincien. Bada cer izangoda nizaz, baldin virtute au falta bazat? Beste doai, ta graciac banitu ere, nic daquidana, da, estimacio, ta onra zale naizala, ta Zuzaz, Jauna, ta zure doaiaz aztutcen naiz, nereac, ta neregandic banitu bezala. Libranazazu, arren, Jauna, gaitz, ta bicio itsusi onetatic, eta zure gracia indazu beti humill izateco; bada eguiaz ezdaquit humill, ala sobervioa naizan: ta arrazoiric asco det, sobervioa naizala, pensatceco. Ecer gauza onic nigan bada, eguiaz, Jauna, zurea da: nic ezdet, ta ez naiz ni pecatua baicen. Ezagutceco au ondo indazu beti zure arguia: ta gauza on gucien gloria, zurea bezala, beti zuri emandizadudan. Amen.

GURE

Universidad de Deusto Biblioteca



GURE GURASOEN, EDO ADAN GUcien Aitaren pecatua, ta onen calteac.

*LENENGO CONSIDERACIOA.*

O Guizon itsua nora zoaz? Adan cer eguitendezu? Sagar bategatic naidezu Janicoa galdu? O bocadu garestia! O sagar baten gusto beltza! Orren guchian daucazu Jaincoa? Seme batec plazaren erdian esango balu, sagar bat naiago duela, bere Aita baño: edo sagar bategatic bestec Aitari bofetada bat ematen utcico balu: edo berac gucien aurrean emango balio: cer esanguenduque? O gaistoenaren seme lotsagabea! Cer eguindec? Cer merecidec? Puscatcea merecidec, traidorea! Baña ay! Nor acusatcendet? Noren contra suac artcen naute? Seme ori bera ni banaiz?

Nic Aingueruen aurrean bofetada nere Jainco, ta Aita onari emandiot: Ontasun, ta Jaun andi ari, ceñen aurrean Ainguerauc icara dauden. O traidore lotsagabea! Nic, eta Jaincoari? Nic, eta sagar bategatic? Nic, eta



eta ceruaren, ta lurrearen aurrean? Milla zati eguitea, ondo merecidet. Betico sugarrac guchi dira neretzat. Cer esangodet, Jauna, cer arpeguiaz zure beguietan jarriconaiz? Ay ene! Ay ene zori gaistocoa! Ay ene dichagabea! Cer eguindet? Onelaco traicioa? onelaco zoraqueria? Nic ori eguindet? Ay! ezdaquit cer esan, ta ez cer pensatu.

Baña nere Jaun maitea, negarrezco iturri bi nere beguiac izan bite. Ay! Nere bici guztico miña, ta negar gaia badet. Ta onelaco falsia eguin didan gorputz oni nola gusto emangodiot? Ah nere etsairic mortalena! Nic emangodizut zure merecia. Losaren pasioz, Jauna, cer esan, ta cer eguin ezdaquit. Alere ni negarrez zure oñetan urtuconaiz: orrela nere biotceco damua eracutsicodet. Eguiña, Jauna, eguiña. Ay ta cein deseguin! Penitencia, bada, ta ori eguindezaquet. Misericordia, bada, Jauna, misericordia, ta erremedioa: bici berria, &c.

*BIGARREN CONSIDERACIOA.*

ADan Paraisutic deserritua izanzan, ta ni cerutic. O erri, ta lecu venturosoa! Ta nola deserri onetan contentu, ta gustoric billadezaquet? Cembatec esatendit, orañ bici-

Universidad de Deusto Biblioteca



bicinaizan artean atseguiñ ardezadala. Baña nola contentu artucodet, deserri onetan nagoela? Negarretaco lecua, ta penitenciaco dembora da au. Ez arren, Jauna, permiti, ni eraqueriai ematea. „Eznaz aspertuco adiaz, ta suspiroz, nere burua onelaco desdichan icusiric. Nere beguiai atsedenic ezdiet emango, nere errian sartu artean. O cerua, cerua! O erria, ta nere erria! O eguiazco bicia dutenen erria! O corte soberanoa! Or dago nere ondasun gucia, or dago nere Jabe, Erregue, ta anima garbien Esposa. O Jaun, ta Esposo guciz gozo, ta maitea! Zu gabe, ni nola nagoque? Or dezu nere biotza, or dezu. Eramandidazu, ta or bici naiz, ta emen Zu gabe iltcen naiz. O zure amorioz azquenic deseguin banendi.

Baña ay! Orrela izan bearzan, ta orrela eguin ezdet. Ay uso baten egoac banitu egaca igo, ta or atsedeteco! O cer negarrac Adan-ec eguingocituen, sagar bategatic Paraisutic deserritu ta icusizanean! Ta ascotan, ta guchiago gatic, nic ceruco ateac ichi, ta negar eguingo ezdet? Misericordia nizaz, Jauna, Eznequien cer eguiten nuen: piedadea deserritu pobre onezaz, ceren negarretaco ibar onetan nequez beteric ta pecatuen locaitcean ondaturic nagoen. Nere Aita



ta misericordiazcoa, ta consuelo guztien nere Jaungoicoa! Piedadea, arren, Jauna, nere suerte desdichadu onetan. Ta bada, Ainguerüac bezala, castigatu eznazu, ezpada Adan-i bezala echeden: deseo irazaqui bat indazu, lurreco gauzac azturic, bacarric nere cerua billadezadan. Nere culpẽ eguiazco penitencia eguiteco gracia betor: ta bada, nic eguin al gucia da guchi, edolaric deseo chitezco andia izan bedi. Indazu azquenic gracia, emendic aurrera eguiazco deserritua bezala lurreco gauzenzat bicitcea, ta ceruraco bidezcoac bezala, Zu billatu, servitu, ta betico amatcea. Amen.

### *IRUGARREN CONSIDERACIOA.*

O Nola sugue guezurtiac bere engañu, ta promes falsoaz Adan zoreracizuen, Jaincoa bezala izangozala, esanaz! O ta cembat aldiz onela ni ere engañatu nauen! Emengo onra, interes, ta gusto, pecatu eraguin didatenac cer dira? Quea bezala guciac deseguin ciran. Ta eriotzaco orduan orobat izango ezta? Cergatic, bada, nere etsai engañatu nauen, ta orañ engañatcen nauenean fiatu naidet? Ta infernura botatceagatic cer eguin ezdaquienaren consejua cergatic artcendet? De-

Universidad de Deusto Biblioteca



Demonioac cer aguintcendit, berari jarraitceagatic? Ceruco gloria? Ez eguiequi; ezpada infernuco tormentuac. Ta orañ engañatceco esqueñtcendizquidan ecerezqueria, edo ondasun usien bazca, edo cebo agatic, betico eriotzaren amuari elducodiot? Arraicho batec ere, ori icusi ta jaquiñic eguingo ezluque.

Ay bada, anima nerea, ay! Beguira ondo: gozoa iritciagatic aurrean ipintcen dizuten bocadua: or dago, or dago barrenen eriotza beticoaren amua: infernuco pozoia, ta venenoa or dago. Niri siniſten ezpadidazu, siniſtazaiozu Jaunari, ceñac dion: Pecatu eguiten duenaren anima illcoda. Beguira Adan-ec janzuen sagarren guſtoa ceñ laster igarozan, ta ondorea aimbeſte, urtean ceñ samiña izanzan. Beguira, deabruac gozotan emancien bocadu beltza, infernuan ceñ garratza condenatuai biurtuzaien: ta ez orañ bacarric, ezpada secula gacietaco samiña.

Beſteren buruan calte au icusi, ta nola beguiac arguitcen ezdituzu? Ceren beguira zaude? Zure gañean caltea icusi artean? ta eremedioric ezdezula? Ta obeto, Jaincoaç eguiten dizun mesede, ta ematendizun demboraz baliatuco etcera? Baldin Cirau batec eldu





eldu balizu, edo venenoz betericaco sagar bat jan bacendu: Ah ceñ gogotic erremedioric dan samiñena ere artuco cenduquean! Edoceñ diru gaſtatuco cenduque. Bada infernuco sugueac pecatuaz eldudizula, ta pozoiez beteric zaudela icusi, ta nola zaude orrela? Ah betico iltcenduen pozoia da! Ea jaiquizaite lo pisu orretatic, ceñean sorturic zauden. Bicia acabatcenda.

O nere Jaungoico! Infernuco venenoz nere etsaiac onela nere anima betedu! Ay nere triſte galdua! Gaitz onentzat cer erremedio eguingodet? O baldin baliz, mundu guciaren coſtuan ere; ceñ pocic billatuco nuquean! Ea bada, nere anima, berri onac: erremedioa badezu, ta doaric. Cer erremedio da, ta norc emangodit? Erremedioa da Jesu Criſtoren odola, ta doaric emangodizu, Gurutcean, zugatic ill arteraño, ta zu infernuco gaitz orretatic libratceagatic, isuri zuenac. O Aita nerea, o ceruco Aita; nola nic misericordia andi au alabadezaquet? Ori gucia ni gatic eguindezu? O nere Jauna, ta nere Amorio guztia! Zure odol gucia, ni salvatceco emandezu? Orrelaco amorioa, ta orrelaco erremedioa? Ta ori doaric preſt daucazula?

Ah Jauna ondo gareſti coſtacitzatzun, bada

Universidad de Deusto Biblioteca



da zuri ! Baña zure Ontasunac au eguitendu. O alabatua izandedilla Ontasun ori, ta eternidade gucian iduqui dezazula ! Izanzaite fin gabe poderoso, jaquinsu, ona, ta justua: ala cera, ta beti izangocera, eta chit atseguindet: biz ordu onean, ta betico. Cer naidezu, Jauna, nigandic ? O! Badaquit, Zuc cer naizun ! Ni zure odolaz aprovechatu, ta nic Zu amatcea. O cer dicha ori, zor dizudana pagatceco ! O ceñ doaric ematenzadan! Añ guchi escatcenzadana, ta añ justua, ta gustozcoa; ta neretzat añ baliosoa, non ta obeagoric eztan. Amazaitzadan, bada nere Jaincoa, ta biotz guztitic: indazu gracia, amorio au, bici naizan artean, egunoro, ta andiago izandedin, ta ceruan beti amazaitzadan,

## BACOITZAC BERE, TA NIC NERE pecatuen gañean.

### *LENENGO CONSIDERACIOA.*

AIngueru gaistoac, ta Adan-ec eguinzuena añ gaizqui baderitzat, nic eguin dedanaz, cer iritcicodiot ? O egun illun tristea, ceñean lenengo pecatua eguin nuen, ta pena guciz andi pisu, ta cabu gabeetara sujetatunintzan ! Colera batean guizon bat ill banu, ta guero urtcaceco zorian nere burua icusi, cer sentituconuen ? Bada, nere anima tristea, egun artan eguincenduen zoraqueria gatic, zure etsaien atzaparretara, ta betico infernura sentenciatua zaude. Norc, sentencia onequin, bocaduric gustoz, ta descansuric ardezaque ? Badirudi, ezagutcen, ta sentitcen ezdezula, ta ametsa baliz bezala arteendezula. Bada contu eguizu, orañ bertan Jaincoaren ministro, edo justiciaco juraduac gaistaqueria andi batean arrapatu, ta beraren tribunalean presentatu, ta eriotzaco sentencia ematendizula: ta demonioac eraso, ta infernuan sartcenzaituztela.

Cer esan, cer eguingo cenduque, erremedio gabe, ta betico leizondo artan, ta tormentuz erretcen icusico baciña ? O erregalo garestia ! O gusto samiña ! O pecatu garratza ! Bada orrela, ta betico tormentuen azpian egongocera. Biurtzaite, zugana, anima tristea. Beguira ondo, eguiaz, ta fedez, sentencia zure contra emana dago: ta asco, ta al-eguin guciac eguin badituzu ere, deseguin dan ezdaquizu. Ta ondo iritcicodiozu, jan edan-ean erregaloac billatcea, ta echean

Universidad de Deusto Biblioteca



dan onena zuri ematea, ta onra, ta puestoric andienac, ta guciac zu alabatcea? Ezta burlen, farren, jolasen, atseguiñen, ta vanidadeen dembora au; ezpada negarren, lantuen, adia, ta deadarrena: penitenciaz biotza deseguin, ta trucatceco: ta ez nola nai, ez onrac, ta ez atseguiñac billatceco; baicic gucien oñ'pean cere burua icusi nai izateco; ta zure gustoaren contra dan gucia gogotic, ta biotz guztiaz billatceco.

Ta oguei, edo oguei ta amar urtean penitencia eguin badezu ere, ez necatu, ez aspertu, ez utci, ceren barcatua zauden ezdaquizun. Ta mundu guciac esana gatic, santu bat cerala, penitencia ez utci, ceren barcatua zauden ezdaquizun. Badaquizu Jaincoa dala Jueza, ta aren juicioac emengoetatic besteric dirala. Ta oracio aldian luceac iduqui arren, ta ceruco consuelo asco, ta milloi asco anima convertitu arren, milagroac eguin, ta mundu gucia zure ondoren ibilli arren, ez zure puestoa utci, ez penitenciaz aspertu, ceren zure sentencia deseguin dan ezdaquizun; ta au ezpadezu, guizonen alabanzac, onrac, ta gustoac cer servituco dizute? O Jauna, ceñ eguia andia dan, ta ceñ importantea au! Josiezazu ondo nere biotcean, beti humill nabillen. Zure Ontasun-





tasunagatic, nere contraco sentencia deseguin ezazu, ceren pensatceac, Zuc, Jainco poderoso, ceñen contra iñorc quemenic eztuen, condenatu nazula, icara andia ematendit.

## BIGARREN CONSIDERACIOA.

PEnatic culpa ateratcen, edo ezagutcen bada: infernuco penaquin castigu ta ere, bear bezala, edo diña castigatcen ezdan culpa, cer izangoda? Pena, ta al-diran icaragarrienac pensaitzatzu, ta guciac batean: dolorezco, suz, ta garrezco larridiqui, ta ezurrac puscatceraño, ta beste milla tormentu elcarrequin, ta eternidade guztian: ori gucia guchi da, infernuan pecatu mortal bategatic ematen danaren aldean: ta ori Jaincoaren Magestadearen contra ceren dan. Gorputcean senti al ditezquean tormentu guciac baño andiago da, Jaungoicoaren arpeguia ez icustea, ta ez icusi bearra.

Ta beguira orañ, zuc milla pecatu mortal ceñ erraz eguindituzun. Cer? Papirote baten bildur cera, ta castigu onen ez? Cer zoraqueria da au? Anima nerea, zure amorioric badezu? Ondo beguiratcen badezu, zure gorrotoa dezu. Batec iñor aborrecitcen

Universidad de Deusto Biblioteca

duenean, ari bicia quenduaz, contentatcenda; baña zu aimbesteraño aborrecitu cera, non orrezaz contentatu etcera, ta gañera eriotza animacoa, ta betico tormentuac ematendiozcatzu. Ay nere itsua! Cer eguindezu? Zuc cere burua ezpatan sartudezu: zure escuz eriotza artudezu. Fin, edo cabu gabeco pena, badaquizu, cer dan? Urtea urtearen gañean beñ, ta ascotan contatuagatic ecer ezta: ta penac gueiago dira: caburic ezdute.

Jaquizu, bada, zure al-eguin guciaz andiago, ta andiago pecatua zuc pensatu, ta ezagutuagatic, milla tatic bat ezdezula, berez daneraco, ezagutu. Nola eciñ iñor, Jaincoa ceñ andia, ta ona dan, ezagutucoduen: ala aren ofensa, edo pecatua cer dan, iñorc ecin, dan bezala ezagutucodu. Ta zure bici guztian pecatuen artean egon, ta cer eguitendezu? Ay nere galdubearra! Ay! Ay egun, milla bider zori gaistocoa, ceñean pecatuac eguiten asinintzan! Nere Jainco guciz ona! Ezdedilla, arren orrelacoric gueiago guertatu! Misericordia nizaz, ceren chit bearra, ta desdichadua nagoen. Baña zure ontasuna andiago da nere miseriac baño: ez oni beguiratu, ezpada zure piedadeari. Zugan dago nere esperanza gucia, ta ala eznaiz galdua izango.





## IRUGARREN CONSIDERACIOA.

NEre culpac gatic, merecinuen, Jauna, infernuco su, ta garretan erretcen beti, erremedio, ta esperanza gabe egotea. Baña Zu, añ ona neretzat izancera, non ara bota eznazun. O nere Jauna, nere Aita, ta nere Jaincoa: nere amorio, ta On gucia! Ni nere naizan baño, nereago cerade Zu. Ontasun au nola pagatucodizut? O! Ta mingañ bat, ta biotz bat dedan bezala, milla, ta milloi asco biotz, ta anima banitu, guciaquin Zu alabatceco, ta amatceco! Cer eguin dezaquet, Jauna, bada seculaco infernutic libratunazu? O cerbait, eta asco zugatic eguin al baneza! O zure amorioz urtutcen banintz! Cer naizu, Jauna? Nic Zu servitcea? Ona, bada, non nagoen zure betico servitzari, edo esclavo.

Ta nola esclavoac berenac ezdiran, ezpada beren Jabeenac: ala nic ezdet nai nerea izan, ezpada betico zurea: ta ez aiec bezala bildurrez, baicic amorioz gucia zurea izan naidet. Zure amorioan irazaquiric bici naidet. Betor zure Jaincozco sua, ta erre nazala. Dicecadan niri, ta gueiago, ta biciroago zure amorioan errenadin. Bedeica, ta alaba zaizadan, Jauna, ta naizan, ta dedan

Universidad de Deusto Biblioteca



guciaz amazaitzadan. Nor Zu bezalacoric? Gucia dagoquizu, Jauna, ta chit ederqui. Ea Ainguerù, ta Santuac, nere Jauna alabatcen lagunzadazute. Ta ceren, Zuc mereci dezuneraco, Jaun andia, au gucia ecer-ez dan, zure Ontasun, jaquintasun, ta misericordia paregabecoac betico, ta bear bezala, alabazaitzala. Nic Zu amatcea, naizu? Bada, nic nerau baño gueiago amatcen zaitut, ceren añ ona ceran, ta ceren zuri, cerdu cer icusi? Zuri, neroni baño gueiago zor dizudan. Betor, Jauna zure amorio eguiazcoa, biotz gucitic egunoro, ta beti gueiago, ta obeto amazaitzadan.

Ah! Infernua merecinuela, naidezu, nic Zu amatcea! Satanas-en esclavo billau izatea mereci, ta Ainguerùen oficioa nic eguitea, naizu? O nere Jainco maitea! Secula gucietan alabatua, ta glorificatua izanzaiteala! Nola, Jauna, zure amorioan errecònaiz? Nola atseguin, ta gusto emangodizut? Cer eguin ezdaquit. Zure gusto, ta vorondatea eguiten eracusdazu. Orra ni cer nazan: orrembeste zuri zor, ta amatcen etzaitut! Baña ay! Onezaz oroitu, ta lutoz biotza betetcenzat! Bada Zu amatu bearrean, egunoro pecatu gueiago eguitendet. O esquer gaistoco traidore itsusi lotsagabea!

Ala



Ala izannaiz, ezdet ucatcen. Baña, Jauna, Zu cera nere erremedioa: Zu ni billatcera, ta salvatcera etorriciñan. Ori eguizu, ta barcatu, ta salvanazazu, zu beti alabatceco.

### LAUGARREN CONSIDERACIOA.

NI baño pecatu guchiagorequin infernuan cembat daude? Ta ni bicinaz, ta ceruaren esperanzan. O misericordia andia! Cer dijoa cerutic infernura? Cer icusicenduen, Jauna, nigan, mesede au niri eguiteco? Cer? Nere bici gucian, Zu ofenditcea baicic, cer eguindet? Zuc deitu, ta ric ez eranzun. Zu golpeca nere biotcean deiez, ta ni, ateac ichi, ta gortu. Ay ta cembat bider otsez Zu nere biotceco atetan, ta ni beste aldera! Ta orregatic sufritu, ta berriz deitudidazu: ta batzuetan amorez, ta erregaloz; besteetan icaraz, ta bildurrez. Ta ni itsua, ta gorra, ta pecatu gueiago eguiten! Beste ascori echeden ez, ta niri echeden, ta dembora gueiago emandidazu! O bedeicatua izan dedilla betico zure Ontasuna.

Esan oida, gauza ona, galdu arte, ezagutcen ezdala. Contu eguin naidet, bada, besteac bezala galdu naizala, eta aiec beza-

la,

Universidad de Deusto Biblioteca

la, castigatu nazula. Ay, Jauna! Nizaz cer izangozan? Cerua galdu seculaco, ta cer sentituconuen? Cer, nere burua, consuelo, ta esperanza gabe icusiric? Cer su, ta lama infernucoetan erretcen icusiric? Cer, demonioz alde gucicitic bete ta icusiric? Ay! Pensatceac ere icara ematendu: cer litzaque igarotcea? Ta orañ orietatic libre nagoela, ta ceruaren esperanzarequin! Al eguiñaz, ta postaca infernura ninjoala, Zuc gueldituñazu, Jauna! Ondatcera, ta deabruen atzaparretara, ta Zuc escua emandidazula! Alabatucozaitut, Jauna, beti, ceren zure escu bedeicatua eman, ta libratunazun. Jaungoicoari esquerrac: graciac, ta esquerrac Jaunari milla bider.

O nere Jauna, ta cembat zordizudan. Añ obligatua nago, non cer esan, ta cer eguin ezdaquidan. Contentuz, ta penaz deseguin nainuque: contentuz, ceren aimbeste gaitcetic libre nagoen: ta penaz, ceren añ esquer gaiftoa naizan. O nere Aita guciz amorosoa! Bada Zu ala cera, ta Aitac bezala amatunazu, indazu, ni zure ume ona izatea. Damudet, Jauna, ta biotz gucitic damudet, Zu ofendituaz, ceren añ ona ceran, añ Aita onguille amoriozcoa, ta Esposo guztiz gozoa. Damudet orregatic zure

re



re Ontasuna ofendituaz, propositu firmearequin, ez gueiago pecaturic eguiteco. Ni zure graciarequin, Jauna obeto biciconaz.

### BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

O Nere Jaungoicoa! Zu niri beguira ceundela, nic ofendituzaitut! Ta ez beguira, nola nai, ezpada niri favoreac eguiten: ta ni lotsaric gabe Zu ofenditzen: ta Zu orregatic ere, on gueiago, ta gueiago niri eguiten! Zu añ aundi, ta poderosoa; ta ni añ billau ecereza; ta orregatic ere sufritunazu! Beste ascori, bicia quendu, ta infernura erortcen utcidiezu; ta ni eznazu utci: ta ez bacarric sufritu egun batean, baicic aimbeste urtetan, ta ez pecatu batean, baicic aimbeste millatan. Nic nere pecatuac beti aurrera, ta Zuc orduan beneficio gueiago! Cembat, eta ni gogorrago, ta etsaiaren obrac eguiten, ambat Zu beraago deitcen, palacatcen, ta Aitaric amorosoenaren obrac nerequin eguiten! O ceñ itsu, gogor, ta portitza zuretzat izannazan! Ta Zu, Jauna, ceñ gozoa, ta amorezcoa niri echedeten.

Lasterca ni infernura ninjoan, ta Zu otsez niri. Ni beti gorra, ta zure deiai egun, aste, ta urte ascoan eranzun gabe! Ay Jauna!

Eguia

Universidad de Deusto Biblioteca



Eguia esatera, badirudi, infernuratcegatic, eciñ gueiago ala nic eguiten nuela: ta Zuc eragozten, ta guelditcen ninduzun! Beste asco, zure justiciaren aserrea descargatu, ta condenatu dituzu: ta ni ez! Azquenic zure amorio guztiaz ots eguin, ta lo pisu artatic ateranazu, ta nere beguiac arguituditutzu, nere desdicha icusi, ta zu gana biurtceco. O nere Jesus guciz gozoa! Misericordia onezaz cer esangodet? Ni salvatcean, cer cijoaquizun, Jauua? Bacenduen nere bearric? Ez eguiequi. Baña Ontasun fiñic eztuena, infinitoa Zu cerez izan. O! Izanzaite: ordu onean! O! cer gloria dezun, Jauna, On guztizcoa izatean! Izan bedi, izan bedi ordu onean: atseguin det, Jauna: izan bedi eternidade gucian.

Ontasun onetan, zure graciaz daucat ceruraco nere esperanza gucia. Beste, ni bezala, biciciran asco infernuco zuloetan ondatu, ta nic, zure glorian Zu icusteco, ta gozatceco esperanza andia daucat. Ta au izanditeque? Enemigoen atzaparretatic libre nagoela! Betico bicia ustededala! Dembora orretaco eman zadala! Ta ceruan Zu icusi uste zaitudala, nere Jaun guciz ona, ta guciz ederra! O ceñ misericordia paregabea nerequin eguindezun! Ea, anima nerea, ala-

ba,



ba, ta glorificaezazu Ontasun au. Zure biotz, ta deseoac ceruraño jaso, ta bedeica, ta alabezazu Ontasun infinito au. Dembora onetaco iduquitcean, cer dicha dezun, ondo ezagutu, ta alic ere ondoena orrezaz baliazaite. Bai, Jauna, ona nere biotza: zurea da, ta ez nerea: seculaco ematendizut, zu beti servitceco. Zure vorondatea beti eguiteco, zure gracia indazu.

## PECATUEN GAÑEAN IRU COLOquio, edo Oracio, iru gauzataraco. Bata Ama Virgiñari, bestea Jesu Cristori, ta Aita Eternoari bestea.

IRu gauzac, edo graciac dira: lenena, gure pecatuac ondo ezagutu, ta orien eguiazco damua alcantzatcea. Bigarrena, lengo bicimodu zorra, ta eragabecoa icusi, ta bici berria, ta Jaunaren vorondate beti eguiteco gracia. Irugarrena, munduco bide galduac condenatu, ta utci, ta vanidade gucietatic igues daguigun.

AMA

Universidad de Deusto Biblioteca



## AMA VIRGIÑARI ORACIOA.

JAungoicoaren Ama, ta nere Ama Andre maitea. Nere pecatuac consideratu, ta icara andiac artcen nau. Icusi, ta pensatudet, Jaincoac nerequin cer, ta cembat eguinduen, ta arriturie nago. Eguia da, ta icustendet, nere pensamentu, itz, obra, ta gauza gucietan chit eragabe, chit gaizqui ibilli izan naizala. Bicimodu berria artceco, ta mundu galdua utci, ta nere Jaincoari jarraitceco deseoa daucat. Nere deseo ona da, baña nere argaltasuna andia. O Virgiña Ama, ta paregabea! Zu cera pecatari tristeen amparo, ta consueloa! Onen, ta zure chit premia andia daucat. Misericordiazco Ama cera: izanzaite nere Ama: ta zure Seme maiteagandic nere deseo au, ta nic eguinditudan pecatu gucien damu andibat alcanzazadazu.

Ezdet, Andrea, mesede au nic mereci. Alada. Baña ez niri beguiratu, ezpada pecatarien Ama piadosa cerala. Beguirazaiozu, arren nere miseria guciz andiari. Pobre, ta miserableac cer eguingodu, ezpada aberatsen ateetara allegatu, bere llagac aguertu, ta bere premiaz escatu? Ea, bada, gucien Ama Andrea: limosna bat esqueco pobre miserable onentzat. Pobreen guisan deadarrez isilduco eznaiz. Chit aberatsa cera, ta guciaren Jabea: ni berriz chit pobrea. Ea ceruco Erreguiña, limosna bat, Andrea. Pobre bear oni begui onez beguirazaiozu. Pecataria naiz: cer miseria andiagoric! Baña pecatarien Ama Zu cera, ta izanzaite.



Acordazaite, zure Semeac nere premia estua icusi, ta limosna andi bat emancidala: ta zan zuri esatea: ANDREA, ORRA ZURE SEMEA. Pecataria ni izanagatic, zure semetzat ni artcea, zure Semeac naidu. Ea bada, nic ez mereci arren, zure Semeari diozun amorioagatic, artnazazu ni. Zure Semeagatic escatu ezquero, cer eguingo ezdezu Zuc? Bada zure Semeac ni artcea, naidu: eguizu au, ta zure Semearen amorez, ta aren icenean eguizu. O! Ta ceñ pocic, arc aguintcen, edo naizuen gucia eguin oicenduen! Bada berac encomendatu cizun, Semetzat ni iduquitcea. Eguia da; añ gaistoa izan naiz, non Zuc utcitcea merecidedan. Baña, nola zure Semea gugatic iltzan, ez arren ni utci. Beguira, Andrea, pecatari galduacgatic arc bere odola eman, ta Gurutcearen oñean Zu egotea nai izanzuen, Zuc aren odola icusi, ta pecatariac, oiei laguntceco, encargatu cizquitzun.

Ea,

Ea, Ama-ric onena, beguira zure Semeari, ta gugatic esaiozu lengo zure itza: ARDORIC EZDUTE: ta zuc esaten badiozu, nere contu, laster, ta seguru, nere biotceco epeltasunaren ura ardo guciz gozo, ta indarsu biurtuco duela, eta zure erreguz, nere bici galduaren amoriozco damu andi bat, ta biciera berri santu bat, zure amparoan, ta Zuc naizun bezala eguiteco, gracia emango didala. Ala izandedilla. Amen.

### JESU CRISTO GURE JAUNARI ORAÇIOA.

JEsus, nere Salvadore, ta Amorio gucia! Nic ez mereci arren, favore bat eguin beardidazu: eta da zure merecimentu, zure penac, zure odola, llagac, ta Biotceco amorioa nigatic Aita Eternoari presentatcea. Badaquit nere Jesus ona, Zuc ori eguiten badezu, nic deseatcen dedana, alcanzatucodedala. Zu cera, Jauna, Seme guztiz amatua, ceñean Aitac bere atseguin gucia ceucan, ta beti daucan, eta chit pocic beti aditceenzaituena. Cer costatcen zatzu, bada, Jesus nere guztia? Zu Gurutcean nigatic esqueñ', ta sacrificatu ciñan: ta sacrificio, ta ofrenda bat isillic deadar andiac emancituena cerutaño, ta Aitaç, Zuc naiçenduen gucia, eguiteraño. O



O ofrenda guciz preciatua! Lengo Abel justuaren odolac baño, deadar obeto zureac eguitenzuen! Zure amorio guciaz ni aberatsago utciceco, ta orañ zure Aitari presentatceco zure llaga idiquiac cerura eramanciñituen. Ea, bada, gure Paqueguille maitea; itz bat aterazazu, ta eguiña dago gucia. Zure Aitac esana dauça: Escazaiozula, ta gure animac zure Erenciatzat emango dizquitzula. O cer dicha, ta cer gure gloria! Aitac naidu Zuc escatcea, ta Zuri ematea. Ea, erregu zaiozu arren nigatic, ta ni seguru zurea naiz. Cerura Zu igo, ta badaquit, lurrean baño ceruan amorio guchiago ezdezula, ezpada orobat. Ta bada lurrean ni pecatari onegatic Aitari erregutuciñion: O nere Erredentore ona! Cergatic ceruan orañ eguingo ezdezu?

Emen zure odola, ta bicitza nigatic emancenduen, ta orañ or itz bat ateraco ezdezu? Emen odolezco icerdiac, ta dolorezco negarrac nigatic emanciñituen: ta pensaditeque, orañ or itz baten mesede au eguingo ezdidazula? Ez, Jauna: ez niri orrelacoric gogoratu. Ta pecatariric galduena ni izanagatic, beragatic zure billa nator: ta Zugan daucat nere confianza gucia. Ea, bada, nere Jesus, ta Jabe maitea, zurea niç izan bear-

beardet. Ez niri beguiratu, ezpada, ni erosteco emancenduen Odolari: onegatic nere pecatuen barcacioa escazaiozu zure Aitari, ta orañdañoco nere bicitza galdu eragabearen damu, ta gorroto eguiazcoa emandizadala, ta zure amorioan biciera berri santu bat ta zure Biotcean eriotza on bat eguiteco gracia. Amen.

## *AITA ETERNOARI COLOQUIO, EDO Oracioa.*

O Aita Eterno, nere Jaungoico guciz poderosoa! Emen nator, Jauna: emen nator ni pecatariric andiena, ta zure Magestade andienaren aurrean presentatcera atrevitcen naiz. Badaquit, Jauna, zure Ontasuna, Zu bezala, cabu gabe, edo infinitoa dala. Onezaz baliatu naidet. Eguizu, arren, ez nic mereci dedan bezala, ezpada Zu cerori ceran bezala. Ay Jaun justua! Arrigarriac, itsusiac, ta chitez asco dira nere culpac, ta zure contra nic eguin ditudan ofensac. Ala ezdet mereci Zuc niri beguiratcea; baña Zure Seme maiteac merecidu. Oni beguiratu, ta onec nigatic eguinzuenari, emancidan itzari, ta eracutsicidan amorioari, atrevitcen naiz, Jaun andia, zure beguietara aguertcera, ta humill humill zure Magestade andiaren aurren jarri, ta escatcera.



Jesus zure Seme guciz Santu, guciz bedeicatu aren icenean, bada, ta aren amorez, nere culpa gucien barcacio osoa escatcendizut. Indazu, arren, Jaun guciz ona, Jesu Cristoren amorioagatic, zure argui bici eraguille bat, nere igaroco biciera galduaren eragabeac ondo ezagutu, ta beardedan biotceco damu, ta propositua, ta Zuc naidezun diñaco penitencia eguiazcoa eguiteco gracia. Onequin batean, beraren Ontasunagatic, indazu emendic aurrera nic beti gucian, ta guciro zure vorondate guciz santua eguitea. Onelaco dicharic nic nerez ezdet mereci, Jauna; baña zure Seme arantzaz, ta iltcez josiric Gurutcean dagoenari beguirazaiozu. Ari beguira, ta ez niri: ta nere pecatuac andiac badira ere, are andiagoac dira, aren merecimentuac. Ari beguiratu, ta zure justiciaren aserrea bigundu, ta acababegui, ta betor nere gañera zure misericordia, ta amorioa.

O Jauna! Zure Semeac emancidan itza, edoceñere gauza, aren icenean escatcen nizuna, Zuc emangociñidala. Badaquit aren esana Zuc eguingodezula. Orañ bada, nic favore au aren icen santuan escatcendizut; ta

Universidad de Deusto Biblioteca



ta beardan fede, intencio, gogo, ta aleguin guciaz escatu nainizuque. Zure Semearen amorez eguizu, Jauna. Gracia au niri eguitea, zure Semearen onra da. Ta bada Zuc bera naidezu aimbeste onratu, orretaco niri mesede au eguidazu. Jesus maiteagan daucat nere esperanza guztia, ceren bera dan zure Semea, Zuc nigatic bialdu, ta emana, nere erremedio, libertade, salvacio, ta gloria bicia: berari gloria gucia zurequin, ta Espiritu Santuarequin, nere Jaun, ta Jaincoa. Amen.

¶ Coloquio, edo iru Oracio oiec beñ, ta berriz, ta ascotan, ta chit soseguz eguin beardira: ta are gueiago ondo confesatceco bat prestatcen danean, fedeaz, ta confianzaz bioteeco amorio, damu, ta propositua eguiteco.

## ERIOTZAREN GAñEAN.

### LENDABICICO CONSIDERACIOA.

O Nere Jaungoico: ceñ gauza cierto, ta jaquiña dan eriotza! Ta ceñ azturic ni bicinaizan! Zuc, Jauna, esatendidazu, ta ni dacust, len, edo gueró, azquenic ill





ill beardedala. Orregatic ere nere biotza emengo gaucetan sarturic dago, ceren utci bear ezbanitu bezala beguiratcen diedan. O! Ta ceñ itsua alde onetatic bici izan nazan! O ceñ zoratua, ill bear ezbanu becela! Erremedio gabe ill beardet? Bai. Ordua etorricoda, ceñean eguna asicodet, ta gauric icusico ezdet: edo gaûa asi, ta egunic icusicoezdet? Ordua etorricoda, ceñean anima au arrancatua izangoda gorputz onetatic, ta au ill otza, desfiguratu, ta itsusia utcicoduen? Bai. O trance arrigarria! Cer icara eman beardezun! Ay ta nic ecin au quendu, escusatu, ta ez igues eguin.

Certaco, bada, nere biotza josi naidet gaur, biar utci bear ditudan gaucetan? Certaco, orren laster utci bear ditudan ondasun, ta interesacgatic galdu naidet? Emengo onra, ta estimacioac gatic niri cerzat? Naiz ondo, naiz gaizqui nigatic diotela: cerzat? Bada ill beardet, ta guizonen esanac erio tristeric libratuco eznaute. Certaco oriei ondo iristeagatic necatu, bada orien itzac eriotzan ecer baliatuco etzaizquit. O dana dan bezala, norc lecusquean! O pisu justuan gucia pisatcen bagendu! O gauza gueiac, bear bezala, norc estimaz litzaquean! Ceruco ac cerucoac bezala, ta lurrecoac lurrecoac bezala!

Universidad de Deusto Biblioteca

la! Guezurrezcoac guezurrac bezala, ta eguiazcoac eguiac bezala. Ah! Orañ puntu onetan erioac anima ateratcen balit, cer esangonuque munduco onra, ta ondasun, nere biotza lotu ta iduqui, edo arrastatu zutenacgatic.

O ceñ burlatua arquituco nintzaquean! O nola nere eroqueria condenatuco nuquean! Noiz artean, bada, noiz artean vanidadea billatucodet? Noiz juicioan sartuconaiz? Noiz oñ azpian onra, ta guezurrezco esanac utcicodizut? Cer? Ta onra pusca vano bategatic eternidade guciraco nere anima galdu bear det? Quea pusca bategatic ni orrela galdu? Ta nerequico aicezco, ta aiceac daraman esamesa batec gueiago pisatucodu, nere salvacioac baño? O cembat dauden infernuan orrelaco: Cer esangodute bategatic, ta guizonen estimacio char bat ez galtceagatic! Niri orobat guertatuco otezat? Icusten, ta ezagutcendet, gucia vanidade, ta zoraqueria dala, ori pensatcen, ta esatendet ascotan; ta acabatcen ezdet, ta ori bearbecela utcitcen asi ere eznaiz: badirudi, onra, ta estimacio ero ori nerequin bat eguin, ezurretaraño, ta biotzaren erdiraño sarturic dagoela.





## BIGARREN CONSIDERACIOA.

O Nere Jaun soberanoa! Cer da au? Ill bear ezbanu bezala bicinaiz. Noiz artean lo pisu onec iraungodu? O desdicha, ta ay nere desdichadua! Munduaren esamesen Jainco guezurti au noiz lurrera, ta oñ pera botacodet? Noiz milla pusca eguingodet? Ay Jauna, nic ecer balio ezdet: chit argal, ta naguia naiz! Zugana nere beguiac jasotcenditut: lagunzadazu, galdu eznadin. Nere Jesus ona, zure piedadezco begui oriec biurritzatzu nigana, tu Zu ceranagatic, ez arren permiti, aicezco onra orrec bere ondoren ni eramatea. Bada Zuc zure Aita Eternoaren gustoa bacarric billatucenduen, eta gendeen esanac ecertan iduqui etcinduen: ta orregatic desonran lapur bi--ren erdian Gurutcean illcera etorri ciñan: arren, onraren vanidade beltz orañdaño arrastatu nauen au, nic eguiaz arrastatceco indazu indar, ta beardedan gracia.

Ay Jauna, poderoso cera, ta zure bear naiz. Armatu fuerte au biotceco gaztelutic ateratceco zure beso fuerteagoaren indarra bearda. Ea lagunzadazu, Jauna, ta zurequin batean esai onen contra eriotzaraño nic peliatucodet. A[illegible] utsa, ta vanidadea da on-

ra, ta eſtimacio gucia. Nere eriotzaco tranceaz acordatuconaiz beti, ta orrequin quea bezala onra ori deſeguingoda. Ta baldin azquenic nere gorpuz au ere, lurrac jateco, utci bear badet, cer zoraqueria da, au ſervitcen, ta erregalatcen, nere bicia igarotcea, ta are gueiago nere anima galtceco peligroan? Araguia ſervitcen bici bacerate, illcocerate, dio S. Pabloc: baña eſpiritucò indarrac araguiaren obra, ta erreſabioac ſujetatcen badituzute, bicicocerate. Edo araguia ſervitu, ta betico ill beardet, edo araguia mortificatu, ta betico bici beardet. Bietatic bat ſeguru izangoda.

Araguiaren guſtoac chit laburrac, ta dembora guchico dira. Ta orren dembora guchico atſeguin itſuſi bategatic betico nic galdu naicodet? Non da juicioa? Ta nere bician nic cer eguindet? Araguia ſervitu, ta nere anima galdu. Baña ay ene! Ay! Orañ ere ori ſervitcen, ta erregalatcendet! Animo, bada, ta fuerza: ceruco ereinoac fuerza naidu, ta fuerza eguiten dutenac, daramate. Ea, nere anima, gorputz oni fuerza eguiozu, bada laſter utci bear dezu. Beguira dembora guchi dezu: fuerza eguiozu. Beguira, infernuco zaramazqui, fuerza eguiotu. Beguira ceruco gloria [illegible]aquizu, fuerza egui-


eguiozu. O nere Jauna, Zu ceraňagatic indarra indazu, orrequin nic emendic aurrera guerra bicia nere araguiari, ta onen griña gaiſtoai eguingodiet. Ezagutcendet, bai, nere etſaia dala, ta onen adiſquidetaſuna falſia dala. Baña, Jauna, gauzaric dan errazena, Zu gabe, ecin badet: gaitcic andien onetan cer eguingodet? Betor, bada, zure gloria, Zuc naidezuna, nic beti eguiteco. Amen.

*IRUGARREN CONSIDERACIOA.*

ILl bearra cierto da, ta badaquit: Noiz, non, ta nola ezdaquit. Conſideracio au iracurrico dedan ezdaquit. Gaztetan, ala zartu ezquero, gau-az, ala egunaz eriotzac arrapatuco nauen ezdaquit. Nic daquidana da, ergai, edo momentu bat cierto eztedala. Jeſu Criſto eguia, ta jaquintaſunac berac eſatendit, beguira nagoela, ceren eriotzaren egun, ta orduríc ezdaquidan: lapurren guiſa, guchien uſte danean, ta bat lotan, edo ardura gabe dagoenean etorri oidala. Eguia au aditu, ta nor icaratcen ezta? Ta nor ajola gabe egonditeque? Ay! Ta nola nago ni preſtatu gabe? Nola, nere eriotzaco ordua baniequi, ta cerua eſcueran baneuca bezala?

Gau-

Universidad de ... Biblioteca

Gauza izugarria! Onela eriotzac orañ baño len artu banindu, asco gazteago artu dituen bezala, nizaz cer izangozan? Ta nere pecatuen artean artcen banau, nizaz cer izangoda? Cembat bider jolasean, ta farraz, pecatuz beteric egonnaz? Eta lo eguitendet soseguz, alacoric ezbaliz bezala? Jainco nere contra aserraturic, ta ni farraz, ta ni lotan? Jaincoa bere espata maguitic ateraric, ya niri golpea emateco, ta ni añ ajola cabe? Ya infernuan ondatceco zorian ni, ta demonioac niri bulzaca, ta ni orren ajola cabe? Jauna, zure golpea descargatu bacendu, cer izangozan? O nola infernuetan seculaco erretcen egongonintzan!

Ta misericordia onegatic cer zor dizut? Cer costatcen citzatzun, golpea eman, ta ni, zure etsai au, castigatcea? Baña ay! Ez castigatu, baicican deitu, avisatu, ta Zuc erregalatu nazu! O bedeicatua betico izanzaiteala! Zure Ontasun andia ezagutcen, ta aleguin guciaz, alabatcendet. Chit obligatua nago, ta cer esan ezdaquit, Jauna: bada ez beñ, baicic ascotan echeden izandidazu. O misericordia esan al baño andiagoa! Ta orañ, Jauna, cer naizu nigandic? Jaquiña da, ta badacust, nere Jabe maitea. Nere animaz ondo beguiratu, ta ill[illegible]co becela bi-

ci-



cinadilla. O, ta ceñ gauza justua aguintcendezun, ta onetan cembat dijoaquidan zure esana eguin ta obeto bicitcean!

Bada orrela, Jauna, ta eriotzaren golpea beguiz dacusena bezala biciconaz: beti ordu orren zai egongonaz, ta lotan ere bildur ori biotcean iduquicodet. Ta, bada, zure piedadeac dembora emandit, penitencia, ta damuaz baliatu naidet. Biciera zar galduco contuetan sargaitean, Jauna, ta bici berri bat, zurequin batean, asidezadan. Nere gustoen contra beti peleatu, ta eriotza on bat billatu, ta echedengodet. Orañ bereala iltceco becela biciconaiz. O au eguiten banu! O cer dicha: ta munduco gaucetatic nere biotza deseguiteco nola lagunduco lizaquean! O ta gaurco egunean oriec utci, ta ill bear banu bezala, bici banintz! Au eguindezadan, Jauna, ta orañ artean bezeñ itsu eznadin izan. Amen.

## *LAVGARREN CONSIDERACIOA.*

ERiotzaco ordua cierto, edo jaquiña ezbadere, badaquit, nere biciaren dembora laburra dala: Lauroguei urte gueienaz izan diteque. Baña epe luceagoac arditzagun. Demag[illegible], milla urte bicinadilla: or-

rem-

zembeste iñor bici izan ezta. Edo nai badezu, bi milla urte. Dana dala, azqueneco egunean nere burua icusi naidet. Gueroenean au etorricoda: ta contu ori eguin, ta orretan pensatcea, chit ondo da. Eriotzaco gaitzac ematendit. Ah! Ta norc daqui, bat-batean illconazan? Ay, ta nor onezaz icaratcen ezda? Beñzat ezdaquit, cer gaitz nere atcenecoa izangodan, ta ez noiz, ta nola. Ezdaquit, modorra, bereala juicioa quenduco didan bat, izangodan, edo itoric, edo ezpataz, asco bezala josiric izangodan. Bañ ez: gucia, nai bezala, izan bedi.

Izan bedi bi milla urteco bicitza, eta orietan, nai adiña, ta gueiago onra, ta acienda, gusto, ta atseguiñac: itz batean, munduan desea al-ditequean gucia cumplitu, ta betea dedala: ta ori gucia aleric pena, ta quezca gabe. Bi milla urteac igaro, ta ill bear, ta atceneco gaitzac ematendit, neregan, ta juicio osoan beti nagoela. Dembora nola dijoan, nere eriotzaco ordua badator, ta eguin contu, orañche dala. O ceñ indar gabe, ta quemenic ezdedala arquituco nazan! Beguiac ondaturic, ecer ezdacusdala: ya oñac oztu, ta anima faltazaie: oñazeac, ta biotceco naigabeac estutu, ta eriotzaco icerdi otzac ematendit. Echecoac badatoz,

datoz, ta arpegui erori tristean, ta beguietaco illuntasunean dacuste, bereala ill beardedala.

Laster, laster, diote: Oleacioa eman bequio. Badator presaca Jaincoaren Ministro Sacerdotea: Olio santuarequin beguietan ematendit, esanaz: UNCIO SANTU ONEGATIC, ETA BERE MISERICORDIA CHIT PIADOSOAGATIC, BEGUIAZ EGUINDACO PECATUAC JAINCOAC BARCA DIZAIZQUIZULA. Ta onela beste sentiduetan. AMEN, diote gueiac, eta nic ere al-badet, esangodet: AMEN. Illtcecoen Ledania asitcenda, ta guciac diote: ORA PRO EO: ORATE PRO EO. Santuac nigatic erregudezatela: ta al-badet, nic ere esangodet. Bularra estutu, ta anditcenzat, ta asnaseric ya ecin artudet. Santo Cristoa, ta candela escuetan eman, ta nic eciñ iduqui, ta bestec lagundu bear. Oñaceac, icarac, itonaiac ematendidate. Medicuac dio, pulsuric ezdaucadala: ta icusten det nereac eguinduela, bereala iltcen naizala.

Trance estu onetan gogoratcentzat: gaur, ta orañ Jaincoaren Tribunalean aguertu beardet, gaur, orañ nere biciaren contu eman beradet: ta betico salvacio, edo condenacioaren sentencia, erremedio gabe artu beradet. Ay ene, ay Jauna! Nere igaroco bicitzaz

citzaz orduan cer sentitucodet? Cer nere gusto, onra, ta vanidadeaz? Icusicodet, oien zale, ta billa ibilli nintzala, ta oiec guerra bicia eguitendidatela. Ay, certan bicitza igarodet? Ta igaro gucitic orañ cer daucat nic? Ecer ez: beñzat gustoric batere ez. Penac, ta latzac, eta garratzac: ta gorputcecoac añ andiac dirala, animaco oiec ascoz ere andiago dira. Bicitzan atera dedan irabacia da, onela errebentatcen iltcea. Ta ez ori nola nai, ezpada ill, ta nere anima eternidade gucico tormentuetara condenatcea. Ay irabacia! Ay caltea!

Cer da au? Nere juicioa non zan? Onetaco bicitza añ lucea Jaincoac emancidan! Ta nic au nai, ta billatu izandet? Cembat bider avisatua izan naz, ta belarriac ichiditut? Nere biotcean isil mandatu, edo bere inspiracioac Jaincoac eman, ta nic berariaz oriec aztu, ta casoric eguin ez? Cer? Puntu onetan icusico nintzala eznequien? Bai. Ay cer lancea jocatu dedan! Atseguin laburrac gatic betico tormentuac: onren quea gatic betico desonrac! Ta betico suac nola eramangoditut nic? Nola au beguiratu eznuen? Edo nola itsutu nintzan? Erioa bezalaco gauza izugarriac, icara ematen etcidan? Su gar beticoac bildurra sartcen etcidan? Ascotan iracurri, enzun, ta aditu, edo pensatuuuen: ascotan nere oneraco Jaincoac esancidan. Baña nic farra, ta burla eguiten nuen. Bada, orañ nic cer eguingodet? Ay nere Jaincoa! Au cer da?



### BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

EA: trance estu onetan alde gucietara beguiratu, ta cer erremedio dedan icusi naidet. Anima nerea: goia, ta bea, alde bata, ta bestea, igaro dana, ta etorquizuna, orañ danarequin, ondo beguira dezagun. Ay, ta cer ispillu triste ez icusteco obeac! Alde gucietatic nequea, ta alde gucietatic naigabea! Gora beguiratcen badet, icustendet Jaincoaren aserrea, ta onen ezpata maguitic ateraric, nere gañean, ta golpea emateco zorian. Jaungoico guztia nere contra dagoela icustendet: ta guciz justua becela, arrazoi andiarequin, eguin diozcadan ofensa itsusiac gatic, aren Ontasun piedade, ta aimbeste beneficio, nola eguin dizquidan, nic ecertan iduqui gabe.

Bera beguiratcen badet, leizaondo, edo zulo andi illun bat, su, ta gar icaragarriz betea nere beguira dagoela, icustendet, eta an asco deabru a... beren atzaparraquin niri era-

Universidad de Deusto Biblioteca



eraſo, ta nere zoraquerien pagua emateco. Ezquerretara beguiratcen badet, an beste demonio aſco, trance onetan eſtutcen, ta ſearatcen nautenac daude, ta diote, gaizqui bici izanzana, ezdala arrazoi, ondo iltcea, ta anima gorputcetic atera orduco, preſt daudela berequin infernura eramateco. Eſcuietara giratcen banaz, Aingueru Santu, Jaincoaren mandatariac ari daude. Baña Jaincoac oiezaz bialdu cizquidan mandatu, edo inſpiracioaz nic caſoric eguin ezdet.

Igaroco nere bicitzara beguiratcen badet, dana gucia pecatuz, ta Jaincoaren ofenſa, ta aſerrez betea icuſtendet: nere guſtoac acabatu, ta tormentu biurtu dirala. Ordu preſente oni beguiratcen badiot, bereala iltcen nazala, dacuſt, ta munduan gucien nainituen gauzac, adiſquide, ta aciendac ecer baliatcen ezdidatela. Aurrera, edo etorquizunari beguiratcen badiot, contu eſtua, ta eternidade guztia nere beguira daucat, ta dacuſt, ecin atcera biurtu, ta ecin orrela ere nagoqueala. Ay cer eſtura, ta cer anſiac! Ay cer eriotzaren miñac, ta cer infernuaren bildurrac!

Orañ galde naidizut: Anima nerea, nola bici izan naicocenduque? Cer penitenciac eguin izan? Nola Jainc[illegible] gauzai beguiratu



ratu izan? Chiquitic andira zure penſamentu, itz, ta obretan nolacoa izan? Bada orañ eguizu orduan naicodezuna. Ea bada: bijoaz nigandic, ta bijoaz ordu gaiſtoan lurreco deſeoac, ta betoz cerucoac. Quen ortic onra, ta vanidade, ta torpeza itſuſien deſeoac: quen aciendaren deſeo eragabeac: ta oien lecuan, betoz, nere anima, Jaincoaren deſeoac. Munduac naiduena eſan beza: naiz ſantua, naiz Zoroa naizala. Mundua, ta munducoac neretzat ill bite: ta eriotzaco orduan naicodedan gucia eguiten aſi nadin. O ta erioaren iſpillu triſte onetan ondo beguiratcea, ceñ gauza andia dan! Ta azquenic onetan icuſico eznaz? Nere eguitecoa au ezta? Bada cer eguitendet? O nere Jauna! Indazu arren onetaco zure gracia, ez itz bat, ez penſamentu, ta ez gauza chiqui, ta andiric eguiteco nic, ezpada orduan naicodedana, ta orduan naicodedan intencio, ta zuc naidezun vorondateaz. Amen.

### *SEIGARREN CONSIDERACIOA.*

Estura onetan, bi milla urten cabuan, ta alde gucitic antſiaz beteric nere burua iltceco zo[illegible] icuſi, ta beguirada berri bat obeto eman [illegible] trance onen gañean. Ay! Pen-

Universidad de Deusto
Biblioteca



Pensatceac icara ematendu : pasaceac cer eguingodu ? Orduan , bada , nic cer sentitucodet ? Orañ añ erraz galtcen ditudan ordu oietatic bategatic cer emangonuque orduan?Baña, Jaincoac dembora emandidan ezquero , ondo da, erio arequin burruca berriro nere burua icustea. Onetan cordea galtcendet. Credo , Credoa , sinistendet , diote guciac. Esaten asitcendira ; baña nic ecin esan. Biotza lutoz betetcentzat , ta sentitcendet , anima gorputcetic deseguin , ta badijoala.

Anima ortcetan daucat , ta al--eguinaz, nere biciaren atceneco gauza bezala , neque andi artan Credoa esatera animatcen , ta saiatcen naz. Ay anima tristea , zuzaz cer izangoda ? Batetic Aingueruac , bestetic deabruac daude. Ay ceñena izango otecera ? Ta onetanj icusi bearnaz ? Ah nere Jaun piadosoa. Dedan dembora onetan , uztazu negar daguidan. O norc biotceco deadarric andienac, igaroco bicitzaren negarretan eman litzaquean ! Ta bada puntu artan lecuric izango ezdet, orañ au soseguz artu beardet. CREDOA asi , ta acabatu eciñic , atceneco iru asnaseetatic bat estu estu emandet. Ay pecatari tristea , ta galdua , Jaincoari aimbeste falsia eguin , ta aren etsai cerana !

Are estuago bigarren as[illegible]sea artcendet,





ta eguin contu , puntu artan bertan , arrazoiaren uso ezquero bici gucian eguin izan dedan ona , ta gaitzą beguietan jartcenzadala. Ay ceñ contu , ta arrazoi gabe bici izan nazan , ta ceñ estua artu bearzadan! Azqueneco asnasea ematen asitcen naz. O puntu, o instante , o momentua! O demboraren ergaia , mereci , edo desmereciaren acaballa! O ! Onetan anima ateratcenzat ! O momentua , cincillic eternidadea daucana ! O momentu , eternidade guztia ondoren dacarrena ! Ay ! Ay ! Jesus milla bider. Puntu artan nola arquituconaz ! Justua ozta salvatcen bada : pecatari onezaz cer izangoda ?

Au icusiagatic ere badirudi, calloac eguin, ta nagoela , onelaco consideracio dan fuerteenac ere niri mellaric ez eguiteco. Nor , au icusi, ta ondo bicitcera , erretiratcen ezta? Nor ondo iltceco prestatcen beti egon , ta arico ezta ? Nori onec fuerza eguingo ezdio? Bada niri nola eguiten ezdit ? Nola illa bezala bertatic bici eznaiz ? Ea , bada , beñ , edo beñ nere eroqueriac acababitez : nere trazac, nere andinai , jaquin nai , estimacio , gusto , ta erregaloen deseoac ; beste vanidadeaquin beude betico. Nere Jaungoicoa, ta onen vorondate santua naidet , ta ez besteric. Ill bedi beste gu[illegible] ta ni beste guciarenzat ill

Universidad de Deusto Biblioteca



nadin. Jaincoa bacarric nere biotcean beti bicidedin. Amen.

### AMA VIRGIÑARI COLOQUIOA.

ANdre gucien artean bedeicatua, ta Gure Jaincoaren Virgiña Ama maitea. Nere anima, ta gorputzarequin aurrera pasatu baño len, nere atceneco trance au zuri encomendatu naidizut. Munduco itsaso nastu onetan, Zu Ar izar ederra cera: nere ecaiz, ta peligroric andien onetan, arren zucendunazazu. Esperanza, ta consolacio guciaren Ama, ordu estu onetan penaz, ta antsiaz itotcen dagoen oni atseden, ta consueloa emaiozu. Nere etsaiac, dembora acabatcenzaiela icusi, ta perseguitu, juicioa galerazo, ta beraquin ondatu naiconaute: arren ordu artan Zuc lagundu, ta libranazazu.

Ama guciz santa, ta piadosa: izanzaite orrela neretzat. Bertatic orduraco, nere anima ematen, ta biotz guciaz, fede, ta esperanza osoaz encomendatcendizut. Zuc zure amparoan artcen banazu, seguru nago. Ea, bada, ni pecataria, zure mantupean arnazazu. Nere pecatu andiaz azturic, eriotza on bat segurazadazu. Dicharic andien au, Jesus zure Seme, S. Josef zure Esposo, ta S. Joachin,

chin, ta Sta. Ana zure Guraso maiteac gatic escatcendizut, graciaquin zu alabatceco glorian. Amen.



### DEMBORAREN GAÑEAN CONsideracioa.

ILI, ta gorputz, eta animari beguiratu baño len, demboraren laburtasuna, ta merecitceco dembora nola acabatcendan icusi naidet. O ta ceñ laburra dan! Atceneco asnasea eman, ta ya demboraric ezta. Ah! Lenche ago bazan! Ta onetan cincillic eternidade gucia dagoela! Ta dembora ori nola nic aprovechatu bearnuquean? O cembat dembora galdu izan, ta galtcen dedan! Ceñ guchi estimatcen dedan! Escua emango balitzat, dembora pusca batean, nai dedan adiña urre artceco: Ah nola punturic galdu gabe, demboraz baliatuco nintzaquean: ta are gueiago, laburra izan, ta ezbanequi noiz acabatucozan! Ta cer? Demborac guchiago baliodu urreac, ta ondasunac baño? Badaquizu cer balioduen?

Zure animari galde, eriotzaco ordu estuan icusten danean, munduco ondasun guciac baño, ordu laurden bat, gueiago estimatuco luquean? Ce[illegible]agoan irabaci, edo gal-

Universidad de Deusto Biblioteca



du diteque cerua. O cer antsiaquin dembora precioso onen puntucho bat ere ez galtceco, nic ibilli bearnuquean! Eguarguia degun artean, Jesu Cristoc dion bezala, gabiltzan, gueroco gau illunac arguitzan baño lenago. Dembora momentu bacar bat galtcen badet, eternidade guciraco ori galdua det. Eguia da, dembora galduaz, edo nere culpaz damu izan dezaquet; baña beñic beñ, dembora galdua, galdua betico gueratcenda: orrez ecin baliaditeque. Igaroco dembora igarozan: etorquizuna eztago nere escuan. Orañgo instante au det nerea. O nere Jaun andia, cer eguingodet? Nere igaroco desdicha, ta culpa barcazadazu: ta orañgo demboraz zure eternidadeco gloria irabazten lagunzadazu.

## GORPUTZ ILLAREN GAñEAN LEnengo Consideracioa.

EGuia da, animac gorputcetic irten, ta bereala Jaincoari contu ematera joan bearduela. Alere soseguz au artu naidet, eta nere modura baguiratu contu daguidan, ba-



bada, ill ta bereala gorputzarequin cer pasacendan, ta ori enterratu arteraño, anima beguira paratcendala. Icustendu nolacoa, ceñ echura gabe, itsusi, ori, illun, ta ill otza gueracendan. An daudenac, beguiac ichi, besoac compondu, ta ill jancia ecartcendidate. Batzuec, eta besteac ni icustera sartu, ta laster dijoaz nigandic iguesi, ceren ni icusiac icara gogorra ematendien: ta prisa andia prestatceco, ta len bait len enterratceco ematendute.

Onetan ill Campaiac asitcendira. Batac, ta besteac galdetcendu. Nor ill da? Urlia. Jaincoac contu on ardiozala: ta bereala aztu, ta beren eguitecoetara dijoaz. Ill jancia artu, ta ni ez icusteagatic beguiac beste aldera biurtcendituzte. Beso bata batera, bestea bestera, ta burua bere aldera erortenzat. Gueroenean ill jancian sartcen naute. Ah tristea, munduco ondasunetatic ceñ guchi daramazun obira! Echean dan erroparic zatarrena; ta onena baliz ere laster zurequin usteldugoda. O ceñ guchi baliatuco zaizquitzun aide, ta adisquideen negarrac!

Gorputz ori noren escuetan ibillicodan, ta norc Eleizara eramangoduen ezdaquizu. An zulo andi prestaturic egongoda, ta Meza esan, ta be[...]an sartucozaituzte, ta

zure

Universidad de Deusto Biblioteca



zure gañean lenagocoen ezurrac, ta lur usٞtelac botacodituzte: nola nai calcatu, ta zapatuco zaituzte: ta losa gañean bota, ta alacoriz ezbaliz bezala, guciac dijoaz jatera, edatera, ta galanqui farra eguitera. O, Ta zu ceñ bacarric, ondatu, ta betico azturic guératcenceran!

*BIGARREN CONSIDERACIOA.*

EMén, nere anima, estacio bat daguigun: beguira zure gorputza lurpean, ta nolacoa gueldiٞtcendan. O gorputz galdua! Zu cera nic aimbeste erregalatu, janci, ta apañtcen cindudana? Zugatic nere Jaincoaz, ta animaren salvacioaz azturic bicinintzan? O nola ceunden, ta nola zauden! Lengo janari gozo, ta erregaloac non dira? Soñecoac, eta galac non dira? Joiac, ondasunac, ta gorputza servitceco biribillaturicaco beste gauzac non dira? Guciac eguitencizuten erreverencia, zure onra, puntu, ta orien deseo vanoac non dira? O aice utsa!

O nere Jauna: eroqueria oriec oñpean utci, ta arren indazu gracia, zuri bacarric laztan estu estu bat emateco! Ay! Ta gauza orren char ecerezac Zugandic ni apartanazatela! Gorputz abereagoٞ bat, ta oriec bañó



ño loiago dan onegatic Jaungoicoa nic utcidezadala! Cer gauza altuago, ta obeagoric, Jaincoa baño? O cer zoraqueria nerea! Ez arren, Jauna, orrelacoric permiti gueiago. Ay cer ofensa eguindizudan! Orren gauza atsa, ta itsusia zu baño gueiago estimatudet? Nere gorputza cer da? Auts pusca bat. Bada autsa bezala tratatu bear det. Ta nola ill ezquero, calcatuaz quejatcen ezdan, ala nic ere, illa bezala, quejatu bear ezdet. Oñ pean guciac iduqui nazatela: ori dagoquio gorputz oni.

Betor, Jauna, zure arguia, ondo icusteco, oguei, edo berrogui urte ígaro, ta nere gorputz au nolacoa egongodan. Emen buru ezurra, an beste ezur utsac. Ay ceñ aztua! Birreun urte igaro ta cer izangoda? Ta orañ onragatic, cer dioten, nigatic cer sentiduten beguiratcendet. Ay nere desdicha! Ay ceñ itsua ibillinazan! Oñ azpian emendic aurrera gorputz au, ta vanidade gucia iduquicodet. Gorputz illari, auts ustelari bezala beguiratucodiot. Lagunzadazu, Jauna, zuretzat bacarric bicinaidet.

* * * *

BACOI-

Universidad de Deusto
Biblioteca



## BACOITZAREN JUICIO, EDO PARticularen gañean.

### LENDABICICO CONSIDERACIOA.

ILl ezquero, zure gorputz ori arrac jateac, ecer esan nai eztu. Animan dago contua. Gorputza usteltcen utci, ta orañ soseguz, gure erara, animari jarraidiozagun. Goacen, bada, nere anima, Jaincoari contu ematera: baña Jainco bati, ceñaren justicia ondo gabea dan: Jainco guciaren berri daquien bati. Ah ta ceñ urruti dauden guizonen juicioac Jaunaren juiciotatic! Ah! Ez campotic dirudienaz, ezbada barrendic eguiaz danaz arc juzgatcendu. Ay, Jauna: nola contu au emangodet? Nola irtengo otenaiz? Eternidade gucia dijoa onetan, ta secula gucietaco cerua, edo infernua. O! O! cer izua!

Orañ, cer izangodezun, jaquin beardezu. Ta contuetan alcanzatcen banaute, nizaz cer izangoda? Cer contu det: ta Jaincoaren juicio onetan gauzac nola dijoaz? Ay ta ori norc asangodit? Juicio onen tela icusi duten batzuequin contu eguin na[illegible], an cer igarotcen-



tcendan nic icusteco. Contu daguidan, bada, arguitasun eder bat icustendedala, ta Aingueru chit eder asco: oien erdian anima bat, emen munduan chit aztu, ta guizonen artean chit utciricaco pobrecho batena: onec coroa guciz eder bat daramala, ta musica chitezco suavearequin Ainguerual cantatcen diotela modu onetan: Negu triste euriz, ta nequez betea zuretzat igarozan, ta udaberri gozo beticoa etorricoda. Ea anima fiel zorionecoa, aleguerazaite, ta zure Jaunaren ateguiñetan sarzaite.

O ceñ berri onac! O ceñ suerte dichosoa! O neque ondo eramanac! Suerte orregatic cer eguingo eznuque nic? Orren truquean, munduco neque, ta penac cer dira? Religio batean cocinari, ontci garbitzalle humillena izatea, penitenciaric arrigarrienac, ta arrastacaco bicitza bat eguitea, Coroa ori irabazteagatic cer da? Ecer ez. O! Aita, ta Ama, aide, ta adisquideac, onra, ta aciendac utci, ta nere buru, edo vorondatea autsi, ta ucatcea, dicha ori alcanzatceagatic cer da? Ecer ez.

Aurrerago noala, icustendet que izugarrizco odei illun bat, ta adia dolorezco deadar triste batzuec aditcenditut: onetan demonio icaraga[illegible] batzuec beren erdian dacarte.

Universidad de Deusto Biblioteca
carte itſatſiric guizon eſtimatu, aberats, jaquinſu bat, deadarrez diotela: Ea, vitoria, vitoria: guereaz irtenguera: betor, betor, infernura betor. O! deſdichaduac cer eſangodu? Ay ene! Ay ene galdua! Infernuco cateaquin erremedio gabe nago! O cer icara nic artu beardet, orrembeſte guertatuco otezadan! Ta igaroco bere bicitzaz cer eſangodu orduan? O cer gorrotoa onra, ta guſtoen contra artucoduen! O cer aſerre bici infernucoac artu, ta eciñ aſperturic arrabiaz madaricatcen aſicodan!

Madaricatua, eſangodu, madaricatua izandedilla nic jannuen oguia, ta edan nuen ura: Madaricatua ni ſortuninduen Aita, ta erdininduen Ama: Madaricatuac nere guſtoac, nere onra, acienda, ta jaquintaſuna: Madaricatua izan nadilla ni beti, ta betico. Madaricatua izandedilla Jaungoicoa, ta arequin dauden guciac. Galdua naz, condenatua naz. Onetan icuſtendet, nola deabruac ſuz ta garrezco atzaparraquin infernuaren ondarrera daramaten. Ah! Puntu onetan mundura biurtcen uzten balidate! Cer eguingonuque? Baña cer eguingo eznuque? Orañ ezta dembora. Contu ematera goacen. O dembora dembora! O dembora gaizqui eſtimatua, ta gaizquiago igaroa. O dembora munduco ondaſun guciac baño precioſoago a!

BI-



## BIGARREN CONSIDERACIOA.

NEre modura contu daguidan, bada, Jaincoaren Tribunalean ſartcen naizala, ta Jarlecu guciz eder batean Jeſu Criſto eſeriric icuſtendedala, ta aren aldean Ama Virgiña chit ſanta, ta Aingueru aſco. Beſte aldetic chit demonio aſco, nere bicitzaco Librua dacartenac: ta chit contentu, auzia claroa, ta ſentencia berena dutenac bezala. Jaunaren Mageſtade aundiaren aurrean preſentatcen naute: onec nic eguindedan guztia daqui, ta nere pauſoac, ta penſamentu, itz, ta obra guciac contuac dauzca. Ainguerua aldute erreverencia guciarequin auſpez aren Mageſtadea adoratu, ta cantatcendiote: SANTU, SANTU, SANTUA, Egercituen Jauna: zurea da poderioa, ta gloria: zure vorondate guciz poderoſoari erreſiſtidiozaqueanic ezta. Ta gucia iſildu, ta

Bereala gure Jauna aſitcenda, ta eſatendit: Nic bicia eman, ta gordezaitut. Nic memoria, entendimentu, ta vorandate beſte doai aſcorequin emandizut. Nic pecatuaz zu galdu ecindecen, zugatic Guizon eguin, ta negar eguin nuen, goſe, egarri, pobreza, ta nequeac artunituen: zugatic azotatua, coronatua, ta lapurbi-ren erdian Gurutcean joſia

Universidad de Deusto Biblioteca



sia izan niñzan. Nic an nere odola, ta bicia eman nuen. Cer nic zugatic eguin al nezaquean, ta eguin eztet? Aimbeste ere urtean echeden, ta sufritu zaitut, misericordia misericordiaren gañean eguin, ta ceruarequin convidatuaz. Orañ, bada, zuc esazu, ta nic emandizudanaz contu emazu: zugatic eman nuen odolaz contu indazu. Nere amorioari, aimbeste beneficio espiritual, eta demboral, nic eguindizquitzudanac, nola pagatu dituzun, ta nola erantzun didazun orañ icusi dezagun.

Ay! Ay, Jauna! Nere concienciac cer sentitucodu? Ay, ta ceñ alcanzatua contuetan arquituconazan! Cer eguingodet? Cer eranzungodet? Cer esangodet? Onetan demonioac escua artu, ta esatendidate: Gurea da, gurea da ta argatic, Juez justua, entregazaguzu. Libruac idiqui: ta itz alpercho bateraño, eguindedan gucia contatcendute: Onelaco egunetan, Jauna, ta onelaco lecutan alaco pecatu eguintzuen: onelaco egun, ta onelaco bazterrean alaco pecatu: orren Jaincoa sabela zan: orren idoloa onra zan. Gauza onen bat eguiten bazuen guizonen esanagatic, edo ondo iristeagatic zan. Certan dudatu eztago. Zure beneficioai ofensaquin eranzundic: bere pecatuaquin onec Gurutcean josi-



josicinduen. Ascotan Zu onen biotceco ateetan deiez, ta idiqui bearrean, ateaz arpeguian emancizun. Zure aviso, ta inspiracioai casoric ez, ta ascotan ondo cecusela, pecatuaz cerua galdu, ta gure esclavo billau gueratcen zala, orregatic ere seculaco galdu naizuen. Bada berac naizuen, berac pagadezala: bere mereciduen pagua arbeza.

Juez justua nigana biurtcenda, ta descargua emandezadala aguintcendit. Nere Ainguerugana biurtcennaz, ta icara andiaz, nere biciaren procesoa iracurri dezala escatcendiot. Aingueru Santuac nere obra guciac, charro bat ur pobrecho bati emaneraño, ecer utci gabe, diranac contatcenditu: penitenciac, ta beste virtuteac ere bai. Baña demonioac burla eguitendute, eta oriec Jaincoaren icenean, bearzan intencio, ta biotz onaz etcirala munduagatic baicen. O cembat obra munduarequico onac, an utsac arquitucodiran! Lotsatu, arritu, ta cer esan ezdaquidala gueratcen naz, ceren Jaincoagatic ecer eguin eztedan. Emen Juez ac nere sentencia artceco, beguira nagoela aguintcendit, edo ala contu eguingodet.

IRUGAR-

Universidad de Deusto Biblioteca



*IRUGARREN CONSIDERACIOA.*

AY! Cer izangoda zuzaz, Juez aren Tribunaleco ateetan ſentencia echedeten zaudenean? Ay ta ſentencia erremedio gabe beticoa! O cer beltzuriac, cer icerdilicac, cer bildur, ta naigabeac ſentituco dituzun! Salvatuco oteceran, edo ez. Emen nic galde naidizut: cer eguin izan naicocenduen? Cer bicimodu artu izan naicocenduen? Bicitza naguiaz, edo guchi eguiñaz, ala gauza gucietan al zan ondoena eguiñaz contentuago izangociñan? Ta eſtura onetan zaudela, mundura biurtceco lecua emango balizute, cer eguingocenduque? Cer artu, ta cer utcicocenduque? Zure penſamentu, itz, ta obrac nola ordenatuco cinduque? Nola eſaminatuco cinduque? Lengoen penitencia nola eguingocenduque. Ah! Ceñ biotcetic Jaincoari eſango ciñoquean!

Jauna, penitencia eguiteco lecua indazu: pocic, ta nere aleguin guciaz, bicitza icuſgarri, ta icuſi eztan bezalaco bat nic eguingodet. Orañ, bada, contuetara. Zuc infernua merecicenduela, Jaincoac dembora au emandizu: bada orduan eſan, ta eguingo cenduqueana, cergatic orañ bereala eguingo ezdezu? Orduan juzg[illegible], ta gogotic artuco



tuco cenduqueana, orañgo zure obra, gogo, ta intencioen erregla cergatic izango ezta? O ceñ gogotic onena gucian orduan artucocenduquean! Cergatic, bada, orañ eguingo ezdezu? O nola zure ſalvacioraco egoquien zan eſtadu, ta bidea artuco cenduquean! Cergatic, bada, gaurtic biarrera, ta galtceco, atceraca ibilli gabe, orañ ori artcen ezdezu? O nola, zure anima ſalvatceagatic, onra, acienda, ta aideac utci, ta cere burua ucatucocenduen!

Cergatic, bada, orañ eguiten ezdezu? Ea: chit gogotic artu beardet, orduan naico nuquean gucia, orañ bereala aſi, ta eguitea. Naiduena coſtabedi, nere guſto, ta deſeo gucien contra badere. Guciac baño nere ſalvacioac gueiago baliodu. O nere Jauna, zure bear naiz: zure indarra betor. Zu gabe, nic ecer balio ezdet. Ea zure arguia betor nic ezagutceco zure vorondatea, ta convenizadan bicimodua berebereala artceco. Nere Ainguerü ſantua: nola eguingonuque? Nere bicia nola zucenduconuque? Virgiña Ama guciz maitea: zuc ere lagun zadazu, ta Jaunari eſcazaiozu, cer nic eguitea naienduen, eracatſi dizadan.

O Jauna balia daquidala! Ni beſte bat banintz Ainguer[illegible] cer eranzungo luqueala deritzat?

Universidad de Deusto Biblioteca



ritzat? Cer Ama Virgiñac? Cer aconseja-tucoluque Jesu Cristoc berac? Ea dacuscun, nola bicitcea aguinduco lioqueten? Orra, bada, nere bidea: orrelasse nere pensamentu, itz, ta obrac izan beardute: ta aurrera, onela eguin dedan, ala ez, gau oro contuz esaminatucodet. Aita Eterno, ta nere Jaungoicoa: Jesu Cristo zure Semearen amorez, ta icenean, arren onetaraco beardedan gracia indazu. Bada dembora emandidazu: orr nic galtcea, ez arren, Jauna permiti.

*LAUGARREN CONSIDERACIOA.*

AY nére anima! Contu au garbitu, edo eman artean, nola atseden dezaquezu? Batez ere chit santuac berac onen bildurra, ta andia ceucatela icusiric. Bada nola ni icaratuco eznaz, pecatari añ andia bici gucian izan nazala. Sobra pecatu eguinditut: barcatuac dauden, ezdaquit. Gucien contu estua eman beardedala, badaquit: ta Jaincoaren juicioa eguia bera dala. Eguin bearzadan carguaz oroitcea, bat arritceco ascoda. O nere Jauna! Bildur au beti biotcean josiric baneuca! O nere bicico pauso guciac, eman beardedan contu au beguien aurrean daucadala, ematen banitu!

Bada



Bada, anima nerea, juicio estu, aurrean daucazun au zure bicimoduraco freno izan bedi. Ta gueroenean ere sentencia bata, edo bestea eman bearbazat, eta salvacioa nic aimbeste deseatcen badet, ta orañdaño condenacioa ascotan mereci izan badet; arrazoi izangoda, sentencia bata ta bestea ematen zadala, nic contu eguitea. Orrela icusicodet, cer sentitueonuquean, ta salvacioarena gogoticago artucodet, condenaciotic igues eguiteco. Obeto onela, merecinituen penac icusi, ta Jaincoari, eguitendidan favorea, bicicra santu batez pagatucodiot.

*BOSTGARREN CONSIDERACIOA.*

LEnengo, nere buruari, pecatari galdu bati bezala bada, ala naiz, beguiratu naidiot nere modura gauza oiec artu, ta aditu, ta soseguz contu eguin naidet: Jaunaren Tribunaleco atectan egon ezquero, sentencia emateco, barrena deitcen, ta aguintcen didatela. An Jueza nerequin aserre dagoela icustendet. Ay nere Jesus ona! Zu aserre, ta bere contra icustea, norc sufridezaque? Beste infernu, edo penaric ezbaliz ere, onegatic bacarric, munduco gauza gaciacgatic etcinduquet ofenditu nai. Ta au nere bician



nic

Universidad de Deusto Biblioteca



nic bildu, au nic irabacidet? O nere desdichadua! Zure ao gozotic condenacioco itzac enzun bearra, pensatuac berac icaratcen nau. Jaun guciz poderosoa, ta nere contra aserraturic?

Ay ene! Cer dolore izanditeque onen pareric? Obelitzaque mendiac azpian ni betico ondatcea. Castigu mota guciac betoz, Jauna, nigana, nic Zu aserre icustea baño lenago. Eritasun, ta gaitzmodu mundu gucian izandiranac, ta munduaren çaburaño izangodiranac betoz nere gañera, ta nic Zu aserre icusi etzaitzadala. Demonioac asma al ditzaquean tormentu, ta pena guciac betoz, Zu nere contra aserre ez egoteagatic. Ay nere Jaincoa, ta nere pecatuaquin aserrerazo zaitudala! ò seculan eguin ezbanitu! O mundu guciaren aurrean negarrez, ta deadarrez deseguinbanedi! O pecatuan lotan zauten Cristavac: jaiqui laster, jaiquizaitezte. Noiz artean biotz orren pisu, itsu, gogorra izangodezute?

O norc mundu gucia arritzeco diña dan deadar bat, norc emanlezaquean, eta San Juan-en guisa esan: laster, guizonac, Jaincoaren aserretic igues laster. Nola igues etzoazte? Guizon aserratu bategandic iguesca zoazte: ta Jaungoico aserratuagandic ez? Orduan, bada, bere aserre guz... Juez justuac Ain-



Ainguerual esangodie. Nic seme au azinuen, ta gora jasouuen, ta onec gaizqui pagatu, ta despreciatu nau. O Jauna! Ceñ arrazoi andia daucazun: edolaric uztazu negarrez urtutcen.

Aurrerago banoa, ta aren beguiac su gar izugarriz beteac, ta aren itzac ezpata zorrotz alde gucietara erdiratcendutenac dirudite. Oa, madaricatu ori, dio, Satanas, ta bere lagunaquin: oa nigandic betico infernura. Ay! Demonio, an diran guciac bereala erasotcendidate iscambilla andiaz, suz ta garrezco cateaquin lotu, ta alde gucietatic nastutcen naute, ta beren erdian naramate. O cer biotceco estura! Ay! Ay! Oteda bide, edo erremedioric, ni etsai oietatic libratceco!

Al dedan bezala belaunico jarri, ta Aingueru, ta Santuetara biurtcen naiz: ta negarrez urtutcen, nere Ainguetu Guardacoari, ta nere devocioco Santuai deitcendiet: Ea nere Ainguetu, ta Santuac lagunzadazute: laster bitarteco irtenzaitezte, bestela demonioac banaramate: nigana laster, Jaincoagatic. Baña: orañ ezda dembora, diote: ta nere Ainguetuac esatendit: ondo merecia daucazu castigu au, bada nere esanic eguin nai etcenduen. Zure lagun, zurequin beti nembillen: juicio, ta contu estu au aurrean nic zuri isiñi, ta

Universidad de Deusto Biblioteca



ta zuc niri caſoric ez. Nic Jaunaren paquerá convidatu, ta zuc nai etcenduen: orra bada, ſeculan izango ezdezu: alper da eſcatcea: pecatarien deſeoac ezdira cumplituco. O erreſpueſtaren garratza!

*SEIGARREN CONSIDERACIOA.*

Estura onetan cer eguin aldezaquet? Ea Ama Virgiña gana biurtu naidet. Jaincoaren Ama, Virgiña, Andrea: Miſericordiazco Ama, ta chitez piadoſa, ta Ama guciz gozoa. Bada cera pecatarien Ama: ona ni pecatari triſte deſdichadua: izanzaite nere Ama: zure miſericordiaz uſaezazu nizaz, ta etſai oietatic libranazazu. Baña ay! Orra non aditcendedan, miſericordiaric ezdala neretzat, eta Amaren oficioric eguingo ezduela. O nere zori gaiſtocoa! O nolaco Ama ſeculaco galdudedan! Pecatuac eguitean, beſte gaitzic ezbaliz ere, onelaco Ama galtcea baicic, au ezta aſco pecatutic igues eguiteco? Ta Ama nereac uzten, ta deſamparatcen banau, nor nizaz oroitu, ta laſtimatucoda?

Ay nere Jaungoicoa! Ta nic au merecidet, ceren aren amorioa Ama guciena baño andiago izanic, demboraz ni aprovechatu eznazan! O emen deſventura onen gañean norc negar leguiquean. Ea, nere biotceco barren





barrendic Jeſu Criſto gure Jaunari deitu naidiot: Nere Erredentore, ta Jauna, miſericordia nizaz. Acordazaite, ni etſai oietatic libratce-arren zure odola, ta bicia emancenduela: orregatic, bada, Jauna, ta zure Aitari diozun amoreagatic piadadea nizaz. Baña eſatendit: orregatic beragatic, ceren ori gucia, ta dembora nic eman, ta baliatu nai etcenduen. Quen ortic, etzaitut ezagutcen. Nola, bada, Jauna: otſeguiten eznizun: Jauna, ta nere Jaincoa? Confeſatcen, ta comulgatcen ez nintzan? Bai, baña aoz ori eſatea: Jauna, Jauna, aſco ezta. Itz ederraz ni pagatcen eznaiz, ezpada biotceticaco obraz, ta nere Aitaren vorondatea eraguiten dutenac. Confeſio, ta comunioaz bear bezala baliatu baciña, erremedioa cenduen.

Ay Jauna, arren miſericordia nizaz. Eſatendit: Miſericordiaren atea zuretzat ichizan. Orduan Deabruac itſatſi, ta berena bezala naramate. Damu gorri gaiſtoan joangonaz, ta itz ſamiñ aietan penſatucodet: Ay! Erremedioaren atea ichia dago neretzat: ta ori betico! Ta au Jeſu Criſtoc, eguiac berac diola! Ah! Ceruac, ta lurrac lenago faltatucodute Jaun onen itzac baño! O ichiera beticoa! O eternidadeco deſdicha! Jeſu Criſto len beſoac zabalic ni artceco cegoen, barcacioa niri

Universidad de Deusto Biblioteca



zi aguinducidan, ta bere odolaren costuan ceruco atea idiquicidā. Ta ya secula gucietaco neretzat ichia dagoela! Ta au iduri pena ezdala, ezbada eguia bera! Itcic, ta moduric ezta, onezaz anima batec iduquicoduen sentimentua adierazotceco. Aurrera igaro baño len, bada, zuri deadar eguin naidizut.

Beguira, nere anima, beguira ondo desventura onen andia. Milla bider ta gueiagotan sentencia au mereci izan dezu. Ea demboraz baliazaite. Beguira desdicha orretan aurrera erori etzaitecen. Obrac dira amore, ez itz onen calore. Obretara, bada, demborac dirauen artean: noiz artean datequean eztaquigu: estimatu, ta aprovechagaitean. Gaurtic biarco eguiteco andi au uztea, ondo izangoda? Bearbada batean, venturaz dembora izangodet, batean uztea, ondo izangoda? Orrelaco gauza orrela artu? Ez orisse. Eternidade gucia orrela? Ez orisse. Bereala, esan, ta eguin. Bertatic asigaitean: quen embarazo guciac: dana dala, quen: ta biciera berria, demboraz baliatu, nere vorondate galdua ucatu, ta deseguin, ta nere Jaincoarena gucian eguin naidet. O Jauna, ala zuri naidaquizula! Betor zure gracia, ta eracutsizadazu zure bidea. Amen.

INFER-



# INFERNUCO TORMENTUEN gañean.

### LENDABICICO CONSIDERACIOA.

JUicioco sentencia aditu, ta erremedio gabe cere burua icustean, ta lasterca Demonioac biribillan infernura zaramazquitela: ay nere anima, cer pena sentitucodezu? Ta are gueiago aiec icustean, algaraz triunfalarien guisa dijoazela, ta zure burlaz diotela: Ea, ea, onezaz naideguna eguindegu: gureaz irtenguera: engañatudegu: Ah zorigaistocoa! Secula gucietan gure catibu izangoaiz. Ta orrela nere betico çaltearen billa dabiltzan etsaiai sinistu beardiet nic? Ni galdu, ta farra, ta algara eguin naidutenai orrela sinistu beardiet nic? Oriezaz fiatu beardet? Bada, orra cer pagua emangodidaten. Ay nere Jaungoicoa! Ceñ lo pisuan egon nazan, ta nagoen, onelaco, ta onembeste etsairen artean!

Contu daguidan, bada, lasterca infernura narametela: ta ara allegatu baño len, beguiac cerura jasotcenditudala. ¡Ay ene: cer galdudedan, ta çer garic! Ay anima, ta ceñ erraz cerua alcanzatu, ta Ainguerüen lagun, ta

Jain-

Jaincoaren alaba maite izan cindezquean! Ta orañ beguira, nola, ta nora zoacen! Onetan ibar batera allegatcencera: andic infernuco leizondoa icustenda. Be artan beguiratucodet, suz, ta garrezco ibai andi que guciz izugarri illun bat botatcenduena: an demoniodi, berariazco erramienta arrigarriz, ni tormentatceco prestatua. Baita contu eguingodet, Purgatorioco suac ere, eta an anima santa asco, tormentu icaragarrietan icusten nagoela. Ay ta norc luque an zuen suerte ori! Libru, ta paper gucietan letra diran baño urte milloi ascoz gueiago or egon bear banuque ere!

Emen erreparatu naidet, ascoz ere guchiago dala, Jaincoac escatcen didana. Cergatic, bada, bide ori artuco ezdet, eta penitencia eguingo, gorputza mortificatuaz, janean, edanean, itzeguitean, beguiratcean, ta orrelaco gaucetan? Demonioac gueiago largatcen ezdidate an; ezbada, infernua dala nere betico toquia esanaz, botatcen naute an bera: ta errota arri bat cerutic ichasora indar guciaz botaco baliz bezala, infernura tiratcen naute, diotela: Jausida, jausida Babilonia andia: nere onra, sobervia, eraqueria, andinaia, estimacio, erregalo, ta gustoac bururic seculan ezdute jasoco. Oiec dira aicezco torre nic nerequico eguin, edo jaonituen...

Oiec


Oiec nere trazac? Onetara dira nere anditasun, ta erregaloac? Ta au icusi, ta beti era batera biciconaz? Biciera obea artuco ezdet? Cer eguiten, edo ceren beguira nago? Au icusi ezquero, cer gaitz Jaunaren bidean izanditeque? Cerzaz quejanaiteque? O nere Jaincoa! Ceñ ecereza nazan; bada, au icusi, ta deseguiten eznaz. Lagunzadazu, Jauna.

## *BIGARREN CONSIDERACIOA.*

Golpe batean, bada, deabruac su aietan ondatuconaute. An consideratucodet, nere gañean eun lantza goridaudela, ta bean, ta alde gucietan beste aimbeste, ta ni gucien erdian. Suac berun, ta metallu urtu guciac baño gueiago erretcendu: ta emengo suac pintatuac dira aren aldean: ta ala nere burua, beguiac, aoa, musuac, oñac, escuac, ta gorputz gucia beguiratucodet, suteguitic goritu, ta ateratcendedan burnia bezala. Cer dolore, cer tormentua izangoda? Ay ta norc sufritucodu? Escuan erortenzadan gueldo, edo chingar bat ieciñ sufritudet: sugar beticoa nola eramangodet? Su alea, suzco botoi, edo lancetada bat eman bear bazat, orren bildurrac berac loa quentcendit. Bada tormentu aiec nola arritcen eznaute?

Eguia

Universidad de Deusto Biblioteca

Universidad de Deusto Biblioteca



Eguia esatera, tormentu ori, AVE MARIA esan arte, sufritu bearbaliz, ez gueiago: alere munduco ondasun guciagatic ezlitzaque iñor izango tormentu orretan jarrico litzaqueanic. Nola ni orretara obligatu izan naz, ta betico? Ta ez Erreino acgatic, ezbada aurqueriacgatic, ta doaric, ta eternidade guztiraco? Ay ta au jaquin, ta nola icaratcen eznaz? Evangelioco eguia au, sinisten dedan bezala, sinistu, ta gaitz orren andiac nola izutcen eznau? Jaquin ori gucia mereci izandedala, ta barcatuzadan jaquin ez, ta onen seguru, ta etorrico ezdala, cierto banengo bezala? Ay ta orañdañoco culpac barcatuac baneuzca ere, aurrera etorrico naizan ez jaquin! Ay bildurraren tristea!

Onequin batean pisadezagun, illuntasun andi beti demonioac beguiz, ta alde gucietatic icusibear gogorra. O illuntasun beticoa! Baña ondo merecia, ceren begui oriec pecaturaco illun bea, Jaincoaren arguia baño naiagozuten. Cer? Buru gabeco lau desonesto, edo ero utsai, Evangelioari baño lenago jarraitu beardiet nic? Nere pasio, edo griña gaistoac onela itsutu naute? Nola itsu buru gabeai jarraitudiet? Demonioen vistac cer tormentu icaraz betea emangodu? Batetic añ itsusiac berez diralaco, ta bestetic eriozco gure

re



gure etsai animac tormentatcen dituztenac diralaco.

Ango deadar, ta garrasi triste adiaz beteac belarriai cer tormentua emangodiote? Ango usai ustel quiratsezco illgarriac: ango gusto samiñ garratzac: ta ango oñaze, ta gorputz guztico tormentu ecin esanalac? O nola gucia erre, egosi, pregitu, ta dolorez errebentatcen egongonazán! Beguira, bada, ondo, su, ta tormentu orietan nola egongociñan: ta queja, ta garrasi samiñaquin esangocenduen: Ay ene bada! Erretcen, illtcen, lereguitendet! Ay! ecin eramandet! Momentu bacoitza milloi bat urte eguitenzat! Eternidade gucian nola eramangodet au? Noiz acabatucoda au? Iñoiz ez. Noiz aliviatucoda? Iñoiz ez. Noiz emendic irtengonaz? Iñoiz ez.

Ay! Norc emendic ateraconau? Iñorc ez. Erremedioric eztago? Ez. Norc consolatuconau? Iñorc ez. Nor nizaz lastimatucoda? Iñor ez. Consueloric ezdala: erremedio, ta esperantzaric ezdala? Ez. Ta emendic eun milla urtera? Ez, eta secula gucietan ere. Cer eguingodet, bada? Erre, ta chiscaldu, arrabiatu, ta illnai, ta ecin ill. Cer da au? Norgana biurtuconaz? Eztago norgana. Ez ceruan, ta ez infernuan ondo naidizunic, ondo

icusi

icusi naizaituenic eztago, ta seculan ezda izango. O pena, ta pena gucien azcarria!

Ta igaroco onen, edo guero ustediranen memoriac alivioa ematenbadu, infernuan orrec ere lecuric eztu. Aurrera oberic ez izango, ta ez ustecoda: ta lengo onaz acordatceac tormentua gueitu, ta anditucodu: ta orrela memoriac bere pena izangodu, ceren atseguin emandezaquean gauzaric gogoratuco etzaion. Vorondatea beti deseguingoda, ceren gustoco gauzaric beñere eguingoezduen, ta beñere naiezduena beti izangoduen. Entendimentuac bere pena du, beti bere desdicha onetan pensatcen egon bearra, beti orrengañean, ta orren azpian egon bearra: campotic, eta barrendic beti tormentuz itoric. Onez guciaz gañera concienciaren ar goseti biotceco ura.

O! ta au gucia ìcusi ta nola condenatuac jaiociran eguna, janzuten oguia, ta eguinzuten gucia madaricatucoduten! Cer arrabia beren contra iduquicoduten! Eriotza deseatucodute, baña etzaie emango. Guciac gorroto bician egongodira elcarrequin, ta bacoitza bere buruarequin, ta al balute, elcar ito, ta bocaduca jangoluquee, ta ori dicha anditzat artucoluquee. Ay, Jauna, au cer da? Gaitcic andienzat emen daucaguna, ceña dan eriot-



eriotza, ta icaratcenduen ill bearra, infernuan deseatcenda, ta gauza anditzat artuco litzaque! Ta pecatu bategatic Cristava orretara obligatcenda? Ta orregatic ere charro bat ur edatea baño errazago pecatcendu? Ay, Jauna, itza faltazat, burua faltazat desdicha au, bear bezala, pisatceco!

### IRUGARREN CONSIDERACIOA.

CEr ustedezu, nere anima? Infernuco tormentu beticoac cer diran sobra icusi, ta pisatudituzula deritzatzu? Bada jaquizu, esandan gucia aien aldean, ecerez dala. Ta ala, tormentu oriec cer diran, eguiaz, ta barrendic zuc ecin ezagutuarren, cerbait obeto ezagutceco, lengo lecu illun artara, biurzaite, ta an cere buruari beguirazaiozu pena icaragarri aietan, batere consuelo, erremedio gabe, ta eternidade guciraco. Ta contu eguizu, nola bereala, eternidadea cer dan, pensatcen asicoceran: ta esangodezu: Ay! ta tormentu oiec, ecin gueiago ala, onen pisuac dirala, beti iraun beardute, ta beñere acabatu bear ezdute? Ezta iñoizere. Ichasoan ur tanta diran adiña urte igaro, ta ere emen egon beardet? Bai. Aimbeste milla urte noiz igaro-

codira

Universidad de Deusto Biblioteca



codira? Bada urte oriec gucioc igaro, ta nere tormentuac, orduanche asitcen balira bezala, izangodira, ta esperanza gabe, ta betico. Bai.

Ta eun milloi urtetic urtera ichasotic ur tanta bat ateraco baliz, ta dana, ichaso gucia orrela aortu bear baliz: ta ori ez beñ bacarric, ezpada ascotan, ta aimbeste bider, nola aire gucian lauso, edo atomo diran: alere milloi oriec acabatuco dira. Ta infernua acabatucoda? Ez. Orduanche asitcen baliz bezala izangoda. Milla bider, ta milloi asco bider contu ori eguin bedi, eta orobat izangoda? Bai. Ta orregatic ere infernuco tormentuac, ta eternidadea bere asieran, bere artan egongoda? Bai. Ta esan, ta pensa al ditequean dembora ori gucia, ta are gueiago bear baliz, ichasotic ur tanta bat ateratceco, ta ur gucia orrela aortu bear baliz, ta au berau ascotan, orobat litzaque? Orobat. Contu eguin al guciac eguinta ere? Bai.

Cer eguingodet, bada? Ecer ez: cer eguin eztago. Erremedio, ta esperanzaric eztago? Infernu onetan beti? Tormentu oietan beti? Eternidade gucian? Fin gabe, fin gabe, fin gabe? Beti emen erretcen, ta ill gabe beti iltcen? Acabatu gabe, beti acabat-



batcen? Eternidade gucian? O! O ceñ laburra zan bicia, ta eternidadea ceñ lucea! Jaio, ta ill gucia bat asancitequean. O munduco gauzac nola aice pisca bat, ta vanidadea ciran! Ta ni añ eroa, non ta jaquiñic infernuco tormentu oietara anima cecartela, orregatic munduco atseguin laburren ondoren choratu ta nembillen? Ta orregatic, nondic onra, ta acienda gueiago biribillatuconuen? Ango soberviac, jaquiñ naiac, ondasunac, ta atseguin loiac cer servitu didate? Lecu desdichazco onetan sartceco, ez bestetaco. Araguiaren frutuac oiec dira. Munduaren sariac oiec: ta deabruaren pagua eroenzat au da.

Ay! Erregalo, ta gustoai batec ematea au da! Ay! ta ceñ laburra contentua, ta ceñ lucea tormentua! Au icusi ta nor beregan sartcen, edo biurtcen ezta? Norc, emengo gusto laburrac gatic, betico galdu naicodu? Ta cer eguin bear eztu batec, eternidadeco pena oietatic igues eguitea gatic? Are gueiago daquiela, milla bider bere aimbeste pecatugatic ori merecizuela. Argatic Santuen penitenciac, nequeac, aleguiñac añ andiac cirala, icaratu bear eznaute: ceren oriec etciran ecer infernuaren aldean, ta guchi gucia, gaitz onetatic escapatcear-

ren,

ren. Jaincoac arguia emancien, eternidadea cer dan icusteco. O nere Jauna! Ori icusi, ta ondo ezagutceco indazu gracia, ta seguru nere biciera obea izangoda.

Universidad de Deusto Biblioteca

### LAUGARREN CONSIDERACIOA.

OBeto eguia eu aditceco, contu eguin naidet, esandiran urte oriec igarodirala. Ay ta tormentuz, ta penaz cen ase, edo aspertua egongonazan! Berriro beguiratunaidet igarodana, ta etorquizuna, ta ceñ erremedio, ta esperanza gabe nagoen. Onetatic ceñ erraz libranindequean, ta nola naieznuen badacust. Ay au gucia nere culpaz daramat nic! Esancidaten, ta casoric eguineznuen! Ay cembat conseju on, ta egemplo obe, cembat Jaincoaren mandatu, inspiracio, ta bildur santu bata bestearen gañean niri etorri, ta gucia laargtcen nuen! Ay ta cergatic? Aurqueria, ta ecerez bategatic. Ta eguia da au? Nic dedala culpa! Ondo necusela, pena oietara sujetatunazala? Jaincoac deitu, ta ni gortu! O nere itsua, ta zoroa!

Jaincoaren deia iñoiz enzuten banuen, larga gueroco? Ay ori eguindet! Ori nic eguin det nere Jaincoarequin? Ay orañ arrac jaten, ta penaz deseguiten nola egon beardedan! Ta ar



ar bat beñere illco eztana: ta ay bat beñere isilduco eztana! Ay ene dicha gabea! Nola arrazoi izangoda Jaincoaren inspiracioai eranzutea? Orañdaño bezala gortu, ta sortutcea ondo izangoda? Biar, ta gueroco beti utciaz? Ay nere Jaun amorosoa! Ez arren, Jauna: orrelacoric eguin ezdezadala! Bereala, orañ, puntu oñetan asinaidet. Ea, Jauna, itz eguizu, enzungozaitut. Zuc aguindu, zuc zucendu, ta nic jarraitu. Zuc esan, ta nic eguin. Eternidadeco desventura onetatic libratceagatic, pocic, Jauna, joangonaz, Zuc naizun bidetic.

### BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

EGuia esatera, nere anima, contatu ditugun pena oiec andiac dira. Jaquizu, bada, orañdic, guciac baño andiago bat, ta gucien azcarria faltadala, ta ori da calteric andiena. Pena au da, Jaincoa betico galtcea, ta aren arpeguiric beñere seculan ez icusi bearra. Ay nola zu añ urruti zauden, Jaungoicoa cer gauza dan jaquitetic, ala añ urruti zaude, ori galtcea, cer pena dan jaquitetic! Baña jaquizu, gucien artean andiena dala. Jaungoicoa galtcea, zuretzat on gucia galtcea da. O ceñ On andia galdudezun ta betico, ta onra, ta

ta atseguin ecerez bazuecgatic ! Baña nola añ ezjaquiña, ta itsua zauden, pena au berez cer dan jaquiteco, largadezagun, itz batean esanaz beste tormentuac infernuan añ andiac badira, au gucien gañean, ta guciac baño gueiago, ta andiago dala.

Universidad de Deusto Biblioteca

SEIGARREN CONSIDERACIOA.

ORañ beguira ondo, aimbeste infernuan padecitcen daudela, ta aimbeste urte igaro, ta batere adseden, edo alivio gabe: penac beti batean, beti bere artan, ta eternidade gucian orrela egon bear dutela, jaquin, ta orregatic ere, an daudenen animoac setaz gogorturic, ta beren gaitcean arrituric egongodira, ortic atera nai gabe. Onelaco desdicharic izanditeque? Bada ala da; ta ala izangoda, ta oneraco vorondateric ezdute secula izango. O Jaun guztia ona! Zuri esquerrac fin gabe, ceren nere oneraco au nic ondo pensatceco lecua ematendidazun!

Demagun, bada, infernuco carcela illun artan, misericordia, edo barcacioco pregoi andi bat eguitendala, non esatenzaien guciai: Ea cer eguingodezute, ta libratucocerate? Ea cer bicimodu artucodezute? Bada, mundura batzuec biurtu beardute; ta penitencia eguiteco, berroguei urte emangozaizte. Jesus milla bider! Cer esan, ta cer eguingoluquee? Ta zuc cer esan, ta cer eguingocenduque? O Jaun piadosoa! Ni, Jauna, ni orietatic bat izan nadilla! Ni emendic irten nadilla. Nic, Jauna, seguru, ta arrastaca bear baliz ere, servitucozaitut. Nere dicha, ta Zu servitcea, guciz andia. Orduan, Jauna, betoz, nai badute, nere gañera, diran neque, ta gaitz mota guciac: betoz desonrac, pobreza, ta pensa al ditezquean beste desdicha guciac.



Orrez gañera, nic pocic eguingodet, aguindu al ditequean penitenciaric gogorrena: ta izangonaz munduco humillena, ta gucien azpicoa. Orañ bada, anima, esazu: Eternidadeco desdicha ori, ta ascotan, mereci izan ezdezu? Bai. Jaincoac echeden, libratu, ta dembora au emandizu. Atoz ona, bada: ta orduan seguru eguingocenduquean eguiazco penitencia, ta biciera berria, cergatic orañ eguingo ezdezu? Orduan gogotic artu, ta baliatuco ziñaquean bezala, cergatic orañ gogotic artu, ta baliatcen ezcera? Orduan zure bicitza concertatu, ta zure pensamentu, itz, eta obrac ondo beguiratuco cinduquean bezala, cergatic orañ concertatcen, ta beguiratcen ezdezu? Orduan gucien azpian ego-

Universidad de Deusto Biblioteca



egotera, ta neque, dolore, gaitz, ta desonrac eramatera animatuco ciñan bezala, cergatic guztira oraã animatcen etcera?

Ea bada, anima tristea! Zugana biurzaite, beguiac arguitu, ta gogotic eguizu. Asi bereala, bertatic asi. Ay nere Jainco maitea! Onelaco mesedea Zuc niri eguin, ta esquer beltcecoa beti izangonaz? Asitceco gogotic, neretzat erremedioric ezdala, ta ori ezagutu, ta Jaincoari esquerrac obraquin eman bearrean; pecatua pecatuaren gañean eguin, ofenditu, ta gueiago aserrerazotcendedala! Ceren beguira zaude, anima itsua? Erremedio gabeco sentencia zure contra eman artean zaude? Oraã guchibat padecitcea, guero betico baño, obe ezta? Nola cera orren gogorra? Onelaco golpeac, ta onelaco beneficioac biguntcen etzaituzte? Jauna, bitartean Zu sartcen ezbacera, consideracio guciaquin ere nic ecer balio ezdet. Burnizco biotz au quendu, ta arren araguizco bat indazu. Illa dagoena, Zuc piztutcen ezbadezu, nola jaiquicoda? Ea, Jauna: Lazarori bezala deadar andi bat eguidazu: Ea anima, zure pecatuen eriotzatic irtenzaite. Illen artetic ateranazazu, desdicha oietatic ateranazazu. Ah, Jauna, sortua nago, ta illa bezala: piztu, ta biciera berria aldanazazu: zure escuan dago nere bici, ta on gucia.

ZAZ-



*ZAZPIGARREN CONSIDRACIOA.*

ETernidade desdichazco ori icusi, ta orretan ez erorteagatic cer eguin beardet nic? Gaitz añ andia da, non guizon batec bacarric condenatu bear balu ere, bildurrez icara egotea arrazoi litzaque, ta miseria orretan ez erorteagatic azqueneco aleguiña eguitea. Cer izangoda bada, ez bat bacarric, ezpada aimbeste milladi condenatcen dirala? Condenatcen diranac, salvatcen diranac baño gueiago dirala? Jesu Cristoc esanzuen: Bicitzara, edo cerura daraman bidea estua, ta ango atea chit ertsia dala, eta guchic arquitcendutela. O itz icaragarria! Sentencia onec nor icaratcen eztu? Esanzuen Cristoc berriz: Eriotzara, edo infernura daraman bidea zabala, ta ango atea andia zala, eta asco bide onetatic dijoacela, ta ate onetatic sartcen dirala.

Contuetara oraã: Nondic nabil ni: bide estu, edo lasaietic: ate zabal, edo estutic? Eguia esatera, lasai, ta zabaletic. Cer izangoda, bada, nizaz? O! Infernuco tormentuetan ez erortearren, estutcea, ta bide estutic ibiltcea, cembat obeto dagoquir! Ea, ez, asco, edo gueienac bezala, ezbada guchiac, eta contatuac bezala, bici beardet. Salvatu

nai-

Universidad de Deusto Biblioteca



naidet? Bada erremedio gabe, ta gogotic au artu beardet. Ay! Millatatic bat, ta ez gueiago condenatu bear baliz ere, norc icara andia iduquico ezluque? Ay ni ote naiz ori? Orren ſuerte triſtecoa? Nic ezdet nai eſan, ſalvatcendiranac baño, condenatcen diranac cembatez gueiago diran. Baña ay! Señale, ta egemplo triſteac dira!

S. Bernardoren bicitzan contatcenda, Santua iltzan demboran beſte oguei ta amar milla iltcirala, ta boſt anima ſalvatucirala. San Franciſcuren Hiſtorian contatcenda, Jaincoaren Miſionero Bertoldo vicio baten contra predicatcen cegoela, emacume vicio arzaz galduric cegoen bat, bertan illic gueratuzala: guciac aren animagatic oracioa eguinzuten: ta piztu ta beregan biurtu, ta eſanzuen: iruroguei milla arequin batean illtcirala, ta lau, edo boſt anima ſalvatucirala: ta eſan oida, iru Purgatoriora, ta bat joanzala Cerura. Eſpiritu Santuac dionac, jaquinez: edo necioen numeroa infinitoa dala, niri icara ematendit: ta orobat Criſtoren eſanac, ſalvacioco bidea guchic arquitcendutela. Ta emendic cer atera beardet? Cer? Bicimodu, edo eſtadua artu ezbadet, bereala Jaunaren graciarequin, nere ſalvacioraco bearren dedan bidea ciñez artu. Ta eſtadua arturic banago, nere



nere orri jarraitu, ta batera, ta beſtera ibilli gabe, lan oni gogotic equin, egunoro obeto bicitceco.

## ZORTCIGARREN CONSIDERACIOA.

Estacio bat, nere anima, emen daguigun. Infernuco animen lecu, egoera ta eſtacioa icuſidezu. Zuc ori bera erremedio ta eſperanza gabe mereci izandezu. Baña Jeſus maiteac aimbeſte nai izandizu, non, zu libratceagatic, bere odola, ta bicia Gurutcean emā zuen. O Jeſus, nere Jaungoico, gucia ontaſunez betea! Miſericordia paregabe au zordizut? Bai. Ta nola pagatudizut nic? Ay nere itſu, eſquer beltzaren jabea! Zure contra biurtu, ta zure ofenſac baicic eguin ezdet! Orrez guztiaz ere aimbeſte urtean echeden, ta beſoac zabalic deitcendit. Icuſi, ta ſufritunau. Ta orregatic ere ni beticoa: ta Jaun au nere billa! Au cer da? Onela beti izangonaz, Jauna? Ez, ez, nere Jainco laztana: ez gueiago pecaturic, ez zure ofenſaric. O! ta norc, zure juſtu guciac bezala, zu amatu cinzaquean!

Ea, anima, ſoſeguz eſtacio onetan gauden, ta igozaite zure gañera. Zure aleguin guçien gañera, ta are gorago igoizaite, ta obraz

Universidad de Deusto
Biblioteca



obraz ecindezuna , edolaric vorondateaz eguizu. Ea deseo bici eraguille bat, neurri gabe zure Jaungoicoa amatceco, arrezazu. Ah cer itsutasuna, Jauna, Zu ez amatcea! Ea anima nerea, gueiago, ta gueiago amaezazu: ez guchiaz contentatu, ez necatu, ez aspertu. Ea zure biotz ori zabaldu, ta amatu: gueiago ere lasaitu, ta Jaincoa amaezazu. Ay, nere Jauna! Guchi da, ecer ezda nere aleguin gucia. Santu, ta Ainguerü guciac atozte nere faltac betetcera. Virgiña, nere Amandre, Jaincoaren Ama maitea: Zuc bai daquizula bera amatcen. Amaezazu ondo onean. Zu cerorrec, Jauna, nere deseoa ondoena cumplitcendezu. Amazaite, bada, ta gozazaite: ta ni zure amorio orretan gozatcen naz.

## BEDERATCIGARREN CONSIDERACIOA.

Biurtu naidet berriz, nere pecatuaquin irabaci nuen estadura. Infernu ori nic ondo merecitunuen. Beste neque, gaitz, desonra, pena, ta miseriaz nola quejanaiteque? Labe gori batean egotea mereci banu, ta cilicio bat ecartcean, tormentu ori trucatuco balidate, favore andia ezlitzaque izango? Bada munduan izan al ditezquean gaitz,



gaitz, desonra, tormentu, ta nequeac, nic infernuan mereci ta neucan lecu, ta estaduraren aldean, cer dira? Eguiaz ecerez. Orrela, Jaincoac oi batean ni egotea nai badu ezdet cer quejatu. Pobrezaz, dolorez, lepraz betea icusten banaz ere, ezdet cer quejatu. Guciac banatu, zatitu, ta oñ pean banarabilte ere, ezdet cer quejatu: bada nic mereci baño mesede andiago eguiten didate. O ceñ esquer andiac favore onegatic Jaincoari zor diozcadan! Cer nic infernuan merecinuen?

Au icusi, ondo pisatu, ta nor erregaloen faltaz, edo janari gaizqui guisatuaz: nor pobre, ta bearraz izanaz, nor egun bateco osasunic ez izanaz, nor desonra, ta beste onelacoaz quejaditeque? Ez, Jauna, ez: ona prest nago: prest gucitaco nere biotza. Nequeac, doloreac, desonrac, ta afrentac betoz, ta zure ofensa gabe betoz. Baña, Zu gabe, Jauna, ni ecer eznaz: lagunzadazu. Nic esan bai, ta eguin ez: itcetan bat: ta obretan bestea naiz. Milla, ta gueiago esquer ematen dizquizut, Jauna, ceren infernura bota eznazun. Beneficio soberano, edo gucien gañeco au beti nere biotcean josiric iduquicodet: ta nere bici guztia, Zuc laguntcen didazula, Zu alabatcen, amatcen, ta servitcen izangoda.

AMAR-

Universidad de Deusto Biblioteca

LUrraren gañean bicidan edoceñ pecataric aimbeste, nere Jaungoicoa zor badizu, cer zorcodizu, infernua merecizuela, Zuc zure echera ecarri, ta zure adisquideen artean artudezun pecatari batec? Nic betico tristeza infernuan merecinuen, ta Zuc onembeste alegria emandidazu! Erremedio, ta esperanza gabe an egotea merecinuen, ta Zuc ceruaren aimbeste esperanza, ta prenda emandizquidatzu? Nic tormentuetan errecen egotea merecinuen, ta Zuc aimbeste consuelo biotcean ematendidazu? Nic deabruen esclavo betico izatea merecinuen, ta Zuc zure umeen artean artcen nazu? Nic demonioen janari samiñac merecinituen, ta Zuc zure Maiean artu, ta Aingueruen oguia ematendidazu? O! ceruco biciaren oguia, ta Zu ceran guztia, ematendidazu, nere Jaun andia! O! nic mereci ez bezala Zuc eguindezu! Bere burua, bere Magestade dan gucia ematen didanac, cer emango ezdit?

O nere Jauna! Ta misericordia onen andiagatic cer emangodizut nic? O ceñ beraa, ta ceñ gozoa ceran! O ceñ gauza andiac nerequin eguindituzun! Milla esquer, Jauna, ta milla milloi bider esquer andiac zuri.



zuri. O Jauñ poderoso, ta Aita guztiz ona! O nola nere traicio, ta desleialtasunaz aztuceran? Ni seme galdua, ta Aita ona besoac zabaldu, ta niri laztan ematera: soñeco berri ederraz janci, ta semetzat artcera! O Arzai ona! zure ardi galdu au infernuco otsoac baceramaten, ta Zu ondoren, ta billa joan, ta zure dei, edo chistu gozoac otsoen artetic atera, ta zure sorbaldan artutcenduen! Ah Jauna! Eguiaz zure costura, infernutic libratceco, zure soñean salto au nic emanuen! Ta ardi chatar au zure gañean artu, ta zure larre gozoetara ecarri, ta betico ceruetara eramateco naucazu! O Aitaric, ta Arzairic onena! Ainguerنac secula gucietan alaba zaitzatela.

## AZQUEN JUICIOAREN GAñEAN
### Lenengo Consideracioa.

ARaco mundua acabatceco zorian dagoen artean, cer igarocodan, ta cer gauzac icusicodiran, nor esangodu? Ay nere Jaungoicoa! Zu bacarric daquizu, bestec ez, noiz, ta nola ori izangodan! Mundu galdu bearrari beguiradiozagun alde gucitic, gose, ta izurriaquin, guerra, ta eriotzaquin, lur-

lurricara, ta ujolaquin estuan, ta etsiric. Baña acaballaco doloreen asierac dira oiec. Gueroenean, beguira aice buumbada izugarrien artean Jaincoaren aserrezco su bici illun batec diran guizon, abere, ta beste gauza guciac erre, ta auts beltz biurtcenditu.

Contu eguizu orañ, Munduaren aldarte triste onetan zu bacarric gueldituceraIa biciric: ta estadu lastimoso orretan icusi, ta esatendiozula. O Mundu dichagabea! Zu cera Adan-en semeac zoreraci, ta engañatuciñituena? Zugatic aimbeste ezpaita, auci, ta aserre: Zugatic aimbeste egercitu guerra bicietan alchatu, ta aimbeste eriotza izanciran? Bai, zu cera. Baña ay nola ceunden, ta nola zauden! Esadazu: Non dira orañ, cer eguinciran Erregue andi aimbeste neque, ta peligrorequin zure gañean aguinduzutenac? Non dira aberats, ta poderoso zure ondasunac iduqui cituztenac? Non dira, codiciac bilducituen cillar, urre, ta arri preciosoac? Non zure Torre andi, Jauréguiac, Loretoqui, ta Jardinac? Non zure atseguin, ta erregalo illcor eroac, beti bici bear bazuten bezala ambeste antsiaz nai, ta biribillatcen cituztenac?

Ay nola gucia auts biurtu, ta quea bezala deseguin, ta ondatudan! Beste Erregue zoroac, bere egercitu andi gucia arte guchiren buru-


buruan deseguin ta acabatuco zala pensatu, ta negarrari eman bacion: Munduco egercitu, guizon, ta gauza estimagarri gucien atceneco castigu paregabe onec, nor lantuz, ta lutoz betecó eztu? Baña nere biotceco luto, ta negarrac nere culpen gañean izan beardute! Munduaren azquen au jaquin, ta onela icusi ezquero, lurreco gloria, ta ondasun guciac nere escuan baneuzca ere, diranac oñ pera bota bearnituque. Ecerez bat nic dedan gucia izanic: cer desdicha da au, ori utcitceco ere animoric ezdet: ta ecerez orregatic, ambeste culpa, ta ofensa Jaincoaren contra eguindet?

Ur tanta bat ichaso guztiaren, edo pits bat lur guciaren aldean cer da? Nic dedan, eta bici gucian izandezaquedan onra, estimacio, ta ondasun guciac, Erregue gucien poderio, onra, ta ondasunaquin cer du cer icusi? Bada mundu au bere gauzaquin, dacusuñez auts pusca bat baicen ezbada, ta estimacio ori mereci badu, nola nere biotza casi ecer ezdanari eransitcenzaio? Nola ori nai, ta aimbeste ansiaz billatcendet? Nola nere aleguiñac ecerezqueria onen billa, ta ascotan, nere anima galtceco perillean, eguitenditut? O zoraqueriaren itsua!

Ea nere anima: auts pilla andi orretan aimbeste

beste neque costaricaco acienda billezazu: Zuri lenagocoac utci cizuten Echea, edo zuc ondorengoenzat jasocenduena: zure gusto, edo atseguiñen lecua; zuc naien cenduena: ea naspilla eragabe orretan arquidezaquezun. Guciac nastu, ta deseguinciran. Escuetan auts puscabat arrezazu: bearbada len ori Coroa bat zan: nonda aren edertasuna? Bearbada bastoi bat zan: non da aren balentia? Bearbada edertasun andi bat zan: non da orañ ori, ta orren galac? Ay gucia vanidadea, aicea, utsa, ta autsa! Ta izanditeque Cristauric añ jaquiñez, edo necioric, Jaincoaren Ontasun, ta edertasuna ecerezqueria oiecgatic galdunaiduenic? Ta oietatic bat izan eznaz ni, gusto billau batzuen truquean Jaincoaren Leguea urratuaz? Ay Jauna! Ceñ itsua izan nazan! Au ondo ezagutceco, arren arguia indazu: orrela, zugandic, nere on gucia, seculan aparta eznadin. Amen.

### *BIGARREN CONSIDERACIOA.*

NEre belarrietan deritzat dagoela trompeta izugarri gucioi Jaincoaren Juiciora deitcendiguna: Araco trompeta San Geronimo bati biotceco icara ematenciona: au eremu batean, berau, penitencia, oracio, ta negarrez deseguiña cegoela. Ay ene bada! Nola bildurtcen eznaz ni añbeste culpa, penitenciaric eguin gabe, dauzcadala? Eleizaco Pillareric sendoenac trompeta onen deia aditu, ta dardar icara dabiltza, ta ni, bildurtceco añ beste causa ditudala, nago sorturic! O biotz, edoceñ tentacioren aiceaz galtcencerana, nola tormoi icaragarri au: Piztu, ta jaiquizaitezte illac, ta atozte Juiciora, aditu, ta ill otza gueratcen etcera? Jaun guciz poderosoaren pregoi onec cer icara orduan emangodit? Nola obeditucodiot? Ta nondic jaiquico otenaz?



Ay! nere pecatuai beguiratcen badiet, infernuan egongonaz, ta andic etorriconaz; bada: ara nere burua añ beste bider botadet. Andic anima etorricoda, ara gorputzarequin biurtceco, bien tormentuetara. Lurretic jaiquiconaz, mundú guciaren aurrean acusatua, juzgatua, ta condenatua izateco guizonic infame billau-enaquin. Jaiquiconaiz, erremedio gabeco, ta eternidadeco condenacioaren sentencia aditceco. Au gucia culpa mortal bacoitzagatic merecinuen, ta estadu orretan ill banitz, gucia eguingozan. Nola, bada añ beste urtean orrela bici izan naz? Nola añ erraz pecatuetara biurtunaz? Nola biotceco damu, ta eguiazco ta negarrezco penitencia eguiñaz, oriec borratu ezditut? O

Universidad de Deusto Biblioteca

O nere anima ! Juicioco trompetaren ſoñuac orduan zu icaratcea nai ezpadezu , orañ aren otſa aditcen , ta ari obeditcen aſizaite. Illac jaiqui , dio , ta Juiciora atozte. Culpa piſuaz illa bazaude , eriotza orretatic piztutcea aguintcendizu. Illac becela Jaincoaren deiac aditcen ezbadituzu, lotarqui piſu orretatic eſnatcea aguintcendizu. Añ beſte dembora bada , zure bicimodu ori zucentceco , eſatendizula : zure biotcean golpeca otſez badago, pecatuaren peligro, ta bide orietatic igues daguizula : deſengañoaquin deadarca badagoquizu zure barrenean : zure lagunaren deſgracian , ta uſtegabeco beſte adiſquide , edo ezagunaren eriotzan , ori beguiz icuſi , ta orregatic ere ſortua becela , lo piſu orretan ſarturic bazaude : Ea jaiqui , dio , ta zure juicioan zurequin gogotic ſartzaite.

Ay nere Jaincoa ! Ta cembat zuc , ni piztu , ta jaiquierazotceagatic eguindezun , ta ni lotan ceñ arritu, ta ſortua egon nazan! Cembat bider nere biotceco bildur , arantza , aviſo , Libru , ta Predicadoreen deiaquin , otſeguindidazu ; ta ni orregatic zure favoreenzat beti gorra ? Ay Jauna , ni ez galtcean , cer interes cenduen Zuc ? Ni ez condenatcean, cer provechu cenduen Zuc ? Ta añ beſte , ni baño culpa guchiagoz , condenatcen Zuc utci,



utci, ta ni'ez galtceco , cer icuſicenduen nigan? Aundia da nizaz Zuc izandezun miſericordia,ta chit andi lotſagarria nic zure contra iduquidedan eſquer gaiſto itſuſia. Ezagutcen , ſentitcen , ta confeſatcendet , Jauna, Orregatic zure eſcua indazu jaiquinadin gogotic , ta zure Juicioan iduquicodedan bildur ſantuan firme betico egon nadin. Amen.

*IRUGARREN CONSIDERACIOA.*

JUicioco trompeta aditu , ta Anima ſanta bat cerutic jachicoda , ta anima condenatu bat infernutic igocoda : orduco bien gorputzac egongodira preſtaturic. Baña ay ! Elcarren antz gabecoac ! Anima ſantac gorputza arquitucodu, eta laſter biurtucodu eguzquia bera baño arguiago , ta ederrago , gloriazco dote guciaz janci , ta apaindua : ta bere Aingueru Guardacoac eſangodio : Ea zorioneco anima , gorputz eder onetan ſarzaite : au virtuteetan zure lagun ona izanzan : ta orañ zure dichetan ere izangoda. Oiec dira begui lurrera beguira ceundenac , peligrozco edo cillegui etzan gauzaric ez icuſteagatic: oiec ezpañac, iñoren gaizqui eſan , edo ofenſaz idiquitcen ezciranac : oiec belarri mormuracio, ta beſte itz gaiſtoenzat ichiric ceneuzcanac:



Universidad de Deusto Biblioteca

canac: au buru, pensamentu santuac artcen cituena, oñ oiequin Eleizara, ta obra onetara joatenciñan: oiec zure escu bedeicatu pobrechoai limosna ematencionac: au zuru gorputza dembora batean barau, azote, ta cilicioaquin zuc zatitcencenduena.

Gauza oiec gogorrac ciran orduan; baña, ò ceñ gozoac izangodiran eternidade gucian! O begui dichoso, ceruco edertasunac icusi bearditzutenac! O belarri dichoso Aingueruen musicac enzun bearditztenac! O ezpañ dichoso, Jaincoaren alabantzac cantatu bearditztenac! O gorputz chit zori onecoa lurreco gusto labur, billavac utciagatic, ceruco gustoz bete ta egon bearduena. Ea, anima santa, laster eguizu zure gorputzari laztan estu estu bat betico ematera. Bereala anima or sartu, ta argui eder gozoz betecodu, eguzquiac odei bat arguitu, ta edertcenduen guisa: ta cristal garbi bat eguzquia or sartcen, edo artcen danean bezala. O cer gloria!

*LAUGARREN CONSIDERACIOA.*

BAña anima condenatu batec, ay ceñ itsusi izugarria bere gorputza topatucoduen! Ceñ nazcagarria! Bere pecatu gucien artean itsusiena eguinzuen lecuan, bearbada topatucoda: ta icusi, ta arrabiazço adia tristeaz,



teaz, esangodio: Ay nere zori gaistocoa! Au da, au gorputz galdua, ceñean, ta ceñagatic añ aimbeste pecatu eguin nituen! Carcela illun, ciega illgarri onetan, nere eriotza eternidadecoaren obi ustel onetan sartu beardet! Ah gorputz madaricatu nere desdicha gucien asiera! Ay! Or arturicaco atseguin labur, ta gusto loi, ta lotsagarriac ceñ garesti costazaizquidan! Ay! Ta infernuco mostruo oni gusto ematearren ceruco atseguin gozoac galdu, ta infernuco tormentuac irabaci, ta betico condenatu nazala!

O! Mundura biurtuco banintz nola beste moduz gorputz au tratatuconuquean! Nic abere bat bezala eci, ta esclavo billau ori arrazoiari sujetatuconioque. Pensamentu gaistoai bideric ez idiquitcearren, begui oriec, bear baliz ateraconizcaque: pecatuaren peligro, edo ocasioco echera ez biurtcearren, oñac ebaquiconiozcaque: eremuetaco penitente guciac baño gogorquiago illeraci, edo mortificatuconuque. Nic nola bici eracusiconioque. Baña ay! Nereac eguindu, ta erremedioric eztu! Gorputz oni, adisquideari becela nainion, ta orañ, ta betico nere etsairic andiena izangoda. Barau egun bat ez sufritcearren, zacur amorratuen infernuco gosea eternidade gucian iduquico det.

 Cul-

Culpaz Meza bat galduagatic , lotſaz arraſtaca Juez aſerrearen Tribunalera joan beardet. O ceñ erraz au erremedia nezaquen ! O ceñ dichazcoa orduco penitencia !

Universidad de Deusto Biblioteca

Onetan demonioac aſerre , ta deadar andiaquin diote. Cer contu dira oriec , anima madaricatua ? Ceren beguira ago ? Au , gorputz au dec, ire vicioaquin eguiñicaco ire betico eche , ta toquia. Au itſuſia badago ere, itſuſiago ciran , ic or eguiñdaco pecatu loiac. Sar adi , ordu gaiſtoan iretzat, lengo ire atſeguiñetaco lecu onetan ſar adi : au eternidadeco tormentuetan lagun izangodet.

Orduan anima gorputcen ſartu , ta infernuco ſu gar izugarriac gorputz guztia barrena , berun urtu , edo burni gorriaren guiſa banatucodira. Suac , eta chingarrac bereala ſaltatcen aſicodira beguietatic , ao , ta belarrietatic , ta quirats uſtel baten guiſa muſuetatic ſartucozaio. Puzoniazco ſugue aſerre , ta dragoi odolguiro batzuen guiſa demonioac eldu , ta biribillan artu , ta gorputz , ta anima orrela cateaturic , ya padecitcenduten ſentencia aditcera eramangodituzte.

Ay anima galdu , au iracurten , edo enzuten dezuna ! Zure deſdichaz pecatuan bazaude, nola ceruraño co deadarraquin miſericordia eſcatcen ezdezu ? Zure peligro icuſi , ta nola arritcen etcera ? Ay nere Jaincoa ! Gaitz oiec guciac nere gañera etorriditezque : Bai, ta aſco aldiz ondo mereciac nituen : ta erremedio gabe orietan egongonintzan , baldin zuc, Jauna , libratu ezpaninduzu. Cer da, bada au , au cer da ? Nola Jaincoaren Leguea piſutzat artucodezu ? Nola zure griña gaiſtoac ucatcea, gogor eguingozatzu ? Nola erretiroa , oracioa , iſillic egotea, ta penitencia artuco ezdezu ? Oiec , pena aien aldean, cer dira ? Animo bada , ta gorputz au bertatic eci , zatitu, ta Jaunaren vorondatera ecartcen aſi nadin : ta ori pocic, deſventura aietatic libratcearren. Naicodet orduan : eguindezadan orañ.



### BOSTGARREN CONSIDERACIOA.

ORañdaño eſandiran deſdichaz gañera, andiagoric izangoda ? Ay ta cembatez andiago , ta arrigarriagoac ! Guztien Juez ſoberanoa , gu ſalvatceco artucituen Llagaquin,ta Gurutce ſantua aurrean duela,aguertucoda. O Llagac , ó amorio nic añ guchi eſtimatuac ! O ſalvacioco Gurutce, nic gaizqui ezagutu , ta ez billatua! Zuc izan bearcenduen nere erremedioa , ta orañ izangocera nere condenacioa. Emen da pauſo icaragarria.

Universidad de Deusto Biblioteca



Ainguerual aguinducodie Criſtoc, onac, gaiſtoen artetic, apartaditzatela. Ta bada, gaiſtoen artecoa izan naz, apartatcean nola izangodan, conſideratu naidet. Beguira ondo, nola condenatuen gendedi artetic bulla andiarequin, Jeſu Criſto acuſatu, condenatu, ta ill zuten Judu, ta Guentillen gabilla andibat ezquer aldera ateratcenduten: eta oriequin batean zu ere laſterca Juezaren aurrera zaramazquiten. Cer da au, deadar eguingodezu, ta quejatucocera: Gende infame onequin bat eguiten nazute? Baña, carguac eguitean, zure quejaz lotſatucocera, icuſiric zure culpa cembatez andiago dan.

Judas ſaltzallearen falſia demonioac acuſatucodute, ta nola Jeſus bere Maiſua oguei ta amar dirugatic ſalduzuen: ta zure contra deadar gueiago emangodute, ceren zuc, ez beñ, ezbada aſcotan, ta merqueago, inſtante bateco guſto utſiagatic bera ſalducenduen. Juduen gende itſua acuſatucodute, ceren Barrabas gueiago, Jeſus baño eſtimatuzuten: ta emen zure contra deadar eguingodute: onec, Jauna, ecertan iduqui etcinduen, ta zure, ta bere etſai deabruai jarraitucien. Jeſu Criſtoren contraco burlaguilleac acuſatucodituzte, ta bereala zure contra biurtucodira: onec ere zure legue, fede, ta Sacramentuaz bere ſacrilegioaz burla eguinzuen. Infernuco borrero, Criſto Gurutcean joſizutenac, acuſatucodituzte: ta indar andiagoaz zure contra eſangodute: onec bacequien, Jauna, Apoſtoloaren eſana, ta pecatu mortal eguitea, berriro Zu crucificatcea zala; ta orregatic aiſa, ta aſcotan pecatu andiac eguincituen: eta au ondo jaquiñic, Zu bere Jaincoa ciñala, ta Juez eſtua izangociñala. Siniſtenzuen, onen ſalvacioagatic, odola, ta bicia emancenduela; baña ecertan ori iduqui etzuen, zacur baten odola baño gueiago. Orra onen pagua. Ala onec caſtigu andiago merecidu, Judu, ta Gentillac baño: bada cerorrec eſancenduen bezala, oiec etciequiten, cer eguitenzuten; baña onec bai: baciequien, Zu bere Jainco, Erredentore, ta Jueza ofenditcencinduela. Ay! Ay! Ay, cer infernuco lotſa au! Madaricatu aien lagun izanda, betor aiequin infernura.



### SEIGARREN CONSIDERACIOA.

Ay nere Jeſus ona! Ordnan nic cer eſangodet? Nere deſdichen barcacioa eſcatucodet? Baña ezta ya ordua. Ama Virgiñaren amparora biurtuconaz? Baña onen piedadeen dembora acabatuzan. Nere Aingueru Guardacoagana? Baña ori nere bicitza-

Universidad de Deusto
Biblioteca



tzaren testigu, ta salatzalle justua izangoda. Cer esan, edo cer eguingodet bada, guciac nere contra badira? Oy ene desdichagabea! O pena erremedio gabea! Betoz, Jauna, nere contra munduan diratequean gaitz, ta desdicha guciac, atceneco desdicha artatic libranadin.

Ta cer izangoda, baldin puntu artan icustenbadet, nic burugabe, ta zorotzat iduquinuen pobrecho bat, Ainguerуac escutie justu gucien, ta Santuric andienen artera daramatela? Ay, ta nola suerteac trucatuciran! Burla nic ari eguin nion, ta orañ berac niri eguitendit. Nic billautzat neucan, ta nere criadu servitzarien artean artuco eznuen, beguiratuco ere eznion: eta orañ añ dichaz betea, ceruco Principeen artean onratua da: ta ni munduco canalla billau gucien artean, suzco cateaz lotua. Ay! Nor, edo ceñ da beste Santu andien artean Eguzqui bat bezala añ eder aguertcen dana? Urlia nere lagun, aide, edo adisquidea dirudi. Bai, ta berbera da. Au cer da, ta nola? Pauso charretan nerequin ibilli etzan? Pecatuetan nere lagun izan etzan, ta onelaco berac eraguin etcidan? Bai, eguia da. Baña guero gucien penitencia eguintzuen. Mundua utci, ta Erligioan sartu, ta bicitza santu bat egüin zuen.

Ta



Ta coroa eder arc, ta alaco Santuen artean ura egoteac ori esan naidu.

Baña ni pecatu loietan begui bietaraño sarturic, ta Jaincoaren deientzat beti gorturic, eragabeco nere deseoen ondoren bildur gabe ibillinintzan, Juicioco egun au seculan izango ezbazan becela. Ay nere galdua! Beraz eguiaren bidea utseguin, ta erremedio gabe betico galdunaz. Acabera au orduan nere tormentua izangoda; baña orañ izanditeque nere erremedio gucia. Ea, bada, cer eguitendet? Jaincoa servitcea, nola gogotic artcen ezdet? Ea, berac deitcendidan bidetic noan, munduco gauzac utci, ta neque, ta arantceratic badere, Juicioco lotsa artatic libratcearren.

## *ZAZPIGARREN CONSIDRACIOA.*

AZquenean, conciencien Libru idiqui, ta zure pecatu guciac aguertucodira. Juezac badaquizqui: ta mundu guciac icusi bearditu. Ascoc bearbada Santutzat, ta beren adisquidetzat iduquicinduzten, zu Jaincoaren etsai, ta guizonen contra traidore bat ciñala. Ay zoro itsua! Ustecenduen zure guezur, ta engañuac aztucocirala? Orañ diranac aguertucodira. O cer lotsa, sentimentu,

Universidad de Deusto Biblioteca



tu, ta pena, Confesore bati isill isillic esatera lotsa nintzana, gucien aurrean aguertcea! Mendiac azpian artcea gaistoac naiago luquee, orrelaco desdicha icusi baño. Cergatic bada, eguindet orañ, guero ambeste lotsa emangodidana?

Gucia jaquin bearda: ta ala emendic atera beardet, Jaunaren, ta mundu guciaren aurrean ecin aguertucodan gauzaric ez eguitea: ta orañdañocoaren eguiazco penitencia, lotsaric an izan ezdezadan. Onetaco gau oro esaminatu beardet, Jaunaren Juicioan banengo bezala, ta Ainguerù, ta Santuen aurrean nere pensamentu, itz, ta obrac: ta egun artaco gucia contatcen baliz bezala: lotsa emango dizun gauzaric bada, erremediatceco: eta zurequin batean, Aingeru, ta Santuac, ta Jesu Cristo Juez dirala. O cembat gauza zure gustoco diranac, Cristo-ren gustoac izango ezdiran! Ea, bada, quendu, anima, ori gucia quendu, dala guchi, dala asco, ceren Jaincoac nai ezduen. Deseo andiagoac artu, emendic aurrera Jaunaren vorondatea eguiñaz, berari beti contentu emateco.

Pauso azquenecoa betico sentencia da. Gucien Juez soberanoac guztizco Magestade aundiarequin au emangodu, onen favore, ta gaistoen contra. Ay cer izangoda nizaz?



zaz? Nere obraquin orañ naidedan sentencia, orduan seguru emangozat. Onetaraco Juezac duen erregla Misericordiazco obrac izangodira.

Lenengo, escuietic dauden justu, ta Santuai arpegui amorioz bete batequin, ta bere bendicio guciaquin ceruraco deitu, ta sentencia gozoa emangodie, ceren Misericordiazco obra on asco, aren Leguea gordetceco eguincituzten. Guero oiec cerura dijoacenean, ezquerretara biurtu, ta gaistoai bere aserre, ta madaricacio guciaquin condenacioco sentencia emangodie, ceren aren Leguea gordetceco Misericordiazco obraric eguin etzuten, ta demonio guciaquin ondatucodira betico. Ay! Ay! Ay! Ta onac joangodira betico gloriara, ta gaistoac betico infernura. Ay, Jauna! Betoz emen tormentuac, betico aietatic libranadin! Betor zure arguia, betor zure gracia, penitencia, bici berria, ta zure vorondatea ill arteraño daguidan, betico zu alabatceco ceruco glorian. Amen.

¶ Gure Fedeco Egercicio santu oien gañeã iracurteco gaia, edo Lecio Espiritual pusca bat eguiteco, Egemplo, ta Dotrina-ren batzuec ema[illegible]n conveni dala deritzat. Arrazoi luce, edo andi indarsu ascoc baño, bearbada Eus-

Euſcaldunen biotcetan Egemploac errazago ſartu, obeto joſi, ta provechu gueiago eguin, edo ateracodute.

## EGERCICIO EN CIMENDU, EDO zure ſalvacioa ren gañeco egemploa.

ZUre azquen dicha, edo dicha gucien coroa; eta zuc zure Jaungoicoa emen lurrean ſervitu, ta amatu, ta guero ceruan bera arpeguiz arpegui icuſi, ta betico gozatcea, Jaunaren Ontaſunac cembat naiduen, Egemplo onetan icuſicodezu.

Atenaſ-co Obiſpo San Dioniſio zoroneco, Ama Virgiña lurrean ezagutu zuena, ta San Pabloren Dicipulo eſtimatua da, San Carpo bere adiſquideari aditu, ta Egemplo au eſcribituzuena, ta onen bicitzan era onetan contatcenda: ta Candia co Obiſpo zala, dirudienez, guertatuzan. San Carpo, Artzai ona bezala, bere ardien, edo bere contuco animen celo andiaz, bere aiec nondic Jeſu Criſtoren ceruco larre, edo bideetan ondo gobernatu, ta ſalvatuco cituen beti cebillen. Baña orra non gentil itſuen feſta zoro batzuetan bere fiel, edo Criſtau maite bat gentil gaiſto batec engañatu, ta bere ondoren eramancion.



Araco Carpo Santuac deſdicha au icuſizuenean, ta Jeſus guciz maitearen gracia, ta amorezco bidetic ardi ori igueſca deabruaren ondoren joan citzaiola, bere biotza lutoz bete, illundu, ta penaren penaz cer eguin, edo cer eſan etcequien. Carpo bera añ ſantua, ta Jeſuſ-en adiſquidea zan, non egunoroco Meza eſatera, Jaunaren favore ſeñalaturen bat artu gabe beñere joaten etzan. Gau erdian oraciora jaiqui oizan. Baña gau artan pecatari bien contra chit aſerre, ta ſamindua cegoen: ta celo gueiegui, ta colera bician ſartu, ta beſtelaco oracioa eguiten jarrizan. Bere uſte guciaz ceritzan, Jaincoa ala ofenditu zunenac barcacioric mereci etzutela ta Jaunari eſcatcencion, ta chit gogotic ceruco azote, edo ſu aſerrezco ezpataren atequin biai bicia quendu, ta galdu citzala.

Bere aleguiñaz Santua onetan cegoen, ta orra non gau erdian, lur icara andibat bere guelan ſentitu zuen: bereala eche gañetic, gucia idiquitcen baliz bezala, argui andi bat, ta San Eſtebani bezala, ceruac erdiz erdi zabaldu, ta Jeſu Criſto G. J. guztiz ederra, Aingueruen erdian, bere gloria, ta edertaſun gucian

Universidad de Deusto Biblioteca

cian icusizuen. Beguiac beronz giratu orduco, ondo gabeco leiza zulo chit beltz izugarri bat icusizuen : eta orren borde, edo esquiñan pecatari biac, ceñen contra Santua aserre cegoen, eta nola an bera erorteco, ta erremedio gabe ondatceco zorian biac neque, icerdi, ta eriotzaco antsietan ícara gorrian ceuden : zuloaren be artatic sugue arrigarrizco asco lasterca cetocela, ta beren aguiñ, ta buztanaquin, zuren indar guciaz biac tiraca berõz ondatu nai cituztela: ta guizon batzuec ere gañetic bera bota naicituztenac zuloaren ertcean baciralı.

Araco San Carpoc au icusi zuenean, poz andi bat artcen asi zan, ceren gentil, ta Cristau ernegatu arc mereci zuten, pena artcen zutela, ta Jaincoaren onragatic laster biac erortea naizuquean, ta bere celoarequin guciari luce ceritzan. Eta Jesu Cristo an ez bacegoen bezala, berac ere Santuac bulzaca, ta golpeca biaz aleguiñaz bota, ta galdu nai cituquean. Orduan gora beguiac jaso, ta Santuac icusi zuen, nola Salvadore gucic beraa, pecatari aien galdu bearra icusi, ta bere Jarlecutic jachitcenzan, ta bere escua eman, ta neque, ta peligro artatic libratcen cituen, ta ori bera Ainguerúac eguinzuten.

Misericordia andi ori eguin, ta Jesus gozoa



zoa Santuagana biurtu, ta esancion: Ea, Carpo, ona emen naucazu ; eta aurrera nere gañera descargaezazu : ona, animac salvatceagatic berriz ere padecitceco prest nago: ta iñoren pecatu gabe ori izan albaledi atseguin andi bat artuco nuque, ta pecatuac quentceagatic eguingo nuque. Eta orrembeste Jaincoaren celo dezun ezquero, beguirezazu ondo, zuri cer conveniago zatzun : edo infernuco sugue, ta piztia aien artean leizazulo illun icaragarri artan egotea, edo zure adisquide Ainguerú ederren artean Jaincoarequin betico egotea.

S. Dionisioc dio, au gucia S. Carporen aotic, bidez cijoala, bere echean Santuac iduqui zuenean, enzun ciola. Egemplo au berau Demofilo ceritzan Monje bati escribitucion, Jesus guciz beraa, ta maitearen espiritua oni eracusteco ; eta bidez Santuac onequin igaro citzaiona contatcendu, eta Egemplo edo gauza miragarria da.

Pecatari galdu famatu bat, Jaincoac bere misericordiaz beguiratu, ta beregana biurtuzan. Eleizara joan, ta bere pecatuen erremedioa billatceco, an cegoen Sacerdote baten oñetan, lotsa, damu, eguiazco proposito, ta negar andiaquin

con-

confesatceco, ta absolucioa artceco jarrizan. Sacerdoteac, bear bezala, lastima andiaz artu zuen; baña araco Demofiloc pecatari ori an icusi zuenean suac, eta garrac artu zuten, ta Jaincoaren celo santua, colera bici neurri gabera pasatu, ta lasterca biac ceuden Aldarean aldera joan, ta pecatari tristea golpeca, ta osticoca, gaizqui esaca, ta lotsaturic Eleizatic botazuen, eta Sacerdoteari milla disparate aora cetozquionac esanciozcan, ceren pecatari galdu ori bere oñetan añ gracia onean artuzuen: ta Aldareco gauza santuac ere pecatari arc loitu cituelaco, andic quendu, ta gordecituen.

Bere celoaren azaña galant oiec eguin, ta ori gucia bere Obispo S. Dionisio, bera Eleizaco Ministro eguinzuenari, gauza anditzat escribitucion. Baña San Dionisioc bere espiritu Apostolicoarequin eranzun, ta chit claro Demofilori aditcera emancion, onen celoa eragabea, juiciogabea, ta lotsagâbea izanzala, eta persona bi, edo Sacerdote, ta penitente estimatu, amatu, ta onratu bearcituenac desonratu, ofenditu, ta bere itz, eta obraquin colera gueieguiaz gaizqui tratatu cituela.

Egemplo oietatic atera bear degun 1. Dotrina da, Gure Jaungoico Onguinai, Ongui-



guille, Onguiro, edo benignoa ceñ Aita ta ceñ suave amorosoa dan: eta Jaun andi, gure bearric ezduena izanic, gure animac cembat estimatcen dituen. Oiec Jesus onac bere Aita Eternoaren escutic bere contura artu cituen ezquero, berarequin paqueac eguin arteraño, cer amoriozco aleguiñac eguin etcituen, ta cer dolorezco tormentuac eriotzaraño eraman etcituen? Ta alere zure salvacioa, bere biciaren costuan bazan ere pocic, ta merque baliz bezala erosizuen. Zure anima ceñ joia preciatua dan, ta cembat baliodüen, berac ondo ezagutcendu, eta ala aimbesteraño amatcen, ta estimatcendu, non, bear baliz, bere bicia berriz emateco prest dagoen.

O! Ta ceñ itsua izan bear duen, Jaincozco caudal onen precio, edo Jesu Cristoren odol, ta bicia bere animagatic, añ pocic, ta añ ugari eman au icusi, ta ezagutcen ezducnac! Argatic fedeco argui au zuri quentceco, edo zure anima ezagutu, ta estima ezdezazun, zure etsai deabru charrac aimbeste aleguin eguitendu. Emen icusten, ta tratatcen diran lurreco gauza, edo guezurraquin zure erara erraz engañatcen zaitu: eta eguiaren arguia, ta consideracio zure salvacioraco bearrei diranac zuri burutic quentceco

 añ

Universidad de Deusto Biblioteca



añ listoa dabil alde gucietatic: biotceco consideracio onen faltac zu, ta besteac galtcen zaituztela badaqui. Pensamentu au zure biotcean ondo josiezazu bada, ta ascotan esan: Ni salvatceco Jaincoac cembat eguitendu? Ta ni condenatceagatic deabruac cembat eguitendu? Eta biciera berri santu bat bereala zuc artceco, ori erremedioa izangoda.

II. en Dotrina, edo Lecioa da, Celoa cer dan, ta nola beardan icustea. Amore santuaren laguna da celoa: edo amore bero erazaqui eraguille bat. Celoa chit bici beroa danean coleraz baliatcenda, eta au bere neurri justuan danean, gauza andietaraco, caridade, ta celoaren socorru oida. Baña colera morroi, edo mirabe atrebituegui baten guisa, echecoandre, edo caridadeac aguintcen duen baño aurrerago gueienean sartu, ta nabarbenquiro igarotcenda; ta escu gueiegui artu, ta aguindutaco gauza on bat eguiteco gaitz asco eguin oiditu. Eta caridadeac paqueac eguitera sotdedilla aguindu; eta colera urduriac ascori buruac autsioidiozca. Gure griña gaisto, pasioac deriztenac arrazoiaren arguiari beguiratu, ta jarraitu bearrean, atcera ori utci, edo oquertu, ta aurrea artcen diote, ta neurri, edo era gabe berac gaitcera laster, ta erraz igarotcendira.

Gaitz



Gaitz edo ofensa bat eguin badizute, orri beguiratu orduco, bertan zure colera bicia jaiquitcenda, ta zure odola erazaqui, ta iraquiten bezala jartenda. Baldin colera ori caridadeaz bereala moldatcen ezpadezu, puntuoro arrazoiaren contra, edo onen escatceri, ta nai duen baño gueiago irazaquicoda. Ori bere modura S. Carpori, ta are gueiago Demofilo nabarbenari guertatu citzaion.

Baña amorezco Maisu Jesus onac caridadezco Legue, ta lecio ederra gucioi ematen digu, ta gure ira, edo abere ondo ecigabe beti guerengan deguna, nola arrazoiari sujetatu beardan: gure arteco lagunen nequeac nola eraman beardiran: Zutic, edo Jaincoaren gracian dagoenac erorteco bildur izan bearduen, eta erori, ta galdudanari jaiqui, ta irabaci dedin, cer lastima onguiroaz escua eman, ta lagundu beardion. Eta azquenic Jaincoaren Ministro celosoac cer amorezco biotz, ta penitencia lucea pecatari tristeac ondo artceco, ta salvacioco bidean sartu, ta zucentceco bear duten.

### *Pecatuen gañeco Egemploac.*

ORango, edo gure eguneraco lance, edo egemplo icaragarri bi eman iracurri berdituzu. Urte ascotan Erregueren Predica-

 dore

Universidad de Deusto Biblioteca



dore famatu, ta Misionero andi A. Agustin Castejon, Madrid en, ta lecu ascotan ascoc errespeto andiaz enzunac, ta estimacio igoalaz ezagutuac, bere Misioetaco lenengo Libruan biac contatcenditu onela.

Ia. Erri batera Misio eguitera ninjoala, Jaun gazte, chit aberats, ta galai galant bati, lagun eguin bear cidala gogoac emancion, eta ala nerequin joan, ta Misioco Errian egonzan. Bere ustez caleac gustora paseatu, ta Errian bere bizarria galanta eracusi naizuen. Onetan Confesonariora etorri citzadan anima jaungoicoti, edo virtute andico bat, eta bere concienciaco contu eman, ta chit umil, ta garbiro esan cidan: Aita, nere erretiroan oracioan nagoela, galai, edo Jaun campotar bat nere aurrean icusidet: aren anima deabru guciac baño beltzago, edo demonio itsusi icaragarri eguiñic dago. Jaquin bez, Aita, onelaco, ta alaco pecatu nazcagarri, ta onelaco culpaquin, Jaincoaren desgracian, infernuco ichura izugarri bat dagoela.

Gucia enzun, ta Jaunaren adisquide mandatari oni ecer esan ezbanion ere, gucia sinistu nion, ceren enzuna sinista niozquean. Jaun ori cegoen echera Eleizatic igaro ninzan: ta alacoric uste ezpazuen ere, baicic caleetan bere burua guciai eracustea; guela batean sartu, ta



ta chit estu artu nuen. Bereala bere animan nor zan, ta nolacoa cegoen esannion, eta bere pecatuen ispillu arrigarria beguien aurrean paratunion. Galai ori turbatu, ta icara jarrizan. Gucia eguia zala icusi, ta Jaincoaren amorezco avisoa zala bereala ezagutuzuen. Beregan sartu, edo biurtu, ta biotceco damuz, ta eguiazco propossituaz bere pecatu gucien confesio andi bat ondo prestaturic Misioan eguin zuen, ta bear bezalaco biciera berri on bat aurreraco artuzuen.

IIen Egemploa an berta n Aita Agustin ec onela contatcendu. Urte bete orañdic ezta, lance icaragarri au nere beguiz icusi nuela, ta nere orduco izu, edo bildurrac orañ ere badirau. Guizon bi aserre chit andian sartu ciran, eta bata, munduraco, arrazoia ceucala: bada onec culparic etzuela, besteac testimonio falso andi bat jaso, ta carcelan iduqui, ta bere zuen acienda gucia galerazocion. Triste onec, Jaincoari beguiratu gabez, bere pecatuen castigua zala ezagutcen etzuen: ala gorrotoz itsutu, ta benganzaz bete, ta bestearen contra biurtuzan, edo obeto esangodet Jaincoaren, ta bere buruaren. Aita bada cer? Preso, ta galduric culpa gabe icusten bazan? Ori, edo bacoitzac berea, Jaincoaren legueaz, justiciaren aurrean escatcea, ondo

Universidad de Deusto Biblioteca



do da : baña gorrotoz benganza artceco, Jaincoaren Legueac nori escu emandio?

San Pedro Martiri gloriosoa testimonio bategatic preso cegoen : beñ oracioan cegoela Santo Cristo! bati esancion : Jauna, carcela onetan egoteco, cer culpa det nic? Jesus onac eranzuncion : Pedro, ta Gurutce onetan egoteco, nic cer culpa neucan. O cer errespuesta ! Cer egemplo, ta cer dotrina ! Zupena, ta aserretan Jesu Cristori ori galdetcen baciñio, ta besteac ere bai; nere contu, guchiago condenatuco liraqueala : eta Egemploco guizonac ori galdetu balio, bere gañean laster icusi zuen desdicha, icusico etzuen. Gueroenean, ez besteac oni barcacioric escatu, ta ez onec besteari barcatucion. Eriotzaco gaitzac guezurtia artu, ta illtzan, ta icusi zanez, condenatuzan. Presoac jaquin zuenean, esan zuen : Cer? Ta gañera ori ere bai? Ta niri barcacioric escatu gabe ill dala? Bada ez : deabruaren figuran infernutic badator ere, barcatu ezdiot.

Arrigarrizco gorrotoa; baña ondo costa citzaiona. Gau batean, au bere oiean cegoela, orra non condenatu ori bere gañera ezarri citzaion, ta infernuco atzaparraquin ito nai izan zuen. Jesus, Jesus, tristeac esan, eta condenatuac utci, ta au bereala ondatuzan, baña



baña erdi illa oiean gueldituzan. Lanic asco erida, ta tratu gaistoetatic sendatceco, erremedioaquin erabilli zuen. Albait ere lenena bere ustez confesatuzan, ta ez bere cōtrarioari bacarric, bai eta aren aide, ta lagun guciai ere biotcetic barcatucien. Ah! Jaincoac naiduenean, ceñ erraz, eta ceñ laster onelaco goapoac ecitcen, ta biguntcen daquien! Baña, onec onela barcatuta ere, Jaunaren aserrea icusizuen.

Beñ batean condenatu ori, besteac esan zuen bezala, demonio beltz itsusi baten guisa, infernuco suac et garrac ceriozcala, atzaparrac armaturic, adia illun izugarriac ematen cituela aguertu, ta bere oiean cegoen guizon tristeagana cijoan. Amabi urteco onen seme batec icusi, ta deadarrari emancion : Aita, Aita : ona demonioa, ona demonioa. Guizonac, lasterca an cituen Erliquiac artu, ta Jesus, Jesus, Maria deadarrez esaten asizan, eta orrequin libratu zan. Baña seme gassoai atzaparrada bi eman ciozcan, ta bizcar alde bata erre, edo larruturic, ta bestea nere sotana au baño beltzago utcicion.

Condenatu ori echearen beco zulo batera arin jachi, edo ondatu, eta alaco infernuco lantu, deadar, ta garrasi samiñetan egun ar-

Universidad de Deusto Biblioteca

artan an egonduzan : eta andrea, guizona, ta seme guchi ori caleetan illac bezala cebiltzan. Nerequin irurac egondu ciran : mutilchoaren bizcar eritua nere beguiz icusinuen: aien echera joan, ta demonioa conjuratu nuen : eta lance triste, ta desdicha icaragarri au certan gueratudan, nic ezdaquit. Bata infernura condenatuzan, besteac aimbeste munduan icusizuen, eta Jaincoac daqui cer izangodan. Eta ona aserre, ta gorrotoen pagua.

Emen icusi bear dezun lecioa da : 1. nola Jaincoaren gracian dagoen Anima Trinidade Santissimoaren Templo, ta Ceru bicia dan; ala pecatuan dagoena demonioen ciega, deabruen leizazulo, ta Lucifer en infernu bicia dala. 2 : nola Anima justu ari lagun, ta corte Aingueruac eguiten dioten; ala pecatari ari deabruac alde guztitic, edo azpian artu, ta beti jarraitcen diote. 3 : nola Anima garbian Jesu Cristoc bere gozo, ta atseguin guciac dituen, eta bere ari Jaincozco naieraz beguiratu, ta bere biotceco Esposa, edo Alaba maitea bezala beti gordetcen duen; ala Anima culpaz loitu itsusian deabruac bere atseden gabeco gorroto bicia dauca, eta aren zai, edo ondoren pecatuzco cateaquin lotuaz, bere esclaba billau ori gordetcen, ta seguratcen beti dabill.

4.



4. Jaunaren gracian dagoen Anima, nola illco baliz, lurreco neque etatic ceruetaco gloriara igoco litzaquean; ala pecatuan dagoena illco baliz, puntu artan munduco dichetatic infernuco desdichetara jachico litzaque. O! Ta Jaungoicoac gure beguiac arguituco balitu, cembat guizon, ta andre, campotic eder, edo galantac, ta ederqui janciac; eta barrendic alaco demonio beltz itsusi eguiñic : eta beste cembat munduco beguietan pobrecho arlote, zatarrez janci, edo estaliac, eta barrendic cerua baño ederrago, ta gozoago diran Animac icusico cinduque! Ah mundu guezurtia, ta beti zoro itsua!

Bigarren emen icusi bear dezun Dotrina da, pecatua cer dan icustea. Baña ay! Lurraren gañean gauden artean, dan bezala, pecatua cer dan, ezagutcen ezdegu! Jaquizu bada, lurrean izan ditequean gaitcic andiena dala pecatua. Jainco arequico, mundu arequico, ta zurequico da gaitcic andiena, gaitz bacarra, gaitz utsa, edo nasgabea, gaitz pare gabe, gaitz guciai eraguiten diena : gaitz gucien azcarria : onen aldean guztiac aztutcen dira, ta gaitzaren icenic ere mereci ezdute.

1. Jainco arequico da gaitcic andiena, ta bacarra, aren beguietan itsusiena, ta aren bio-

tza

tza rentzat nazcagarriena : eta nola Jaungoicoa Ontaſuna bera dan, gucia ona, ta On guztia : ala pecatua gaitza bera, ta gaitz gucia, ta gaiſtotaſun gucia da. Nola Jaungoicoa Ontaſun neurri gabea dan, ala pecatua gaiſtotaſun neurri gabea da.

2. Mundu gucia requico gaitcic andiena pecatua da : bada munduan izandu diran, ta izango diran gaitz guciac culpa, culparen pena, ta calteac dira.

3. Zurequico, edo criatura bacoitza requico gaitcic andiena da pecatua : pecatu mortal batec Luzbel, ta aimbeſte Ainguerú cerutic infernuta arraſtatu cituen. Pecatu mortal batec Adan gure Aita, bere ondorengo graciaquin Paraiſu tic botazuen. Pecatu mortalac arrezquero aimbeſte anima infernuetan ondatcenditu betico.

Irugarren icaſi bear dezun Lecioa da, pecatu veniala cer dan, jaquitea. Culpa veniala añ erraz eguiten dana, ariña, ta chiquia eſan oida; baña ondo beguiratcen bada, gaitz chiquia, ta ariña ezta, baicic gaitz andia, ta piſua. 1. ceren Jaincoaren contraco nolerebait ofe ſa, ta agrabioa dan. Eta au aditceac, eta ſiniſteac, arritu, ta zurtu bear ezgaitu? Gure Jaincoaren fede bici, ta amore eguiazcoa baguendu, ala izango litzaque. 2. ceren Jaincoaren gracia, ta amore ſantua quentcen, edo iltcen ezpadu ere, baña epeltcen, argaltcen, ta iltceco zori, edo peligroan paratcendu anima. Ay ! Nola gaitz chiquiac eri bat gaitz andietara, ta ortic eriotzara daramaten : ala culpa venial edo chiquiac andietara, ta anima betico galtceco mortaletara, edo eriotzara daramate !



3. ceren Jaincoaren ſocurru, ta favoreai ta bear bada zure ſalvacioraco bearren diranai bidea ichitcen dien: eta odei illun batzuen guiſa, bitartean animari jartcen zaizcan, cetuco arguiac biotcean ſartu ezditecen. 4. ceren culpa veniala añ gauza icaragarria dan, non da munduco gaitz guciac quentce, edo erremediatce agatic, ta ez mundu gucia ſalvatce agatic ere culpa venial bat ecin eguin ditequean. O arrigarrizco gaitz, ta orregatic ere añ erraz, ta aimbeſte bider eguiten dezuna ! 5. ceren izan diran Santu gucien virtute, gracia, ta merito guztiac, orien penitencia, oracio, limoſna, ta obra on guciac zure animan bacindu ere, eta orrela pecatu venial batean eriotzac artuco bacindu, ecin orrequin zure anima ceruan ſartucodan. O pecatu venial etſai, erio, ta arerio, infernua baño gaiſtoagoa !

Azquenic orrelaco culpa chiqui bat gaitz ceñ

Universidad de Deusto Biblioteca



ceñ esquerguea dan, Jaincoac emen lurrean orregatic eguin dituen castigu, ta penetan nolerebait icustendezu. Lurrean izan ditezquean desdicha guciac munduaren gañera eracarteco, asco, edo sobra da culpa venial bat. 1. David Erregue aren vanidade bat aren Pueblo gucia Jaincoac castigatceco, ta galtceco asco izanzan. 2. Oza Levita, Testamentuco Arca erortera cijoanean, ceren escua arrimatu cion, Jaunac castigatu, ta bertan bicia quenducion. 3. Errespetu guchirequin Arca orri beguiratu ciotelaco, berroguei ta amar milla Betsamita, edo gueiago beñgoan ill otzac gueldituciran. 4. Eliseoari burla eguin ciotelaco, berroguei ta bi mutil artzac jancituzten: eta onela dira fedeco beste castigu asco, culpa venialac ecarri dituztenac.

Oriec baño gueiago da, guc icusten ezdeguna, baña Jaincoac berac eguiten duena. Orrelaco culpa venial, edo ariñac gatic, ta ascotan bate gatic, Purgatorioco su, ta gar icaragarri, tormentu, ta penetan erretcen anima justu asco Jaincoac icustea, eta gucia, azqueneco marabidi raño pagatu artean aren Justicia aserreac ez barcatcea. Bai: eta bere anima maite, biotceco laztanac Jaincoac, Aita amorosoa izanic, aladauzca: eta Santuac diotenez Purgatorioco su bici oriec infer-



infernucoac bezala, edo berez erdira guchiago dirauten artean. O aserre, ta gorroto paregabea!

Baña ori gucia ezta Jaincoaren Ontasun, ta Misericordiaren faltaz ezpada culpa arin orren gaistotasun, ta gogortasunaren sobra gueieguiaz. Bada cer? culpa ariñ ori erraz eguitendan falta, chiqui bat ezta? Bai: ta orregatic beragatic, ori eguin gabe añ erraz cengoqueala, ta chit aisa culpa ori utci cenezaqueala, añ aisa zure vorondatea ucatu, ta Jaincoarena eguin cenezaqueala, orren érraz atseguin pisca zurea requin irtete agatic, ecerezqueria batean, Jaincoa nolerebait agrabiatu, ta ofenditcea, da beraren menosprecio icaragarri bat, ta orregatic ala pagatcenda. „ Ni zure Jauna banaz, non da nere „ bildurra? Ni zure Aita banaz, nere onra „ nonda?

O eriozco infernuco pecatuaren zazpi burudun sugue nazcagarria! Cembat aguincada animari puntu oro zazpi aldeetatic ematen diozca: dala soberbia, andi nai, ta vanidade: dala lurreco interes, edo irabaci naiaz: dala invidia, edo ecin gueideen ona icusiaz: dala ira, aserre, ta gorrotoaz: dala gorputzeco atseguin loi eragabeaz: dala eragabeco jan, edan, lo gueieguian, ta naguitasunean: dala

dala Mandamentuen contraco beste pensamentu, itz, eta obra ascotan. Ta oriec erraz ucatu, edo utcicinitzaqueala, venial, edo ariñac diralaco, orren aila zuc eguitea, cer fede, cer legue, ta cer amorearen señale dira?

*Eriotzaren gañeco Egemploac.*

GAuza jaquiñagotic lurraren gañean ezta, Eriotzaren Egemploac baño. Beguiz icusten diranac dirade. Alere Fedeac, edo Escritura Sagraduac contatcen digun bat iracurri, edo enzun bear dezu. S. Lucas Evangelistac beguizco testigu onac bezala contatcendu, San Pabloren Sermoi batean icusizuena. Act. 20. Troide ceritzan erri batera Apostoloa joanzan, eta bereala gendedi andi bat bera icustera, ta aditcera etorrizan: eta biaramonean joan bear zuela aditu, ta aren ceruco Dotrina enzute agatic, gau artan arren predica cezala erregutu cioten. Argui asco irazaqui, eta Apostoloa asizan, ta luzaro egonzan, eta gucien atseguin, ta frutu andiaz gau erdiraño predicatucien: ta cembat enzunago ambat zaleago, ta enzun naiago. Baña ona bertan munduco desengañoa.

Besteen artean Eutico ceritzan mutil bat, Sermoia enzuten leio batean cegoela, lo guciz pisuac artu, ta Echearen irugarren bicitza,

tza, edo alturic buruz bera erori, ta bertan illic gueratuzan. Uste gabeco lance triste onec an ceuden guciai lastima andia emancien, ta ez chiquiena San Pablori, ceña Sermoia utci, ta isilic guelditu zan. San Crisostomoc dio emen, Apostoloa mututu, edo isildu zala, ceren beste Maisu famatu, bera baño guchiago etzanac, edo Eriotzac itzeguin zuen. „ Pro Doctore casus fuit. „ Munduaren Maisu, edo San Pablo ren ordean eracusten Eriotza sartuzan, beguiz guciac icusteco, ta icasteco, gure bicia nola, ta cer dan; bada guizaseme bere edadearen lorean puntu batez lenago biciric cegoena, bertan illic beguien aurrean cecusten. Ah cer ispillu arguia!

Erioaren contra ez urteac, ez indarrac, ez osasun, edo ondasunac ecer baliodute: arc gucia era batera darama: guizona lotara joan, ta guchien uste duenean, illic beste munduan arquitcenda. Erioac bere tiroa puntu batean eguitendu. Munduco aldarte, edo gorabera ac nola diran, Maisu andiac bezala eriotzac eracustendu. Eutico gazte illic guelditu zanac isillic, baña aguitz an ceudenai predicatu cien nola lurreco anditasun, atseguin, ta ondasunac bertan emen ondatcen diran: orien ondoren, orien billa ibiltcea, cer neque, ta banidade utsa, edo zoraqueria andia dan: eta bici

Universidad de Deusto
Biblioteca



bici modu ſantu batean, dembora dezun artean, obra onaquin biciro preſa ematea, ceruco ondaſunac irabazteco ceñ conſeju ona, ta gauza bearra dan.

San Pablo Predicadore andia zan: onen Dotrina cerucoa zan: onen arrazoi argui ederrac ceruco bidea eracuſten zutenac ciran: onen itzac Jaincoaren amorean biotzac irazaquitceco ſu gar gozoac ciran: onen mandatu ta aviſoac Eſpiritu Santu arenac bezala, gucienzat ſeguruac ciran. Baña alere ceruco Dotore San Pablo, eriotzaren aurre, edo aldean iſildu, edo mututuzan, eta an ceuden enzat eriotzaren Sermoia aſco, edo obeago zala ceritzan. Zuc ere bada, Criſtava onen aviſoac artcen badituzu damuco etzatzu, ta ceruco bidea arquitucodezu.

Conſeju andi au Eugenio Aita Santu, ta bere dicipulo maiteari ondo bicitceco San Bernardoc emancion. Zure obra gucietan, cion, conſiderazazu, zuc ere beſteac bezala ill bear dezula, eta Aguintari andien eſpiritua quentcen duen Jaunac, zure biotza goberna dezala. Lau Aita Santu zure aurrecoac zure egunetan illic icuſi dituzu: eta gauza ciertoa da, Diñidadean bezala eriotzan ere jarraituco diezula. Aiec lurpetic cer diotē adizazu munduco gloriac ceñ laburrac diran, eta emengo andi-



anditaſunac nolaco errematea duten. Gucia ceñ laſter dijoan: ta zure azquena nolacoa izangodan. Penſamentu onec pecatuetatic libratu, ta ondo bicierazoco zaitu. Eriotzaren memoria au beraren contrapozoia da.

Eſandegun gaztearen egemplo triſte, edo eriotza, San Lucaſ-ec dion bezala izanzan. Baña gueroenean, dio, nola San Pablo Jeſu Criſtoren amorezco eſpirituz beteac, aren miſericordiazco entraña gozo, ta onguiroac cituen, Sermoia utci, ta Eutico illic cegoen lecura jachizan, ta aren gorputza bere beſoetan artu, eta laztan eſtu bat emancion Santuac, ta orrequin batean piztuzuen, ta milagrozco bicia emancion: eta San Lucaſ-ec dio, an ceuden guciac conſuelo chit andia artu zutela. Eutico piztu au guizon eguin, luzaro bici, ta diote, S. Juan Evangeliſtari jarraitu, Santu andi eguin, ta gure Eſpañan, Jeſu Criſtoren fedeagatic Martiri glorioſo, S. Eutico ill zala.

*Eriotza onaren Egemploac.*

CHit aſco, ta ederraç A. Andradec, bere Graduetan dacarci, ta gucienac andic artu ditut. Peru Indietaco Erreinoan, ta Juli deritzan Erri batean Criſtau familia bat bere virtute acgatic ceruco favore andiaquin ſeñalatua

Universidad de Deusto
Biblioteca



latua izanzan. Gurasoac chit devotoac ciran, ta beren fede, egemplo, ta obra onaquin, itzaquin baño ere obeto umeac aci cituzten. Jaincoaren bildur santu, ta dotrina, ta ondo bicitceco, ta salvatceco bear zutena chit ederqui esanaz biotcetan sartu cien. Berac munduraco pobreac, baña Jainco arequico virtuteetan chit aberatsac ciran. Artzai, edo ganadu zai bici ciranac bezala, orretan garbiro umeac ere oitu cituzten: oiec iru alaba ciran, ta Francisco ceritzan seme bat, cerutic emana bezala araco eguiña.

Amasei urte citueneco, Jaincoaren, ta bere Ama Santissimaren siervo devoto, virtuteetan chit aurreratu, ta amorioz betea cegoen, ta ceruac beretzat naizuen. Ala eriotzaren gaitz andi batec emancion, ta ori, Jaunaren vorondateaz batean chit paciencia gozoaz ceraman. Iltcen zala ezagutu, ta bere biotz guztiaz Jaincoagana biurtu, ta Sacramentuac artceco pocic prestatuzan. Gure Compañiaco Aita bere Confesore zuena deitu, eta confesio generala chit ederqui eguinzuen; baña ondo erraz, ta laster: bada urte guchi, ta pecatu guchiago cituen: eta ceru bideraco Viatico Santu, edo bere Jabea bidezco janaritzat artuzuen. Gaitzac cordelac estutu, eta azquen Oliacioa ere emancioten: eta Francis-





co gazte ori bere orduaren zai, Jaincoac nai zueneco, chit aleguere beraren escuetan cegoen.

Iru arreba bera baño zarragoac, ta virtuteetan bere antcecoac laguntcen cioten. Illtceco zorian oiequin cegoela, Confesorea bezalaco bat orra non guelan sartuzan; baña ceruco Ainguerua zan; bada cierto, Padrea Colegioan cegoen. Padrea bezalaco ori Galai chit eder birequin cetorren: oriec icusi, ta Francisco chit alaitu, ta gozatuzan. Ea Jaincoaren semea, animazaite, esancion, Ainguern, ta Santuaquin ceruan laster icusicocera, bada zure obra onen saria emateco zure beguira daude. Onetan gasioac, eta bere arrebac ceruco musica zoragarri bat aditu zuten, eta gueroago, ta gozoago zan. Ateronz beguiratu, ta orra non anda guztizco eder batzuetan Ama Virgiña, Serafin en gañean bere devotoa consolatcera cetorrela icusi zuten. Ordu bi, nai baño lasterrago igaro ciranac visita onec iraundu zuen; ceruco Erreguiña, Ainguern cantari, ta oien erregalo aquin; ta aien beguietatatic joan ciran. Eria ta arrebac ceruan baceuden bezala biotceco poz andiaz gueldicu ciran.

Urrengo egunean, Ainguern bat etorri, ta arreba nagusiari esancion: zure anaia las-

Universidad de Deusto Biblioteca



ter emendic joangoda, ta cerura eramatecō Ainguеru bi etôrrico dira. Ara, beguira, nondic eramango duten. Beguiac jaso, ta orra non Escala gucizco arguitasun ederrez bete, guelatic ceruraño igotcen zan bat icusi zuen, eta atseguin andiaz bere anaiari esancion. Andic egun bira beren egercicio santuetan ceudela Virgiña Santissima aguertu, ta Ama guciz gozoac bezala, bicirudien, bere seme maite oriecin utci zuela. Bere begui ederraz beguiratu, ta esancion: Ea, ene semechoa, gaitz, ta neque oiec laster igaroco dira, ta zure saria glorian artcera etorrico cera. Nere Semearen Cortean, emendic egun bira echedeten dizut. Egun biac gloria bician bezala, coloquio gozoetan igaro, eta Ama Virgiñac esan cion orduan, bere Ama maitea icusten cegoena bezala, beraren besoetan anima eman, ta Ainguеruac cerura betico eraman zuten.

*Onen arreba baten Egemploa.*

INdietaco mutilcho dichoso au, enzun dezun bezala, ceruetara igozan. Baña familia devota arenzat Jaunaren misericordiac orrequin acabatu etciran, Franciscoc bere arrebacho bat, escutic bezala, bere ondoren cerura eraman artean. Iru arrebetatic erdicoa, edo bigarrena anaia requin azizan: biac elcar

requin



requin ganadua zaitcen, ta are gueiago devociozco egercicio etan senide, ta lagun beti oiciran. Doncella onec, gucia Jainco arena izateco, ta Ama Virgiñari jarraitceco bere Virginidadea guztizco voto andi batequin betico esqueñi, edo consagratu cion: eta Indio chit desonesto abereen guisa bici ciranen artean, arrosa eder garbi au arquitcenzan. Gure Jaungoicoac bere argui, gracia, ta doaiac, aprovechatu nai duenari, ugari non ere nai ematen diozca.

Doncella au santa bat eguiñic onela bicitzan: egunoro gueiago, ta obeago izateco, ascotan confesatu, ta comulgatu oizan: festa, danza, ta beste bulletatic igues Eleizetara joan ta Ama Santissimaren escuetatic aren Semeari an biotz gucia ematen cion: ganadu zai, Jaincoaren, ta bere gurasoen vorondatea eguiteagatic, campoetan cebillenean, santuen ceruco dichac contemplatcen, glorian bezala oicebillen. Araco anai zorionecoa ara igo, ta bere burua, ganaduen ondoren bacarric icusi zuenean: bere garbitasuna eciñ erraz gordeco zuelaco, ta peligro andien artean cegoelaco, bildur, ta quezca estu batec emancion. Beste aldetic Jaincoaren amore añ beroa biotcean sartu citzaion, non da bere Jabe onari negar andiaquin erregutcen cion, arren bera

ra

ra ofenditceco peligroetatic atera, ta bera beti seguru amateeco cerura eraman cezala: bada bere Esposo maitea, culpa venial batequin ere, ofenditu baño lenago milla bicitza galdu naicituela.

O gure Jaincoaren amore ontasunez betea! Oracio onetan, anaia ill, ta bigarren egunean, cegoela, lo gozo batec artuzuen: eta orra non bere Anai doatsua chitezco eder, gloriaz jancia aguertu, ta esancion: nere arreba maitea, consola zaite. Ea, Jaincoac zure deseo on, eta oracioac enzun ditu, ta laster ceruco glorian nere lagun izango cera. Berri on oiequin chit pozaldi andia Doncellac artuzuen, eta andic irugarren egunean iltceco gaitzac emancion. Gure Padre berea Confesorea deitu, ta cer igaro citzaion, contatu cion. Medicuac deitu, ta gaitza ezagutu etzuten; baña batac esanzuen: Jainçoac au cerura eraman naidu; eta engañatu etzan. Egun artan bertan, Jesus bere Eposoa aguertu, eta esancion: Nere Esposa maitea: zu eramateco Aingueruac datoz: atoz nerequin. Au aditu orduco lasterca jaiqui, ta Jesus bere Jabearen ondoren uste guciaz cijoan: bere aizpa an ceudenac eldu cioten; eta Doncellac bere escuetatic cerua quendu ciotelaco, negarrari emancion.

Cole-



Colegioco Erretore A. Pedro Vicente eria icustera joan, eta gucia contatu, ta esancion: Biar eguerdi puntuan illco naiz. Bereala devocio andiaz prestatu, ta Sacramentuac artu cituen: ta bertatic Jesus, Maria, ta Santuaquin, ceruan baliz bezala, ta an betico iraungo duten coloquio gozoac eguiten asizan. Esan zuen ordua allegatu, ta guela artan Aingueruen musica chit suabe bat adituzan. Cantariac cioten: Cristoren Esposa atoz, Jaunac zuretzat betico prestaturic daucan Coroa artcera. An ceudenac zoraturic bezala ceuden: eta Animaren Errecomendacioa gure Padre bi esaten ceudela, zorioneco Doncellac Jaunari bere espiritua emancion, eta Ainglueruac beren lagun maite, ta garbi estimatua bezala cerura eramanzuten.

Egemplo oietan icasi bear dezun lecioa da icustea, nola Jaincoaren gracia, persona, estadu, dembora, ta lecu gucietan gure oneraco beti prest dagoen: beti guri deiez, biotceco atea idiqui, ta sartceco lecu eman nai badiogu, Franciscoc, eta bere arreba gazteac eguin zuten bezala. Cristau berriac ciran, eta alere cer fedea, cer Jaungoico aren amorioa: ceñ laster icusi, ta ceñ firme gordezuten Jaunaren vorondatea. Cembat bider Jaun amorosoac, berari jarraitceco, onelaco argui, aviso,

Universidad de Deusto Biblioteca



ſo, ta egemploaz zure biotcean deitu dizuş eta zu beti gorra, naguia, ta legue gabea? Indio oien biciera ſantaren aldean zurea icuſi, ta lotſa zaite; baña ez lotſatu iñolaco moduz orien bicitza, ta egemploac artcean: paquean bici, ta eriotza on batequin betico aien lagun izan zaitean ceruco glorian.

*Eriotza gaiſtoaren Egemploac.*

ESan degunErrian bertanGuizõ bat izandu zan, Jaun baten illoba, ta gure Padreac gaztetatic contu andiaz aci zutena: oneraco jaioa bezala zan,eta lagun on, egẽplo,ta lecio onaquin virtutean chit aurreratu zan. Onetan oſaba iltzan, ta illobaren merituac Padreoc icuſi, ta oſabaren oficio raco bera bezalacoric etzala; aren lecuan Cacique eguitera logratu cioten. Araco gazte orrec Aguintari, ta aberats bere burua icuſi zuenean, piedadezco egercicio, ta lengo devocioac utci, eta infernuco peſte, edo lagun gaiſtoai arrimatu, ta Criſtau onaren acieraz, eta Jaincoaren bildur ſantuaz aztuzan, eta alperqueria, erregalo, ta bici modu char galdu bat artu zuen.

Padreac aviſo, ta conſeju onic aſco eman cioten; baña gucia alperric: chit preſtuez gogor eguin, ta ofenſa andiaquin orien, ta Indio gaſſoen contra lazqui biurtuzan, eta bere





re gaiſtaqueriac gatic Juſticiac ere caſtigatu zuen: baña obeto etzan. Potoſira Capitan cijoala, bere pecatuac gatic gaitz andi batec artu, ta corde gabe ill otza bezala erorizan. Bere lagun, ta Indioen artean laſterca echera eraman, ta erremedioaquin beregan etorrizan. Aietatic bati galdetu cion: zuriz janciricaco aurrean cetorren Galai ura ea nor zan. Indioac iñor etcecuſen; baña bere Aingueru goardacoa zan. Jaunac ori aguertu cion, beragana lengo biciera ſantuaz biurtu cedin. Gure Padre bati deitu cioten: confeſa cedilla eſan, ta aſerratu, ta etzuela confeſatu nai, eſanzuen.

Andic egun bira, Jaincoac bere piedadeaz icaragarrizco aviſo bat emancion. Berac adiſquide batzuei contatu cien, Jaincoaren juicioan egonzala, ta bere ezagun aſco contu zorroz, ta trance eſtuan icuſi cituela, baña iñori ez eſateco aguindu ciotela. Gauza oiec enzun, ta bere lenguſu batec aſco aleguin eguinzuen, bere pecatu, ta peligroac, Jaunari berac eman bear cion bere bici galduaren contu eſtua adierazo, ta confeſio andi bat eraguiteco. Baña añ itſua cegoen non da caſoric eguin etcion: orañ ecin, cion, orañ ecin eguingo det: triſteza andia daucat, ta nere eſcuan eztago.

Aitzaquiaric izan etcezan, Jaunac lecu eman, ta onera pusca bat emanzuen. Baña animaz beguiratu, ta Jaincoagana biurtu bearrean bere adisquideac deitu, ardoa, ta musica eracarri, ta alegueratceco, danzan, ta ordiquerian, ango usora asiciran: berac aurreneco ontcia artu, ta brindatu naicien; baña aora eraman baño len ortzaz gora illa bezala eroritzan. Erremedioaquin onetatic ere bereganа zan. Confesorea lasterca eracarri, ta animatuzuen asco confesio on bat eguitera. Lau urte zan confesatu etzala. Era ona zuela: bereala Jaunagana biurcedilla. Baña, ecindet, ecindet, guciari eranzuten cion. Ay ecindet, eta tormentu gogorrac artu naute!

Pelea latz onetan iru egunean egonduzan. Lenenean cion: Ay nere desdicha! Ay! Infernuco su gorietan nago! Bigarrenean: Ay! Ur otz, edo gela, suac baño gueiago tormentatcen duenean nago! Irugarrenean: Ay! Ay! Azote gogorraquin urratcen naute! Norc bada, bere aideac esancioten? Padreac, esanzuen, ta are gueiago Aita Erretoreac; ceren aien esanac ondo artu bearrean, gaizqui esaca, ta modu ascotan ofenditu dituzun! Orregatic ere oiec chit asco animatcen zuten; baña alperric. Batec Santo Cristoa beguietara eramancion; bañan istua bota, ta quendu zuen: eta gauza onac ez aditce agatic belarriac tapatcen cituen. Arequicoa icusi, ta Padreac Colegiora biurtu ciran: an oracioan jarri, ta anima galdu arenzat Jaunari misericordia, ta Ama Virgiñari bitarteco izan cedilla escatu cioten.



Eri tristeac baño misericordiazco Amac obeto enzun cituen: bada ordu artan Ainguerüen Erreguiña urrezco trono argui eder batean guizonari aguertu, eta onec esan zuen: Orraco Andre eder ori nor da, ta nori escatcen dago? Iñor ecer icusten etzuen, alere ciertotzat esan cioten: Ori Ama Virgiña bere Semeari zure erremedio, ta salvacioa escatcen diona da. O biotz arri ta alzairuac baño gogorragoa! Onelaco etorcari, edo Ama gozoarequin nor bigunduco etzan? Bada tristea malmetitu etzan: eta Ama Virgiña escutatu, ta garrasi tristeaquin asizan: Ay demoniac datoz! Ay banaramate! Deabru oriec quen itzatzute. Ay! Ay! Ta onetan illic gueldituzan. Aren betico desdicha obeto icusteco, ill jancia ematera cijoacela, infernuco bisaje chit itsusi icaragarriac eguiten asizan: guciac arrituric, nola bici ala ill, ta condenatu zala, claru icusi zuten.

Andre

*Andre baten eriotza desgraciatua.*

ASiquira deritzan Erri batean guraso Jaincoaren bildur guchico barzuez biciciran. Alaba bat, ta beren antcecoa zuten. Gurasoac nolacoa umeac alacoac. Chit aisa, ardura gabe, ta bere erara aci zuten. Libertade orrequin galdu, ta bicioetara eman zuen: pecatuetan beñ jaiqui, beñ erori cebillen, eta beti peligro andian. Jaincoac dotrina, sermoi, ta besteen egemplo onaquin aviso asco emancion, ta ez guchiago Aingueru aren argui bici, ta barrengo dei, ta conciencia leialaren quezcaquin. Ortic bildur pusca bat artu orduco aztutcenzan: alere animaco paqueric etzuen, ta Jaincoac bere misericordiaz deitcencion.

Onela bere pecatuen artean giraca cebillela, concienciaco arrac beñ batean aimbeste estutu zuen, non condenacioco bidea ceramala, ta erremediatu bear zuela ezagutu zuen. Nai, ta nai ez, edo nai ta bear, salvatuco bazan, confesio general on bat eguin, ta bici berria bearzala. Baña deabruac, oitu nola, erraz engañatu zuen. Pecatuen cateac urratu, ta concienciaco aranzac ateratceco, Confesore on batequin, naizuen bezala, tratatu bearrean, etsaiac ori burutic quendu, eta cer igarotcen citzaion, ta cer asmo zuen, bere



bere Aitari contatu cion. Deabruen oficioac onec eguin cituen, ta esancion: contu oriec utci, ta aisago bici cedilla: confesio general, eta beste gauzac guero eguingo cituela. Pecatuetan bada nasturic cegoela, atceneco gaitzac emancion, ta chit estuan jarrizan.

Confesorea bereala eracarrizan. Baña, ó gauza arrigarri, ta Jaincoaren castigu gogor, emen icusi zana! Osasunan nola ondo confesatu nai etzuen, ala eriotzan eguin zuen. Beste gauza gucietan erraz enzun, ta eranzun, aditu, ta itz eguiten zuen; baña confesa cedilla esan, ta gortu, sortu, mututu, ta itzic batere etzuen. Icaraturic ceuden guciac, ta are gueiago iltceco zorian, edo eriorarequin burruca cebillela esan zuenean: Infernuco basacatuen figuran demonioac icusten cituela, ta ito nai zutela. Orra, ur bedeicatua bota, ta esaten cioten: emen demonioric eztago. Baña orduco presa eguin zuten. Ay! Ay! Infernuco suetan erretcen nago! Ay! Deabruac naramate. Ala iltzan, ta eraman zuten: eta nescach onen gorputza erre, edo tostatua, ta chit izugarria arquituzan. Ta orra penitencia, confesioa, ta biciera berria gueroco utciac cer pagua duen.

Eriotza

Universidad de Deusto Biblioteca

Universidad de Deusto Biblioteca



*Eriotza gaiştoaren beşte Egemploa.*

ESpoleto co Errian, Roberto Licioac dionez, dama bat bere erara, Jaincoaren bildur gabe aci, ta bicizan: Seguru ere alaba bacarra, ta ala gaizqui oitua. Chiquitatic gala zale, apaiñgura, choralda utsa, ta bere edertasunaz chit pagatu, edo ezcondua: eta añ itsua non mundu guztia bere ondoren cerraiola uste zuen, edo ala naizuquean. Jaincoaz, ta bere animaz aztu, ta galac, galanteoac, eta libertadeac beste conturic etzuen, eta beti, ta gucian bereaz irten bear zuen. Jaincoac bere argui gozoaquin deituaz beregantceco aviso asco emanciozcan, bai eta bere concienciaco quezca arantzazcoac ere; baña oriec bere eroqueriaquin erraz ito, ta aztu oicituen: bere galaiac baño Jaincoac galdu naiago zuen.

Edadearen lorean, ta pecatuen artean cegoela, uste gabeco gaitz andi batec artuzuen, ta gueldica erio bat eguiñic, urtu, erquitu, ta deseguiñic utcizuen. Bere culpa guciac bereala erdian artu zuten, ta bere biotcean esaten cioten: zure lanac, zure obrac guera: zuc eguiñac guera: bician bezala eriotzan zurequin izango guera. O cer berri tresteac! O cer biotceco illuntasuna! O cer trancea! Quen, quen ortic: campora demonioac: ur bedeiçatua





catua betor: Ez, ez, diote deabruac: gu gure echean, gure toquian, gure infernuan gaude: beñtzat lecu, edo anima onetan bicitzan bezala eriotzan, ta beti izango guera. Eri tristeac bere atseguiñ loien ardoa erreparo gabeedan zuen, ta eriotzan gucia beazun samiñ, ta infernuco pozoi biurtu citzaion.

Bere barrenean deabruen iduripen, ta bisaje añ izugarriac icusten cituen, non iñolaco moduz ecin sosegatu zan: gira batera, gira bestera, ta alde gucietan larria, ta icara: Ay, ama nerea! Ay! Infernuco doloreac artcen naute: iltcen naz, ta deabruac naramate. Ez, ene Alaba, esancion: ori erremedioa: ori Santo Cristo au: onegana biur zaite. Beguiratcen diot; baña bera billatu, ta amatu bearrean, nola ofendidu dedan, consolatcen ez nau: aserre dago: quen nere beguietatic. Baña ay! Jesus crucificatuac ordu artan nola consolatuco zaitu: baldin aren aranzac zure pensamentu zoro loiac condenatcen badituzte: eta orobat aren escu, ta oñ iltcez josian zure escuca libre, ta pauso gaistoac: aren biotz idiquiac zure aren irac, aserre, ta atseguin itsusiac: aren larru gorrizco soñeco gabeac zure galac, ta eraqueriac: eta aren gorputz zuc urratua zure aren gustoen Juez izango bada?

Santo Cristoa quendu, ta Amac esan cion:

cere consolatuco zaitu bada? Ama, sosegatu banaiz, gusto bateman bear didazu. Cer bada? Nere galaric ederrena betor. Ha cer guraria! Cer ill janci berezcoa! Bearric bazuen ama orrec ecarri, ta nola bere buruaz ecin baliatu zan, amac lagundu, ta jancizuen. Osasunan bezala aleguiñaz edertu, ta apaiñduzan. Orañ nere ispillua betor. An bere arpegui eder, urrezco ille, ta edertasunaren ordean, erio illun tristea icusi zuen. Ay au nere ichura! Ta onec erremedioric ezduela? Beraz nere atseguiñac joandira: beraz iltcenaiz, ta nereac eguindu? Ez ene alaba, ori ez esan. Jaincoari dei zaiozu. Jaincoarequin cer det nic cer icusi? Nere adisquideac non cerate? Nere galaiac atozte: ez ni utci; nere gustoac lagun zadazute: bician bezala, eriotzan ere zuena izan bear det.

Orduan bere biotcean ceuzcan pecatuac arpeguira irten, ta desdicha gucien arrabia amorratu batec artu zuen, ta Jaincoa utci, ta deabruai ots eguiten asizan: demonioac non cerate: zuena naiz, atozte. Ea demonioa, nere anima betico ematen, ta aguintcen dizut. Eta au esatearequin batean ispillua erori, ta illa gueratuzan, ta anima damonioac infernuan ondatu zuen. Eta orra cer dan emacume eroa, ta alacoaren azqueneco gogoa.





*Gorputz illaren Egemploac.*

CHit gauza jaquiña da Alejandro Faiac contatcen duena. Conde Jaun andi bat besteac bezala iltzan, ta lurpean sartuzuten. Andic dembora pusca batera aren obia idiqui bear izanzan: eta an arquitu ciranac, arrituric icusi zuten, Jaun orren arpeguian zapo guciz aundi nazcagarri bat, beguiac, eta buru gucia jaten, eta beste ar itsusi, eta pistia alco orobat ari cirala, eta an ceudenac nazcatu, ta lasterca igues joan ciran. Aren seme Conde galai gazteac, cer igarozan aditu, ta bere beguiz icustera joanzan. Icusgarri triste ori bere aragui ustel, zapo, ta arraquin ondo beguiratu, ta Jaincoac aren biotza arguitu, eta esan zuen: Ona ceñ itsuac gauden: ona certan gueratu bear degun. Pistia itsusi oiec dira gure adisquide alaco costuan, ta aimbeste erregalo requin aci, eta guicentcen ditugunac: oiec gure lagun, gurequin bici ta gorde, eta oi biguñetan iduquitcen ditugunac. O! Cer zoraqueria da au?

Ez, ez beñtzat orañdaño bezala. Obe degu, gorputz au, ta oriec batean, barau, ta penitenciaz orañ illerazo, guri burla guero eguin, eta onela jan ez gaitzaten. Jaincoaren aviso, ta desengaño au biotcean artu, bere eche, ta ondasunac bertan utci, ta Cristori

Universidad de Deusto Biblioteca



pobrezan jarraitceco, escutatu, ta andic igues eguin zuen. Erromara igaro, ta Confesore santu bat artu, ta Jaincoaren bildur, ta amorez irazaqui, ta biciera santu bat asizuen: eta bere janari pobrea irabazteco, Icazquin eguinzan. Luzaro Jaincoa servitu, ta egun batean bere icatza saltcera Errira cijoala, gaitz andi batec artu, ta chit paciencia andiaz eramanzuen; ederqui ceruraco prestaturic bere anima Jaincoari emancion.

Puntu artan Erromaco campana guciac berez ill ots tristea banatu zuten. Aita Santua, eta gendeac arrituric, cer ote zan, edo nor ill zan. Orduan dichosoaren Confesoreac gucia contatu cien, ta iltzan Jaun andi nor, ta nolacoa zan. Jaincoac ala nai, ta Condearen echeco soldadu aren billa len ibilli ciranac, Erroman arquitcen ciran, eta beren Principe Jabearen Gorputz santua beneracio, ta consuelo andiaz bere Errira eraman zuten. Ta orra mundua utcitcea munduan ere nola Jaunac gloriaz pagatcen duen.

Gure San Francisco Borja andiari Emperatriz Doña Isabel en gorputza Granadara eraman, eta entregatceco caja idiqui zanean eraguin cion mudanza, egemplo jaquiña da. Arpegui ura añ trucatua, ta añ tronen itsusi nazcagarria aguertuzan, non Emperatriz arena zala, esatera iñor ere atrebitu etzan. Añ usai, ta quirats gaistoa botazuen, ce guciac len baño len andic igues eguin zuten. Borja Santua bacarric gueratuzan.



An cecuzan gorputza, norena izanzan, ta nolacoa cegoen pensatcen jarrizan, eta cion: Arpegui onen lengo edertasuna non da? Usteldu, ta arrez betea dago. Onen lengo beguiratceco magestade errespetoz guciac betetcen cituena non da? Orañ bere obligatuenac ere utci, ta igues joan dira. O munduco vanidadea! Desengaño onec Borja Jaincoagana eracarri, mundua oñ pean utci, ta cerua billatcera animatu zuen: eta ilco citzaion Jaunic aurrera ez servitceco proposítu firmea artuzuen, ta orretatic santu andi eguinzã.

Zori oneco Conde, ta Marques oiec biac beguiz, ta obretan icusi, ta icasi zuten, San Agustin equin Santuac diotena: pecatu etatic libratceco, deabruen tentacio, munduaren guezur, ta aragui aren palaguac vencitceco obi batean, edo gorputz illaren consideracioan, fedeaz sartcea baño erremedio oberic eztala. Soseguz an pensezazu cer, nor, ta nola dagoen. Munduco anditasun, ondasun, ta edertasunac emen non dira? Gorputz onen balentia, ta bizarriac cer eguindu? Orren echeco, soñeco, maieco, oieco errega-

 loac

loac non dira? Ona certan paratu diran. Or ez dacutſu, arrac, ta ezurrac, lur uſtel, ta ubela, autſa, ta utſa, atſa, ta quiratſa baño. Orretan zu ere laſter biurtuco cera: ondo penſezazu, ta buruco, edo almoada onen gañean beti lo eguizu: ta lurreco atſeguin, ta pecatuen ganac edo galeac quenduco zaizquitzu: banidadeac utci, ta eguia billatuco dezu: lurretic deſeguin, ta cerua betico izango dezu.

*Juicioaren gañeco Egemploac.*

BI modutan au zuretzat izangoda. Bata Jaincoarequin zure artean bacarric, edo zurequico Juicio bacar, ta particulara deritzana. Beſtea Jaincoaren, ta mundu guciaren aurrean, zurequin mundu guztiarequico Juicio univerſala deritzana. Bata iltcen çeran puntuan; beſtea azquen juicioco egunean. A. Andradec dacartcien Juicio bien Egemploac, bata beſtearen ondoren icuſico dituzu.

Cuzco deritzan Indietaco Erri jaquiñean Guizon aberats, eta obligacio andietaco bat izanzan; baña Criſtau legueric eztzuena: izena bai, baña obraric etzuen. Deabruac, ta munduac engañatu, ta pecatuetan begui bitaraño ſarturic cegoen. Jaunaren bildurra galdu, ta confeſioco erremedio añ bearra, ta añ erraza utci, ta oguei ta amar urtean confeſa-



ſatu gabe bicizan. Jaincoaren ontaſunac, ta bere conciencia leialac aviſo aſco emanagatic, enzun bai, baña eranzun ez eguiten zuen, ta betico oiturac, ta etſaiaren tentacioac azpian ceucaten. Garizuma etorri, ta confeſio on batequin animen erremedioa billatcen, ta Eleizaz cumplitcen beſteac icuſi, ta berac guciac baño bearrago zuela ezagutcen zuen. Alere aimbeſte urteco pecatuen cargac errenditu, ta icarac confeſatceco animoa quentcen cion. Ah triſtea! Cer aranza gogorraquin bicicozan! Atceneco miſeria onetan, Jaunaren miſericordiac lagundu cion.

Gau batean, loric piſuenean, gau erdian cetzala, gauza berri, ta izugarri bat igaro citzaion. Bere adiſquide bat Errico beſte gendedi andi batequin, bere beguien aurretic calea barrena, chit laſterca, ta eſtuan cijoacela icuſi cituen. Adiſquideari, nora zoaz, eſancion: eta onec gucien icenean eranznn cion: Jaincoaren Juiciora goaz, eta zuc galdu, ta Erriau gucia zugatic ondatcea, nai ezpadezu, atoz laſter gurequin. Añ gogotic, ta añ biciro au eſan cion, non bereala, ta ariñ juiciora beſteai jarraitcen aſizan, eta oriequin joanzan.

Erri artan, plaza gure Colegioaren aurrean dago: eta ara allegatu orduco, Criſto Gure Jauna bere Mageſtade guciarequin, ta Aingue-

Universidad de Deusto Biblioteca



gueruac alde gucicitic, ta Ama Santiſsima, pecatarien Bitartecoa bere ondoan icuſi cituen. Beco aldetic demonio izugarri aſco, ta aſerreac, pecatarien contra cargu andiac eguiteco chit preſt ceudela. Errico guciai Jeſu Criſtoren odol precioſoaz, edo Sacramentu, dotrina, ta juſtuen egemploaz cargu eſtuac, eta bacoitzari banaca orobat eguiten citzaiozcan. Araco gure guizona contuetara deitu zutenean: Ay cer larria! Demonioac bereala, beſteac bezala, ta gueiago, ta eſtuago acuſatcen, ta cargu andiac eguiten aſiciran: ta oguei ta amar urtean Jaunaren etſai eguiñic, confeſatu gabe, ta ceruco aviſoai eranzun gabe, onelaco, ta alaco pecatuetan nola egonduzan, guciac banaca eſanaz.

Edoceñec dacus guizon triſte galdua, a eguiaz Jaunaren beguietan ala acuſatu au cer infernuco bildur, ta anſietan arquitu cozan. Ta are gueiago bere aurretic beſte aſco pecatu guchiago, ta chiquiago acgatic Tribunal juſtu, ta eſtu artan betico infernura cijoacela icuſiric. Eriozco icerdi, ta naigabe eſanal guciac baño, andiagoen artean, bere burua galdutzat, eta beſte erremedio gabe icuſi, eta laſterca pecatarien Ama Santiſsima gana beguiac biurtu, ta aren oñetan bere burua botazuen: tranceric eſtuenac eſcatcen zuen bezala,



zala, erregutu cion, arren bere mantu pean artcezala; eta biotz guztitic itza ematen ciola, bere Seme maitea ſeculan gueiago ez ofendibatceco, ta beraren amorio, ta devocio andi batequin, eguiazco penitencia, ta bicitza ſantu bat aurrera eguiteco.

Bere miſericordiazco beguiaz Ama maiteac beguiratu cion, ta penitencia cion bezala, eguiteco lecua bere Semeagandic alcanzatu cion: ta Colegio artaco Operario Apoſtolico celo andico Aita Martin Campos, Ama Virgiñac berac beguien aurrean iſiñi, ta ſeñalatucion, ta arequin confeſa cedilla, ta aren eſanac eguin citzala, aguindu cion. Guizon au bere bicitza gaiſtoan gure Colegioan guchi ſartu oizan, ta Aita Martin ezagutcen etzuen. Baña Ama Santiſsima añ biciro eracuſi cion, non biaramoean, icuſi orduco, bereala ezagutu zuen.

Juicio arrigarri ori onetan acabatu, eta beregan biurtuzan; baña icerditan añ urtu, edo deſeguiña, ce orañdic ere Tribunal artan cegoela cirudien. Bere echecoai laſterca otſeguin, ta ceñ igaroa cegoen icuſi zuten, ta guciai oracio eguiten laguntcea eſcatu cien, eta gau nequezco artatic ondo irteteco gracia, Ama Virgiñari biotz guztitic eſca ciozatela. Al[illegible]eguinzan: eta egun ſentian, damuz urtu-

urturicaco bere biotza Ama Santiſsima ren eſcuetatic Jeſus onari eman, ta ondo ariñ Colegiora joanzan. Aita Martin bereala ezagutu zuen, ta ceruco mandatu bat arenzat cecarrela eſancion: ori aditu, ta bere confeſio andia aſizuen; baña damuaren damuz itzac baño negar malcoac gueiago ciran. Bere culpac, deabruac Juicioan bezala, arc confeſioan eſancituen.

Aita Martin ec chit animatu, ta berac Ama Virgiñari Tribunalean aguindu cion biciera ſantu bat eguiteco berotuzuen. Ala cumplituzuen, ta egemplo guciz andiac errian eman cituen: len pecatari galdua, guero Criſtau chit jaincozcoa icuſizan. Bere egemplo ſantu ta conſejuaquin bere familia añ ederqui gobernatu izan zuen, non erri gucia marabillaturic ceucan. Propoſitu, ta bicitza ſantuan, ill arteraño, firme iraundu zuen; Jaincoaren juicio aſerre, ta ango bere contu eſtua icuſi, ta gogoan ſeculaco ſartu citzaiona bezala. Zuc ere, Iracurlea, Ama Virgiñaz baliatu, ta arc bezala, bertatic penitencia eguizu, eta Juicioan contu ona emateco, arc bezalaco biciera berria arrezazu.

*Beſte Egemploa.*

JUicioco egunaren memoria fede biciaren arguitan icuſi, ta penſatcea, mundu gucia ica-


icara gorrian ſartceco diña da. Ez pecatáriac bacarric, bai eta diran, ta izango diran juſtuenac ere egun triſte, edo egun illun aren memoriac bildur andiaz beteco ditu. Jaunaren beguietan ſantu, ta juſtua zan Job ;alere anciña, ta añ urrutitic juicioco ordu izugarri, ta contu eſtua icuſi, ta gucia icara añ andiac artu zuen, non ta cion: orduco zure aſerre, ta nere contua igaro artean, Jauna, nor infernuan eſtali, ta gorderic legoquean! Baña ez egun artaco Juicioa, eguiaz bertan izangodan bezala, ezpada pintaturic icuſiac berac, pecatari andiac, ta eſanditeque, Erreino oſo bat ſeculaco icaratu, ta Jaincoaren fede, ta leguera ecarrizuen.

Ala Egemplo, ta converſio au maravilla anditzat arrazoiaz Baronio Cardenalac contatcen digu. Bulgariaco Errege Bulgario Gentil, edo Jaincoaren fede gabeco guizona, eta berez chit cruel, aſerre, ta gogorra zan. Aren mende, edo eſcuetara, Jaincoac ala nai, ta Metodio ceritzan Monje bat etorrizan: eta au Pintore chit famatua zan. Bulgarioc ori jaquin zuenean, bere Jauregui, edo Palacioa apañtceco, Pintura, ta Imagiña alco eguin citzala aguindu cion: eta Erregue ori nola añ braboa, ta icara emallea zan, penſa alditequean gauzaric icaragarriena, eta guciac arrituco

Universidad de Deusto Biblioteca



tuco cituen bat pinta cezala esancion. Era eder Jaincoac emanicaco onezaz Metodio chit ondo baliatuzan.

Erregue gueienean oi cegoen Salaric galantenean Jaincoac lagundu, ta alzuen bicitasunic egoquienaz Juicioco egun, edo gau icaragarria pintatu, ta bere lecuan paratu zuen. An Juicioraco Jesu Cristoren etorrera, biciac, eta illac Evangelioan berac dion bezala juzgatceco, icustenzan. An Jaunaren Magestade, ta poderiozco Tribunala. An Ainguero eder, ta Santu guciac gloriaz janciric escui, edo goi aldera; eta ezquer, edo beco aldera suz, ta garrez beteric deabru, ta condenatu beltz itsusi guciac. Au gucia Josafateco ibar zabalean icustenzan: eta goien gloria bicia, eta bean infernu goria.

Araco Bulgarioc seculan ez icusi, ez aditu, ta gogoratu ere etcitzaion Pintura berri ori beguiz icusi zuenean, beregandic irten, ta corde gabe, edo mututuric luzaro egonduzan. Beñ, ta berriz beguiratu, ta gueroago, ta icara andiago zuen: eta biotz añ gogorduna izanic ere, esan al baño larri, ta bildur gogorragoac seculaco Erregue ori artuzuen. Pusca bat beregandu zanean, Metodio Monjeari galdetucion: Pinturaco trance arrigarri ura ea cer zan? Orduan arc Erregueari gucia bana-



banaca esplicatuaz, gure fedeco Misterioac chit ederqui aguertu, ta adierazo ciozcan. Jaun andi ura, edo Cristo nor zan: nola gu salvatceco Jaincoa Guizon eguinzan, ta beste articulo, ta pausoac: nola cerura igozan, ta guero, an icusten zuen bezala, Juiciora etorricozan, eta onai, araco goien cecuzan gloria, ta gaistoai beco tormentu icaragarri aiec emango ciezten.

Gure Legue Santu, ta garbiaren marabillac aditu, ta Jaincoaren graciac biotza arguitu, ta Bulgarioc ezagutu zuen, abereen guisa bici izandu zala; eta trucaturic gucia Metodiori esancion: Jaincoagana biurtu, fede santua artu, ta salvatu naizuela. Dembora onetan Sergio IIa. A. Santu, ta Miguel IIIa. Emperadore ciran. Bereala biai escribitu, ta erregutu cien, berari, ta bere Erreino guciari gure fede, ta legue santua eracusteco, bear ciran Predicadore, ta Maisuac, arren bialdu citzatela. Biaquin adisquide andi eguin zan, eta Bateo santuan, Emperadore aren devocioz Miguel Icena artu zuen: eta fedearequin bicioac utci, ta bicimodu santu bat asizuen: eta Erregue poderoso gogor batetic Cristoren servitzari umill pocic eguin zan. Bere gende gentil itsu asco bere contra jaiqui citzaiozcan; baña Jaincoaren favore andiaquin, Cris-

Cristau guchi baciran ere, gentilen contra lazqui peleatu, ta ciranac sujetatu cituen. Guero Jaincoac paquea eman cion, ta Jesu Cristoren fedea Erreino gucian zabalduzan. Ona Pintura batetic cer marabillac icusiciran.

*Infernuco penen gañeco Egemploac.*

JUicioarequin batean infernuco tormentuac Egemplo ascotan arquitcen dira, ta zuc ere ala icusico dituzu. Capuchinoen Erligio santuco Historian contatcenda, Fr. Miguel de Napoles Predicadore Apostolico, ta animen celo andico Ministro señalatu bat izandu zala: bere virtute, sermoi, ta egemploaquin anima asco cerura bialdu, eta bere saria artceco, edo iltceco zorian cegoela, beste munduan cer igarotcen zan icustera Jaincoac eraman zuen. Erligiosoac iltcen laguntcen ciotela, illa bezala, edo asnase gabe luzaro gueratu zan. Beregana cerbait biurtu zanean, an ceudenac guciz admiratu ciran: bada lecu batera beguira arritua bezala cecusten, eta noicean beñ bere barren barrenetic suspirio chit izugarriac ateratcen cituen: eta luzaro mutua bezala cegoen. Aita Guardianac, cer otezan, edo añ luzaro cer icusi zuen jaquiteco, Jaincoaren icenean esan cezala, aguinducion. Icen santu artzaz animatu, eta beste mundutic cetorrenac bezala eranzun cion.



Ay, Aita! Cer igaro, ta cer icusi dedan, norc esan? Jaungoicoac gure oneraco eraman, ta sentidu umano, edo emengoac baño gorago, altuago, ta escutuago dauden gauza andiac icusi ditut. Norc esan al? Cer pauso, cer lance, ta trance miragarriac! Cer ta nolaco eguiac, baña gure esan al guciai atzoz eraguiten dienac! Jaunac aguindu, ta izugarrizco jornada, edo infernu, Purgatorio, ta Ceruraňoco Erromeria bat eguindet. Infernuan anima condenatuac, ta orien tormentuac icusi ditut. Neguan elur lumac, ta udaco jasaric andienean euri tantac bezala, animac infernura erorten ciran, ta deabruac beren tormentuetan bertan ondatcen cituzten. Ibai beltz andi, suz, ta garrezco, berun, edo metal urtuaz betericaco putzuac icusi ditut, eta anima tristeac negar, ta deadar adiaz, ta inciriaz gora ta bera, negar malco goriac darieztela ta alde gucitic demonioac perseguitcen dituztela.

An sugue, cirau, zapo, armiarma, dragoi, ta pistia mota guciac, izugarrico ichurac, aguinca, ta atzaparca animac puscatcen bezala. An beste aldetic elur zulo chit otz, ta izotzez bete, ta beñere urtcen ezdiranac: an putzu, oñ, edo cinguira gelatuetan animac beti

Universidad de Deusto Biblioteca



beti arrabiaz, ta garrasiz: an zacur amorratuen guisaco gose, ta egarri ito, edo iltcerasiocoac, baña beñere acabatcen ez diranac: an illuntasun beltz, beti gau erdi, suaz ta queaz, atsez, ta quiratsez betea. An Jaincoa beti icusi naia, ta iñoiz ere ez icusi bear gogorra: eta ortic betico gucien, ta bacoitzaren madaricacio, eta batac bestea ecin icusia, ta beti icusi bearra, eta beste pena, ta naigabe mota guciac, ta esan al baño andiagoac. Baña gucietan oriec berdin ez dira; baicic pecatuac cembat, eta nola tormentuac ambat, eta ala.

Andic Purgatoriora Jaincoac eraman ninduen: eta nic icusi dedanez, infernuco tormentuac, edo aien anteceo an ere ciraden. An cerura bear duten anima autetsiac su gar bicizco ibai, carobi, edo labe gorietan, besteac elur zulo gelatuetan, eta beste tormentu andietan cebiltzan: besteac Jaincoa icusteco zale, gogo, ta ansiazco pena gogorretan erretcen, ta egosten bezala Jaincoaren justiciac aguintcen zuen bezala. Baña orien penac, infernucoac bezala betico ezdira; baicen beren culpen loiac garbitu, ta pagatu arteraño. Esperanza onec chit arintcen diezte. Emen animac Aingueruac animatcen dituzte; baña condenatuac demonioac beti persegui, ta tor-

men-



mentatcen dituzte. Aimbeste infernura erorten icusi artean, Purgatoriora bat, edo bi etorri ciran.

Emendic cerura igo ninduten. Ango Gloria cer dan, ta an cer icusi nuen, norc esan dezaque? Erri andi, cerua bera, arri precioso, urre argui ederrez eguiña, emengo gauza itsusien antzic ez duena. An ecin contatu alaco Ainguerudi, ta Santudi, guciac beren gloria berezcoaz janciac, alegria, paque, contentu, ta atseguiñez beteac. Ango anditasun, ondasun, ta edertasunac: ango musica, canta berri, ta Jaunaren betico alabanzac. Nola emengo meritoac, ala ango sariac. An Gure Aita Serafico San Francisco umilla, Corte, edo Jauregui artaco Andien artean goi goien icusidet, eta berago gure Anai lagun on asco, penitenciaco sacu onetan emen Jauna servitu zutenac. Gu biciera umil santu batera animatceco gauza andiac Jaincoac eracusi dizquit: eta aren mandatu au zuei eman, ta ni ara noa, ta zuen oracioaquin lagun zadazute. Au esan, ta Jaunari bere anima emancion: eta len lasterca bidez icusi zuen Gloria betico gozatcera cerura joanzan.

*Beste Egemploa.*

Olen errematean, gucien coroa bezala, Doncella bati igaro citzaion lecio andico

Universidad de Deusto
Biblioteca



dico Egemplo bat contatu bear dizut. Au gazteric emezurtza, edo Aita, ta Ama ill, ta bacarra, noblea, aberatſa, ta Jaincoaren doai, edo prenda andietacoa guelditu zan. Criſtau on bat zan, guraſoac igoalac onetan izan ez baciran ere. Aita, Jaincoaren adiſquidea, ta ala beraren eſcutic gaitz, edo neque, ta egun on bat etzuela, trabajuz bete, ta erregalatua izanzan: orien artean pacienciarequin beſte munduco coroa irabaci, ondo ill, ta cerura joanzan. Ama berriz bitartean bere burua munduari eman, ta Jaunaren bildur gabeco biciera char batean eriotzac arrapatu zuen.

Echeco egemplo oiec Doncellac bere beguietan izan cituen: ta bera, nola ezcontceco aſcoc billatcen zuen, ur biren artean bezala, duda andian arquitcen zan. Amaren bicierac munduronz; Aitaren egemploac ceruronz, ta Jaincoagana biotza tiratcen cioten. Ama Virgiñaren devocio chitezcoa zuen Doncellac: ta dudaric irteteco, ta bere animaren ſalvacioraco cer conveni citzaion acertatceco, bere afecto guciarequin eſcatu cion, arren bitarteco onac bezala, ceruco argui bici bat Jaincoagandic alcanza ciozala. Ama Santiſsimac oracioa aditu cion, ta bere alaba maitea ceruco bidean ſeguratceco, be-





rac bezala lagundu cion: eta orretaraco aren guraſoen beſte munduco ſuertea, eta nola ceuden arguiro icuſi erazo cion.

Beñ batean bada, bere anſia eſtuenean Ama Virgiñari encomendatcen cegoela, loac artuzuen, ta marabilla andiac icuſtera Jaincoac eraman zuen: Erri, edo Corte andi zabal, ta guztizco eder bat, era ta alde gucietara chit zoragarria eracuſi cion: eta an ceuden guciac coroatu, ta gloriaz milla marabilletara janciac, Ainguerúen canta, ta muſica ſuaveaz, contentuz, ta atſeguiñez beteac. Doatſu oietatic bat bere Aita zan: icuſi orduco ezagutu, ta laſterca laztan gozo bat ematera cijoan. Ez, ene alaba, ez: orañdic mereci ezdezu. Au ceruco gloria da: virtuteen ſaria da: eta biotz guciaz Jeſu Criſtori jarraitcen diotenai ematen zaie: gurutce, ta nequeen artean or aren vorondatea eguiñaz irabaztenda. Gloria au gozatce agatic, cer eguin, edo eraman bear ezta? Aitari beguira pocic, ta beti egon nai zuquean.

Baña beñgoan Ainguerú batec beſte lecu urruti batera eraman zuen. An bazter illun triſte izugarri, ta guciz nazcagarri batean, edo infernuan arquitu zan: quea, ſua, garra, negarra, deadarra, ta inciria laſtimagarriac baicic an etzan. Beſte an ceudenen artean be-

re Ama zori gaiſtocoa icuſi zuen. Baña nola? Buruco illeac beſte aimbeſte demoniozco ſugue cituela: dragoi, ta zacur amorratuen guiſa beguiac, belarri mingañ, eſcu, bular, ta gorputz guztia aguinca, ta atzaparca puſcatcen ciotela. Arritu, ta corde gabe alaba gueratu, ta nai, ta nai ez beguira cegoquion.

Amac orduan eſan cion: Ay, ene alaba! Ona nere pecatuen, ta bicimodu galduaren pagua cer dan! Beſte oiec, eta ni orco gure libertade, atſeguin loi, ta culpac onetara gaituzte. O atſeguin labur betico atſacabeac ondoren dituztenac! O guſto cital, ta aimbeſte nequeren coſtuan or billatu taco contentuac, ta emen betico gure tormentuac! O lurreco vanidade zoro, ta guezur utſac, eta emen eguiazco aranza pena garratcen beteac! Eta onec erremedioric ez duela! Madaricatua izan dedilla jaio nintzan eguna, or jan nuen oguia: nere galac, adiſquideac, atſeguiñac, ta gucia madarica dedilla. Onetan demonioac alabaren beguietatic infernuço leiza zuloetan ſeculaco ondatu zuten.

Doncella icuſi cituen gauzaquin añ arritua gueratu zan, non ta egun aſco igaro ta ere, bera igaroa bezala luzaro ecertaco etcegoen, ta emengo gaucetan itzic eguiten etzuen. Jaunaren graciaz ſoſegatu zanean, biotza



biotza trucaturic, ta Ama Virgiñaren eſcuetatic Jaincoari bereala, ta betico emateco preſt arquituzan. Icuſi, ta icaſi zuen lecioaz, mundu gucia ceruagatic largatceco, ta Jeſus maitea bere Eſpoſo bacartzat artceco propoſitu andi bat eguinzuen. Limoſna andietan bere ondaſunac pobreai eman, ta bera pobre umill Jeſus pobre umillarequin Gurutcean joſi, ta beti bicitceco, Conventu batean ſartuzan. Bicitza berri ceruco bat, virtute gucien egercicioaquin an aſi, ta aſacatu zuen.

Ama Virgiñaren guztizco devocio, ta amorio gozoa beti bere biotcean joſiric ceuçan: ta berari cembat ceruco favore zor ciozcan, eſquer oneco alaba maiteac bezala, bere amore leialaren ſeñale andiaquin bici gucian eracuſi zuen. Eta ona Doncella onec, infernutic libratceco, ta cerua irabazteco, cer ſuerte ederra, ta cer parte ſegurua artu zuē. Zuc ere onela bertatic Criſtau biciera berri bat, zure eſtaduco virtuteen egercicioetan, ta Ama SSa ren eguiazco devocioa biotcean arritzatzu, bera, ta bere Semea emen ſervitu, ta amatu, ta beti icuſi, ta gozatceco ceruco glorian. Amen.

Egercicio gucien frutua da Bicitza ona, paquezco eriotza, ta ceruco gloria. Baña nola A. S. Ignacioren erregla dan, Lenengo Aſtean Glorian Conſideracioric ez ematea, nic ere

ere ala orañ Gloriaco Egercicioric eman ezdizut. Jaincoac bere amorezco Ontasun guciaz zu, ta ni betico ara, beti bera alabatcera, zucen eraman gaitzala. Amen.

## ARQUIBIDE, EDO INDICEA.


| | |
|---|---|
| *Sacerdote Jaun, ta Iracurleari. Pag.* | 3. |
| *Consideracio oiec ceren gañean diran.* | 9. |
| *Noraco eguiña ceran, edo zure azquen siña.* | 13. |
| *Pecatuen gañean Consideracioac.* | 28. |
| *Pecatua berez cer dan.* | 28. |
| *Jesus Crucificatuari Afectoac.* | 38. |
| *Pecatua bere calteetan: Ainguerueu Pecatua, ta castigua.* | 50. |
| *Adan gure Aitaren pecatua, ta castigua.* | 58. |
| *Bacoitzaren pecatuen gañean Consideracioac.* | 64. |
| *Ama Virgiñari, Jesu Cristori, ta Aita Eternoari Coloquioac.* | 75. |
| *Eriotzaren gañean Consideracioac.* | 82. |
| *Gorputz illaren gañean Consideracioac.* | 100. |
| *Bacoitzaren Juicioaren gañean Consideracioac.* | 104. |
| *Infernuco tormentuen gañean Consideracioac.* | 119. |
| *Azquen Juicioaren gañean Consideracioac.* | 139. |
| *Salvacioaren gañeco Egemploac, eta Dotrina.* | 156. |
| *Pecatuaren gañeco Egemploac, eta Dotrina.* | 163. |
| *Eriotzaren gañeco Egemploac, ta Dotrina.* | 174. |
| *Gorputz illaren gañeco Egemploac.* | 193. |
| *Infernu, ta Juicioaren gañeco Egemploac.* | 196. y 204. |




# ONDO ILTCEN ICASTECO, TA ONDO ILTCEN LAGUNTCECO EGERCICIOAC:

ETA BIDEZ ERIAI ONDO ITZEGUIteco modua: azquenic gure Necazariac ondo bici, ta ondo iltceco bidea, bearren diran Dotrina, ta Egemploetan.

*Egercicioen Irugarren Partea.*

### *IRACURLE EUSCALDUNARI PAQUEA, ETA Eriotza ona.*

Zori onecoa zu izateco, zure izicacoa eguiteco gucia dago, Jaincoa da. Fedeco, ta Legueco gauzea Jaincasi, ta sinistu, ta orieta equin ondo bici, ta ondo iltcean. ta amoro-

ondo jaquitea, ta ez ondo asitcea. Escritura Sagraduac, ta beste Librуac diotenez, asco ondo asi, ta gaizqui acabatu, edo asacatu ciran. Orregatic, bada ondo asitceco ondo prestatceco, ta ondo iltceco Egercicio au orañ eman naidizut.

Ien §. EGUITECO AU CER DAN.

CRistavac, lurrean bicidan artean, eguiteco andiagoric ezdu, paquean Jaincoaren gracian illtcea baño. Zure, ta nere eguitecoric bearrena au da. Jesu Cristoc Evangelioan dion gauza bacarra, ta bearra au da. Au da Jaunaren misericordia gucien andiena, doai gucien doaia, gracia gucien gracia. Au da ceruco Atearen guiltza, mesede gucien sillua, meritu gucien saria, ta favore gucien coroa.

Argatic ondo illtcen icastea da ceruco lecioric egoquiena: ta ondo iltcen laguntcea
Ba... Ainguерuen oficioric onena. Naizu, bada,
Infer... o ill, edo ondo illtcen icasi? Jaquizu, ba-
Azquen... incoac S. Pablo-ren aotic diona: bat bi-
Salvacio... ezala gucienean illtcendala. Bicitza no-
Pecatuaren ...iotza alacoa. Naizu ondo ill? Jaqui-
Eriotzaren ..., Jaincoac David-en aotic diona: pe-
Gorputz illar... lo injustoa eriotzan gaitzac arrapa-
Infernu, ta Ju... tcen-



tcendutela: gaitz gucien gaitza eriotza gaistoa da. Naizu ondo ill? Jaquizu, bada, Jaincoac beraren aotic diona: pecatarien eriotza aren beguietan nazcagarria dala. Naizu ondo ill, edo ondo illtcen icasi? Jaquizu, bada, Espiritu Santuac diola: biotz gogorra azquenеco egunean chit gaizqui arquitucodala.

Orrela ondo illtcen icastea cer da? Da eriotza baño len, edo zure bicitzan illtcea. Ondo illtcen icastea da, eriotzan naicodezuna, orañ, ta beti eguitea. Ondo illtcen icastea da, demonio, mundu, ta araguiarenzat zu bereala illtcea. Ondo illtcea bera da, pecatu gabe, Jaincoaren gracian irautea. Iraute onec lenago gracian egotea, Jaincoaren adisquide izatea, berez escatcendu, edo esan naidu.

Ill gaitean, bada, Cristava, zu, ta ni gure bicitzan bicigaitean gure eriotzan. Eriotza beti beguien aurrean badacargu, eriotzan cer eguiñic izango ezdegu. Onela bicitzan illagatic, munduco eroac baño tristeago bicico ezguera; baicic aiec baño aleguereago. Aien alegria acabatucoda, ta gurea betico izangoda. Aien alegria azaletic, ta campoticacoa da; baña gurea mamitic, ta barrendicacoa da. Aien alegria mundu guezurtian, gurea Jainco eguiazcoan beti dago.

Jesu Cristo ceruco Maisuac, Aita amoro-

 ioac

Universidad de Deusto Biblioteca

ſoac bezala eſatendiguna da : ,, Eſtote parati:
,, Vigilate : Eſtote parati. ,, Ez beñ , ezpada biartetan , ta iru aldiz dio : contuan maniaturic , eta preſt gaudela, ceren, guchien uſte deguneau, ill bear degun : eta egun, ta ordu ſeguruic ezdegula. Criſtoc ezdio : preſtatu, maneatu , edo preparagaiteala ; ezpada maneatu , paratu , ta preſtaturic beti gaudela. Mandatu au zuc, eta nic bertatic ardezagun. Artcen badegu ; puntu dichoſo orretatic zorionecoac izangoguerade. Ta eguia eſatera, deſcanſuzco bici gozoagoric munduan iñorc eztu , beti eriotza gogoan daucanac baño. Orregatic Jeſus maiteac aimbeſte naidegunac becela , gozoro bicigaitean , conſeju ori ematendigu.

Galde, bada , eguia au : ondo icaſi , ta icuſi , ta cequitenai galde. Galde Jaincoaren beſte ſiervo fielari , ceñac illtceco zorian cegoela , eſanzuen : Jaincoari graciac : oguei , eta aimbeſte urtean , illtceco becela , egunoro confeſatu izan naz: eta orañ atzo bezala confeſatcea beſte cer eguiñic ezdaucat. Au eſan ta ſoſegu , ta paque gozoan illtzan. O dicha pare gabea ! O gloria bicia !

Santu , ta Jaincoaren adiſquideai galde. O zure zori oneco , ta bienaventuradua , San Arſenioc eriotzan bere buruari eſatencion! O


O zure dichoſoa , Arſenio , bada zure bician izan ezdezu inſtanteric , eriotza beguien aurrean , ta memorian iduqui ezdezunic! Arſenio au Corteco guizon aberats , eſtimatu, ta Emperadoreen adiſquide , ta Maiſu andi, onratu , ta erregalatua len , ta guero berroguei ta amaboſt urtean Monje izan zan , ta eriotzan beti penſatuac Jaincozco izaten lagunducion , ta ala Santu andi eguin , ta illtzan.

Galde San Pablo-ri berari , ceñac dion egunoro illtcenzala , ta Jeſu Criſtorequin egoteagatic , egunoro , ta beti ill naizuela , ta arenzat eriotza irabacia zala ceren ill , ta gloria bicia irabaztenzuen. Galde gure auzoetaco , ta munduaren bazter oietaco necazaricho garbi , beren icerdiaquin jaten ematen diguten aſcori. Oien artean aſco , ta nerequico chit aſco , Jaincoaren miſericordiaz ſalvatcendira : ala eriotzari , datorrenean , arpegui ona eguitendiote. Jaunaren vorondateaz batean, ſoſeguz, ta aberatsandi aſco baño paque obeaz , alacoric ezbaliz bezela , edo guela batetic beſtera aldatcea becala , oiec illtcendirade. O zorioneco pobreac !

JEſus en Eſpoſa erregalatu onec ondo illtcen icaſteco eguitenzuenaz, guc cer eguin beardegun eracuſtendigu. Bere atceneco gaitzac artu balu bezala, oiean ſartcenzan. Barrendic, edo bere eſpirituan eſaten bacioten becala, ill berria aditcenzuen, ta illtceco preſtacedilla. Orduan bere biotcean ſartu, animari beguiratu, ta bere conciencia eſaminatcenzuen: Jeſu Criſtoren oñetan amorozco damu, ta negar andiaquin bereala confeſatcenzan. Bidezcoaz bezala Viatico ſantua, ta azquen oliacioa bere eſpirituan, Eleizaren oracioac devocioz esanaz, artcencituen.

Jaunari eſquer onac, edo graciac eman, ta bere Erligioſeratic, ta munduagandic, Eternidadeco biajea eguiteco deſpeditcenzan. Illtceco zorian bere burua conſideratu, Santo Criſto bat eſcuetan artu, ta bere biotza gozoro urtu, ta deſeguiñaz, Jaincoari bere favorea ordu artaraco chit eſtu eſcatcencion: SANTA MARIA Virgiña Amari, S. Joſef, ta bere devocioco Santuai, pauſo artan laguntceco, deitcencien: ta ya illtcen cegoela izen guciz gozo, JESUS, ta MARIA eſanaz, Jaunari bere eſpiritua encomendatcen, ta entregatcencion.

Santa



Santa Getrudis andiac ondo illtceco beti eguitenzuen Egercicioa onelazan, ta ori bere devocio, ta amorio guciaz eguin arren, ez penaz, edo triſte, ezpada conſueloz, ta cerruco favorez beteric bici izanzan, ta chit luzaro. Berroguei urtean bere Conventuco Abadeſa, ta orietan Ainguern baten guiia Monjac gobernatu, ta Ainguerueu artean Ama Virgiña, ta Evangeliſta San Juan berequin cituela, bere Eſpoſo Jeſus maitearen Biotcean bere anima emanzuen. Ori bera gau oro beſte aſcoc eguitendu, Egercicio au zuc ere beti eguizu, ta nere contu chit poz andiaz eriotzari beguira obeto bicicocera, ta Jaunaren paque gozoan, oitua bezala, edo oitu nola, illcocera.

Baña eriotzaco ordu au etorri baño len, Jaincoac lecu, ta era ona ematen badizu ere, ondo preſtatceco, ta ondo illtceco, lau gauza andi, edo lau pauſo, lenago eman bearrac dituzu, ta zure biotcean orañ ondo ſartu, ta joſi bearditnzu. Ia. da zure atceneco vorondatearen aguiria, edo Teſtamentua eguitea. IIa. zure atceneco Confeſioa, edo Penitenciaco Sacramentua. IIIa. zure atceneco Comunio: ta oni Eternidaderaco Bidezcoari ematenzaiona bezala Viatico Santua deritza. IVa. atceneco Oleacio ſantua artcea.

Ilen §.

## IIen §. TESTAMENTUA EGUITEA.

GAuza arrigarria da, juiciozco Cristavac, contuac cer zucendu, ta acienda cer utci duela, demboraz, ta ondo, Jaincoac emandion vorondate libreaz ez usatcea, edo bere Testamentua eguin gabe asco bezala losseguz bicitcea. Bosteun ta gueiago ate, Medicuac diotenez, sostеco eriotzac, edo derrepente sartceco ditu: ta bosteun baño ere ascoz gueiago bide gorputzetan sartceco izangodira: ta mirari andia da, uste gabeco, edo bat batean eriotza gueiago munduan eguno-ro ez icustea.

Orregatic Jaincoaren Ministro Celosoac, eri baregana deitcendutenean, lenengo eman bearduen pausoa da, Testamentua demboraz, ta soseguz eraguitea: alduen moduric suaveenaz, eria chit beregan dagoen artean, San Agustin-en ceruco consejua ondo adierazo beardio. Animaren contuaren gañeco Sermoi batean Santuac dio modu onetan: „ Fac, „ quod faciendum est: fac testamentum, dum, „ tuus es: nam, si expectaveris infirmitatem, „ omnino minis, & blandimentis, duceris, „ quo non vis. „ Esan naidu: „ Eguin bear-„ dezun eguitecoa eguizu. Osasuna dezun ar-„ tean, zure jabe ceran artean, Testamentua „ egui-



„ eguizu; cergatic atceneco gaitceraco uzten „ badezu, echecoen, edo aideen bildur, edo „ palaguaquin, naizuna eragotci, edo naí ez-„ dezuna eraguingo dizute. „

Santuaren consejauc guciaquin du, ta zurequin, ta nerequin ere bai: ta nic bezala, marabedi bat ez iduquiarren zuc, alere munduco aberatsenac becala, guc ere cer utci badegu: ez acienda, ta ondasunac, baña bai gorputza, ta anima, gueiago diranac: ala zuc, eta nic Testamentu balioso bat modu onetan eguin beardegu.

### *Cristau-aren Testamentua.*

„ TRinidade guciz Santu, Aita, ta Semea, ta Espiritu Santu, iru Persona „ distinto, ta Jainco eguiazco bacar baten „ Icenean: Nic N. beste munduraco biajean „ nagoela, nere atceneco vorondate, ta Tes-„ tamẽtua modu onetan eguitendet. Lenena, „ nere Anima bere potencia, ta aleguin gucia-„ quin, Jesu Cristori bere Biotcean, bere „ amorioaz erosia bezala, aguintcen, ta biur-„ tcendiot. Nere gorputza lurrari, berea be-„ cala, aguintcendiot: ta onequin batean ne-„ re animaren ar gaisto izandiran deseo era-„ gabe guciac, aren janari izanditean, lur-„ pean betico ondatcea naidet.

„ Nere
Oiec dirade, nere Cristava, ill arteraño bati Eleiza santac, ondo ilteen laguntceco, eguiten diozcan oracioric usatuen, ta jaquiñenac. Ta zuc obeto aditceco, zure eriotzaco orduan, zugatic cer eguingodan, ta Jaincoari cer escatucozaion, Eusqueraz esangodizut guztia.

Soseguz ilteeco dembora, ta dicha izaten badezu, jaquizu, esandiran Letania, edo Escari laburretan, Jaincoari zugatic erreguteen zaio-



zaiola, bitarteco iñiñiaz Ama Virgiña; Aingueru, ta Santuac, Abel justutic asi; ta beste diran guciac. Orren ondoren Eliza Ama Santac zure animaren Gomendio, edo recomendàcioa, zu ill artean, modu onetan eguitendu.

### ANIMAREN RECOMENDACIOA, ETA *Oracioa.*

„ ZOaz, zure bidean, anima Cristava,
„ mundu onetatic irtenzaite, Aita
„ Jangoico gucic poderoso, ecerecetic eguin-
„ cinduenaren icenean. Jesu Cristo Jainco bi-
„ ciaren Seme bere eriotzarequin erredimitu
„ cinduenaren icenean. Espiritu Santu zuri
„ eman citzatzunaren icenean. Aingueru, ta
„ Arcangelen icenean. Trono, ta Domina-
„ cio en icenean. Principadu, ta Potestade en
„ icenean. Querubin, ta Serafiñ en icenean.
„ Patriarca, ta Profeten icenean. Apostolo,
„ ta Evangelisten icenean. Martiri, ta Confe-
„ sore en icenean. Monje, ta Ermitañoen
„ icenean. Virgiña, ta Alargun Santen ice-
„ nean. Jaincoaren Santu, ta Santa gucien
„ icenean. Oriec guciac ampara zaitzatela, ta
„ zure lagun izanditeala. Gaurco egunetic pa
„ que, ta descansuzco lecua zuretzat izande-
„ dilla, ta zure biciteguia ceruco Sion san-

„ tuan;

Universidad de Deusto Biblioteca



,, tuan : Jeſu Criſto gure Jaunaren mereci-
,, mentu acgatic. Amen.

*Bigarren Oracioa.* ,, Jaungoico miſericordio-
,, ſo, Jaungoico beraa, Jaungoico zure pie-
,, dadearen aunditaſunaz batean, eguiazco
,, penitenteen pecatuac barcatcen, ta zure gra-
,, ciaz igaroco culpen manchac quentcen di-
,, tuzuna : zure miſericordiazco beguiaz be-
,, guirazaiozu N. zure ſiervo oni, ceñac bere
,, biotceco, ta eguiazco confeſioaz bere cul-
,, pa gucien barcacioa eſcatcen dizun. Aita
,, guciz poderoſoa, anima onetan gaizqui
,, eguiñic arquitcendan gucia, dala lurreco
,, argaltaſunaz, dala deabruaren engañuz,
,, arren, Jauna, zure eſcuz berriro eguizu,
,, ta zure Odol precioſoaz erredimituraco
,, miembroa bezala, Eleiza Santa catolicaren
,, Gorputzarequin bat eguizu. Onen adia, ta
,, negarren laſtima iduquizazu, Jauna : bada
,, Zu gan, ta ez beſtegan, ta zure miſericor-
,, dian confianza iduquidu. Zure Eliza ſanta-
,, ren umea bezala arrezazu zure gracian.
,, Jeſu Criſto G. J. ren meritoacgatic. Amen.

*Irugarren Oracioa.* ,, Anai guciz maitea, Jain-
,, co omnipotente zure Criadoreari, ceñare-
,, na ceran, encomendatcenzaitut : berac nai-
,, duenean, eriotzari zure zorra pagatu, ta
,, zure Eguille lurreco autſetic eguin cindue-

,, naga-



,, nagana biurzaitecen. Zure anima gorput-
,, cetic dijoanari bada Aingueruen egercitu
,, ederra datorquiola bidera : Apoſtolo ſantu
,, zure Juezac ondo artu zaitzatela : Martiri
,, ſantu triunfadoreac bidera irten diteala:
,, Confeſore glorioſoac lagundizazutela: Vir-
,, giña garbiac amparazaitzatela: ta Patriarcac
,, beren paquelecu, ta beſoen artean arzait-
,, zatela. Aleguere, ta gozo Jeſu Criſtoren
,, arpeguia aguertu daquizula, ta bere Ceru-
,, tarren artean betico ipiñizaitzala. Infernu-
,, co illuntaſunac, ango ſu garrac, ango tor-
,, mentuac zurequin cer icuſiric izan ezdeza-
,, tela. Quen emendic, ta urruti dijoala Sata-
,, nas izugarria bere tropa guciaquin: eta Ain-
,, gueruac zuri launtcera etorri, ta deabrua
,, igues bere toquira ondadedilla.

,, Jaiquibedi, betor gure Juungoicoa, ta
,, arraſabite aren etſaiac : ta aren Mageſtadea
,, ecin icuſidutenac, aren beguieratic aiena-
,, bitez : Quea bezala deſeguin diteala, ta
,, nola arguizaguia ſuaren aldean erregaldu,
,, ta urtutcendan, ala pecatariac Jaincoaren
,, beguietan galduditeala. Juſtuac berriz fa-
,, vorez, ta erregaloz Jaincoaren aurrean be-
,, teac izanditeala. Lotſabitez, bada, ta on-
,, dabitez betico Satanas, ta aren infernuco
,, lagun guciac, ta zuri ceruco bidea eragoz-
,, tera atrevitu ez diteala.

,, Jeſu

Universidad de Deusto
Biblioteca



„ Jeſu Criſto gure Jaun zugatic Gurutceꝛ-
„ an egonzanac infernuco penetatic libra zai-
„ tzala. Jeſu Criſto gure Erredentore zuga-
„ tic eriotza artu nai izanzuenac betico erio-
„ tzatic libra zaitzala. Jeſu Criſto Jaungoico
„ biciaren Seme, zure Salvadore eguinzanac
„ bere Paraiſuco Vergel, ta gloriaco lore
„ ederren artean ſartuzaitzala: ta animen Ar-
„ zainaguſi eguiazcoac bezala zure anima be-
„ re ardien artean beretzar ezagutu, ta lecua
„ dizula. Sacerdote andiac bezala berac zure
„ pecatu gucien barcacioa dizula: ta ſuer-
„ te, ta zorioneco juſtu, ta Santuen artean,
„ zure Salvadorearen arpeguia claro, ta beti
„ aren eſcuietic icuſteco diña eguin zaitzala:
„ ta beraren aurrean zuadela begui zorione-
„ coaz eguia guciz arguia icuſidezazula: eta
„ Jaungoicoaren Semeen artean jarriric, be-
„ raren edertaſun gucia icuſi, ta gozadeza-
„ zula ſecula ſeculacoetan. Amen.

*Gure Jaungoicoari animagatic eſcariac.*

„ ARrezazu, Jauna, zure ſiervo au bere
„ ſalvacioco, zure miſericordiagandic
„ uſteduen lecu artan. Beti eranzutenda. Amẽ.
„ Librezazu, Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma infernuco peligro gucietatic, pena, ta
„ eſtutaſun gucietatic. Amen.

„ Libre-



„ Librezazu, Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma, Enoc, ta Elias munduco eriotza jaqui-
„ ñetic libratucinduen bezala. Amen.
„ Librezazu, Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma, Noe, diluvioco uretan ito etcedin, li-
„ bratucenduen bezala. Amen.
„ Librezazu, Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma, Abraan Caldeoen ſu, ta garretatic li-
„ bratucenduen bezala. Amen.
„ Librezazu, Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma, Job ſantua bere neque, ta penetatic
„ libratucenduen bezala. Amen.
„ Librezazu, Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma, Iſac bere Aitaren ſacrificio, ta erio-
„ tzatic libratucenduen bezala. Amen.
„ Librezazu, Jauna, zure ſiervo onen ani
„ ma, Lot Sodomaco ſugar izugarrietatic li-
„ bratucenduen bezala. Amen.
„ Librezazu, Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma, Moiſes Faraon Egipto Erreguearen
„ eſcuetatic libratucenduen bezala. Amen.
„ Librezazu, Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma, Daniel Leoi goſetietatic libratucen-
„ duen bezala. Amen.
„ Librezazu, Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma, iru guizon gazteac Babiloniaco labe
„ irazaquitic, ta Erregue gaiſtoaren eſcueta-
„ tic libratucinduen bezala. Amen.

„ Li-

Universidad de Deusto Biblioteca



„ Librezazu , Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma Santa Suſana falſo teſtimoniotic libra-
„ tucenduen bezala. Amen.

„ Librezazu , Jauna , zure ſiervo onen ani-
„ ma , David Saul Erreguearen , ta Goliat
„ Gigantearen eſcuetatic libratucenduen be-
„ zala. Amen.

„ Librezazu , Jauna, zure ſiervo onen ani-
„ ma , San Pedro , ta San Pablo Apoſtoloac
„ carcela , ta calabozoetatic libratucinduen
„ bezala. Amen.

„ Ta Santa Tecla Virgiña , ta Martiri bien-
„ aventurada , iru tormentu icaragarrietatic
„ libratucenduen bezala, ala zure ſiervo onen
„ anima libratcea naidaquizula , zurequin be-
„ tico gozoetan egondedin. Amen.

*Laugarren Oracioa.* „ Zuri , Jauna , zure ſier-
„ vo onen anima ematendizugu: ta zuri mun-
„ duaren Salvadore Jeſu Criſto gure Jauna,
„ erregutcendizugu , onegatic zure miſeri-
„ cordiaz lurrera jachiciñan bezala , ala zure
„ adiſquideen artean au contatcea naidaqui-
„ zula. Ezaguezazu, Jauna , zure echura au,
„ ez beſte guezurrezco jaincoc , baicic Zuc,
„ Jaungoico eguiazco , bici , bacarrac egui-
„ ña ; ceren eguiaz Zu baicic Jaungoicoric, ta
„ Zuc bezalaco obrac eguitendituenic ez-
„ dan. Onen anima zure preſencian aleguera,





„ ta conſolezazu, ta ez arren, Jauna, acordatu
„ onen igaroco culpaz, ta eragabeco, ta gueie-
„ gui eguincituen gaizquiaz: bada pecataria izã
„ bada ere, orregatican Aita, ta Semea, ta Eſpi-
„ ritu Santua ſiniſtu , ta confeſatudu , Jainco
„ eguiazco bat : zure zelo ſantua beregan idu-
„ quidu, ta Zu Jaungoico gauza gucien Egui-
„ llea fielquiro adoratuzaitu.

*Boſtgarren Oracioa.* „ Erregutcendizugu, Jau-
„ na , onen gaztetaco pecatuac, eta jaquiñez,
„ edo ignoranciac aztuditzazula. Zure miſe-
„ ricordiaz onequin uſaezazu , ta onen ani-
„ maz zure gloriaco argitaſunean acorda-
„ zaite. Idiquibedi cerua onenzat : aleguera-
„ bite Aingueruac onequin. Zure Erreinoan
„ zure ſiervoa arrezazu , Jauna. San Miguel
„ Aingueru , ceruco Egercituen Capitan izã-
„ tea merecituzuenac onen anima ardezala: S.
„ Pedro Apoſtolo , ceruetaco Erreinoaren
„ guiltzac dituenac ardezala: San Pablo Apoſ-
„ tolo Jaincoaren ontci ſeñalatu eguiteco di-
„ ña izanzanac lagundiozala: San Juan Apoſ-
„ tolo , ta Evangeliſta , Criſtoren Diſcipulo
„ laztan , Jaincoaren miſterio eſcutatuac icu-
„ ſicituena onen bitarteco izandedilla : Apoſ-
„ tolo Santu pecatariac lotu, ta pecatuen cate-
„ etac aſcatceco eſcua iduquizutenac one-
„ gatic erregudezatela : Santu, ta Jaincoaren

Universidad de Deusto Biblioteca



„ eſcogitu guciac , Jeſu Criſtoren icenean
„ munduco tormentu andiac eramancituzte-
„ nac onegatic berari eſcadiozatela : gorputz
„ illcor onen carcelatic anima au irte-
„ tean , ceruco gloria gozatcera igodedin:
„ Jeſu Criſto gure Jaunaren meritoacgatic,
„ ceña Aitarequin batean bicidan , ta erreña-
„ tcen dagoen ſeculen ſecula gucietan. Amen.

Oiec dira , Criſtava , Eleiza ſantac Jaincoari zure anima aguintceco eguingodituen Oracioac , edo Errecomendacioa : eta zu, berac naiduenean , onela illcocera : puntu artan bertan mundua zuretzat , eta zu munduarenzat , bioc batean acabatucerate. Azqueneco aſnaſea Jaincoaren gracian ematen badezu : ò cer dicha , cer gloria bicia ! Zu ill, ta Sacerdoteaç eſangodu :

„ Atozte Jaungoicoaren Santuac , Jauna-
„ ren Ainguerųac bidera ertenzaitezte , ta
„ gorputz onetatic joandan anima zuen eſcu-
„ etan arrezazute , ta Jaunaren aurrean ofre-
„ cizazute. Jeſu Criſto gure Jaun deituzai-
„ tuenac artu zaitzala : ta aren Ainguerųac
„ Paraiſura zaramazquitela.

„ Deſcanſu beticoa Jaincoac zure animari
„ diola : Ta betico arguia aguertudaquiola.

„ Oracioa. Zuri , Jauna , N. zure ſiervo
„ onen anima aguintçendizugu:mundu onen-

„ zat

„ zat illdan ezquero , zuretzat bicidedin : ta
„ lurreco jolas , edo araguiaren argaltaſunaz
„ eguincituen pecatuac , zuc zure miſericor-
„ dia guciz andiaz barcazaiozcazu : Jeſu Criſ-
„ to G. J. ren icenean. Amen. „



Eleiza Ama piadòſaren , edo Eſpiritu Santuaren eriaquico contu , ta govíernoa , da gauza alde gucietara miragarria : bere Ritual, eta Manual ſagraduan Sacerdoteari , Sacramentuac ondo ematecó, ta eria bere nequean icuſi , ta animatu , ta ondo iltcen laguntceco ematendiozcan erreglac,ta ill arterañio eguin bearduen gucia. Ala zuc Criſtava , zure fedea bicierazo beardezu , ta erreverenca andiaz Sacerdotearen itzac,Jaincoarenac bezala,artu.

Jaunaren Miniſtroac badaquite ondo , oficio , edo eguiteco au , eſan al baño andiago dala : ta Jaincoaren adiſquide gucien celoa mereci , ta eſcatcenduela : ta guc ez icuſiarren , Ainguerųac , porfian bezala , oficio ori, animen favore ordu artan eguitendutela.

Fedeco gauza da , eriotzaco , edo atceneco pauſoan animaren betico ſuertea dagoela. Goien cerua , bean infernua , ta eria bien erdian dagoela: Atceneco pauſo ori ondo ematen badu betico dichoſoa glorian : gaizqui ematen badu , betico deſdichadua infernuan. Bici arteco pauſoac oquer , edo gaizqui ema-

nar-

narren, Jaincoaren graciaz, ta penitenciaz zucendu, ta erremediaditezque: baña azqueneco pauso arc, gaizqui ematen bada, erremedioric eztu, ceren etcera biurtceric ezduen.

Badaquite ondo, Sacramentuetan, ta animen joia estimatuetan, Jesu Cristoren Odol preciosoa beren escuetan dacartela. Onra, ta cargu gucia jaincozcoa, ta berequin carga andi, ta pisua duena, animen contu ona gucien Jauna, ta Juezari emateco: „ Rationem „ pro animabus vestris reddituri. Hebr. 13. „ Badaquite, beren celoaren saria artceco, Jaunac gucienzat neurri justu bat duela: ta aren ardiai, edo animai Cristoren icenean eguiten, ta ematendien neurri artan bertan Jesus Artzai onac berai neurritu, ta emangodiela: „ Eadem quippe mensurâ, qua mensi fueri„ tis, remitietur vobis. Lucæ 6. „

§. *VIATICO SANTUA ARTUEZQUERO, ERIAC eguin bearduena.*

BAldin gaitzac lecu ematen badizu, ascori bezala, azqueneco Sacramentuac, edo Viatico, ta Uncioa artu, ta arrazoi andia da Jaunac ematendizun dembora preciatu ura, berari graciac ematen, eta escatcen, eruc aprovechatcea. Ori eguinditeque urrengo afecto, ta



ta consideracioaquin: ta osalunan comulgatcendan Cristavac, Egercicio santu au orobat irabaci andiaz eguindezaque.

*Viaticoa artu ezqueroco afectoac.*

„ ONgui etorria cerala, nere Jauna, ta
„ Jaungoico maitea: ongui etorria ce-
„ rala, nere Jesus biotcecoa: ta zurequin da-
„ tocen Aingueruac milla ongui etorri, ta
„ milla esquer on andi, fin gabe, nere on-
„ doan, ta icenean orañ, ta beti ematen or-
„ du onean dagozquizula. Amen.

„ Baña, Jauna, au cer da? Zu zatoz niga-
„ na? Zu, ta nigana? Ay! Zu nor cera? ta
„ ni nor naiz?

„ Zu Aita Eternoaren Seme bacar guciz
„ maitea cera: Zu ceruetaco Erreguea, ta
„ mundu guciaren Jabea cera: Zu lurra eder-
„ tasunez, cerua arguitasunez, Ainguru, ta
„ Santuac betico gloriaz betetcendituzuna ce-
„ ra: ta zure Magestadearen aurrean Aingue-
„ ru, ta Serafin guciac arritu ta bezala daude
„ icaraz. Cer dezu, bada, nerequin cer icusi?
„ Ni eznaiz lurreco auts pulca bat, ta loi
„ itsusi laster lurrac jan bear nauena? Ta gor-
„ putcean baño, animan ere itsusiago nere pe-
„ catuac gatic: ni eznaiz pecatari galdu bat?
„ Ni eznaiz zuzaz azturic, zu ofenditcen,

T „ eca-

Universidad de Deusto Biblioteca



„ eragabeco, nere gogoen ondoren bici gu-
„ cia igarodedana? Ni munduco pecataric
„ andiena eznaiz? Ala da eguia: bai.

„ Nola bada, au onela izanic, Zu ni icuſ-
„ tera, onratcera, ta erregalatcera zatoz ne-
„ re echera, ta nere biotcera?

„ O Ontaſun paregabea! Zure Juſticiaren
„ aſerrea, ta nere culpac merecizuten caſtigua,
„ azquenic onetan paratcendà? Onen laſter,
„ onen erraz nere ofenſa guztiaz zure miſeri-
„ cordia aztutcenda? Eta zure Ontaſun au nic
„ neregan icuſi, ta noren contra aimbeſte pe-
„ catu eguinditudan, eta nere biotza erdi bi,
„ edo milla puſca eguingo ezta?

„ O nere Jeſus guztizco ona! O zure amo-
„ re, ta nere ofenſai dagoquien eguiazco, ta
„ amoriozco damu bat norc luquean! Zure
„ amorioagatic guciaz damudet. Zuc daqui-
„ zun, ta naien dezun bezala, niri ondoen
„ dagoquidan damu, ta propoſitu amorezco
„ bat arren indazu.

„ Zu nigan icuſi, ta damuz, ta pocez nere
„ biotz au urtu bedi: damuz, zure Ontaſuna
„ ofendituagatic; eta pocez, gaur niri zuc
„ eguindidazun meſede onegatic.

„ O Jaun andia! Nere beguiac iturri bi
„ eguizquitzu, negarrez biotza deſeguiteco,
„ ceren Zu ofendituzaitudan!

„ O



„ O nnre Salvadore, ta Aita gozoa! Zu
„ nigatic cerutic etorri, ta oguei ta amar ur-
„ tean, aimbeſte nequeren azpian ill artera-
„ ño nere billa ibilliciñan: ta zure odola, ta
„ bicia nigatic eman baño len, amore gucia-
„ ren Sacramentu onetan, nic Zu artceco,
„ ta Zuc ni zurequin bat eguiteco guelditucí-
„ ñan O zure amorearen indarra!

„ O! cerequin Jauna, edo nola onembeſ-
„ te amore, ta favore pagatucodizut? O! zu-
„ re vorondate, ta guſtoa eguiten eracaſi, ta
„ lagunzadazu, ta orduan zorionecoa izan-
„ gonaz.

„ Ona, Jauna, ni: ona zure eſcuetan: ona
„ preſt, zure vorondatea beti eguiteco. Zu-
„ rea naiz bertatic, ta zurea beti izan beardet,
„ ta izan naidet. Nizaz, naizuna eguizu. Mun-
„ du onetatic orañ eraman nai banazu: zurea
„ naiz, ta contentu naiz: izan bedi, ta eguin
„ bedi nigan beti zure vorondate, neretzat
„ onen dana.

„ Baldin pena, ta nequeen artean onela,
„ edo beſtela iduqui nai banazu, zure voron-
„ datea eguin bedi, ez nerea. Oiean egun,
„ edo oſaſunaz ibilli, neretzat guztia bat da,
„ zure guſtoa bada. Zure eſcuetan obeto
„ daucat guztia, ta or uztendizut. Nere bicia,
„ ta naizan, ta dedan gucia, nere ume, ta fa-
„ milia, edo echecoac, zure contura arritzatzu.

 „ milla

„ O Jauna, ta ceñ ona, ta ceñ gozoa ce-
„ ran! Zu bacarric nere animaren descansua
„ cera! O nere ondasun, ta consuelo bacar-
„ ra: nere paquea, ta nere gloria! Zurequin,
„ ta zuri beguira beti egon, ta atseden naidet.

„ Ay Jauna! Zu artu, ta zure Ontasun, ta
„ Edertasun paregabea icusi, ta lurreco gau-
„ za itsusiac gogoan jo, edo nazcatcen nau-
„ te. Zure gustoa bada, al bait lenen emen-
„ dic zugana eraman nazuzu. Baña gucian, ta
„ gauza gucien gañean, Jauna, zure voron-
„ datea eguin bedi.

§. *BESTE CONSIDERACIO, TA AFECTOAC.*

„ O Jauna guciz misericordiosoa! Ezne-
„ quien nic, ta ondo ezagutu ezdet,
„ orañ bezala, pecatari galdu beren biotceco
„ damuaz zugana biurtcen diranenzat, ceñ
„ amorosoa ceran! O norc munduco pecata-
„ ri itsu, ta gortu guciai deadarrez adieraci
„ liezaquean, zugana biotcetic biurtcendira-
„ nac ceñ amore andiaz artcendituzun! Ta
„ ceñ dicha andia dan, onela zure gracia, ta
„ amorioan, zure adisquide eguiñic egotea!

„ O nere Jainco maitea, pecatari zu billa-
„ tcen zaituztenenzat ceñ beraa, ta gozoa ce-
„ ran. Ay! Ta dembora batean, orañ beza-

„ la,



„ la, Zu ezagutu bacindut, Zu ofenditcetic
„ ceñ urruti egongonintzan! Baña lecu ema-
„ ten didazun ezquero, nere igaroco utsegui-
„ te eragabeac erremediatceco, nere biotza,
„ zure amorez, damuzco, ta penazco ichaso
„ bat eguin bedi.

„ O nere Jabe maitea! Ta seculan ofendi-
„ tu ezbacindut! O beti zu amatcen bici izan-
„ du baninz! O beti zure adisquide egon
„ baninz!

„ Ta ni izanic añ itsu leguegabea zuretzat,
„ Zuc aimbeste amorio eracutsididazu! Niri
„ onembeste nai izateco, ta ni onela billatce-
„ co, cer gauza on nigan icusicenduen? Ay
„ Jauna! Ecerez, batere ez, nere esquer gaisto,
„ ta pecatuac baicen. Argatic gucia zure On-
„ tasun fin gabe, ta niganaco zure amore pa-
„ regabeac eraguindizu.

„ O Jaun andia! Criatura guciac alabatu,
„ ta bedeicatu zaitzatela beti, ta betico! One-
„ taraco ceruari, ta lurrari, Eguzqui, illar-
„ gui, ta izar guciai, ta beste zure escuetaco
„ gauza, ta obra guciai nere biotcera deitcen-
„ diet: diranac zu alabatcera, ta amatcera
„ convidatcenditut: zure Corteco Ainguеru,
„ ta Santu beti orretan daudenac: ta gucien
„ gañean Amandre Virgiña Maria, zure Ama
„ maite, guciac baño maiteago dezun, ta
„ zaituena.

„ Zuc

Universidad de Deusto
Biblioteca



,, Zuc bada, zuc criatura guztien Erregui-
,, ña: zuc nere eguiteco, ta eguin bear andi
,, au zure contura arrezazu. Zuc iñorc ere ba-
,, ño obeto, ta zure Semeari ondoen dago-
,, quion bezala, ta zuc bacarric daquizun era
,, artan, nigatic cumpliezazu: bera nigana
,, etortean eguindidan misericordia, ta favo-
,, reric andien onezaz betico esquerrac, nere
,, partez, ta icenean emaiozcatzu: ta bidez,
,, Bidezco pobre onenzat escazaiozu, Eterni-
,, dade guztiaren bideraco bear ditudan gra-
,, cia, ta indarrac Comunio santu onetan
,, eman dizaizquidala: guero beti zurequin
,, batean bera icusi, gozatu, amatu, ta ala-
,, batceco ceruco glorian. Amen.

### §. *OLEACIOA ARTU EZQUERO CONSIDERACIOAC.*

ERi asco illcer daudenac, ta erremedio gabe, orregatic ere chit beregan egon oidira: eta arrazoi da, oiec dembora ori chit ondo estimatu, ta aprovechatcea. Ala Oleacioco Sacramentua artu, ta Sacerdoteac, edo iracurten daquien batec, ezperen eriac bere buruari esandiozaque modu onetan.

,, O ceñ dichosoa ceran, Cristava, ordu
,, onetan! Cembat ichaso zabal orietan, cem-
,, bat



,, bat leorreco bazter orietan egunoro illtcen-
,, dira, Sacramentuac artceco dicha au gabe.
,, Zu, Sacramentu guciac arturic, Jaincoaren
,, Ministroac, Cristau, ta adisquide onac di-
,, tuzula, ta Jaunari zugatic escatcendiotela,
,, onen prest zaude.

,, Onelaco dicha cerequin pagatcenda? O
,, cembat zure Jaunari zor diozun! Ondo
,, ezagunda, bai, asco naidizula, ta zure
,, anima asco estimatcenduela. Onelaco se-
,, ñaleac icusi ezguero, contentu egon bear.
,, Erraz, bada cere burua, borondate guciaz,
,, ta osoro Jaungoicoari bere besoetan utci-
,, codiozu, aren vorondatea beti eguiteco.

,, Jesu Cristo gure Jaunari beguiratu, ta
,, erraz gaitzaren nequeac pacienciaz, ta be-
,, raren icenean eraman ditzaquezu. Berdin,
,, Jaincoac bialtcenduena, ala, edo onela era-
,, man bear. Obe degu beraz Jaunaren ice-
,, nean, ta amorez, orañ neque pusca bat iga-
,, ro, ta aren vorondatea eguin, ta ceruco
,, gloria betico seguratu. Bere pecatuac pen-
,, satu ezquero, nori gogoratucozaio, edo
,, norc esandezaque, neque onen chiquí, ta la-
,, burrac nola gaitcean daramazquien, andiac,
,, edo gueiegui dirala. Ori pensatcea da gucia
,, ga[illegible]cea. Jaunari nai ezdaquiola.

,, Ea bada, animagaitean, ta fede biciaz
,, gora

„ gora biotza alchadezagun. Beguira ondo, „ Criſtava, pena, dolore, edo gaitza deitcen- „ diogun au gucia, nondic datorquigun: ta „ neque, ta gaitz guciac gozatceco, conſi- „ deracio au ſobra izangoda.

„ Enfermedadeco naigabe, ta pena guciac „ Aita amoroſo, ta Adiſquideric maiteenaren „ eſcu, ta vorondatetic datoz. Gueiegui nai- „ degu, ta guc mereci baño gueiago: ta be- „ raren graciaz eramango ecin degunic iñoi- „ zere bialduco eztigu.

„ Jeſus onaren bicitzaco goſe, egarri, ne- „ que, icerdi, pena, tormentu, ta eriotza- „ ri beguiradiozagun: ta ori gucia zugatic ceñ „ amore, ta poz andiaz aren Biotzac, Aita- „ ren vorondatea eguiteagatic, eramanzuen, „ ta errazqui batetic lotſatu, ta beſtetic alai- „ tucoguera, gure nequeac pociz eramatera.

„ Onen ondoren, ta bide onetatic, juſtu, „ ta Santuac, neque, pena, perſecucio, ta „ martirioaquin igarociran: ta cerurac̨o ezta- „ go beſte bideric, zuc orañ daramazuna „ baicic.

„ Itſu, itſuan bada, ta chit gogotic zure „ Aita onen beſoetan, bere amarenetan aur „ chiqui bat bezala, ſeguru jarrizaite, eta bio- „ tcetic eſaiozu: Nere Jaungoico, ta Aita „ maitea, eguin bedi nigan zure vorondatea: „ zure



„ zure naia, ta 'nerea beti bat izangoda. „ Obeto daquizu, ta naidezu Zuc: baldin „ trabaju, edo neque gueiago eman nai badi- „ dazu, paciencia gueiago arren indazu: or- „ rela gucian zure vorondate gozoa dagui- „ dan, orañ, ta eternidade gucian. Amen. „

Conſideracio ſuave, ta eguiazco oiequin, edo guiſa onetan Sacerdoteac, edo an dago- en betec iracurri, edo eſanaz eria gozacaitz egonagatic, animatu, ta conſolatu bearda, ta gueldica Jaunaren bendicioaquin bera go- zatucoda, ta eſcura etorricoda.

Baña olaſuna dezun artean gauza oiec on- do iracurri, ta obeto piſatcea bertatic, ordu artaraco, ta merito andiagoraco, zuretzat obe da: ta nere deſeoa ori bera da.

### §. *ONDO ILTCEN LAGUNTCECO AZQUENEAN eguinbeardana.*

ETernidadeco biaje onetan eriari obeto la- guntceco, gauza bi cer eſan, ta cer eguin orañdic gueratcen dirade. Bata Sacer- doteac Eleizaren icenean eguin bearduena; ta beſtea eriarequin daudenac, edo ari lagun- tcen diotenac.

Ta lenena trance artan, ta ceruco bidean animac ondo zucentcea, bere ordeco Mi- niſ-

nistro ,celosoai Jaincoac ceñ ondo pagatcen-dien, ta onetan faltatcendutenac nola castigatcen dituen, Jesuita biren egemploac obeto adieracico digute.

Aita Loner-ec contatcendu, Edmundo Augerio, bere demboran Franciaco Erreguerren Confesore, ta animen celo andico Jesuita estimatua, eriotzaco orduan cegoela: ta anima chit eder, ta chit asco bere alde bietatic aguertu citzaiozcala: ta ceruco milla erregalo, ta berri onen artean, cerutar eder oiec Edmundori esancioten: Gu guera, zure Dotrina,ta conseju santuaquin ceruco bidean sartu guinduzunac. Jaincoac bialtcen gaitu,ta poz andiaz gatoz,zure anima orañ gloriara eramatera. Orduan Jaincoac Jesuita oni esancion: Anima oriez gañera,Eleiza Santara beste berroguei milla hereje biurtu, edo convertitu cituela: ta berri gozo oiequin cerura joanzan. Tom. 3. pag. in 116.

Gure Jacobo Hautinoc dio, gure Sacerdote bat ill izanzala, ta beste, Jesuita virtute andico bati Jaincoac bialdu, ta gauza, edo berri on ascoren artean esanciola: Purgatoriotic libratu,edo irtenzala;baña animac salvatceco, bearzan celo bicia, bicitzan ceren iduqui etzuen, Jaincoac orren penan aguiñduciola erriz erri munduco Provincietan, animai

ondo



ondo illtcen laguntcen, ta Ainguerruen oficio au eguiten ibillicedilla: ta bere conseju on ascorequin ori eguinzuela. Ah! Ta Jaincoaren pisuan nola gauzac pisatcendiran! Ah ceñ meea aria an irutendan! Jaincoaten arpeguia dembora artan gucian ez icustea, Jesuita onenzat cer tormentu gogorra izangozan!

Jaunaren ordeco Ministro cerucoac: zurequin det: beguira ondo, Ainguerruen oficio au lurrean nola eguitendezuten. Animen celo ori baldin camuztu, ta oztu bada, egemplo oiequin, ta Jaincoaren castiguaren bildur, ta sariaren esperanzarequin berotu, ta zorroztu bedi. Jesu Cristoren egemploa icusi, ta gure animẽ salvacioagatic cer eguin,cer eman ta cer eramanzuen,ta nor animatuco ezta animac gatic,ta bacoitza bereagatic,edoceñ gauza biciro eguitera, icerdiac ematera,ta nequeac eramatera? Guero ustedegun gloriari beguiratu, ta gure neque gucia cer da? Eguiaz, ecer ez.

Orañ bada, Sacerdote Jaunac, Jaincoaren Espirituaz gobernatcendala, ordu artaraco egoquien diran Consideracio, ta Afecto labur asco, ta era ascotara emen arquitucoditu, bere demboran ondoen datozenac eriari berac esan, ta moduric onenean eraguin diozazcan.

Aingue-

Universidad de Deusto Biblioteca



Aingueruen oficio au arteendutenac badaquite ondo, guciac batean, ta ez deadarca, ta ez presaca, edo itotcen bezala, esan, edo eraguin bear ezdirala: ezbada paciencia, ta prudencia andiaz. Eria estuan dagoenean, burua argala egotenda: ta ala soleguz, ta gueldicho: pausaquin, ta aldizca, eriari afecto orietan egoteco lecu ematenzaiola: noicean beñ cerbait esan, eta beregan, edo bere biotcean ori esaten, paquean utci bearzaio.

Eliza Santaren Oracio eder batetic asiconaiz, ta Sacerdoteac Santo Cristoa escuetan artu, ta eriari eracutsi, ta Eleizac dion bezala adorerazo beardio.

### §. ELIZA SANTAREN DEVOCIOZCO ORACIO, *ta Jesus--en Pasioco Articulo, ta Pausoac dituena.*

SAnto Cristoa adoratuaz esatendu: „ Adoratcenzaitugu, Cristo, ta bedeicatcen „ zaitugu. Ceren zure Gurutce Santuaz munndua erredimitucenduen.

„ Oracioa. Jaungoico misericordioso, „ mundua erredimitceagatic, jaio, ta circuncidatu nai izancenduena, Juduen artean erreprobatua, Judas traidorearen laztan falsoaz entregatua, socaquin lotua, gaitzgabeco bildotsa bezala eriotzara eramana, „ Anas, Caifas, Pilatos, ta Herodes en aurrean gaizquiro lotsa andiaz aguertua, testigu falsoaz acusatua, azotez, chistuz, ta „ afrentaz betea, aranzaz coroatua, masallecoz desonratua, cañaberaz eritua, arpeguia „ tapatua, soñeco gabe utcia, iltceaz gurutcean josia, ta gora jasoa, lapur biren artean isiñia, beazun, ta vinagrea artuerazoa, „ ta lanzaz eritua. Zuc, Jauna, zure pena „ santu oiec gatic, ceñac ni pecataria gogora „ dacarcidan, ta zure Gurutce santu, ta eriotza gatic, libranazazu (edo N. eri au libraezazu) infernuco penetatic, ta lapur on, „ zurequin Gurutcean cegoena, eramancenduen lecura, eramanazazu. Amen.



### *Onen gañean Consideracioac.*

„ ONere Cristava: zure penetan eguiazco consueloa arquitu naibadezu, „ Jaun amoroso oni ondo beguirazaiozu. „ Zure Medicu cerucoa, ta erremedio bacarra au dezu: esanditugun onen pauso, ta „ pena guciac sinistu, ta adora itzatzu, ta „ zure anima bere erregaloz betecodu.

„ Medicu onen amorioa ondo pisaezazu, „ ta zure animaco miñac, eta gaitzac sendatceco, beguira cer penac, ta nola erreme-

„ dio-

„ dioric samiñenac berac artucituen.

„ Beguira, nola zure amorioac Gurutcean
„ josiric, odolezco negarraz, ta biotceco
„ deadarraz Aitari zure barcacioa escatcen,
„ tormentuz alde gucietatic beteric iltzan.

„ Beguira, nola bere besoac zabalic dauz-
„ can, pecatariac artceco, ta baldin zu biotce-
„ co damuaz beregana biurtcen bacera, zuri
„ amoriozco laztan gozoa emateco. Beguira
„ nola burua macurturic zuri deiez dago-
„ quizun.

„ Beguira, nola bere bular, ta Biotz sa-
„ gradua idiquiric daucan, eriotzaren bildur,
„ ta etsaien tentacioetatic, zuc beragana igues
„ eguin, ta beregan zu artu, ta seguru gor-
„ detceco.

„ Bere gorputceco llaga, ta eridac cembat
„ diran, beste aimbeste dei, ta deadar ema-
„ tendizquitzu, onen amoreac diola: Atoz,
„ anima nerea, atoz nigana. Zurea da culpa;
„ baña nic artudet pena. Baldin zure pecatuen
„ cargac, eriotzaren ansiaz batean estutcen,
„ ta azpian artcen bazaituzte; atoz nigana:
„ nic gucien barcacioa eman, ta arindu, ta
„ consolatuco zaitut. Ezdet, ez igues eguin-
„ go zure aldetic; baña nola igues eguin ne-
„ zaque, baldin zuganaco amorioac oñac, eta
„ escuac onela lotu, ta josi badizquit?

Con-



Consideracio oiec gueienac San Agustin batenac dira.

O animaren zorioneco dicha! Ta bere Jabearen onelaco itz gozoac aditu ezquero, nor animatuco ezta? Ta onelaco Jauna ofendituaz, nori damuco etzaio? Ea bada nerequin batean biotcetic esaiozu.

*Contricioz-co afectoac.*

„ AY nere Aita guztizco ona! Cer eran-
„ zungodiot nic zure amoriozco deia-
„ ri? Aitortcendet, Jauna, ta lotsa andiaz, zu-
„ re Semearen icenic mereci ezdedala, bada
„ zure beguietan, ta nere cerucoAitaren con-
„ tra pecatu eguindet. Ay! Damudet milla
„ bider, zu ala, ta aimbeste bider ofendituaz!
„ O damuz, ta zure amorez nere biotza ber-
„ tan puscatcen, ta erdi bi eguiten baliz!

„ Ez arren, Jauna, nere culpai beguiratu:
„ infernua oriecgatic merecinuela ezagutcen-
„ det. Beguira bai, zure Ontasun andiari, ni-
„ zaz misericordia iduquitceco.

„ Zure begui garbiac, nere pecatu loieta-
„ tic quenitzatzu, ta zure amore, ta piedade-
„ ari beguiratu, ta diranac barcazaizquidatzu.

„ Ea Jauna: zure misericordiazco begui-
„ aquin nere anima galduari beguirazaiozu,
„ ta orrela salvatuconaiz. Nere Salvadorea

„ cera:

Universidad de Deusto Biblioteca



„ cera: izanzaite ordu onetan: ta zure icen
„ ſantu, gurutce, ta paſioagatic, orañ etſaien
„ tentacioetatic libratu, ta ſalvanazazu. Nere
„ Jeſus ona: zure Biotcean betico ſartu, ta
„ zure gracian gordenazazu.

„ Ceruco Aita maitea: Zu gucienzat cera
„ guciz ona. Ni naiz gucien bearrena: zure
„ Ontaſuna non eracutſi, ona nigan nonde-
„ zun. Artzai ona eguiaz Zu cera: ona bada
„ ni zure ardi eguiaz galdua. Ardi galdua zu-
„ re ſorbaldan artucenduen, edo nere peca-
„ tuac zure gañean. Galduric ibilli naiz ni:
„ arren, Jauna, zure artaldi, ta zure eche
„ ſantura biurtu, ta betico zure gracian ar-
„ tunazazu.

„ Nerea da culpa, Jeſus ona: aimbeſte
„ ofendituzaitut. Ay zori gaiſtoco culpac!
„ Baña cer eguin aldezaquet? Guztiaz det
„ damu, Jauna: diranac zure oñetan confeſa-
„ tcenditut, zure amorezco ſu bician erre,
„ ta deſeguinditean.

„ Zugan daucat nere eſperanza gucia: ta
„ bere pecatuen damuaz zugan eſperatcen-
„ duena, iñoizere galdu, edo confunditu
„ izan ezta. Pecatari andi aſcori barcatu die-
„ zu: miſericordia ori bera nerequin eguin-
„ godezu.

„ Ay Jauna: zugana onen berandu etor-





„ riaz damu det! Baña alere badaquit eguiaz-
„ co damu, ta propoſituaz zugana biurtcen,
„ edo datocen pecatariac, zure piedadearen
„ atea beti zabalic arquitcendutela. Ona ba-
„ da, zugana non natorren, edo zure Onta-
„ ſunac non nacarren.

„ Zure amorioac caburic eztu: fin gabea
„ da zure miſericordia, niri barcatcean, zu-
„ re ontaſuna icuſtenda. Argatic ni condena-
„ tcea, nai ezdezu, ezpada ni ſalvatcea, ta
„ Zu icuſteco, Zu amatceco, Zu gozatceco
„ zure gloriara ni betico eramatea. O Jauna,
„ ala izandedilla. Amen.

*Ama Virgiñari afectoac.*

„ VIrgiña Maria, gure Jaungoico, Sal-
„ vadore, ta Amore ederraren Ama
„ maitea! Zu cera pecatari triſteen miſericor-
„ diazco Ama.

„ Gurutcearen oñean zure Semeari begui-
„ ra dolorez beteric ceundenean, berac pe-
„ catarien Ama eguincinduen. O cer conſue-
„ lo, ta cer dicha paregabea gurea: Zu beza-
„ laco Ama ceruan iduquitcea! Zu cera
„ retzat ceruco Atea, ta zugana datorre-
„ renzat beti idiquia.

„ Egúia da, nere anima pecatuaz lor
„ icuſi, ta lotſaz, ta damuz beteric

Universidad de Deusto Biblioteca



„ beguietara allegatcen naiz. Baña zugan Erreguiña andi, ta Amandreric onena, nere uste osoa, ta segurua daucat. Zure mantupera, zure amparora nator nere erremedioaren billa.

„ Ama guciz maitea: arren zure begui eder oriec biurtuitzatzu nigana. Nic ezdet ori mereci: ala da eguia; baña Jesus zure Semearen Biotceco amorioac ori mereci, ta ori escatcendizu: ta aren pasio, ta eriotzagatic, Zuc zure balio andiaz, arequin nere artean bitarteco gozagarri izan beardezu.

„ Ordu onetan iñoizere baño zure bearrago naiz. Zure Biotz beraa, ta begui piadosoaz beguirazadazu. Misericordiazco Ama izanzaite neretzat. Beguira niri: etsai gaistoen artean estu nabil: oien tentacioetatic libranazazu. Zu nere favore cerala, zu nerequin zaitudala, aien bildur eznaiz.

„ Ecer nic mereci ezdet; baña zure Biotceco Semearen odol preciosoagatic; ez erren, Andrea, ni orañ desamparatu. Seculan aditu zta, ta ez adituco, eguiaz zugana biurtu, zuzaz baliatudanic, amparo gabe gueldala: ona bada ni guztiz bearra, biotz godic zugana nator, zugan nere Esperansoa daucadala.

„ Eriot-



„ Eriotza, ta eternidade guciarequin burruca, ta pelean icusten nazu: lastimazaite nizaz, Ama guciz beraa, ta gozoa. Nere bildur, ta neque samin guciac bigundu, ta gozatucodira, Zu nere favore bacera.

„ Ea bada pecatarien Ama, anima triste onegatic zureSeme bedeicatuari erreguzaiozu. Zuc au eguiten badezu: seguru nago, pocic, ta amore onez, Zu bezalaco Ama, bera bezalaco Semeac enzungoduela. Itz eguiozu, bada, nere Bitarteco bacarra, ta esaiozu, ni bezalaco pecatariac salvatcera etorri zala mundura.

„ Zu cera gure arguia: arguieguidazu. Zu cera gure paquea: animaco paquea indazu. Zu cera gure consolatzallea: nere anima consolaezazu. Zu cera mundu galduaren erremedioa arquitu, ta aguertucenduena nere anima erremediezazu. Zu cera zure Seme maitean gure Salvadorea emanciñiguna: izan bedi bada nere Salvadorea: ta ni zugatic salvatuconaiz.

„ Badaquit, Esperanza nerea, zure Biotceco erruqui amorosoa niganaño zabaldudana. Zuc, zure Semeac bezala iñor condenatcea, nai ezdezu; baicic gucioc salvatcea. Zure bular gozoac zure Semeari zuc eracutsi ezquero, aren aserre justua bereala gozatucoda.



„ Ne-

Universidad de Deusto Biblioteca



„ Nere damua da, zure Semea, ta zu aimbeste ofendituz, ta aserratuaz. Baña guciaz „ damudet, bera danagatic. Damudet biotz „ guztitic, Jaungoico añ ona ofendituaz. „ Zuc, zuc pecatu gucien biotceco, ta eguiazco damua, ta gucien barcacio oso osoa „ alcanzazadazu.

„ Zu cera andre gucien artean bedeicatua, „ Jaunaren graciaz, ta doaiez betea: zu graciazco, ta misericordiazco Ama: ona ni „ desdichaz beteric galdua, amparanazazu, „ orañ, ta beti Jaincoa amatceco.

*San Josef gloriosoari afectoac.*

„ O Nere Santu gozo, agonian, edo „ iltceco trancean daudenen Bitarteco seguru, ta poderosoa, ta lagunic onena! „ Zu bearzaitut ordu onetan nere buruco aldean. Esqueco pobre, ta eriotzaco ordu „ estu onetan, zuri deiez dagoen anima triste oni beguirazaiozu, ta amparaezazu.

„ O nere Josef Santua, ta Santu gucien „ artean chitez doatsua, ta gucien gañean zorionecoa! Zu bacarric cera paregabecoa, „ ta guizonen artean bigarrenic ezdezuna. „ Zu gure Jaungoico gucien artcecodun dana, gure esaeran, zure zordun dezuna.

„ Jaincoari gucioc zordiogu, ta zuri gucioc zordizugu; ta bai ta Jaincoac berac „ ere. Bada zure neque, ta icerdiaquin, necazariac bezala, Jaincoaren Semeari, ta „ Amari jaten eman, ta bicitcen lagunduciñen! Laguntzadazu niri orañ, nere anima betico bicidedin.



„ O Josef, bicitzan, ta eriotzan Santu gucien dichosoena! Bada Jesus, ta bere Amaren aldean bici izanciñan. Zu Jesus onaren, „ ta zu Virgiña Ama zure Esposa eguiazcoaren gozoric, ta atseguiñic andiena ciñan lurrean, ta cera ceruan. O cer consueloa „ dedan onetan!

„ Amac Semeaz campora, ta Semeac Amaren urrena, Zu zaituzte ceruan, ta lurrean „ criatura gucien gañean gueiena estimatcen, „ ta amatcenzaituztena. O cer esperanza daucadan nic onetan!

„ Zu eriotzan, bicitzan bezala, besteric „ ez bezala, dichosoena izanciñan: bada Jesus buruco aldetic, ta Maria Virgiña zure „ oiaren oñetatic, cinduela zure espiritu doaiez, graciaz, ta amorioz betea Jesus onari „ bere escuetan emanciñion, ta onec bere „ Biotcean artucinduen. O cer bicitza, ò cer „ eriotza! O cer gloria bicia!

„ Dicha, ta favore, esan al baño andiago „ oiecgatic, erregutcendizut, nere Aitaric „ one-

Universidad de Deusto Biblioteca



,, onena, ta gozoena, nere eriotzan nere-
,, quin arquizaiteala. Zure Espoia santari, ta
,, aren Semeari zure icerdiac eracutsizaiezte-
,, zu : eta Amac bere Seme maiteari bere bu-
,, lar gozoac eracutsi, ta bioc nere pecatuen
,, barcacioa seguraezazute,

,, JESUS, MARIA, ta JOSEF orañ, ta
,, beti nere biotcean izanditeala. JESUS,
,, MARIA, ta JOSEF, San JOAQUIN,
,, ta Santa ANA : nic entregatcendizutet ne-
,, re anima, ta dedan gucia, ta ni naizana.
,, JESUS, MARIA, ta JOSEF, JOAQUIN
,, ta ANA : nere anima salvatceco atozte
,, gucioc nigana. Amen.

*San Miguel, ta beste Ainguerüai afectoac.*

,, CEruco Espiritu eder gucien Aguinta-
,, ri San Miguel gloriosoa, ta Eliza
,, Santaren, ta animen Defensore poderosoa:
,, atoz laster, non cera? Zure Aingueru, ta
,, Lagun santuaquin atoz nere aldera : orañ-
,, che da dembora: len Jaincoaren gloriagatic
,, bezala, orañ beraren amorioagatic, zuc,
,, eta zure Lagun santuac Lucifer, ta aren
,, deabru gucien contra, ta nere favore
,, peleatceco.

,, Jaiquizaitez bada, San Miguel ansimen
,, Adisquide, ta Bitarteco andia, ta ots egui-
,, zu



,, zu len ceruan bezala; orañ emen : NOR
,, JAINCOA BEZALACORIC : eta orre-
,, quin deabru guciac igues emendic aienatu,
,, ta ondatucodira.

,, Anima fiel guciac, Jaincoac zuri aguin-
,, duric, zure contura gaude, zuc gorde, ta
,, amparatceco : zure escuetatic Jaunaren
,, aurrean, ta aren argui eder artan presen-
,, tatu, ta aguertu beardegu : ona bada, ne-
,, re anima zuri deiez, zure zai, zure be-
,, guira non dagoen.

,, Ama Virgiña, San Josef, ta Aingue-
,, ruaquin batean, arren alcanzazadazu Jau-
,, nagandic fede bici, esperanza firme, ta
,, amorio santu irazaqui bat, nere pecatu
,, gucien eguiazco damu, ta propositua,
,, Jaincoaren ontasunagatic, nere anima gar-
,, biro zure escuetan emateco.

,, San Gabriel Ainguerüen artean Jaincoa-
,, ren indar miragarria, zure erremedio, ta
,, salvacioraco Ama Virgiñari berri onac ecar-
,, riciniozcana. Ona anima triste bat zure
,, berri onen bearra daucana. Zure deiez
,, nago : lagunzadazu, ta tentacio gucieta-
,, tic libratceco indarra indazu.

,, Curuco Medicu San Rafael mundu one-
,, tan Bidezco dabiltzanen Lagun fiela : arren
,, lagunzadazu jornada, ta trance onetan ce-
,, ruco

,, ruco bidea utseguin ezdezadan. Itsua nago:
,, ceruco arguia indazu, eriotza on batequin
,, biaje au ondo eguin, ta arpeguiz arpegui
,, Jaincoa icustera zurequin igonadin.

,, Aingueru Guardaco, Jaincoac señalatu,
,, ta nere zai, lagun on leiala bezala, pauso
,, gucietan ibillicerana: atoz zu ere, atoz,
,, ta pausoric estuen onetan zaitu, ta gorde-
,, nazazu, nere animaz contu ona emateco.

,, Zu, ta beste Ainguernac Jaincoaren vo-
,, rondatea gure oneraco beti eguiten ari ce-
,, rate. Ay! Nic ere ori beti eguin banu! Zu-
,, re avisoac artu banitu, ta Zuri beti beguiratu
,, banizu nere ondoan gau, ta egun! Ay!
,, Ta nalacoac, ta ceñ bestelacoac nere pau-
,, soac, itzac, eta obrac izangociraden!

,, Baña ezagutcen, ta aitortcendet, ta gu-
,, ciaz damudet. Zuc beste Ainguern, ta
,, Santuaquin, lagundu beardidazu, Jaunaren
,, misericordia arquitceco.

,, Patriarca, ta Profeta Santu Jaincoaren
,, arguiaz, ta virturez janciac! Apostolo san-
,, tu, Jesus-en Dicipulo, ta munduaren
,, Maisuac! Martiri zuen tormentuaz ceru-
,, co Coroa irabacicendutenac! Dotore Ja-
,, quinsu Eleizaren argui andiac! Confesore
,, humill, ta penitenteac! Virgiña ceruco
,, Erreguearen Esposa garbiac! Cerutar gu-
,, ciac



,, ciac batean, atozte nigana, ordu onetan
,, ni amparatcera. Jaunari escazaiozute nere
,, anima beraren graciaz, ta zuen bitarte-
,, coz, zuen lagun ceruan betico izandedin.
,, Amen.

,, Santa Barbara, Jesus maitearen Esposa
,, garbi, Virgiña, ta Martiri miragarri, erio-
,, tzaco orduan daudenen consolatzallea!
,, Ona, Eleizacoac dicha andiaz arturic,
,, zure amparoaren beguira non nagoen.
,, Laguntzadazu, nere bitarteco gozoa or-
,, du onetan Jaincoaren amore santuan erio-
,, tza on bat eguiteco.

¶ Emen biotzaren devocioc Santuari escatçenzaie.

### *Fede, Esperanza, Amorio, ta Contriciozco actoac.*

Esangodiran urrengo acto, edo afectoac Sacerdeteac eriari eraguingodiozca oran, edo ondoen deritzanean. Baña bearrenac, eta meritoric andienecoac beti dira Fede, Esperanza, ta Caridadeco, edo Contriciozcoac, guisa onetan.

,, O misericordiazco Aita, ta consuelo
,, guztiaren Jaincoa! Nere animaco begui-
,, ac argui itzatzu, eriotzaco illuntasunaren
,, lo

„ lo pisuan erori, edo sartu eznadin. Zure
„ fedearen argui golpe andi bat indazu, Jau-
„ na, zure gauza andi escutatuenac, edo
„ fedeco Misterioac, bear bezala, ta zuc
„ naizun moduan, jaquin, adoratu, ta si-
„ nisteco.

„ Zure graciaz bada sinistendet, nere bio-
„ tceco fede oso guciaz Trinidadeco zure
„ Misterio miragarriena: Aita, ta Semea,
„ ta Espiritu Santua: iru Persona distintoac.
„ Esan naidet: Persona bata ezdala bestea,
„ ezbada irurac bana. Aita dala Aita, Semea
„ dala Semea, ta Espiritu Santua dala Espi-
„ tu Santua: ta irurac eguiazco Jaungoico
„ bacar bat dirala. Jaungoico bacar onetan,
„ ta iru Persona oietan sinistendet: au con-
„ fesatcen, adoratcen, ta biotz guztitic gau-
„ za guciac baño gueiago amatcendet.

„ Sinistendet, Jaincoaren Semea, gu sal-
„ vatceagatic Guizon eguinzala: MARIA
„ Virgiñagandic jaiozala, padecitu, ta Gu-
„ rutcean ill, enterratu, Limbora jachi, ta
„ irugarren egunean erresucitatu, eta cerue-
„ tara igozala: andic biciac, eta illac juzga-
„ tcera etorricodala.

„ Sinistendet, pecatuen barcacioraco Elei-
„ zan Sacramentuac dirala, Fede bat, Elei-
„ za bat, ta Bateo bat dala, beste gauza

„ Elei-


„ Eleiza Santac eracusten, ta aguintcendiz-
„ quidan guciaquin, ta onetatic campora sal-
„ vacioric ezdala.

„ Sinistendet Aita Jaincoagan: sinistendet
„ Seme Jaincoagan: sinistendet Espiritu San-
„ tu Jaincoagan.

„ Esperatcendet Aita Jaincoagan: espera-
„ tcendet Seme Jaincoagan: esperatcendet
„ Espiritu Santu Jaincoagan.

„ Amatcendet Aita Jaincoa: amatcendet
„ Seme Jaincoa: amatcendet Espiritu Santu
„ Jaincoa: eta damudet nere biotz guztitic
„ bera ofendituaz, bera danagatic.

„ O nere Jaungoico guztiz Santua, se-
„ culan ofenditu ezbacindut! O zori gaisto-
„ co pecatuac, ta pecatuen bideac!

„ O Jaun guciz justua! Ez arren nerequin
„ contuetan sartu: bada zure beguietan jus-
„ turic iñor izango ezta.

„ Ay Jauna! Ichasoco ondar, edo areac
„ baño pecatu gueiago ditut! Baña alere zu-
„ re misericordiaren aldean cer dira? Ecer
„ ez. Zure misericordia gueiago, ta neurri
„ ta contu gabea da. O cer esperanza gu-
„ cizcoa!

„ O Jaun guciz ona! Ez niri, ta nere
„ onari beguiratu, ezpada zure onrari. Nic,
„ oraň baño len, galtcea, ta condenatcea

„ mere-

„ merecinuen ; baña zure Ontasun , ta amo-
„ rioac ni salvatcea naidu. Magdalena , ta
„ beste pecatariac artucinduen : ea bada,
„ ona beste bat non datorren : zure amo-
„ rioan arnazuzu.

„ O zure amorioan betico irazaquia ba-
„ nengo ! beti zu amatceco, ta zure amo-
„ re santuan beti erre , ta urtutceco. Eter-
„ nidadeco bide, ta azqueneco pauso one-
„ tan gorde, ta salvanazazu , Jauna, zu be-
„ ti alabatceco. Amen.

*Espiritu Santuari Escari, ta afecto, Eleiza Ama Santac eguitendiozcanac.*

„ O Espiritu animen Consoladore, amo-
„ rezco Jaincoa ! Atoz nere nequean
„ ni consolatcera : Atoz nere biotza zure
„ gracia gozoaz betetcera. Atoz zure omo-
„ rezco sua nigan betico irazaquitcera.

„Atoz pobreen Aita : atoz doaien ema-
„ llea : atoz biotzen arguia. Zure argui ga-
„ be nigan gauza garbiric ezta.

„ Nere loiac garbi itzatzu : nere leortasu-
„ na ece ezazu : nere eritasuna sendaezazu.
„ Nere gogortasuna beraa ezazu : nere on-
„ tasuna beroezazu : nere oquerrac zuceni-
„ tzatzu.

„ Zu



„ Zu cera Consolatce guciz maitea : ani-
„ maren etorcari gozoa , ta atseguin eguiaz
„ cerucoa. Zu cera nequeen descansua , es-
„ tutasunen atsedena , negarretan consueloa.

„ Zu cera Aitaren escuieco Beatza : atoz,
„ ta zuretzat señalanazazu. Zu cera amo-
„ riozco sua : atoz , ta irazquinazazu. Zu
„ cera doai gucien Iturria : atoz , ta zure
„ ur bici orrezaz betenazazu.

„ Zu cera zazpi Doaien Jabea : atoz ni-
„ gana , ta oriezaz nere anima janciezazu.
„ Zu cera Aitac Semeari esqueñiricaco Con-
„ solatzallea , ta Semeac guri emana : atoz,
„ zure arguiarequin Aita , ta Semea , ta Zu,
„ Espiritu Jaungoico bacarra , emen ondo
„ ezagutu , ta zure frutu , ta saria gozoa-
„ quin , ceruco glorian obeto , ta betico icu-
„ si , adoratu , ta gozatuzaitzadan. Amen.

*Aita Eternoari Jesu Cristo bere Semearen meritoen ofrenda guciz co baliosoa.*

„ NEre Jaungoico guciz justua ! Zure
„ beguien aurrean : nigan izan aldi-
„ tequean errespetoric humillen , ta confi-
„ anzaric andienaz aguertcen naiz. Zure at-
„ seguin, onra, ta gloriaric andieneco Ofren-
„ da bat , bere pareric ezduena, nere cul-

„ pa,

„ pa, ta pecatu andi gucien desconturaco,
„ zuri presentatcera : ta oiec zure justicia
„ aserratu duten becela, aserre ori guztiro
„ quentceco, Seme guciz Santu onen bi-
„ citza, pasio, ta eriotzaren Sacrificio one-
„ quin zure Biotz, ta arpeguia seguru be-
„ raatu, ta gozatucoda.

„ Beguira bada ondo, Jauna : ta ondo
„ baicic ecin beguiratucodiozu. Nere peca-
„ tuen paguan ematendizut Zure Semeac,
„ nere amorez. Virgiña bere amaren sa-
„ belean gure araguiz janci, ta bederatci
„ illabetean an egon, ta Belengo Portalean
„ añ pobre jaiotceean, ta abereen artean
„ egotean Zuri, Aita Eternoa, iduquicizun
„ obediencia.

„ Andic zortci egunera, beren Circun-
„ cisioan, nere salvacioagatic isurizuen odo-
„ la, ta eguincituen negar preciosoac : be-
„ re aurtasunean, ta bere bician eramanci-
„ tuen otz, ta bero; gose, ta egarri; ne-
„ que, ta icerdi guciac.

„ Beguira, Jauna, zure onraraco, eguin-
„ cituen Oracio, barau, ta penitencia gu-
„ ciac, egemplo, sermoi, ta milagro gu-
„ ciac. Beguira, nola azqueneco afarian,
„ esan al baño humildade andiagoaz, Apos-
„ toloai Oñac garbitu, ta nola guc elcar
„ sufri-



„ sufritu, ta amatu bearguenduen eracutsi-
„ cigun. Beguira, zure gustoa eguiteagatic
„ afari artan, Sacramentu Santu amorio pa-
„ regabeaz, gau, ta egun gurequin egote-
„ co eguinzuen.

„ Beguira, Jauna, cer laztan, ta negar
„ gozoaquin, Pasio, ta eriotzaco bere Ama
„ maiteagandic despeditu zan : Getsemani-co
„ baratzan nola irubider Oracioa eguinci-
„ zun : ta Judas saltzalle gaistoaren laztan
„ falsoa, cer pacienciaz artuzuen; ta etsaiac
„ nola lotuzuten.

„ Beguira, Jauna, munduan izandan gau-
„ ric illunen, ta desdichaduen artan eraman,
„ ta igarocituen neque, desprecio, lotsa,
„ ta tratu, pensatu al baño gogorragoac:
„ ta orduan, ta urrengo goicean Anas, Cai-
„ fas, Pilatos, ta Herodes echeetan, ta bide,
„ edo caleetan eramancituenac : egun arta-
„ co testimonio, afrenta, burla, golpe, bo-
„ fetada, azote, coroa, ta burlazco Erre-
„ guearen soñecoa.

„ Beguira, Jauna, Pilatos-en eriotzaco
„ sentencia gogorra artuzueneco aren Bio-
„ tceco pena, ta paciencia: Bere Gurutcea
„ artu, ta tormentuz, ta lotsaz beteric aren
„ Calvarioco Mendi santurañoco precioso,
„ ta pauso dolorezco tristeac : nere peca-
„ tuen

Universidad de Deusto Biblioteca



„ tuen carga pisuac Gurutce pean artu , ta „ auzpez , baratzan bezala odola ceriola ni„ gatic zuri erregutcen iduquizuen amo„ rioa.

„ Beguira , Aita Eternoa , zure Seme „ Cristoren arpegui ederra , orduan nere „ culpaquin itsusitua , ta nola iltce gogor„ raz Gurutcean josi , ta gora jasozuten: „ ta an quedarrezco vinagre , ta beazunez„ co edaria emancioten : nola bere etsaiac„ gatic, ta nigatic, oracio eguin , ta negarrez, „ ta deadarrez barcacioa escatucizun.

„ Beguira nola , bere Ama maitea guri „ Amatzat utci , burua macurtu , ta bere „ espiritua zure escuetan , Seme onac be„ zala , zuri bere Aitari bezala emancizun.

„ Ea , Jauna , contuetara gatocen. An„ diac , asco , ta chit itsusi beltzac dira „ nere culpac ; baña are andiago da zure „ Semearen Ofrenda , ta Sacrificio au : one„ tan dago nere esperanza , ta seguridade „ guztia. Badaquizu , zure Seme maitea Bi„ tarteco , ta fiadore irtenzala : orra bada, „ Jauna , nere pecatuen zorra : ta orra ne„ re pecatuen pagu osoa , ugaria , ta ecin „ gueiago alacoa. Arrezazu zure Semearen „ Sacrificio au , ta quito , Jauna.

„ Aita Eterno , Jaun justua. Badaquit,

„ zu-



„ zure itzaren Jabe cerana. Bada , ecin fal„ tatucoduen zure itz erreal Jaincozcoa da, „ zure Semearen Icenean escatcendizuguna, „ emango diguzula. Onec berac escatcen„ dizu , niri barcatceco : eta nic onen Ice„ nean escatcendizut ori bera , ta ematendi„ zut Zure Semeagan pagu gucia , berac ni„ ri , ta neretzat utcididana.

„ Beraren Gurutce santua da nere zorren „ pagua , deabruen contraco arma segurua: „ Gurutce Santua da neretzat ceruco Atea„ ren Guiltza maisua. Onequin , ta onetan „ ill naidet : onetan zure Semeac bezala, „ onequin batean nere espiritua eman nai„ dizut betico.

*Jaungoicoa icusteco deseoac.*

„ O Nere Jaungoico , nere Criadore, „ ta Salvadorea ! Jesus zure Seme „ onaren esperanza onequin,zure vorondatea „ danean, ill naidet. O nere dichazco zu icus„ teco egun , eta ordua noiz etorricoda !

„ Egarriac itotcen dan batec iturri fresco „ gozo bat nola deseatcenduen : ala Jauna, „ nere animac Zu betico ur biciaren iturri „ gozoena. Leorrac erdíratcen duen lurra „ bezala zure egarriac dago nere anima. O „ Jauna, ceruco zure ur bici ori indazu , beñ „ betico ase,ta beste gaucē egarria quentceco.



„ O

Universidad de Deusto Biblioteca



„ O edertasun anciñacoa, ta beticoa! Zure „ arpegui ederra noiz icusicodet! Eracusda„ zu beñ, ta betico naiz dichosoa.

„ Ceruco Erregue, ta Jauna! Zure Jau„ regui eder, andi zabal orretara noiz igo„ conaiz? Zure Jerusalengo Eche, edo Erri „ eder orretan Eternidade guztiraco noiz „ sartuconaiz?

„ O! Nere gorputceco, ta eriotzaco car„ cela onetatic noiz libratuco ote naiz, ne„ re anima libre, ta ariñ zugana igotceco.

„ O! Gorputz onetatic libratcea, ta asca„ tcea, ta nere Jesus onarequin betico ego„ tea, nola, ta cembat deseatcen dedan!

„ Ay! Erbestetua nago lurrean, cerura„ co eguiña nazala! Destierro au noiz aca„ batucoda? Erribestean canta alegueretic „ ecin cantatucodet. O cer pena! Ceruco „ Aingueruen Canta berri gozo ura noiz „ aditucodet?

„ Dichoso, ta bienaventuraduac dira, Jau„ na, zurequin, zure Echean, ta zure al„ dean bicidiranac. Secula gucietan alabatu„ cozaituzte. Zu icusi artean nere anima „ triste dago. Zure Templo santuan noiz „ sartuconaiz ni? O! An betico Zu adora„ tucozaitut, ta zure Içen santua confesatu, „ ta alabatucodet!

„ Zu



„ Zu icusi, ta ez goseric, ez egarriric, „ ez doloreric, ez negarric gueiago izango „ da. Milla urte zure aurrean, atzo igarozan „ eguna bezala dira. O ceñ pocic emengo „ nequeac eramanditezquean, Zu icustea„ gatic! O edertasun gucien eguille eder„ rena! Uso baten, edo Ainguerüen egoaç „ norc lituquean, egaca bezala Zugana be„ reala igotceco, eta Zugan betico atsede„ teco!

„ Atoz, eriotza, atoz ordu onean: atoz „ nere cateac oiec ascatcera, nere centro, „ edo toquira ni noan. O nere Jainco, Is„ pillu ederra! Zure arpeguico arguian ceñ „ gauza eder miragarriac icusi bearra na„ goen! Zu, ceran bezala, icustea da San„ tuen gloria bicia. Cerc nauca bada ni lim„ bo onetan? Ya ordua badator: betor or„ du onean. O cer poza ondo iltcea!

„ Ya iltcen naiz, Jauna: ecin itzeguindet: „ moteldu, ta lotuda nere mingaña: nere „ beguietaco arguia, ta biotza ere illundu„ da. Jauna, zure escuetan nere anima en„ comendatcendizut. A Dios, nere aide, „ adisquide, ta ezagunac. A Dios mundua. „ Gucioc Jaincoari nigatic erregutu orañ „ lurrean, guero elcar icusidezagun betico „ ceruan. Amen.

Universidad de Deusto Biblioteca



„ NEre Jaungoico guciz ona, Aita, ta
„ Semea, ta Espiritu Santua! Zugan
„ siniftendet; zugan esperatcendet: ta Zu
„ gauza gucien gañean amatcenzaitut.

„ Aita Eternoa: zure Semearen Pasio, Gu-
„ rutce, ta Eriotzagatic eriotza on bat in-
„ dazu. Zure misericordiaren bear naiz: or-
„ ri deitcendiot ordu onetan, ta biotz guz-
„ titic.

„ Nere argaltasunari zure piedadeaz be-
„ guirazaiozu trance onetan. Ay Jauna: da-
„ mudet Zu ofendituaz, ceren Zu añ Ona
„ ceran.

„ Nere Jesus maitea! Nora biurtu, Zu-
„ gana baicic, ezdet. Zure odol preciosoaz ba-
„ liatu naidet, salvatceco. Misericordia nizaz.

„ Damudet, Jauna, nere culpa guciaz, ce-
„ ren zure ofensac diran: damudet milla bider,
„ ceren gauza gucien gañean zuri naidizudan.

„ O! Nere biotz au zure amorio garbiz
„ irazaqui ta balego!

„ Infernuco etsaiac galdu nai naute ordu
„ onetan. Ez arren, Jauna, ni utci: librana-
„ zazu: nic zurea izan beardet. Zu amatcen
„ zaitut.

„ Pecataria izan naiz: eguia da, Jauna. Ba-
„ ña nere gaitz guciac baño zure Ontasun, ta
„ misericordia andiago da.



„ Virgiña MARIA Jaincoaren Ama. Gu-
„ rutcearen oñean zure Semearequin igaro-
„ cinduen pena ta doloreacgatic, lagun-
„ tzadazu, ta zure mantupean betico ar-
„ unazazu.

„ JESUS: Jesus milla bider. JESUS, MA-
„ RIA, ta JOSEF orañ, ta beti nere biotcean,
„ ta animan izanditeala.

„ Jesus nere Salvadorea: izanzaite nere
„ JESUS, ta salvanazazu.

„ San Josef bedeicatu gozoa. Non cera,
„ nere Aita maitea? Atoz niri laguntcera, ta
„ zure beso bedeicatuetan nere anima artcera.

„ Aingueru Santuac, zuen beguira nago:
„ atozte laster ni libratcera.

„ Nere animaren Eguillea: zure escuetan
„ nere espiritua ematendizut.

„ Ama Virgiña MARIA: Ama graciaz-
„ coa, Ama misericordiazcoa, etsai gaisto-
„ tic libranazazu, ta ordu onetan zugan ar-
„ tunazazu.

„ Aita Eternoa: ez nere desdichai beguira-
„ tu ezpada zure Semearen arpegui, ta Bio-
„ tzari. Argatic misericordia nizaz.

„ Damudet, Jauna, Zu ofendituaz, Zu
„ ceranagatic. Misericordia.

„ JESUS: Jesus beti nere biotcean: Jesus-
„ egan nere biotz, ta amorio gucia.

„ JESUS,

Universidad de Deusto Biblioteca



„ JESUS, MARIA, ta Josef, Joaquin, ta
„ Ana, atozte gucioc nigana.

„ Jesus oraŕ, ta beti baliadaquidala. Jesus
„ izan bedi nere esperanza, nere consuelo,
„ nere amore, ta nere gloria bicia. Ori, ne-
„ re Jesus, zure anima au: ori Jesus, zure
„ espiritu au, espiritu guciaquin zu beti ala-
„ barceco, ta zure misericordiac beti canta-
„ tceco. Amen.

„ Nere Jesus ona: zure Biotza idiquizen-
„ duen ni or artceco: or sartu naidet secula-
„ co: or artu nazazu betico.

„ Sinisten, ta esperatcendet zugan: ta zu-
„ gan nere amorioa betico. Amen.

Onelaco afecto bici laburren artean, ale-
guiñaz, ill bearda. Jaunaren Ministroac ba-
daqui, beñ batzuec, guero besteac, banaca,
ta sosegúz eraguin bear dirala; iltcen da-
goenari, biotcean oriec eguitceco lecu, ta
atsedena emanaz: eta ondo aditcen ezpadu
azquenean, ez belarrietatic, baicic buru ga-
ñetic Sacerdoteac eriari itzeguin beardio,
obeto adierazotceco. Eta oneraño da Iltcen
laguntceco Egercicioa.





§. *ERIAQUIN DAUDENAC EGUIN BEAR-duténa.*

GAitza lucea danean, ascotan eria icus-
tenda etsiric, ta esandan bezala ondo
iltceco prestaturic. Erremedioric ezduenean,
gueldica badere, ill bear: luzaro irauten as-
co icustendira: ta onelaco Cristavaquin, dem-
boraz, Jaincoac naiduen bezala, baliatce-
co; aiequin daudenac, cer eguin beardu-
ten, esan naidet.

Lendabicico avisoa da: ala echecoac, no-
la eria icustera datocenac, ori consolatceco,
ta animatceco, gauza onac baicic iñolaco
moduz esan bear ezdiote. Munduco jolas
bano, alferricaco esamesac, guezurrezco
ipui, edo contuac, iñoren bicitza, ta adi-
tcendiran desdichac utci, ebaqui, edo sus-
traietic atera beardira, ta gassoari orrelaco-
ric ez eraman, edo contatu: infernuco gau-
zac bezala, orrelaco jolasac gueienean, ta
gucientzat gaitz andiac oi dacarcite.

Bigarrena: Jaincoaren bildurra duten Cris-
tavac, era artan eria dagoenean, izango
diran uste, edo esperanzaquin engañatu bear
ezdute, ascoc bezala esanaz: Orandic sen-
datu, ta ara, ta onara joangocera: jaiqui,
ta onelaco gauza eguingodezu: eta onela-

co beste eroqueriac. Eta ori gucia, edolaric: JAINCOAC NAI BADU, esangabe. Orrelaco guezurrac baño, obe da, fede, ta itz onaquin eria animatcea, Jaincoari osasuna, conveni bazaio, escatcera, ta ezperen aren escuetan bere osasuna, ta vorondatea ifintcera. Beste ori gucia dembora gaizqui, edo calteaz galtcea da.

Eri asco gaitz lucean badaquizu nola dauden? Bada orrela etsiric dagoen eri bacoitza ERIO BICIA, edo BICITZA ILLA dala deritzat: ta ala gueldica badere beti deseguiñaz dijoa. Cer provechu bada orrelacoari eguingodiote zure berritsuqueria, guezur, edo munduco contu eroac? Oiec aienatu beardira. Orretaco, ta gasloaquin beardan bezala jarduteco, izqueta, edo conversacio santuen gaia; Dotrina, Egemplo, ta Consideracio onaquin eman naidizut.

Gucien asiera izan bedi, ez nerea, ezpada Espiritu Santuaren consejua: iltcen daudenac ondo icusteco, edo illetaco echera joateco deia. „ Melius est ire ad domum luc-„ tus, quam ad domum convivij. Combi-„ teco echera baño illetaco echera joan obe-„ dala. Cergatic ori? Espiritu Santuac eran-„ zutendu: ceren lutoco echean guizon, ta „ andre gucien azquena avisatcen, edo icus-„ ten-


„ tendan: eta biciac, illa icusi, ta guero cer „ izangodan pensatcenduen: in illa enim finis „ cunctorum admonetur hominum, & vi-„ vens cogitat, quid futurum sit. „ Onen gañean itzeguiteco, guciac daquiten, edo jaquin bearduten provechuzco.

*Eriotzaren gañeco Dotrina.*

BEguiz icustendiran gauzaz gañera, fedeco Articulo asco Eriotzan icusi ditzaquegu. Aita, oriec ceñ dira? Lenena: fedeac eracustendigu ill bear degula. „ Statu-„ tum est hominibus semel mori. Jaincoa-„ ren Leguea da, gucioc ill bearra. Hebr. 9. „ Bigarren articuloa da: nola gauza guciz ciertoa dan, ill bearra: ala, ta añ ciertoa da, beñ baicen ill bear ezdegula. Eriotza ciertoa, ta bacarra. „ Semel mori. „

Irugarren articuloa da: sinisten, ta icustendeguna, jaquin beñ ill beardegula, baña noiz, non, ta nola ezdaquigula: „ Nescitis „ diem, neque horam, dio Jesu Cristoc: „ Eriotzaco eguna, ta ordua ezdaquizute. „ Matth. 25. „ Ill bearra badaquizu: noiz, ta nola ezdaquizu. Ill bear, ta beñ baicie ez ill bear, ta guchien ustedanean berico ill bear. Iru fedeco eguia guciz arrigarriac.

Laugarren gauza da: Eriotzaren Leguea gu-

gucientzat, ta pecatuaren ondorengo pena dala. Ala iltcen dagoen bat icuftean, deritzat, Jaincoaren justiciac sentencia emanic, borreroaren escuetan bezala, erioaren atzaparretan, triste ori dacusdala: ta burruca desseguin: ta munduco gauza gucienzat ecerecera, eriotzac biurtcenduela.

Bostgarren gauza da: eriotza berez, ta beregan, pintatcen dan beceñ gauza gogor, edo izugarria ezdala. Nola nai dala, eriotza bera eguiaz, edo anima gorputcetic irtetea, puntu, edo instante batean igarotcenda: guerocoa, edo orren ondorengoa da lana, ta contua. Ala, eguia esateco, zure eriotzaren baño, zure bicitzaren bildur gueiago beardezu.

Seigarren gauza, edo fedeco articuloa da: Eriotzaren ondoren, Jaunaren Juicioa, ta bicitzaren beticoa sentencia dala: „ Post hoc „ judicium. „ Eta sentencia ori eternidade dichoso, edo eternidade desdichadu bateraco erremedio gabe emangodizula. Oiec dira, eriotza mutuac gure gorputceco, ta animaco beguietatic gucioi eracustendizquigun gauza ciertoac. Ta orañ orietatic zuc, eta nic cer aterabeardegu?





*Emendic atera beardan frutua.*

ERiotzaren alderago gatotcen, ta emen eguia chitez izugarri bat modu ascotan icusi oidana, gure oneraco icasicodegu, eta guzaz cer izanditequean. Eriotza au ascorenzat supitoan, bat batetan, edo beñgoan izan oida: ta orietatic asco ondo, ta beste asco gaizqui iltcendira. Batzuec ongui, ceren ondo biciciran, ta eriotzac Jaincoaren gracian arquitcendituen: onela ustez ustegabe Santu asco iltcendira. Beste asco gaizqui, ceren gaizquiro biciciran, ta eriotzac pecatuan arrapatucituen: ala da gauza jaquiña, pecatari asco guchien ustezutenean ill, ta condenatudirala.

Cer erremedio bada, Aita, edo cer consuelo? Zurequin neretzat beste erremedioric eztago, ezpada berealà, edo bertatic, orduan naicodeguna, eguitea: esan naidet, bicitza berria, bicitza santua: onequin bildurretatic libratu, ta betico seguratcenguera. Justu bat, non nai, noiznai, ta nola nai, beti ondo iltcenda, batbatetan illa gueratu arren; ceren Jaincoaren gracian, Jaincoaren adisquide, Jaincoaren Leguea, vorondatea, ta amorioa bere biotzaren erdian daucala, bere Jabe maitearen besoetan erortcendan.

Universidad de Deusto Biblioteca



Pecatari bat contrara nonnai, noiznai, tã nolanai, gaizqui orrela dala iltcenda; ceren Jaincoaren desgracian, Jaincoaren etsai, ta Jaincoaren Legue, ta amorio gabe, pecatua animan daucala iltcendan. Pecatari asco, justuac ere bai, Sacramentuac artceco lecu gabe iltcendira. Beste pecatari asco, justuac bezala Sacramentuac arturic. Baña justuac, beti bezala, oriec ondo artu ta; ta pecatariac bician bezala, eriotzan oriec gaizqui arturic: ta bicitza nolacoa, eriotza alacoa.

Munduarequico icustendan onetan eztago gure dicha. Eriotzaren suertea bicitzatic gueienean oidator. Sacramentuac demboraz artu, ta Santo Cristo batequin negar asco eguitean bacarric eriotza ona eztago: lenagotic dicha, edo desdicha oidator, icusidiran egemglo ascoc eracusten digutenez. Ala Indietaco Apostolo San Francisco Xavier bat Gentilen erri, edo basoan, eta arcaitcen artean, bacarric, Sacramenturic gabe, norc lagundu etzuela, ta desamparaturic iltzan, baña aren anima Aingueruac cerura eramanzuten, ta Santu añ miragarri, nola mundu guciac daquien, Jaungoicoac eguinzuen. Contrara San Brunoren bicitzan contatcendan, aren lagun, ta Dotore famatua, Pariscо errian, Sacramentuac arturic, lagun ascoren artean iltzan; baña berac esanzuen bezala, condenatuzan, ceren gaizqui iltzan.



Ala lenago San Pablo Lenengo Ermitañoa bacarchoric bere eremu, ta arcaitzpean iltzan, ta aren anima, San Antonio andiac icusi, ta contatcendu, nola puntu artan, Santu, ta Ainguerуen artean ceruan sartuzan. Contrara, berroguei Martirietatic bat, edo oien laguna, aimbeste Lagun Santuren aldean, fedean faltatu, ta gaizqui ill, ceruco Coroa galdu, ta condenatuzan: eta atezai cegoena, gentila bazan ere, Martirien Coroac icusi, Jesu Cristo confesatu, ta Martiri iltzan.

San Alejo bat, alacoric munduan ezbaliz bezala, bere echean, baña bere echecoac aztu, ta utciric, escalapean bacarchoric iltzan; ta puntu artan aren anima zorionecoa Jaunaren gozo, ta gloria bician sartuzan. Gure necazaricho pobre ascorequin ori bera nerequico igarotcenda. Bitartean, cembat Erroman ilcociran, ta orañ egunoro andieche orietan, beren erregalozco oietan, lagun ascoren artean iltcendira, ta puntu artan infernuetan ondaturic, Lucifer-en oñazpian arquitcendira! O Jaungoico eguiazcoa! O mundu guezurrezcoa! Ta au iracurten, edo enzuten zauden Cristava, orañ iltcen baciña, zure eriotza noraco izangolitza-

litzaquè? Zurè anima norà joangolitzaque? Ondo ill naibadezu, Zure bicitzari beguirazaiozu.

## §. ERIOTZA GAISTO, TA ONAREN *Egemploac.*

CElo andicò Mißionero bat iñauteriaco arrafaldebatean eriotza gaisto, ta ustegabecoa predicatcen asizan, ta esanzuen: bearbada zuetatic bat biar autsa artcera allegatuco ezda, edo lenago ilcoda: ala ezdà cer fiatu, ta ez ordu batean ere pecatuan cer egon. Guizon bat, chit estadu gaistoan luzaro bicizana enzuten cegoen: ta Sermoia acabatu, ta aren pauso charren, ta peligroaren berri ondo cequien lagun bat esatèn asicitzaion: ala fede, adisquidea, eguia andi, ta bearrac Predicadoreac esan baidizquigula: badaquizu, guizona, infernuco locaitz, ta peligroan urliarequin zaudela: beguira ondo, ta aviso onequin bide gaisto ori utci, ta Jaincoana, eriotza datorren baño len, biurzaite. Baña guizon galduac, Predicadorearen, ta bere adisquide onaren esanac ecertan etceucatciela: Quen ortic esancion: oierio bada, Jaincoaren misericordia andia dezu: Predicadoreac gu icaratceagatic orrelacoac




coac esatendituzte. Baña orren laster, ta bereala ilco ez alguera. Orañ iltceco, ondo ez nagoela badaquit; baña ara aste santuan andre au utcicodet, ta confesio on bat eguin, ta salvatu ustedet.

Onela laguna utci; ta echera joanzan: ta orra non gau erdian, bere andre, edo demonio orren ondoan cegoela: Ay! Au cer da? Argui bat, urlia, laster ecartzu. Lasterca arguiarequin biurtuzaneco, guelan sartcean: Ay estu illun bat enzuenzuen: Adio urlia: ta sartu, ta odoleran irabiaturic illa arquituzuen. Ta aren anima? Orra puntu batean, andre, edo deabru baten aldetic infernuco gucien ondora. Orañ zure bicitza gaistoan fiazaitez zu: etcerala bereala ilco: guero Jaincoagana biurtucocerala: arc ere ori cion, baña biurtu etzan, ta pecatuan ilzan: arc erremedioric eztu, zuc bai. Zure erremedioa da penitencia bereala eguiteà, bicimodu berri santu bat bertatic asitcea, ura bezala uste gabe, ta gaizqui ill etzaitean.

Eta orañ eguia oiec aditcen, cembat daude pecatu mortalean, ura cegoen bezala? Cembatec ardura gabe, ta alacoric ezbaliz bezala, aren guisa, burla eguin, ta gueroco utcinaidute? Cembat pecatuan, ura bezala, lo eguitera aisa joangodira? Cembat

Universidad de Deusto Biblioteca



gau onetan, ura orduan bezala, infernuco illiti izangodira? O ondoren icaragarriac, baña eguiazcoac! Arc, orañ zuc bezala, ecion, guertatuco etcitzaiola? Orra, bada, nola guertatucitzaion. Pecatu mortalean zatide; ura bezala? Bada demonioen leizazulo, edo toquia cerade. Norc daqui ari orduan bezala, gau onetan zuri anima ateracodizuten, Cristoc Evangelioan dion guisa: „ Stulte, hac „ nocte animam tuam repetunt á te. „ Jaincoac permiti ezdezala, baña zuri nai ezdaquizula. Ara bici santuaren saria, ta eriotza guciz gozoaren.

EGEMPLOA. Au escribitcendedan eguna da Jesu Cristo ceruetara igozan egun guciz alegrea, edo aren Asensio miragarriaren eguna: Ta Asencio eguneco lecuan bertan Egemplo zoragarri au guertatuzan: ta ala Asencioco aurreneco Sermoiean, edo gaur bezala San Bernardino guciz devotoac contatcendu. Jaun guciz noble, ta bere biciera santuaz are prestuago bat izanzan, ta bere demboran, egunoro, ta Jesu Cristoren amorioz beteago: obraquin biotceco amorio santua obeto eracusteco, devociozco erromeria bat eguitea pensatuzuen. Bearciran gauzac prestatu, ta bere errespetoari ondo cegozquion lagunac artu, ta Jaun virtuoso ori



ori Gerusalen, ta Erri santuetaraco biajean jarri, ta Ontci batean sartuzan.

Jaungoicoa, leorrean bezala, ichasoan bere biotcean, nola ceucan, arc ontcia gobernatu, ta Jesu Cristoc gure salvacioco Mysterioac obratucituen lecu, edo Palestinara chit ondo allegatuzan. Au Jaunari esquerrac eman, ta bere devociozco Pausoen Egercicioa obeto asitceco, bereala, ta lenengo piedade, ta amorio guciaz confesatu, ta comulgatu, ta prestatuzan. Nazaret deritzan Erri dichosotic bere bisita asizuen. Emen gure Peregrino devotoa, munduan seculan eguindan obra, ta milagroric aundiena, bere fede, ta amorioaz pensatcen jarrizan: ta nola Jaungoicoac, Ainguery San Gabriel Mandatari bialdu, ta Maria Virgiñari berri onac eman, ta Jaincoaren Semea gure araguiz janci, ta aren sabel garbian Guizon eguin, edo Espiritu Santuaren graciaz Encarnacioco Misterioa obratu nai izanzuen: ta Ama Virgiñaren Baiezcoarequin Jesu Cristo aur chiqui, ta Jaungoico andiaren Sortce, edo Concepcio adoragarria eguinzuen.

Pensamentu onetan bere biotza ceruco arguiaz berotu, ta Jaun devoto onec gure Jaincoaren ondo gabeco Ontasuna adoratcenzuen, ta gu pecatutic libratceagatic Guizon

Universidad de Deusto Biblioteca



zon eguin ; eta gure ſalvacioco Miſterio, gucien aſiera, ta gure Oſaſunaren, ta Jaquintaſunaren Arbolaren zorioneco ſuſtraia nola zan: eta lurrean au aldatu ezquero, Jeſu Criſtoren beſte Pauſo, marabilla, Paſio, ta Eriotza, berez bezalaco Encarnacioco Arbola onen frutuac cirala.

Andic Belengo Portalchora igarozan: ta ecin erraz eſanditeque, gure Erromes devotoac an igarocituen ceruco gauzac: negar gozoz an biotza deſeguitencitzaion, Jeſus Aurcho gozoac an eguincituen negarrac icuſiric: batean ſeaſcan troſatu, ta etciñic, beſtean bere Ama Virgiña maitearen beſoetan beguiratcencion, ta bere animaco milla muſu, ta laztan aren oñ ſagraduai eman, ta Jaincozco Aur Jeſus bere gañean iduquizuen lurra, ta autſa bere negarraquin naſte milliſcatcenzuen.

Belendic, ondo aſpertu gabe Betaniara joanzan: ta an Jeſu Criſto, Jordango ibaiean eranci, ta San Juan Baptiſtaren eſcutic bateatcen bere fede arguiaz icuſi, ta gure Peregrinoa ere eranci, ta Jordanen ſartuzan: an bere burua garbitu, ta ur artatic edanzuen: Jeſu Criſto, ta aren gañean uſoaren figuran Eſpiritu Santua bacecuzan bezala, ta Aita Eternoaren deia: „ Au dą nere Seme chitez „ mai-



„ maitea, ceñean nere atſeguiña dedan, „ aditcen bazuen bezala.

Betaniatic Eremura jarraitucion: ta an Salvadoreari beguiratcencion berroguei gau, ta eguneco barau andia ateratcen, ta Satanaſ-en tentacioac garaitcen, ta guero nola Aingueruac janari miragarriac ſervitcen, edo ematenciozcaten. Andic Tabor-co Mendi altura igozan; ta an Jeſus bere gloria, ta edertaſun arguian icuſi, ta adoratuzuen. Emendic Jeſus bere Maiſuaren ondoren Sion, atceneco afaria eguinzuen lecura joanzan. Bere animaco beguiaz Jeſus belaunico bere Diſcipuloai oñac garbitcen humildadez, ta amorioz beteric ceritzan icuſten cegoela, eta guero bere Biotceco naiera, edo cariño guciaren alarde eguiten, ta Eucariſtiaco Sacramentuan bere burua, edo Jaincozco Gorputza ematen.

Andic Geſemanico Baratza, edo Hortura jarraitucion, ta bere biotza amorez, ta dolorezco negarretan urtucitzaion, Jeſus amoroſoa gure pecatuacgatic odolezco icerditan, antſiaz beteric, cijoala beguiratu, ta icuſizuenean. Guero preſo artu, lotu, ta Geruſalena eramanzutenean, aren ondoren diſcipulo ona bezala, Pauſo gucietan ibillizan. Biotceco pena gogor eſtuaz alde gucie-

 tara

Universidad de Deusto Biblioteca



tara nola arrastaca ceramaten bere barrenean beguiratcencion: Anas, Caifas, Pilatos, ta Herodes-en aurrean, azotez, aranzaz, chistuz ta burlaz beteric, Erri guztiac Barrabas baño guchiagotan artu, ta eriotza eman naiziola; azquenic sentencia Pilatos-ec eman, ta gure pecatuen carga pisua Gurutcean artu, ascotan auspez eroriaz cijoala, nola Ama Virgiña bere Ama maitea dolorez gucia josiric topatuzuen.

Devociozco Procesio triste onetan Calvarioco Mendira igozan, eta an Gurutcean iltce gogorraquin josiric gure eguiazco bicitza, edo bicitzaren frutua Arbola artan icusten, edo contemplatcen jarrizan. Jaincoaren Gorputz sagraduari, ta aren odolezco iturriari beguiratcencien. Ama Virgiñagana biurtu, ta aren Biotz ederra ezpata zorrotzaz josiric, ta penaz, ta lutoz beteric icusi, ta gure Peregrinoari berea pulcatcen citzaion. Semeagana berriz biurtcenzan, ta zazpi Itzac onen aotic aditcencituen, ta orietan eracutsicigun amorio paregabea bere biotcean sentitcenzuen: iltceco trancean, ta gueroenean burua macurtu: ta illic icusizuen. Ill ezquero lanzada emanciotenean, guiltza batequin idiqui ta bezala, Jesus-en Biotz amorosoa icusizuen: ta Gurutcetic jachi,

chi,



chi, ta Ama maitearen ecin esanalaco pena, ta nola obi berri batean Semearen Gorputza sartuzuten.

Gure Erromesa ara joanzan ta beguiac iturri bi eguiñic, ta biotza pena gozoz deseguiñic obian sartuzan, ta bere Maisuarequin an josizan. Irugarren egunean berarequin piztuzan, ta Emaus-co Discipuloaquin, ta beste igarociran gauzac icusicituen. Berroguei garren egunean, Salvadorearequin Oliveto Mendira igozan, eta nola Jesus-en Ascensioa lecu onetan izanzan, aren oñ sagraduen señaleac icusicituen, ta amorio irazaqui batequin biotza erretcencitzaiola, milla bider negar, ta suspirioz deseguiñaz, aien gañera erortcenzan. Guero bere jaincozco amorio guciaren indar, ta aleguiñac puntu batean bezala bere biotcera beregandu, ta bildu, ta beguiac, ta besoac cerura jaso, ta: O Jesus! esanzuen: O nere Jesus gozoa! Ya lurrean, non Zu billatu, nora Zuri jarraitu eztaquit, Jauna. O Jesus maitea! O Jesus, nere Amore, ta nere on gucia! Nere, ta zure biotz oni arren emaiozu, Zuri orañ cerura jarraitcea! Itz oiequin añ ta onen tiro andia amorioac biotcean eguinciõ, non golpe artan, bertan, ta beñgoan bere anima cerura bialducion, betico an bere Amore ederra icusi, ta gozatcera.

Bere

Universidad de Deusto Biblioteca



Bere Laguin, ta Criaduac zori oneco amatzalle au illa bezala erorten icusizutenean, accidente edo ustegabe onequin, Medicu bati lasterca otseguincioten, ta onec icusi, ta illa cegoela esanzuen. Ta obeto juicioa eguiteco, cerc ala Guizon ori ill otezuen, aren biciera, umore, osasuna, egercicio, ta orrelacoaz galdetuzuen: ta esancioten, Peregrino ori chitez Jaun andi, berez manua, suave, beraa, ona, ta gozoa zala, ta Egercicio santuetan, ta are gueiago Jaincoaren amorean chit irazaqui, ta ardore andicoa. Bada, añ seguru, Medicuac esanzuen, gueieguizco amore orrec biotza erdiratu, ta bicia quendudio: ta beguiz eguia au icusteco, saietsa idiquierazo, ta amorezco biotz bizarro ori erdi bi eguiñic, ta JESUS NERE AMOREA, escribituric beregan ceucala arquituzan. Ta orra Amorioac, beste causa gabe, anima ura cerura bialtceco, Eriotza onaren oficioa nola eguinzuen.

Santu asco amorioac onela acabatuditu. Serafin umano, edo lurrean ceruco amorioac beste guizon, ta Jesu Cristoren antz, edo imagiña bicia, Jesusen Llagac artu ezquero, San Francisco eguinzuena, lurrean ozta bicizan ta amorioac beti ceruan bicitceco iltzuen.

Vir-



Virgiña Santa Juliana, San Alejoren illoba, iltececo cegoela, ecin argalez Comunioa artu, ta Sacerdotearen escuetatic ostia joan, ta Santaren biotcera amorioac eraman, ta amore santuac iltzuen.

Virgiña Santa Clara Montefalcori amorioac biotza erdi bi eguin, ta gaur icustendan bezala, Trinidade guciz Santuaren, ta Jesus gure amorearen Pasioco señale, edo insignia ederraz betezuen.

## §. DEMBORA ONDO PASATCECO, BESTE CONsideracio santuac.

NEcazariac ondo iltececo, ta salvatceco, beste andi ascoc baño, cer eguin guchiago dute, edo aisago daude. Eguia onen testigu ona da, ala bicitzan, nola eriotzan, San Isidro Achurlaria, Santa Maria dela Cabeza, bere emazte, Aldareetan Eleizac isiñiduenarequin. Oiec Madriden beren bear, ta nequeaquin, beren Nagusia, ta are obeto Jaungoicoa servitcen, Corteco andi, ta Erregue asco baño quezca, ta peligro guchiagorequin, bici, ta ilciran, icusicodezun bezala.

Baña Emperadore edo munduaren Aguintari esan oidiranen Historiac esatendigutena

go-

Universidad de Deusto Biblioteca



gogora ecarri, ta eguiac balio bearbadu errazqui esangodegu, oriec baño desgraciatugoric, sartu, ta jaio eztala: orien biciera arrastatu, sosegugabe, ta zorigaistocoac pareric eztu, ta orien eriotza mota tristeac ecin lastima gabe iracurriditezque. Gaur Emperadore andi, ta biar esclavo billau icustenciran. Ta orregatic ere: O mundu zoro itsua! Ori beguiz icusi ta ere, Aguintari orrela izan naizutenac baciran. Gaur Emperadore bere soldadu batec chit cruelquiro bicia quẽdu: ta Erallea bera Emperadore eguitenzan, edo zuten; baña oni biaramonean beste batec anima ateratcencion, ta onela cijoacen, ta bata bestearen ondoren, asco infernuetara joanciran.

Eguia da, oiec Gentil itsu, edo abere, Jaincoaren fede, ta guizonen legue gabe, orrela bici, ta illciran. Nongo necazaricho prestu garbiac bere biciera, nequezcoa badere aienarequin trucatucoluque? Norc aien aguinde, edo asiera eroa aien azquen gaistoarequin naicoluque? Baña goazen Jaincoaren Gende, edo Pueblo maite, edo escogituari ondo beguiratcera. Oien Erregueac Jaincoaren Legue jaquiñ, ta milagro andiaquin cecustena, ceucaten: eta orrez batean biciera santu bat eguin, ta salvatu bearzuten.



ten. Baña Erregue orietatic cembat ondo bici, ta ondo illciran?

O contu larri, ta arrigarria! Escritura Santutic ateratcen deguna, iru Erreino izancirala. Bata amabi Tribu, edo Gendeena, bestea Juda-co, ta bestea Israel-co Erreguena. Lenengoan, Saul aurreneco Erreguea condenatuzan. David salvatuzan, eta Salomon-ez cer eguinzan ezdaquigu. Judaco Erreguac, bost salvatu, amairu condenatu ciran: ta beste biac nora ciran ezdaquigu. Israel-co Erregueac izanciran emeretci, ta emeretciac diranac condenatuciran. Ta Erreguiñac? O berri illun tristea! O zori gaistoco andreac! Milla Erreguiña, edo ascoz gueiago Fedeco Libru santuac contatcen dituzte; baña gucietatic alasse baçar bat Jaincoarenic, aleric santaric, bat ere salvatu zanic. Escritura sagraduac cõtatcen ezdu. 3. Reg. 11.

Orañ bada: gure Euscaldun pobrechoen artean, alaco Erregue norc izan naicoluque? Iñorc ere ez. Egun guchico Aguintari emen, ta deabruen esclavo betico infernuan. Ta emengo andre onen artean alaco dicha gabeco Erreguiña ceñec izan naico luque? Batec ere ez. Egun batzuetan beren gurari eragabeac cumplitu emen, eta guero betico tormentuac infernuã nai ta ez nai sufritu. Gure

Universidad de Deusto Biblioteca



re guizon prestu, ta andre garbiac beren pobrezan, Jaincoaren Leguea beren biotcetan gorde, paquean bici, ta ill, ta guero seculaco descansu, ta glorian, San Isidro, ta Santa Maria bere emaztearen lagun izan naiagodute.

### §. SAN ISIDRO, TA SANTA MARIA.

SEnar emazte santu oiec beren bear, neque, ta icerdiaquin, baña ceruan bezala, chit paquez, ta Jaincoaren, ta beren arteco amorio andian bici izanciran. Iban de Vargas, eta beste Madridco Jaun biren lurrac Isidroc bere contura artu, ta erabillicituen, baña bere artu emanetan beti zucen, leial biotz, ta escu garbiaquin. Ta au da necazari onen virtute señalatu, ta Cristau arteraco chitez bearra. Nagusi biaquin marabilla andi asco Isidrori guertatu, ta igarocitzaiozcan. Baña favore oriec Jaincoagandic merecitceco.

I. Isidro goicean goiz jaiqui, ta Eleizac bisitatcera, Mezac enzutera, ta Ama Virgiñari encomendatcera beti joatenzan. Au Jaincoa adoratu, ta esquerrac eman, ta bere biotz gucia, edo pensamentu, itz, obra, ta nequeac ofrecitcenciozcan. Ta, zuc ere



ere necazari ona au goizoro bearrera baño len, beti biotcetic: Nere Jesu Cristo Jauna, Oracio, edo Contricioco actua esanaz, eguin beardezu. Santuac guero Meza bat, bi, edo gueiago devocio andiaz icusi, ta adoratcencituen: ta Ama Virgiñari erregutcencion. Zuc ere, Nere Jesu C. J. esan, ta egun artaraco proposito firme bat eguin, ta iru Ave Maria, zu, ta zure echecoac Ama Virgiñari encomendatuaz esanitzatzu: ta zure espiritu, intencio, ta gogoaz Meza gucietan presente baceude bezala, Jauna adorezazu.

II. Jaungoicoarequin onela soseguz, devocio, ta amorio guciaz goizoro cumplitu, ta bere bearrera Isidro joatenzan. Baña, ò gure Jaincoaren contu, edo providencia, ta favoreac! Jaquiñez batzuec Santuaren Nagusiari esancioten Isidroc bearric eguiten etzuela: ta orra Isidro Jaunarequin Elizan cegoen artean, onen Nagusiac languille obrac, edo Ainguerubac beren idi uztarri zuri galantaquin pocic soloan bear eguiten, arrituric icusicituen: ta andic aurrera Isidro gueiago estimatu izanzuen. Orra Jaincoaren saria mundu onetan ere justuac nola artcendute. Bitartean aren emazte Santa Maria, echeco gauzai cobru eman, ta senarra bezala obra

obra onetan, Ama Virgiñaren. ta Santuen Ermitac garbitcen, apaiñtcen, ta arguia ipintcen ibilli oizan.

Baña, nola ecin icusia, ta guezurra munduan añ sobra dan, salatzalle guezurtiac, San Isidro bere nagusiarequin bezala, Santa Maria ere bere senarrarequin gaizqui ipiñi nai izanzuten. Baña Santnac eguia beguiz icusi, ta salatzalleai eracusteco, oiequin beguira cegoela, mirari andi bat igarozan: Santac, bere devociora cijoala, ibaia pasatu bearzuen: orretaco ciñatuzan, eta beste zubi gabe, bere mutilla urtan bota, ta aren gañean, alaco ibairic ezbaliz bezala, arguia, ta olio charroa escuan cituela igarozan. Milagro au beguiz icusi, ta guciac Jaincoa alabatu, ta Santari paquean betico utcicioten.

III. San Isidroc, bere icerdizco pobrea bazan ere, Santa Maria bere emazteari, larumbat, edo zapatu gucietan, Ama Virgiñaren icenean, ta amorioz, lapicoa pobreenzat eraguitencion. Añ fede bicia, ta añ confianza andia Jaincoari bere obretan eracustencion, noia Santuaren biotz garbi, ta inocenteac marabilla ascotan aguertuzuen. Zorroarequin errotara cijoala, campo, ta bide gucia elurrez beteac icusi, ta uso, ta chorichoac goseac iltcen, ta Jaincoari janaria



naria elcatcen: eta Isidroren biotz beraac ori ecin eraman, ta elurra quendu, bidea garbitu, ta combidatcencituen: atozte, chorichoac, atozte: orizute jaten. ta garia ugari bota, ta esatencien: Jaincoac ematenduenean, gucienzat ematendu: ta orretara orrela joan, ta Santuaren zorroa beti betea arquitcenzan.

Santu onen fede bici au ondo icusizan, ta milagro andiaquin. Beñ batean campoan ceudela, Nagusiari egarri andi batec eman, ta Isidrori esancion. Orduan Santuac bere aculuaz lurrari golpe bat eman, ta esancion: Bada, Jauna, Jaincoac naizuenean emen ura bazan: ta bereala iturri eder bat sortuzan, ta Nagusiorrec edanzuen: ta gaurco egunean ere, ascoren osasunaraco, badirau, ta San Isidroren iturria deritza.

Beste batean, garia garbitu, ta Nagusiari berea alde batera Santuac emancion. Urri, edo guchizco Nagusiac ceritzan bereari, ta guchiago otezan, esancion: Orra bada, Jauna, Isidroc: nere partea ere eramazu, ta lastoa niri indazu. Ala eguinzan; baña Santuac lastoa berriz aizatu, ta len baño ere gari gueiago aterazuen. Onelaco beste miligro andi asco Santuac bere fede, ta Jaunaren confianzaz eguincituen.

San

Universidad de Deusto Biblioteca

San Isidroren gari ereitea miragarria zan: Alea escuetan artu, ta era onetan esatenzuen: Jauna, zure icenean: Au zuretzat, edo Primicia, ta Amarrenenzat, ta erreitenzuen. Beste au, Jauna, Nagusiarequin guretzat. Beste au chingurri, ta chorienzat. Modu onetan ereñ, ta beti chit asco, ta ugari izatenzuen.

Pobreai, bera pobre bazan ere, bere janaria ere eman naizien. Beñ batean Eleizaco festan luzaro egon, ta Cofradiaco barazcarira berandu joan, ta bere janaria gordecioten. Santuac bidean topatucituen pobreac berequin eramancituen. An ceuden lagunac cioten: Bere combidatuoquin au cer dator? Isidro, zuretzat baicic eztago. Zaute paquean, esancien Santuac: Jaincoac emangoduenaz, ta zuec gordedezutenaz, contentu guera gu: maiean jarriziran, ta Jaincoac janaria gueitu, ta guciac milagrozco barazcaria galanqui janzuten.

Santuaren Nagusiac alaba bacar estimatu bat zuten, ta ori ill, ta chit penaz beteac arquitcenciran. Isidroc, bere jabeai cien amorioagatic, Jaincoari orien consueloraco alabaren bicitza escatucion, ta fede andiaz alaba ori uquitu, ta biciric jaiquizan. San Isidroc, ta Santa Mariac seme bat izanzuten,





ten, ta mutilcho ori ustecabean putzu andi batera erori, ta itozan. Isidro campotic echera zanean, emaztea desgracia orrequin chit triste arquituzuen: biac belaunico jarri, ta Jaunari semearen bicia escatucioten, eta bereala aoputzuraño ura azi, ta seme ori biciric Aita San Isidroc escutic artuzuen.

Onelaco marabilla andi asco Santuac bicizala, eta ill, edo cerura ezquero Jaincoaren gloriaraco, ta ascoren oneraco eguin izanditu: ta pobre zorioneco aberats au paquean bici, ta cerura joateco, Eleizacoac chitezco devocio andiaz artu, ta prestatuzan: ta bere echecoai Jaincoaren bildur, ta amore santua, ta aren legue, ta vorondatea beren biotcetan betico encargatu, ta soseguz, ta ceruco paquean Jaunari bere espiritua emancion: eta guero gure Aita San Ignacio, San Francisco Xavier, San Felipe Neri, ta Ama Santa Teresarequin egun batean dicha paregabeaz canonizatu izanzan. O cer lau Santu, gure Españacoac egun artan aguertuciran.

Eriaquin egon oidiran Cristavac, beste jolas gaisto, edo peligrozcoac alde batera utci, ta onela platica, ta ceruco conversacioac eguin beardituzte: eta orrelaco dira Santuen bicitza, ta Egemplo oiec.

Universidad de Deusto Biblioteca



Eta Achurlari Santu au onela icusi, ta norc gure Jaungoicoari milla esquer on, ta alabanza andi emango ezdiozca? O Jauna, ta zure Santuetan ceñ miragarria, ta zure obretan ceñ Santua ceran! San Isidroren biciera santu, ta onen obra on gucietan au ondo dacust. O necazari prestu au enzun, ta Jaincoaren aurrean eguiazco onra naidezuna! Biotz garbi, fede bici, ta vorondate leial batec Jaunaren beguietan, ta estimacioan cembat baliodezaquean, Achurlari santu onetan, ondo claro dacutsu! Ta David santuac dionez: nola, mundu zoroac ez bezala, pobrecho bat lurretic jaso, ta nequezco bat cimaur artetic atera, eta bere gloriaco Principe, edo Santu andien artean paratcen daquien. Ps. 112.

Onen antcecoa oraň lurrean, ta guero ceruan zu izateco, nere guizona, ceruco ispillu eder onetan ondo beguirazaite. Zure bicieran, nic esanal baño gueiago eguiequi cer quendu, ta cer ifiñi izangodezu: ta au bearbezala eguiten badezu nic naidedan adiña zorioneco, Santuaren guisa zu izangocera. Neque, ta icerdizco Santu oni bere obra, ta pausoetan jarraizoiozu: ta nere contu, Jaincoa seguru zure favore izango dezula, eta Ainguеruac pocic zuri, Santuari

tuari



tuari bezala, zure bearretan lagunduco dizutela.

Ay bada, Aita, esango didazu; guc ere Aingueru eder oriec bezalaco morroi, edo languille batzuec baguindu, gure aldapa gogor oien gora beretan neque guchiago eraman, ta icerdi ere guchiago emango guenduque! Ez orisse: ez, ene seme. Jaincoac gucienzat dio: „ in sudore vultus tui vesce- „ ris pane. Gen. 3. „ Batzuec batera, besteac bestera, gucioc nequez bici bear degula. Jaunaren sentencia da: Zure arpeguico icerdian zure ogui, edo arto pusca jango dezula.

Eguia da, zure oneraco bear baliz, Jaincoac bialdu, ta Ainguеruac bearrera pocic etorrico liraqueala. Baña cer? Orduan San Isidro Eleizara bezala, zu tabernara zucen, edo oquer joangociñaque. Alper nagui andi eguin, ta galduco ciñaque. Ez, Jauna. Jaincoac orrembat baño gueiago naidizu: ta bearra zuc galanqui eguitea naidu: S. Isidroren dicha bezala, zurea ere onetan dago. Oraň andreenzat ere beren lecio, dotrina, ta ceruco egemploa.

Universidad de Deusto Biblioteca



SAn Isidro guizonenzat bezala, onen emazte Santa Maria echecoandreenzat izanzan. Gure Jaungoicoac bere Eleizaco Campo zabalean, Santa Maria ceruco lore ederra bezala isiñizuen, edo tesoro andi campo orretan escutatua bezala gorde izanzuen. Santa onec, Loreac bezala, bere bicieran ceruco usai gozoa emanzuen: ta Tesoro gordeac bezala virtute gucien Ondasun andiac aguertucituen. Jaincoac bere doai, edo graciac, bacoitzari dagozquion era artan, ematendituela, dio San Pabloc: ,, Divisiones gra- ,, tiarum sunt. 1. Cor. 12. ,, Eta Jesu Cristoc berac dio: ,, In domo Patris mei mansiones ,, multæ sunt. Ioan. 14. Ceruco Corte, edo Palacioan jarlecu ascodira: estadu, ta bicimodu gucietan Santuac dira: eta andre ezconduac, ta Santa Maria bezala, pobrechoac ere santac ez izateco aitzaquiaric ezdute.

Santa andi onen Jaincoarequico fede añ aundi, ta bicia, esperanza añ firme, ta segurua, ta are gueiago aren biotceco jaincozco amorio santu irazaquia, norc ondo esan dezaque? Bere fede, ta confianzarequin aimbeste marabilla eguincituen: ta bere amorio andiaç bere biciera pobrean aimbeste obra on,



on, gucien egemploraco, eraguin ciozcan.

Santa escutatu onen umildadea cembat zan, Jaincoac berac daqui: biotz umil onen sustrai barrengoa añ seguru ondeatua izan ezbaliz, alaco ceruraño co virtuteac andic irten, edo aguertuco etciran, eta Jaincoac alaco favore, ta erregaloac eguingo etciozcan. Emendic aren obediencia guztizco ura, bere senar San Isidrori, aguintcencion gucian, Jaincoari bezala beguiratu, ta obeditceco. Bere bururtzat guizon santua artuzuen, edo Jaincoac emancion: ala beste vorondate, ta juicioric, bere senarrarena baicic Santac etzuen. Emendic dichazco eche pobre artaco, ta ezcondu santu oien arteco ceruco paque, edo lurreco gloria bici ura. Emendic obra onac eguiteco Santaren, etci guciac baño gozoago zan devocio ura.

San Isidroc aguindu, ta larumbat, edo zapatu gucietan, Ama Virgiñaren ouran, ta icenean, pobreenzat eguin oizuten aparteco tupia, edo elcea, cer bere biotceco devocioaz Santa Mariac eguingozuen? Ori jaquiña da. Orregatic beñ batean, diote, pobrechoai beren lapicoa partitu ezquero, Jesu Cristo pobrearen tragean bere Ama Virgiñaren sopac jatera bezala etorrizala. Limosna escatuzuen: ta Santac gucia eman bazuen ere,

Universidad de Deusto Biblioteca



ere, tupia icustera joan, ta betea arquituzuen, ta Jaungoicoari, ta beste etorriciran pobrechoai pocic gucia berriro emancien.

San Isidroc, eta Santa Mariac misericordia beren biotceran ceucaten: eta Escritura sagraduac, edo Tobias Santuac ciona: „ Aberatsa bacera, edo asco Jaincoac eman badizu, ugari emazu: ta guchi badezu, aldezuna gogotic emateaz preciazaite. „ Jesu Cristoren Evangelioco sentencia ondo gordetceco bacequiten, ta juicioco egunean Misericordiazco obretatic Jaunac mundua, ta bacoitza juzgatuco duela. Beren pobrezan, alzuten baño ere, limosna gueiago ematenzuten: ta ala milagro andiac Jaunac orretaco eguitencituen.

Anay arrebac bezala garbiro, ta aparteco bicitza eguiteco biac conciertoa eguinzuten: ta Santa Maria oracioan, ta obra onetan gucia Jaincoari, ta Ama Virgiña emancitzaion. Madrid en aldean Caraquiz ceritzan erricho batean gueratuzan, ta Ama Virgiñaren Ermita bat bere contura artuzuen: eta arrezquero Santa Maria dela Cabeza Ermitari deritza: ara joateco zan ibaiac, legua bian zubiric etzuen: ta ara, ta ona igarotceco Santac bere mantilla bota, ciñatu, ta aren gañean, bearzanean ibaia, alacoric ezbaliz bezala, pasatcenzuen.

Beñ



Beñ batean orrela Isidro bere emaztearequin ur gañean cijoacela, Ama Virgiña etorri, ta berac bezala, poliqui beste aldera biac eramancituen. Ta leorrean belaunico biac jarri, ta Jaincoari, ta bere Ama maiteari esquerrac eman ciozcaten. Biotza ceruan zuela Santa Maria beregandic campora, edo arrobaturic campo, ta Ermitaco bidean oracioan ibilli oizan. Alde aietaco artzai, ta unaiac Isidrori contu eman, ta andrea gaizqui, edo pauso gaistoetan cebillela salatuzuten. Bacequien Santuac bere emazte onaren berri. Baña nola bigarren aldian ere Santa acusatuzuten, salatzalleac desengañatceco berequin eramancituen. Santa Maria, oitu nola, bere argui, ta olioarequin oracioan etorri, ta ciñatu, mantilla ibaiean bota, ta aren gañean aisa pisatcen, ta pasatcen, an ceuden guciac arrituric icusizuten: ta Santua chit contentu, ta Santa bere paquean gueratuzan: ta santatzat gueroago, ta gueiago iduquizuten.

Santa pobre dichaz bete au beti paquean bici, ta pequean ill, ta cerurazan. Baña ceruan lurrean baño ere gueiago San Isidro bere guizonari dion amorio, errespeto, ta onra Santac cerutic jachiric ondo beñ batean eracutsizuen. San Isidro canonizatceco cebiltza-

Universidad de Deusto Biblioteca



tzanean, orretaraco diru pusca bat emateco promesa Madridco andre aberats batec eguin-zuen. Baña nola eguiten, edo cumplitcen etzuen, Santa Maria aguertu citzaion, ta andre ori Santac esancionarequin bildurtuzan, ta bereala promesa cumplituzuen. Guero Madriden pintaturic cegoen Santa Maria icusizuenean bere ala, esanzuen andreac: Ausse da cerutic aguertucitzadan Santa.

Oiec, eta onelaco beste gauza on, ta Santuen egemploac eri, edo iltceco daudenen aurrean contatu beardira: onelacoac consolatcen, fedea piztutcen, ta ceruraco esperanza, ta gogoa ematendute. Guizon, ta andre pobrechoac, eta zuen nequeaz garbiro biciceratenac: animazaitezte egemplo, ta milagro oiequin: zuezaz Jaincoac daucan contu beticoa, edo bere Providencia amorosoa oietan eracustendu: eta bere biotceco amorioaz zuei nola beguiratcen dizuten, ta nola Aita maiteac bezala gobernatcen zaituzten ondo claro icusten dezute.

Munduco Erregue, ta aberats andi asco baño ere gueiago zuec consolazaitezte: bada orra orrelaco Erregue, ta lurreco aberats andi nai gueiac alde batera utci, ta gure Españaco Corte chit andico Patroi San Isidro Achurlari pobrecho bat eguindu: eta gure Erregue, ta Erreguiña andiac, ta Mundu biren Jabe, edo lurraren gañean diran Erregue, ta Jaunic andienac Isidro, ta bere emaztearen oñetan, edo aurrean belaunico pocic jartcendira, Jaincoac Santuetan ezagutu, ta adoratcen, ta beren plegarietan oriec Bitartecotzat artcendituzte. O gure Jaungoicoaren poderio, ta jaquintasuna! Madridco Corteco Patroi Necazari, edo Achurlari bat; eta Francian Parisco Corteco Patrona, edo Matrona Santa Genovefa Ardatzle, edo Gorulari bat eguincituen! O cer Jaun, Nagusi, edo Jabe ona, ondo servitcen badezute, pobreac dezuten.



### §. GURE NECAZARIEN ERIOTZAREN GAÑEAN *beste Consideracio onac.*

JAungoicoa alabatceco gauza da, oiec nola iltcen diran icustea. Ascoc beñzat, San Isidroren guisa, dicha andia dute: eta Jaunaren misericordia nolerebait arguiago oietan aguertcenda. Nola guri jaten, edo jatecoa ematearren, guizagajoac uda, ta negu, neque, ta icerdien azpian beti dabiltzan: ta beren bici nai, ta bici bearraren quezca, bildurra, ta arrastaca baicen ezduten: ala biciera garbi orren saria, orien eriotza datorrenean, quezca, ta bildur gabe, oriec aisa-

go

Universidad de Deusto Biblioteca
go iltcea dala, icustenda. Gure Jaincoac, Aita onac bezala, dacus, oiec beste asco bezala, munduco artu eman, questio, edo peligroetan, beren bician nastu ezdirala: ta ala eriotzan bere Ainguеruaquin amparatcen ditu, eta deabru çhar tentatzalleai oien buruco aldera joaten uzten ezdie. Ara nola.

Sacerdote Jaun batec mesedez beñ escatucidan, agure gasso bat caridadez confesatu bear nuela, ta berac aren echera eraman ninduen. Guizon orrec, ez bereala ilteco, baña erremedio gabeco gaitza ceucan: eun, ta iru urte gañean cituen. Confesio genaral, edo bici luce orretacoa eguin naizuen. Bada, cer ustedezu? Ordu erdi bat ozta eguin nuen, aren confesio andi ori bere gustora eguiten: ta orren laster, ta aisa contuac ajustatu, ta Aingueru baten guisa, edo choricho bat bezala chit aleguere gueratuzan, ta ustezuen bertatic ceruan cegoela.

Aita: ori nola izangozan? Nic esangodizut. Eun ta iru urte orietatic, urte bacar batean Jaun nere adisquide bat gazte zala servituzuen, ta gañeraco urte luce eran beste artu emanic izan etzuen. Beti Achurlari, ta bear eguiñaz garbiro bere arto pusca irabaci, pobrezan jan, ta beti contentu zan. Ta aren arpeguia icusi bacendu, arritucociñan: añ alai, ta


ta colore bici ederraquin cegoen, nola oguei urtecoa zanean, edo galai gazte bat bezala.

Onela bici, ta ill etzan, Ama Santa Teresac bere Bicitzaco Libruan contatcen duen Gaztelaco Necazaria. Au ere bere demboran bear eguiñaz pobrezan contentu bicitzan: baña aren alabearrez, guchien ustezuenean, campo, edo soloan lurpean gordericaco diru andi, edo tesoro bat arquituzuen. Bere ori echera isillic eraman, ta cer eguin etcequien: non baño non obeto gordeco otezuen, quezca, ta bildurra baicic etzuen: ta len pobre aleguere zana, guero aberats triste eguinzan. Gau, ta egun sustoz beteric bere diruan beti pensatcen, alaco naigabe, ta penac emancioten, non biotza illundu, ta ez jan, ta ez lan, beste gaitz bague ori ori eguin, erquitu, deseguin, ta iltzan.

Emendíc, zuc Necazaria, edo onetan Jaincoaren Aitazco Providencia, edo gobernua icusi beardezu: eta finistu, edo ondo jaquin, ondasunac, edo pobreza zuri ematea Jaunarenzat gucia bat, edo berdin dala, ta berac zuzaz obeto beguiratcendula. Aita da, ta Aita gucien onena: aren antcecoa izanzaite. Batzuei ondasunac ematendiezte, misericordia, ta limosna, Jaincoaren icenean eguin, ta orrela beren pecatuac pagatu,

Universidad de Deusto Biblioteca



tu, ta çerua bide orretic irabacidezaten.

Besteai bearra, pobreza, edo ondasunen falta Aita onac bezala ematendie, beren bearraz bici, ta salvatceco. Batari bezala besteari diru, edo ondasunac ematea, Jaincoarenzat berdin da, ta ecer costatcen etzaio. Baña ah! Bere doaiac partitcean, berac obeto daqui cer eguitenduen: ta icustendu, zu ascorequin condenatuco, ta guchirequin salvatuco cerala. San Agustin-ec ederqui, berac bezala, diona: obe da guchiren bear zu izatea, ecen ez zuc asco iduquitcea. Eta nic orañ diot: gure dicha eztagoela guchi, edo asco iduquitcean; ezpada Jaunaren vorondatea gucian eguitean.

Au ondo eguiteco, seguruan jocatu, ta ceruan ondasun andiac irabazteco, bitartecoaz baliatu beardegu: esan naidet, Ama Virgiña, ta Santuaz. Eri bat, orrela luzaro dagoenean, consolatceco, ta dembora provechuz, ta gozotoro pasatceco, cer gauza obeagoric, Errosario santua baño? Onen iru parteetatic bat ondo errezatcea, Ama Virgiña guciz santari Lorezco coroa eder bat presentatcea da. Baña afaldu baño len, loac iñorc tenta ezdezan, ta chit sosegúz, ta merecíduen devocioaz, Errosarioco indulgencia andiac irabazteco, errezatu bearda. Lenago ondo ciñatu, Contriciozco actua eguin, ta guero Jaincoaren, ta bere Ama santuarequin itzeguitenduenan bezala, batec esan, ta besteac eranzun.



Jaincoagatic, bada, ta Ama Virgiñaren Biotceco gozo, pena, ta gloria, Errosario santuan gorderic ditugunac gatic, erregutcen dizutet, nere Christau, ta Ama Virgiñaren umeac, arren emendic aurrera cerúco devocioric ederren au, Errosario Santua, soseguz, ta devocioz errezadezazutela: ez mar mar mar, beste lurreco gauzac bezala, ez prisaz, nastuaz, edo gucia trabucatu, ta naspilla bat eguiñaz.

Tolosaco Santa Marian Oficio Divinoac, ta Elizaco gauzac, nola çeruco antcera, chit ederqui, ta Magestade bere diñacoaz eguiten beti icusi ditudan, ala, ta chit consuelo andiaz icusinuen, Errosario santua Ama Virgiñari ofrecitcen. Sacerdoteac beti Pater nosterra, ta Ave Maria errezatcendu, ta beti gendediac, edo Puebloac eranzutendu. Ta Aldareac, edo beste devocioac eguitean, ori bera erri gucietan oida. Echeetan beñzat, nerequico batec beti Aita gurea, ta Ave Maria esan ondo, ta besteac beti eranzutea, obeto deritzat, ala devocioraco, ta ez trabucatceco, nola contua zucenago iduquitceco. San

Universidad de Deusto Biblioteca



San Josef guciz doatsüa, S. Miguel, ta Aingueru goardacoa, zure iceneco, egun artaco, ta beste Santuac Bitartecotzat artu bearditzuzu. Baña errezo lucez ez beñere cargatu, presaca, itotcen, ta gaizqui eguiteco. Obeda, diote Santuac, Ave Maria bat devocioz ta ongui ecer ez asco gaizqui zuc errezatcea. Ara egemplo ederra.

Ama Virgiñaren devociozco alaba maite Religiosa batec Amabost Misterioen, edo Errosario osoa egunoro errezatceco devocioa zuen. Baña, nola beste oficio, ta eguiteco asco Echean cituen, ascotan lasterca Errosarioa, ta ez bearzan erreverenciaz, errezatcenzuen. Beñ batean orrela cegoela, Ama Virgiña, ceruco Erreguiña ederra, consolatcera etorri, ta amore andiaz esancion: Ez, ene alaba: ez ori orrela eguin. Obeda, ta Obedienciaco zure lan, edo eguitecoac ongui, Jaunaren vorondatea dalaco, eguiñitzatzu: eta niri contentu emateco, egunoro soleguz, ta devocioz nere Errosarioaren parte bat errezaezazu, ta niri gusto emangodidazu.

Guciz miragarria da, gure Aita S. Ignacioc bere Egercicioetan, laugarren astearen azquenean, Pater noster, ta Ave Mariaren gañean oracio eguiteco eracustendituen





tuen ceruco moduac: eta itz bacoitzaren gañean cer pausa, devocio, ta espiritu andiarequin eguitenzuen. Gauza ciertoa da, Eriac, ta orien an dauden Lagunac oracio oiec biotceco sosegu, ta devocioaz errezatuaz, dembora obeto, ta errazago pasatu, ta animen provechu andiago ateracodutela.

Zure echean, ta zure oican zaudela ere, Ave Maria, ta Salve bacoitza errezatceagatic Indulgencia, edo egun ascotaco barcacioa, noiz nai, ta beti irabacicodezu. Orobat JESUS, edo MARIA esaten dan bacoitcean burua macurtu, edo devocioaz beratcean, Indulgenciac irabaztendituzu: eta onelaco Jaunaren gracia andi añ erraz edoceñec irabaci ditzaqueanac, arrazoiagoda zuc, Eria, ez galtcea. Ap. Viva de Indulg. fin.

## §. *AMA VIRGIÑAREN DEVOCIOA.*

GUre Necazari onen artean beren Parroquietaraco amorio, ta devocio andia jaquiña da, ta campotar guciac ori icusi, ta milagrotzat bezala contatcendute: ta ez bacarric Meza Nagusi, ta Vesperetara joatea, ezpada Virgiña Ama Santaren Erro-

Universidad de Deusto Biblioteca



rosario, ta Aldareac errezatcera. Fede, ta devocioaren señale andia da au: ta argatic munduco beste Erreino, ta Provincia ascotan baño, gure oietan Parroquietaco Eleiza gauzac ederquiago, ta piedade, ta devocio andiagoaz eguitendira.

Au escribitcen dedan eguna Ama Virgiñaren CONCEPCIO, edo SORTCE guciz garbiaren eguna da, ta gure Provincian berezquirozco egun señalatua. Ama Virgiñaren Mysterio, Festa, ta devocio gucien asiera gozoa da: ala gure Provinciac bere amparo, Ama, ta Patrona chit maitearen eguna bezala celebratcendu: ta zorioneco bazter onetan jaiotcen diranac, amorio, ta devociozco gure Ama guciz santaren marca onequin jaio, ta titi edo bular gozo onequin acitcendira.

Orregatic Confesore zelodunac aimbeste, ta añ ederqui beren oñetara datocenai Ama Virgiñaren Concepcioaren devocioa, ta onen erreverencian, beren anima, ta gorputzac garbiro gordetceco iru Ave Maria egunoro errezatcea encargatcendie. Ala Maisu Avilac, ala gure Misioneroac guciai eracusten, ta beti aguintcendie.

Baña Ama Virgiñari gusto chit andia eman, ta bere Concepcio garbiaren onrare-



fequin zure irabaci andi bat erraz izan nai badezu, goicean jaqui, ta bereala, Jaincoari esquerrac eman, ta zure anima, pensamentu, itz, ta obrac Ama Virgiñaren escuetatic ofrecitu, ta iru Ave Mariac errezazu bearditutzu, Trinidade guciz Santuaren alabanzan, esanaz: „ Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren icenean, iru Ave Maria „ oiec, gaur, ta beti pecatutic gordenazan: „ paquezco bicitza bat, ta eriotza on bat bere „ gracian emandizadan. „ Eguerdian beste iru Ave Maria orrela, ta beste iru arratsean Ama Virgiña erreza zaiozcatzu.

Ascoc, Maisu Avilac cion bezala, Ama Virgiñari esaten, ta escatcendiote onela. „ Nere Ama Virgiña, zure Concepcio garbiagatic, ta zure garbitasun ederragatic ten„ tacio gucietan amparanazazu, ta gorputz, „ ta animan garbiro gordenazazu. „

Nola Virgiña Amaren Festa gucien sustraia aren Concepcio garbia dan, ala beraren Doloreac, eta Angustiac aren Mysterioen atceneco Pausoa bezala dira. Badaqui berac ondo, ceñ anciñaco amorio, ta devocioa gure gendeen biotcetan Ama Virgiñaren Doloreen au dan: bere Semearen Bicitzan, ta Eriotzan, gure pecatuacgatic igarocituen zazpi Doloreetaco, ta Gurutcearen oñean bere

Bio-

Universidad de Deusto Biblioteca



Biotceco Seme Jesus maitearen ondoan, aren agonian, ta bera iltcen, ta illic icusi, ta bere besoetan artuzueneco bere anima josicion ezpata zorrozaren, ta orduco penen memoria, ta devocia andia da.

Gure Aita San Ignacioc au ondo eracutsicigun: Bada Ama Virgiñaren escuetatic bere biotza Jaincoari emancion ezquero, biotz orren gañean Doloreetaco Virgiña, edo Angustien Imagiña beti Santuac berequin ecarrizuen: eta Aita Araoz bere Aideari despedidan ori eman, ta esancion, favore asco, ta andiac orrezaz eguinciozcala. Argatic San Ignacioren Biotceco Ama Virgiña ori, Zaragozaco gure Eleizan devocio andiaz veneratcenda.

Azpeitico Erri noble dichazco onetan beste asçotan bezala, Ama Virgiñaren devocio au, norc daqui noizcoa dan: bada Loyolaco eche santu onetaco Oratorio zar, edo anciñacoa ere Angustien, ta Dolorezco, ta Piedadezco Amarrena zan, ta orañ ere da: ta arrazoi andiarequin guciai, ala osasunean, nola gaitz gucietan, Confesore Jaunac chit ondo eguitendute Ama Virgiñaren Pauso, ta Mysterio orien devocioa aconsejatcean, eta Ama maite onen Angustia: ta penen memoria gure pecatuen biotceco damu andiaz, guc



guc eguitea baño gauza gozoagoric aren Biotz santuarenzat ezta: eta aren doloreetan: gure gaitcen, ta penen consueloa arquitucodegu. Gorainci oiec Ama Virgiñaren icenean eriac consolatceco eraman beardira.

Orañ atceneco orduan quezca, ta lanic andiena emango duten gauzaren batzuen gañean, aviso bearteanac eman bearditugu.

### §. ERIOTZAN NORC BILDUR IZAN BEARduen.

GUre gendeen artean batzuec beren jabe dira: beren buru, edo personen contua baicen ezdutenac: ta azquen ordu artan oiec cer eguin, edo quezca guchiago oidute: ala ondo iltceco obeto daude.

Biciera bi, edo persona mota bi dira, ala bician, nola eriotzan cer eguin gueiago dutenac. Aita: oriec ceñ dira? Echeco buru, ta Errico buru izandiranac. Esan naidet, Guraso, ta Nagusiac, Alcate, ta beste orrelacoac. Eta orietatic asitcenguerala, gure Necazari prestu asco beren Errietan Alcate, Erregidore, ta Errico Guraso, edo Nagusi bezala oidira. Oiec obligatuac daude, ta ez bata zuc Erriaren artu eman, edo errenten gañatu iduqui, eta ondo oriec artu, edo

 ema-

Universidad de Deusto Biblioteca



ematera; ezpada ta are gueiago Jaincoaren Leguea Errian ondo gorde erazotcera: lenengo berac egemplo ona emanaz; eta guero Errian, edo Erricoetan diran animen condenacioco beatztopa, edo escandalo, eta pecatuen bide, ocasio, ta peligroac celo andiaz quenduaz.

Jaincoac bai, ta bestec ezdaqui, Errico festetan, plaza, edo bazterretan, tabernaco edanean, joco luce, ta jolasetan, echeraco desoretan, gabazco libertade, ta deabruen iscambilletan, cer pecatu icaragarriac eguitendiran. Ta gaitz oien sustraia, ta oriec ez ebaquitcea, edo ez erremediatcea, ta gucien culparic andiena, chit ascotan Justiciaco Jaunac dute. Baña oiec, Jaincoaren ordeco Ministro fielac bezala, egemplo ona eman bearrean; jocoan, edaten, ta desoretaraño egotean, aurrenecoac, ta gaistoenac berac badira, cer izangoda? Errico buruac orrela badabiltza, beste ondorengoac nola ibillicodira? Guizaseme, ta mutil gazteac ori icusi, ta cer icasicodute? Nola errespetoa iduquicozaie, berac beren buruai galtcen badiote?

Gure Provincia guciz Nobleac, orrelaco Jaincoaren ofensa andiac, ta Justiciaren lotsa, ta bildurra galduric icusi, ta gabazne-Ermitetaco festa eragabeac condediaz,





quenduditu, eta arrazoi andiarequin. Baña asco Alcatec, Jaincoaren, Obispo Jaunaren, ta Provinciaren Legue justuai, bearbezala beguiratu ez, ta beardan balore, ta animoaz artu gabez, festa eragabeac eraguin, edo eraguiten larga, ta cer calteac icusten dira? Ta icusten ezdiranac non dira? Ah! Oriec are gueiago, ta andiago dira! Gucien Juezac gucia dacus: ta Alcate, ta Ministroac contu emangodiote.

Gauza ciertoa da, Jaincoac, Ama Virgiñac, eta Santuac Eleizaco festac fedeaz eguitea naidutela. Baña deabruac, ta aren bandoco, edo lagun diranac, festa oriezaz baliatu, ta Santuē aitzaquian (ta au Cristau artean norc finislezaque?) fede, ta lotsa gabe, Jaincoaren ofensa nazcagarriac, ta Santuen desonra itsusiac nai edo eracarten dituzte. Eta orietan joco lucé debecatu, idi tratu falsiazco, tabernetaco trampa, ordiqueria, torpeza, animen, ta errien calte jaquiñen contu Jaincoari norc emangodio? Alcate, edo Errien Guraso nagui, ta zorigaistocoac. O cer contu estua, cer juicio, ta Justicia gogorra oiei beguira dagoquien! Jaincoaren Justiciaco Ministro izateco, ezta asco bara artcea: bearda ori jaso, ta zucen gucian erabiltcea.

Universidad de Deusto Biblioteca



OIec, gorputceco alimentu bearra umeá emateco bezala, tá are gueiago animetacoa emateco dute obligacio andia. Lenengo oriec ondo aci, tá ecitceco egemplo ona, ta bigarrena dotrina ona eman beardie. Dotrinan, Fedeco gauza, ta beardiran oracioac ondo eracusteaz gañera, aditcenda, Jaincoaren Leguea ondo gordetceco beardiran pauso onetan, bildur iantu, ta usadio onetaco bidea eracustea, eta pecatuen peligro, ta lagun, edo encontru gaistoetatic aparterazotcea: aditcenda Sacramentuen usuera, edo ascotan confesatcea: dotrina icastera, Sermoiac enzutera bialtcea, ta berai ondo dagozquien lagun Cristau onetara joatea: goiz echera etortcea, gaizqui eguiteco, ta esateco mañac, birau, ta maldicio, joco luce, ta ibillera gaistoen griñaric ez artceco, edo utcierazotceco, ta beren borondate eragabe, ta maña aldi gaistoac ucatçeco: eta onela chiquietatic gucian Jaincoaren bildurra, errespeto, ta amorioa orien biotcetan sartcea.

Onelaco gauza, ta Dotrina guciz bearren gañean, abereen guisa, asco guraso baldan lasaiegui izan diranac: ah! ceñ estu ta larri eriotzan arquitucodiran! Araco amatzar ero gaztetan gaizqui eciac, ta arin, ta lasai oituac, be-



bere alaba zoroari aisa lajatcendio, festetan, ta erromerietan ibiltcen: eta norequin? Sobra daquizute: lagun gaisto, nesca, ta mutil galduaquin. Ta guero? Cer pecatuac? Cer calteac? Cer negarrac? Ta orañ, au escribitcen dedan demboran, negu alderonz zuen eche barrumbean bertan, Necazarien zori oneco, edo gaistoeneco arta zuriquetan, gurasoen culpaz, cer contuac, zer jolasac, cer triscac, cer libertade eragabeac? Eta azquenic mutil deabruac arguia itzali, edo atcendu, ta araguiaren lujuriaco infernuco suac, eta garrac irazaquitcendira. Ah guraso ez fede, ta ez Legueco galdu bearrac! Cer infernu bicia eriotzan!

Eta Confesore celosoac orrelaco Amari bere oneraco cerbait esaten badio: aleric malmetitu gabe, ta alacoric ezbaliz bezala, eranzutendio: Ay bada, Jauna! Cer naidu? gazteac izan ero oriec: eta malicia gabeco zoroa nere alaba. Baña gu ere orrelasse izan guiñan, ta ezconduguiñan. Ona deabruzco errespuesta. Ala gaizqui, amatzal itsua. Ceren zu galdu, ta pecatuz bete, ta ezconducíñan: zure alaba tristea ere orrela ezcontcea naidezu? Ah Ama, otso, ta artzac baño zure alabarenzat gogorragoa! Ta deabruac eguindaco ezcontza ori nolacoa irtengo, ta izangoda?

Universidad de Deusto Biblioteca



goda? Deabruzcoa, ta infernucoa. Argatic, alaba gaizqui ezcondu, ta echera biurtu, esan oida. Alaco bicierac icustendira.

Cimenduco lenengo arria deabruac ifintcenduen Echea, norena, ta nolacoa izangoda? Ya dacus edoceñec: deabruarena, ta deabruzco Echea. Bada zuen, eta orrelacoen ezcontzac ori bera. Çer erremedio bada, Aita? Gurasoac nai badute, au erraza da. Arto zuriqueta, gari edo arto jorra, ta beste orrelaco gazteen lanetan, zuen alaba, edo nescachac bacarric ez fiatu: zuequin, ta aurrera auzocoac aparte bialdu mugonez, edo eraman, ta mutillac gueroago aparte dijoacela: orien jolas; pauso, edo bideetan, zuec errespetoaz beti egotea, erremedio segurua izangoda.

Fede guchico, ta buru gabeco Ama ascoc libertade gueieguiz, errespeto, ta bildur gabe, alabac gura dituzten maña gucietan acitcendituzte: ta gaizqui eciac bezala, beren zartceraco arrimo on guero izan bearrean, gurasoen tormentu gogor izan oidira. Chiquietatic itz, edo icen gaistoac esaten berac eracustendie umeai, eta guero usadio ori quentcen erraz ezta.

Bular, edo titia artcen daudenetic ardora oitutcendituzte: eta Bizcaian ezpanac busti, ta



ta emen ezpañchoac busti, ta mama gossoa da esanaz, ardoa ematendie: eta guero? Ay ama choroac! Orrelaco gabe ere, alamiase ez bildur; zuen alabac edaten icusicodute, ta acitcean, guiza artean ere, oiec adiña, ta oiec beceñ lazqui, ta galanqui, alabacho oriec ucondu, edo ucalondoa goratcen icusi, ta jaquingodute. Ara nere Ama Santa Monicari cer igarocitzaion, ta San Agustin bere semeac Amaren aotic nola çontatcenduen.

Orretaco jaquin beardezu Monica guraso chit prestu, ta Cristau onen umea bezala, Jaincoaren bildurrean aci izanzala: chiquietatic bera cetorren Jaincotia, modesta, ta chit devociora emana. Eleizara bere naiera zuen, ta icusteco omenzan, bere bazterrean ondo jarri, ta cer fede, ta erreverenciaz gueldi gueldi egon oizan. Onelasse nainuque nic gure gazteac, eta andre guciac, Eleizan, batera, ta bestera ibilli gabe, ondo lecu batean jarri, beñ ondo ciñatu, ta beguiac lurrean, edo ichiric devocioz egotea. Monicacho dembora artatic betico biotz beraa, ta limosnari andia zan, ta pobreai bere janaria ere eman oicien.

Monicaren Aitac, aurra zuenetic Emacume contuzco, chit on estimatu bat zeucan echean

Universidad de Deusto Biblioteca



echean; eta bera ondo acizuenari bezala, Monicaren aciera ona aguinducion: Santaren Ama Cristoren sierva zan, dio San Agustinec; baña edadeco nescach on au chit asco alabatcendu. Onec Monicari aurqueria guciac quendu, ta gurariac ucatcenciozcan: berearequin irteten utcitcen etcion, ta gauza chiquietan ere bere vorondatea autsitcencion, ta Jaincoarena eguitera saiatcenzuen. Monicac, jatorduaz campora egarriac itotcen cegoela esanagatic ere, ura ucatcencion.

Ara esatencion: gogoac ematean, aurrac, orañ ura naizute, ceren ardoric ezdezuten: baña ezcondu, ta guero Echandre, ta ardoaren jabe ceratenean, edatera oitucocerate, ceren gurariac indar andia duen. Monicachoc au aditcenzuen, ta orregatic ere ardoa edatera nola eguinzan Agustini berac esancion. Nola aur bici ecertaco, edo ascotacoa, ta doncellacho beguiratua zan, gurasoac nescamearequin, edo bacarric, ardo esque bialtcenzuten: ta Monicac justatcen bezala, charroan ardoa artu baño len, churrut bat artcenzuen, ez gueiago, ceren ardo zale etzan: lenengoan gustoric artcen etcion: eta bere bicitasun, ta juquin naiac, malicia gabe, eraguitencion.

Baña



Baña mama gassoa zan, ta uste, edo senti gabe, Monicacho oituzan, ta guero ontci, edo baso chiqui bat betea edatera eguinzan; ta onela zaletu, ta ardoaren deseo eragabea sartucitzaiola, dio Santac. Ah cembat gazteri au bera egunoro bicio itsusi onetan, ta beste libertade, ta maña gaistoetan, senti gabe eransi, edo guertatcenzaio? Non zan orduan Guiltcera zar juiciozco Monica ondo acitcenzuena? Ay Jauna, dio emen San Agustinec! Ori, ta Aita, ta Ama beguira etceuden, baña Zu bai! Ta zure ontasunac Monicari erremedioa emancion.

Echeco mirabe, edo nescacha gazte batec Monicaren aurqueria onen berri bacequien; baña nola asco naicioten, aurra gurasoac asti, edo zati etcezaten bildurrez, isillic estalcenzuen. Alaco batean, guchien ustezanean, orra non Monica, ta nescach ori aserratuciran, ta onec bere suan itz batetic bestera Monicari besteen aurrean esancion: Quen ortic, ordi char ori, ta mosscortceco ardoa edatendezuna. Onela bere charqueriarequin arpeguian eman, ta desonratuzuenean, añ lotsa, ta pena andia Monicac artuzuen, non bere bicico ardoa ala edatea utcizuen.

Ah Jauna, azquenean dio San Agustinec:

Zuc

Zuc obeto eguincenduen : bada bataren gaitzetic bestearen ona : ta nescacharen alerretic Monicaren paquea ateratcenduen ! Ta au gucia beste gauza on ascorequin Ama Santa Monicac Agustini, ta nere Santuac bere Confesioetan guri contatcendigu, gure culpac ondo confesatcen, ta erremediatcen guc icasteco.

Ta cembat Monica chiqui onelaco griña, ta miñaz bereac, baserri orietan, ta ez guchiago caleetan otedira? Andi echetan peligro gueiago, ta are andiago oida. Deabru charraren estalqui bat faltaco ezta, ume chiqui gaitz gabecoen orrelaco lanac estali, ta gaizqui acicodituena. Ta guero? Erac dacarrenean, mama gassora eguin, ta Monicaren guisa, ardora oitutcendira, ta ori senti, edo ustegabe. Ta cembat bider gaitz eguin, ta beguichoetan iguerri, ta besoetan artu, ta esatendie: Enechoa, au cerda? Atoz ona, nere aurra: galdua zaude, gaitzac eraguindizu: otsoac janzaitu. Ta aurra isillic oiaren gañean bota, ta cantua igaro, ta larridiqui artean, an dagoela?

Ah guiltcerac! Ah gurasoac non cerate? Eta orrelaco alabachoa, Monica bezala lotsatu, ta erremediatcen ezpada chiquitan, guero aci, ta ezcondu, ta ardoaren jabe danean cer

cer izangoda? Orduan, onraric, eta lotsaric gabe, ascoren desonra, ta lotsarequin edale galant itsusi bat izangoda.

Beguira ondo gurasoac zuen alabachoen, ta ceren animaz, nerequin, ta nola aci, ta oitutcendiran. Bear ezdiran gauza asco zuetatic icastendituzte: beguira cer esaten, edo eguitendezuten orien aurrean, ta nola: umeac gucia zuen guisa eguin naidute, eta gaitza, ona baño, lasterrago, ta errazago eransicozaie. Zuen aurrean baño, echeco ondorengoen artean are peligro gueiagodute: orien jolas, joco, ibillera, ta elaera libertadezco Joietan, Jaincoac bai, ta bestec ezdaqui, cer mañac, cer siñuac, cer contu, itz, ta platica desonestoac, icusi, enzun, ta icastendituzten: lenengoan gaitz gabe, inocencian; baña guero beguiac gaitceraco idiqui, ta maliciaz. Erremedio guztiz andia gurasoac, da zuen alabac ez bacarric, edo lagun gaistoaquin fiatcea: oiec intencio gaistoric ez iduquiarren, deabruac beti du intencio gaistoa.

¶ Orañ Ezconduen paqueraco Dotrina.

## §. *EZCONDUEN JAINCOZCO BICIERA.*

GUre Necazariac, eta ez guchiago aberats, edo andi echeetaco Ezconduac Jain-

Universidad de Deusto Biblioteca



Jaincoa ondo servitceco bearren duten asiera da, fede bicizco Jaunaren bildur santua beren biotcetan ondo joiitcea. Au da dicha gucien sustraia. Ceruco sustrai onetatic. Ezcontzaco Sacramentuac ematenduen bien arteco paque, ta amorio santua, berez bezala, sortu, ta jaiocoda. Jesu Cristoc bere atceneco Sermoiean, Testamentuan bezala, utcicigun ceruco ondasunic andiena, paque eder au da. Ezconduen echea paque onequin ceru bicia, eta paque gabe infernu bicia da.

Amorezco paque onec murru sendo baten guisan munduco neque guciac paciencia, ta meritoaz eramateco, beardan indarra ematendu. Baña paque eder gozo onen contra infernu gucia armatu, ta jaiqui oida: deabru charra Ezconduen paquezco biciera ecin icusiric, ta iraz beteric, ori deseguin, nastu, ta inquietatceco aleguiñaquin asitcenda. Ta Jaincoaren vorondatez, bear bezala, ta zucen ezcondudiranaquin Satanas-ec au eguiten badu: araco oquer, ta bide gaisto, edo pecatuetatic, ondo beguiratu gabe, edo gaizqui ezcontcendiranaquin cer eguingo eztu? Ta lurreco zuen onra, acienda, ta atseguiñac, paqueric ezpada, certaco dira? Emen, ta an infernuraco.

Ay, Aita, dio beste andreac: gure echean ori



ori sobra icustenda. Cer gatic bada? Aita, len paquean oiguiñan; baña gure guizona Plaza guizon eguinzagu, eta arrezquero paquea cerdan ezdaquigu, edo gure echetic iguesseguindu, ta gaistoenac aienatudu. Gure guizonac, dio besteac, jocoari, ta tabernari emandio: duena, ta ezduena ondatu, alperqueriari ederritzi, ta echea galdu du: ez umeen conturic, ta ez ecer, ta desoran datorrenean, guerra bicia.

Ene andre ona: ori sinistendizut, ta erruquizaitut. Ezcondu bear, eta orra nerequin eguinciñan. Zure guizonac jocoari, ta tabernari emazteari baño gueiago naidiola, esangodezu. Baña infernuco biciera orren culpa norc du? Guizonac duela diozu zuc: baña arc bacarric eztu: zuc ere izangodezu.

Ay Aita! Ta ceñ eguia andia dan ori, dio emen guizonac. Gure berri baliequi, berriz, ta biarretan esangoluque. Sobra, ene seme, ta nai baño gueiago daquigu. Aita. gure andreac infernuco sugue char baten mingañ, edo mistoa baño zorrotzagodu: arri ertzac ere erdiralitzaque; maratilla ascatcean, arenac eguindu: ecin arequin biciditeque, ta echea infernu bat eguitendu.

Eguia da nere guizona, ta andre batzuec orrelacoac dira; baña zuc ere orretan errua bade-

Universidad de Deusto Biblioteca



badezu. Cristau cintzoa bacera, sufritu, ta isillic larga bear diozu. Badaquizu, andre tristeac beste arma, ta ezpataric, bere miaren punta zorrotza baicen, eztuela. Zuc, buruac bezala, juicio, ta paciencia beardezu: alacoan ezjaramon, ta igues eguin: badezu, bearbada, cergatic isillic egon: echeco paqueac ori escatzendu. Andreai, Jaincoac aguintcendizunez, zuc zordiozu paquezco, ta pacienciazco amorioa: ta andreac zuri, bere buruari bezala, bildur santu, ta errespetozco amorioa zordizu: onela Ezconduen ceruco biciera zucentcenda.

Baña gure guizona edan samar, edo gaitzac eraguiña datorrenean, ambat golpeca asicoda. Aha goapoa! Orrelacoai esatenien nic. Chit balientea cera: zu bezalacoac, moroac iltcera. Ah lotsaric, eta bururic ezdezun guizona! Golpeca andrea zatitu? Desonra, ta gaitz, edo calte andietaco trancearen batean emaztea, oneraco castigatu beardanean ere, ori modu onean eguin bearda, ta ez abereen guisa. Bestela norc, zoro eguin, ta eraguin batec ezpada, bere gorputza golpeca zatitcendu. Adan, munduaren lenengo Aitac cion, eta Jesu Cristoc bere Evangelioan dio, Emaztea ta zu Ezcontzaco Sacramentuaren graciaz bat ceratela: orrela zuc andrea zati-



zatitcean, cere buru, edo gorputza zatitcen, edo banatcendezu. Ta cer eraqueria andiagoric, ori zuc eguitea baño?

Paciencia, nere andre ona, paciencia: ta guizona ala datorrenean, Jaincoaz armazaite, ta lasterca nere ascotaco erremedio segurua arrezazu. Aita: cer erremedio da ori? Ara: zoaz ariñ sulla, edo erradara, ta laster charrotic aoa bete ur garbi arrezazu: ta ceruco erreliquia bezala aoan, bota gabe, iduquizazu, ta nere contu, paque ederrean, ta golpeetatic seguru egongocerala. Misioetan ascotan emandedan ceruco erremedioa da au; eta arrezquero Autore jaquinsu andi bitan dotrina, ta conseju au emanic arquitudet.

Au eguiten badezu, damuco etzatzu, ta paque gozoa izangodezu. Contu, ta isillic zaude, albazaude: bestela zureac, eta gueiago artu, ta zure saietsac neurritcē, beste erreliquia edo gorozti maquilla arin ibillicoda, ta odola, ta negarra dariozula egongocera. Mingaña arin erabilliac frutu ori oidacar. Baña arrazoiaquin baño, egemploarequin Dotrina au zure buruan obeto sartucoda. Ara bada.

Ama Santa Monica gogoaren egemplo chit eder, San Agustin nere Santuac contatcenduena. Jaincoaren bide, ta virtute andian Santa bere gurasoac acizuten. Monicac doncella

Universidad de Deusto Biblioteca



cella garbi berez izan naizuquean; baña bere dembora onean, Jaincoaren vorondatea, ta gurasoena eguiteagatic; ezcontcera sujetatuzan: eta Patricio ceritzan, ta mundurаco Guizon noblea zan batequin gurasoac ezconduzuten: uso bat Monica, ta otso bat zan Patricio. Jaincoaren bideac miragarriac dira. Guizon ori etzan Cristava, ezpada Gentil fede, ta legue baguea: eta berez artz, edo leoi bat baño gogorrago.

Orregatic ere Monicaren gracia, doai, ta virtuteac alacoac ciran, non da gurutce pilu ori, ta neque guciac arintcencituen. Gucien gañean sentitcenzuen pena zan, Patricio bere guizona Gentil, ta ez Cristau izatea: baña Monicaren oracio, ta negarrac beti ciran indar andiagoac: ta Jaincoari bere Fede, ta Legue santura senarra ecarriciozala, ta casto, edo garbiago eguincezala beti erregutcencion. Icusizan santaren milagroa: onen negar, ta oracioac, onen virtute, ta egemploac alacoac ciran, non gueroenean Patricio bateatu, Cristau on eguin, ta Jaincoarenzat irabacizuen. Jaunaren gracia, bere emazteagatic eguinciona ondo ezagutu, ta ondo pagatucion: bada aurrera Santa chit estimatu, ta onen gustoa gucian eguinzuen.

O! emazte on baten virtuteac cer milagro an-



andiac eguiten dituen! O Jaunaren paciencia umil, ta biotz garbi, bigun, fedez, ta amorezcoac Santuetan eguiten, ta eraguitendituen marabillac! Usoa, ta mirua, edo ardia, ta otsoa len mai batean, ta plater batetic jaten icustea cer zan? Ta mirua uso, ta otsoa ardi, edo bildots biurtcea, cer da milagroric andiena baicic? Bada Monica, ta Patriciogan ori icusizan.

Milagro au Santac nola eguinzuen, bere San Agustin-ec contatcendigu: Ezconduzanetic bere senarrari, Jaincoac emandaco buruari bezala, errespeto guciaz beguiratcencion: echeco gauzetan obeditu, ta bere Jauna bezala servitcenzuen, eta ori eranzuqui, ta contraesateric gabe. Guizona aserre, edo colera bician cegoenean, Monica isillic arria bezala, ta erausi gabe, beti egotenzan: eta araco soseguan, ta beregan biurtcenzanean, humildade, ta modestia andiaz Santac arrazoia, ta contu ematencion. Guizonaren agravioac paciencian, itz bat atera gabe, sufritcencituen, ta ez cetzic beñere ematenercion: itzaquin baño egemploaquin gueiago eranzutencion: ta beti Jaincoagana biurtu, ta Patricioren salvacioa escatencion.

Beste echeandre, edo Matrona bere adisquideac santac arrituric ceuzcan, ceren bere bi-

Universidad de Deusto Biblioteca
bician senarraren quejaric, edo onen contraco itz bat aditcen etcioten. Lagun oiec baciequiten ondo Patricioren berri, ta ceñ latza, ta garratza zan; ta orregatic ere Monica gaizqui tratatu, edo guizonac escuric ezarri ciola, iñorc ere aditu etzuen; eta ala zan. Beste andre oriec negarrez Santagana etorri oiciran, beren neque ta desdichac contatcera, ta beren arpeguietaco golpeen señale ta eridac eracustera.

Guciac, Patricio ceñ gogorra zan baciequiten, baña nola Monicac añ ondo arequin jardun, ta acertatcenzuen, etciequieten. Santac orduan bere bici modu, ta guizonarequico, esandegun tratamentu, ta itzeguiteco bere lecio, ta consejù onac ematenciesten. Acordacitecela, ezconduciran puntutic senarra beren burutzat artuzutela, oni obeditceco, ta bera servitu, ta amatceco, itzaquin baño obra onaquin obeto ori eguitenzala: erriertac, ta ateleac utci, ta isillic sufritu bearzala. Andre ezcondua izatea ori zala. Guizon gogor gozacaitz aserrerazo bide ematenzuenac baño, aren contra modu gaistoan biurtcenzan andreac erru, edo culpa guchiago etzuela.

Senarra bere Jabe, edo Jaunzat artuezquero, andreac argatic iñoiz ere gaitzic esan bear etzue-


etzuela, baicic Jaincoari erregutu, gucia ondo eramateco: ta orrequin paquean bicicocirala. Santac berac eguitenzuen, ta ematencituen aviso santuac artcencituztenac chit ondo, ta contentuz arquitcenciran, baña ori eguiten etzutenac, ondo pagatcenzuten.

Santa Monicac, erraña gazte zala Ama guiarrabarequin, mirabe cizañeracgatic asco icusi zuen: Satanas charrac echea inquietatu naizuen. Baña Monicaren oracio, paciencia, ta egemplo santuac gucia erremediatuzuen, ta Ama guiarrabac deabruaren guezurrac, ta erraña Santaren virtuteac ondo ezagutu, ta mirabe dollorrac castigatucituen, ta andic aurrera Patricioc, eta Amac Santa chit estimatuzuten.

Oiec dira Santa Monicaren consejù, ta egemploac: eta Ezconduen ispillu au da. Santaren bicierà, ta obrac Jesu Cristoren, ta S. Pabloren Dotrina dira. Eliza santa bere Esposa maitea Cristoc amatuzuen bezala, bere Emaztea Senarrac amatu beardu, dio San Pabloc: ta Eliza santac Cristo bere Esposoari dion legue, ta amorioa Senarrari Emazteac iduqui beardio. Senar on bat Jaincoaren escutic bere lagun duen andreac, ceruco dicha andi bat du, eta arrastaça badere, errazqui, ta pocic servidezaque. Emazte on bat,

ceruac emanic duen guizonac, Jaincoaren favore, ta erregalo andi bat du, ta joia precioso bat bezala, estimatu, ta amatu beardu. Oiec beren umeac fedez, ta amore onez, Jaunaren Leguean aci, ta eciaz, salvatucodira.

Ori eguiten ezdutenen bicia nolacoa oida? Andre batec guizon nagui, jocalari, edale, edo tabernarequin amancebatu bat baldin badu, cer martirio gogorragoric? Jaunaren egunic andienetan, gabaz mugonez bere aurchoac oiera zucendu, ta bere errezoac eguiten, ta pacienciaz senar galdu, ta eche ondagarri aren beguira icustea, cer da? Ay tristea! Ta erreca zuloetan batean ordiric, asco bezala, itodedin bildurrez cembat andre, ta cembat bider arquitcendira? Ta biciric badator, echean infernu bicia. Onelaco guizonac Jaincoari cer contu emangodiote? Nola salvatu ustedute. Confesore Jaunac beren zelo guciarequin demboraz onelacoac irabaci, ta Jaincoarenzat erremediatu bearditnzte.

Bada cer, guizon prestu batec emazte baldan, alper, itzontci, edo itzjario bat badu, ta orien ondoren beste maña charrac dituena? Ay guizon dichagabea! Galdua cera. Eche guztia irauli, ta zu saldu, galdu, ta ondatucozaitu. Matrimonioan guizon, ta andre-


dreac (jaquiña da) guciac dute beren gurutcea: orrequin Jesu Cristori jarraitcean dago orien zoriona. Baña orrelaco andreco doacabea duenac pisuago du bere gurutcea, ceren duen gurutce buru gabea. Orrec paciencia andia, ta Jaincoari erregutcea, beste erremedioric eztu: berac oneradezaque: ala naidaquiola.

Anciñaco Gurasoen artean Abraan, Isac, eta Jacob beren Emazte Sara, Rebeca, ta Raquel, estimatuaquin Escritura Sagraduac berariaz alabatcenditu: guciac Jaincoaren adisquide andiac, ta lurreco ondasunetan, on asco eguiteco, chit aberatsac ciran.

Abraan chit zarra, ta Sara laroguei ta amar urtecoa zala, milagrozco, Jaincoaren bendicio gucien Seme Isac ceruac eman, ta Aita, ta Ama, Ainguerauac esancien becela, zorionecoac eguincituen.

Isac Santua Rebeca Virgiña guciz modestarequin ezconduzan, ta Esau, ta Jacob, seme bi batetan eguincituen. Isac, ta Rebecaren Erraña Raquel famatu, Jacob santuaren, ondo costaricaco Emaztea izanzan: oni seme bi, Josef castoa, ta Benjamin gozoa Jaincoac emanciozcan, ta bigarrena eguitetic Ama iltzan.

Oien prendac, ta edertasuna Escritura San-

Universidad de Deusto Biblioteca



Santuac asco anditcenditu: edertasuna, azaleco gauza bezala, autsa, ta utsa zan, ta oriena ere auts, ta uts biurtuzan. Edertasunac eztu balio, dio Espiritu Santuac: andre Jaincoaren bildurtasuna duena, alabatua izangoda. Aa zuten iru Echandre oiec. Sara Abraan bere senarrari cion errespetoagatic: Rebeca bere modestia andiagatic, ta Raquel senarraren amorioagatic: ta irurac beren virtuteacgatic Historia Sagraduac andizeatcenditu.

Job Santua bere Emazte, ta familia andi, zazpi seme, ta iru alabarequin, cer Jaunaren bildur, cer concierto, ta era ederrarequin, añ garbiro bici izanzan? Cer munduco aldarte, edo gora berac? Bada chit aberats, ta chit pobre icusizan. Obra on andiac ascori eguin, ta guero bacar pobre desamparatua icusizan. Orregatic ere beti santu: azquenic Jaincoac ondo probatu, ta bere bendicioz bete, ta chit aberats, ta zarra, bere umeen umeac laugarren belauneraño, ondo icusiric, zorionecoa iltzan.

Tobias, Aita semeac, icen bateco Santu biac orobat. Job santua bezala probatua Aita, ta paciencia miragarriaren, ta misericordiazco obra santuetan gau, ta egun jardunzuena. Guraso, ta Ezcondu santuen ispillu, ta egemplo Jaincoac eguiña, S. Rafael Ainguerуagandic zazpi ceruco favore andi artucituen, ta berac contatcenditu. Ana bere Emaztearequin chit santuro bicizan. Raquel ceritzan aide bat zuen: au ere Ana bere Emaztearequin aberats bicizana oien alaba bacar Sara santarequin Tobias semea, S. Rafael Mandatari zala, ezcondu, ta Tobias, ta Ana bere gurasoen dotrinan ceruco bicitza ederra eguinzuten: oiec ill, ta bien onrac eguin, ta Sara bere andrearequin, onen gurasoetara biurtuzan. Raquel, ta Ana illezquero, berac bezalaco gendedia, ta gucia Santuen casta, Jaincoaren bidean, icusiciran. Ta gauza arrigarria da: Tobias onec bere illoben illobac, edo bostgarren belaun edo generacioraño icusicituen.



Oien, ta beste onelaco, Fedeac esatendizquigun, Ezcondu santuen artean ere beren falta, eracaiz, ta naigabeac baciran; baña paciencíaz elcar sufritu, ta paqueratcenciran. Zuen pacienclan Ezconduac, Cristoc dionez, paquean zuen animac iduquicodituzute. Elcar ondo eraman, ta sufritcen badezute, Jaincoaren Leguea osoro cumplitu, edo gordecodezute, San Pablorequin esatendizutet.

### §. *GORPUTZA NOLA AMATU BEARDAN.*

JAincoaren bildur, ta amore santua duenac, Jaincoagan, ta Jaincoagatic bere burua ama-

amatu beardu. Bildur santu orrequin S. Pabloc eguitenzuena guc eguin beardegu. Corintoco gendeai esatendie: Nere gorputza aci, ta zatitcendet, ta Jaincoa servitcera sujetatcendet. Jaunaren justiciac ori aguintcendu, ta gorputzac bere culpa, usadio, edo griña gaistoaquin, aren contra errebelatcen danean, ori escatcendu. Penitencia, edo sentiduen mortificacioa deritzan virtute au beti da chit bearra. Alere onetan utseguin nai ezpadezu, ez cere buruaz gobernatu, baicic Confesore jaquinsu celo oneco batez.

Beste gañeracoan, eguiazco Jaincoaren amoreac gure gorputzac estimatu, ta amatcera, ta zoguiro, edo discrecioaz ondo tratatcera obligatcengaitu. San Agustin baten, edo San Pabloren dotrina da au. I. Gorputza amatu beardegu, ceren bicigueran artean, obra onac eguiteco orren bearra degun. II. Ceren gorputzac, gure Personaren parte danez animaren lagun ceruco glorian betico izan bearduen.

III. Cristavac bere gorputza amatu beardu, gure Salvadore, Jainco, ta Guizon eguiazcoaren antz, edo imagiña bicia dalaco. Erronda, edo Tronco batetic datoz Cristoren Gorputza, ta gureac: gure aragui, ta odol eguinzan, ta ala beraren aidetasuna degu gure

re



re Senide Nagusia, ta gure burua Cristo da.

Ta are gueiago gure gorputza errespeto andiagoaz beguiratu, ta chit garbiro gorde beardegu, ceren Aldareco Sacramentu adoragarrian aidetasun ori bera berriro, ta ederquiago lotu, ta estutcendan. Bateo santuan ori asitcenda: beste Sacramentuetan berrirotcen, ta sendotcenda. Baña Comunio sagraduan, bere Gorputz, Odol, Anima, ta Jaincotasuna, dan gucia, Jesus maiteac guri emanic, ez nola nai bere aide, baicic berequin bat eguitengaitu. O amorezco aidetasun, ta adisquidetasun paregabe laztanena!

Orañ Jaincoari gurequico onembeste, ta onelaco favoreac eraguindiozcan amore au gucia icusi, ta gure biotzari cer aguindu, ta eraguin bear ezdio? Nola, edo certaraño gueieguizco amore onec obligatcē, estutcen, ta empeñatcen ezgaitu? Ah! Jaincozco amore eder, puru, edo nasgabe onec zure dicha du bere atseguin, edo saria! Onec escatcendizuna da, bera zuc ondo ezagutu, ta zure biotceco esquer onaquin Jaunari gloria gucia ematea: eta aren naiera, edo cariño eraguiñ au ondo pisatu, ta animan zure salvacioraco josi, ta beti iduquitcea.

Jainco onela enamoratuaren erregaloz ecin gueiago ala betericaco Cristava: mereci-

Universidad de Deusto Biblioteca



cidezun diña cerori estimatceco, Apostoloarequin esatendizut : beguira ondo noren, ta nolaco buruaren miembroa ceran ? I. Jesu Cristorena cera : zure gorputza onen parte, edo pusca da: ala emendic aurrera errespeto gueiagorequin, ta garbiroago ori gordezazu. Jesu Cristo gure buruaren miembro dan zure gorputz ori nola pecatuaz deabruaren servitzari, edo esclavo eguiñ alditeque ? O cer tratu itsusi eragabea !

II. Zure gorputza Espiritu Santuaren Eserlecu, edo ontcia da, ta zure biotcean bere graciaz isuri, ta bere amorez or bicida, edo bici naidu. Nola bada Espiritu Santua zugandic campora bota, ta demonioa zugan artcear atrevi alzaitezque ? O infernuco trucada beltz ceruac berac arritcendituena !

III. Zure gorputza Trinidade guciz santu, Aita, ta Seme, ta Espiritu Santuaren Templo, Sagrario, ta Echea da : bada Jaungoicoa Comunioan biotz orretan artcendezu. Nola bada zure Jabea bere Echetic atera, eta Satanas, edo Lucifer, zure etsairic andienari or ostatu ematera atrevi alzaitezque ? O zure fede illotz nazcagarriena ! Biciago, ta beroago zan Indietaco Cristau berrien fede miragarría.

Aita Acostac contatcendu, oiec bateatu, ta



ta lenengo Comunioa artceco dicha zutenean, fede, ta amorio añ andiaz Jaincoa artcenzutela, non da sinisturic ceuden, ta cioten:bere Jaungoicoa Comunioan beñ artcenzuen gorputzac, ya gueiago pecaturic eciñ eguincezaqueala. Cristau zarra, ta ascotan comulgatcen cerana, non dezu zuc onelaco fedea ? Zure gorputza nola estimatu, ta gordedezu ?

Azquenic zure gorputza izan alditequan costu, ta precioric andienean, edo bere odol preciosoaz Cristoc beretzat erosi, ta irabacia da : gorputz orretan Jaincoa zuc beti iduqui, ta glorificatceco eguiña da ; gorputz, ta anima zu aren antcera santu izateco, ta Comunio santuaren virtutez, azquen juicioan Cristoren guisa piztu, edo anima, ta gorputz erresucitatu, ta gloriaz janciric berarequin ceruan beti bicizaitean. Non bada, fede, ta lotsagabe, abereen guisa, edo oriec baño loiago, ta itsusiago gorputz ori eguitera zu atrevitcencera ?

Au gucia Evangelioa, ta San Pabloren Doctrina da : ta ceruco lecio onetatic zuc icasi beardezu, zure gorputza, Sacramentuetan Jaincoari consagratu, ta emana bezala estimatu, ta beti garbi iduquitcea : zure pensamentu, itz, ta obrac, ceran, ta eguitendezun

Universidad de Deusto Biblioteca



zun gucia, Jesu Cristoren antcera, neurri santu, ta erregla justu onetan eguitea : zure beguiac, mingañ, edo aoa, escuac, biotza, zure barrena, ta campoa, janean, edanean, jancian, itzeguitean, ibilli, edo egotean, nola nai, zure sentiduaz usatu, edo baliatu beardezunean : fede biciaz biotz ori gora jaso, ta barren, ta campotic Jesu Cristoz guciaz jancizaite, ta aren guisa, aren intencioaz, zure obra, ta lan guciac, Jaincoarenac bezala, bere onraraco eguin bearditutzu.

Naiz jatea, naiz edatea dala, edo beste edoceñ bear, Jaincoaren gloriaraco, aren vorondatea eguiteagatic, ta aren icenean gucia zucentcen, ta zure biotceco intencioa goratcen badezu, S. Pabloc dion bezala, gucian Jaincoari gusto eman, ta ceru andi, edo gloria asco irabaztendezu. Errespeto onegatic, jateco, edateco, jazteco, erazteco, ibiltceco, egoteco, itzeguiteco modu justu, ta era onean, zure modestia, guciā eracutsi beardezu : ta ori, naiz iñoren aurrean, naiz bacarric zaudela: bada Apostoloac dionez, Jaincoa zure aldean dezu, ta beguira dagoquizu. Beguira, Cristava, Jaincoa gucian dagoela beguira. Etzaude bacarric, beguira, Aingeru santua beguiradago.

Orañ beste miraria. Lurreco abere loi guciac



ciac baño loiago, ta nazcagarriago zure gorputza izanic : ta gueiegui zuc erregalatcen dezun, lurpeco ar ciquin quiratsen janari erregalatu izangodan, ta gucien oñ peco auts biurtucodan gorputz orretan Jaincoac eman, ta gordedizu. Baña cer ? Munduan dan joiaric ederren, ta preciatuena: zure anima bere antcera eguiña : ori aren gracian dagoela icusico baguenduque, orren edertasunaz gucioc arritu, edo atseguiñez zoratuco guiñaque.

Ea bada, fede onezaz animazaite. Lurrac jangodituen begui oriequin, orañ modestia gordetcen badezu, Jesu Cristo, Ama Virgiña, ta Santuac seculaco glorian icusicodituzu : orrela beste sentiduac, escuac, mingaña, ta gorputz ori estimatu, ta garbiro gordetcen badezu, gustoz, erregaloz betea, ta gloriazco soñeco ederrez jancia ceruan Jaincoarequin beti egon, ta gozatucocera. Jaunari ala naidaquiola: berac naidu, zuc eguiaz nai beardezu.

§. *USADIO GAISTOAC QUENTCECO BIDE, edo Dotrina.*

GAizqui eguiteco, edo esateco, juramentu, birau, edo orrelaco usadio, ta costumbre charrac, uste gabe, ta chit erraz eche-

echeetan sartu oidita : Gurasoac chit contuz ezbadabiltza gazteai bota, edo besteagandic laster eransicozaiezte : ta sentigabe beñ orietara eguin ezquero, ecin erremediatu dirala, beren escuan ezdaucatela, esangodute. Baña escusa, ta ecin orrec Jaincoarequico eztu balio. Dan oitura, edo usadioric charrena !, ta zarrena izan aren ere, Jaunaren gracia, ta zure equiñarequin, escuaz bezala quenduditeque. Aita : orren erraz? Bai, ta seguru, zuc urrengo erreglac ondo artu, ta gordeaz.

I. da : Guraso Nagusi, edo Echecoandreac, ez itzetan, ta ez obretan orrelaco usadio gaistoric, berac ez artcea; baicic beren echecoai egemplo ona gucian ematea. Juramentu, maldicio, errierta, ta aserreric ezdan echean, ume, ta mirabeac orrelaco itzcuntzaric ecin icasicodute : ta orobat da beste eragabeco libertade, joco, jolas, itzquera, ta ibillera desonesto, ordiqueria, ta onelacoetan. Guraso, ta echeburuac, zuec Jaincoaren lecuan, ispillu bat, edo Jaincoordeco biciac bezala cerate echecoenzat : oiec zuetan dacusten, edo enzuten dutena, esan, ta eguingodute. Beguira bada ondo Jaincoari cer contu eman beardiozuten.

II. Baldin alde gaisto, lagun charretatic ala-



alaco usadio oquer, edo itzcunde eragaberic zure ume, edo mirabeai eransi bearzaie, bereala escuac erremediora. Esan naidet : orrelaco oquerric eguiten, edo esaten duen bacoitcean, bertatic pena bat ezarri : gosari, edo afaria quendu, belaunico contriciozco actu bat, ta gucien aurrean lurrari mun eraguin. Onelaco legue, edo pena bat ifiñi, ta gorde eraguiten badezu, orren bildur, ta Jaunaren graçiarequin, nere contu zure ume, edo mirabe ori seguru erremediatucodala.

III. Beste edoceñec, edo cerrorec dezun oitura zar, edo zure condenacioco usadio ori sustraietic ebaqui, edo ateratceco, ceruco Medicu, ta erremedioa beardezu. Ta ori ceñ da? Confesore jaquinsu celo andico bat. Animaco gaitz bacoizari cer erremedio, ta culpa bacoizari cer pena dagoquion, orrec ondo daqui. Gaitz guciac era batera sendatcen ezdira. Ceruco botican, lurrecoetan baño, erremedio gueiago, ta obeagoac dira. Zure gaitzac cer bear, edo escatcenduen, ceruco Medicu, edo Confesore celodunac daqui. Erremedioa onec emangodizu, ta ori zuc gogoz artcen badezu seguru curatu, sendatu, ta salvatucocera. Au gucia egemplo gracioso batec obeto eracutsi, ta zure beardezun erremedioa emangodizu.

Erre-

Universidad de Deusto Biblioteca



Erregueguizon, Capitan aberats bat, Confesore cintso, ta celoso batequin confesatcen beñ batean jarrizan. Beste culpen artean esancion, nola gaizquiesaca, ta maldicio chit asco eguincituen. Confesoreac galdetucion: ta cembat dembora da, oitura ori dezula? Asco, Aita, anciñaco costumbre zarra det. Ambat gaistoago, esancion: asturac dacar erraztura. Ta ori quentceco, cer penitencia, edo erremedio eguindituzu? Aguindudizquidaten errezoac beti eguinditut, Aita. Ta besteric ez? Ez, Aita.

Errezoac berez gauza onac dira; baña animaco gaitcen batzuenzat ezdira asco: ta ascotan beste erremedio portitzagoac, ta gaitzari egoquiagoac beardira. Zu, ene seme, dembora orretan gucian, ta igaroco confesioetan, emienda gabe, gaizqui ibillicera, ta erremedioen faltaz, condenacioco peligro andian zure anima iduquidezu. Confesoreac onela chit paciencia andi, ta era onean Capitan ori artu, ta salvatceco eguin bearzuena chit ederqui eracutsicion.

Orduan Soldaduac: Aita, esancion: arrazoi andia dauca, ta Jaincoari, ta berorri esquerrac, nere animaren peligro orañ icusten, ta ezagutcendet: salvatu naidet, ta orretaco bidea artubeardet. Bada eguiazco penitencia zuc eguitea, beste bide, ta erremedioric eztago. Aguin beza bada, Aita, ta penitencia ori eman beguit. Baña araco ezurrac autsitceco, azote, cilicio, barau, edo gauza gogorric, ez arren niri aguindu, ceren Soldadua banaiz ere, arma orietara eguiña eznago.



Ez esancion Confesore zoguiac: animaco gaitzac curatceco, ta ezurric autsi gabeco erremedioac ceruco botican badira. Gorputceco penitencia, disciplina, cilicio, barau, oieco gogortasun, limosna, ta biotceco oracioa Jaunari eguitea, pecatuen barcacioraco chit gauza onac dira. Baña zure barrengo libertade gueiegui, ta eragabeco lasaitasun ori autsi, ta ucatcea zuc beardezu. Arma oiequin, Soldadu goapoac bezala, zuc peleatu, ta venzutu beardezu. Onela gure guizona chit berotu, ta penitenciaren zaletuzan.

Bada ona ni, Aita: Soldadu prestuaren itza, Erreguerena baliz bezala ematendiot: naiduena aguin beza. Ea bada, anima salvatceagatic, eguingodezu nere esana? Bai, Aita: Aguintari naiz; baña orañ berori da nere aguintari: aguin beza, ta aguintcendidana eguitea, nic aguintcendiot. Onela prestatuzueneco Confesoreac icusizuen, nola Jaun orrec, len oiciran urre fiñezco botoi eder batzuec soñecoan cecartcien: ta berequico esan-

esanzuen: Ago bada: maldicioac eguiteco gogoa nic quenducodiat orañgoan. Nic beatza ondo lotu, pecatuen catea urratu, ta anima ori seculaco libratucodet.

Ara bada: zu salvatceco, beguira ondo, ez maldicioric bota. Ez, Aita. Ta botatcen badezu, contu: ezurric autsi gabe, zuc ondo pagatucodezu. Bai, Aita. Ara: gueiago eguiten badezu, maldicio bacoitzagatic penitencian, lenen topatcendezun pobreari orraco botoi orietatic bat eman beardiozu. Au enzun, ta Capitan ori arrituric gueldituzan: Adio nere botoiac, esan, ta farrari emancion. Aita cer aguintcendit? Galdua naiz: adio nere botoi ederrac: ale bat ezta gueratuco: diranac laster joangodira.

Alere, guizon prestuaren itza emandiot, ta botoiac galdu ta badere, cumplitucodet. Onela Confesioa bucatu, comulgatu, ta bere devocioac eguin, ta nere Capitan ori cijoan echera. Ta orra non, uste gabe, calean pobrecho trinquin, edo erren bat topatuzuen. Pauso estua zan, ta erri andietan oidana, calea chit ciquiña: ta nola pobre ori urgunca pausotic laster quentcen etzan, Capitanac bere ausardia, ta colera bician besotic artu ta: quenadi ortic milla añenecorequin, maldicioa eguincion. Aotic irten orduco conturazan. Ay


Ay nere dichagabea! Nic cer eguindet? Adio nere botoi galanta! Bai, nic esan nuen ta onenac aguindu. Jauna, lenena zure icenean: ta esan, ta eguin: botoia bertan atera, ta pobreari, tori Jaincoaren icenean emancion. Bere bidean bacijoan, ta berequico: onela bagoaz, cion, nere botoi guciac laster dijoaz emendic. Bere aiei beguiratu, ta damuzuen añ erraz galduaz: ta besteac galdu bearrac biotcean chit miñ ematencion. Baña cer ustedezu, Cristava? Cembat galducituela? Orra bada: ori izanduzan botoia, ta erremedio añ cerucoa, non da botoiric gueiago seculan galdu etzuen, ceren contuz ibilli, ta maldicioric bere bician bota etzuen. Beñgoaz betico gogoa erraz quenducitzaion, ta obeto joancitzaion.

Ta orra, Cristava, egemplo onetan icusi, ta animaco gaitz guciac aisa, nai badezu, erremediatceco lecio segurua icusidezu. Jocalaria, edalea, juramentu, ta maldicioguillea, ta onelaco, edo beste costumbrea zar ancinacoac, edoceñ modutan, dituzuna, zure aitzaquia, edo escusac Jaincoaren aurrean ezdizute balio, ta ezta cer niri esan: ecindezula, zure escuan ez daucazula. Vorondate ona, ta eguiazco gogoa badezu: Jaunaren graciaz batean, orrequin eguin, ta equin, ta guztia eguiña dago. Bal-

Baldin Confesore jaquinsu zoguiaren esana gogotic artu, tá eguiten badezu, guztian erremediatucocera. Culpa bacoitzagatic ondo dagoquizun pena emangodizu. Batari, urrengo Jaiegunean ez jocora, edo tabernara joatea: besteari, ez onelaco lecu, edo echetan sartcea, edo urliarequin bacarric ez egotea: ta orren penan golaria, edo chocolatea, edo tabaco belarra, edo autsa, egun batean largatcea: ez ardo, ta ez ur, egarri izanagatic, arratsalde batean edan gabe egotea: ordu erdi belaunico, edo zutic, edo elerita descansu galantean, baña iñora moguitu gabe, Errosario bat, ta beste berroguei ta amar Actu contricioco devocioz, ta biotcetic Ama Virgiñaren icenean, Jaincoari ofrecitcea, ta orrelacoac.

Barauric necazari gajoai ondo ezdagoquie: barauric ascodute beren nequea, ta ez ondo jatea: oiei errezo luceric ezdagoquie: bost Aldareac, ta beren Errosario, Contricioco actuac, ta berriz, ta ascotan confesatcea: onela beste bide, ta erremedio asco dira. Jaincoaren ordeco Maisu, ta Medicu, Confesore onac zuri eracusteco, ta beardanean emateco, ondo daquizqui. Zuc bearren dezuna da, ez zure vorondatea, ezpada arena gucian eguitea: zurea ucatu, ta Confesoreari jarraitu: zure vorondateac galduzaitu: Jaincoarenac beretzat irabaci, ta salvatucozaitu. Amen.

ARQUI-

## ARQUIBIDE, EDO INDICEA.


Ondo iltcea cer dan. Pag. 214.
Testamentu eguitea. 220.
Azqueneco, edo iltceco Confesioa. 228.
Azqueneco, edo iltceco Comunio, Viaticoa. 232.
Azquenuncio, edo Oleacioa. 237.
Ritus conferendi Eucharistiam. 242.
Ordo ministrandi S. Unctionem. 247.
Indulgentia pro articulo mortis. 255.
Commendatio Animæ. 258.
Animaren Recomendacioa. 267.
Viaticoa artu, ta Eriac eguin bear duena. 276.
Ordu artaraco Consideracio, ta Afectoac. 277.
Oleacioa artu ezquero Consideracioac. 282.
Ondo ilten laguntceco Egercicioa, 285.
Eleiza Santaren Oracio, ta Contriciozco Afectoac. 288.
Ama Virgiñari, San Josef, San Miguel, ta Santuai Escariac. 293.
Fede, Esperanza, ta Amoriozco Actuac. 301.
Espiritu Santuari Escari, ta Afectoac. 304.
Aita Eternoari bere Semearen ofrenda. 305.
Jaungoicoa icusteco deseo santuac. 309.
Iltececo zorian Afecto bici laburrac. 312.
Eriaquin daudenac eguin bear dutena. 315.
Eriotza gaisto, ta onaren Egemploac. 322.
Denbora ondo pasatceco Consideracioac. 331.
San Isidro ren, ta Santa Maria ren Ispillua. 334.


Gure

Universidad de Deusto
Biblioteca

*Gure Necazari onen Eriotza.* 347.
*Ama Virgiñaren Devocioa.* 353.
*Eriotzan norc bildur izan bearcoduen.* 357.
*Erricetaco Jaunen, ta Gurasoen obligacioac.* 360.
*Ezconduen biciera ona. Sta. Monicaren Ispillua.* 367.
*Gorputza nola ondo amatu, ta gorde beardan.* 379.
*Usaio, ta griña gaistoac quentceco bide erraza.* 385.

### *Eguiaren Adisquideai Arguia.*

Eusquera ren ala bearrez, letra oquerrac zacentceco, eta eguiac guezurren ordean beren lecu etan isintceco eraric lenago izandu ezder. Letrac moldatcen dituenac Euscaraz ezdaqui. Guciac berriro al eguiñaz icusi ditut. Egercicioetan larogueі falta chiqui, ta andi idoro ditut: batzuec ezagunac, besteac farragarriac. Nabarbenenac aguertuco ditut. Besteac Iracurle aren contura. Latinac Pagina bezala, Euscarac Plana: Eta arc Linea bezela, onec Errengloia du. Lenengo numeroac Plana, bigarrenac Errengloia elan naidu. Egercicio etatic asico guerade.

### EGERCICIO en BIGARREN PARTEAN.

| | Guezurrac | Eguiac |
|---|---|---|
| 1. Pl. Err. 5. | IL en. | II. en. Bigarren. |
| 3. Pl. Err. 11. | oro | ero. |
| 4. 11. | Provecho | Pobrecho. |
| 32. | azq naizu: ic | naizu nic. |
| 46. 9. | ondo | ardo. |
| 50. 17. | Afecto | Efecto. |
| 60. 12. | Esposa | Esposoa. |
| 72. 22. | gaistoa | gaistocoa. |
| 75. 17. | zorra | zarra. |
| 87. 9. | gloria | gracia. |
| 107. 13. | contuac | contatuac. |
| 112. 13. | uere...dausu | nere pauso. |
| 122. 15. | etorrico | erorico. |
| 136. 14. | ondo | ordu. |
| 146. 4. | cionac | ciotenac...zure. |
| 163. 20. | penitencia | paciencia. |
| 168. 2. | guchi | gasso. |

4.

### IRUGARREN PARTEAN.

| | | |
|---|---|---|
| Pl. 222. Err. 6. | BErac | bereac. |
| Pl. 222. | Azq. negarrac-negarraz. | |
| 233. 26. | Sacramentu | Sacramentatu. |
| 271. 21. | Egipto | Egiptoco. |
| 301. 12. | biotzaren | bacoitzaren. |
| 301. | devocioc Santuari | devocioco Santuai. |
| 307. | eriotzaco | eriotzaraco. |
| 307. 10. | eguiscizun | egum zuen |
| 315. 23. | izangodiran | izango ezdirat. |
| 335. 21. | obtrac | obeac. |
| 336. 13. | muzilla | mantila. |
| 356. 22. | Amarrena | Amarena. |

Universidad de Deusto Biblioteca

| | |
|---|---|
| 361. 23. amatzal | amatzar. |
| 363. 7. ucondu-----ucondo--------icasico. | |
| Azquenean. zuenetic | zanetic. |
| 366. 23. cantua | catua. |
| 367. 369. nerequin | norequin. |
| 369. 20. bearri | berri. |
| 371. Monica gogoaren | gozoaren. |
| 379. bi bider. Raquel | Raguel. |
| 380. 4. aci | eci. |
| 386. 2. bota | bata. |

Guezurric andienac oiec dira. Beste lecu ascotan letrac trucatuac daude. *Ascoz* bearrean, *ascoc*: *ascoc* bear, ta *ascoz*. *An* bearrean, *au*: ta *au* bearrean *an*: *Jaun*, ta *Jauna*: *torqui*, ta *tozqui*. *Esanac*, ta *esanaz*. *Eguiñac*, ta *eguiñaz*. *Zu*, ta *zuc*, ta onela beste letra asco trucaric, ala Egercicio en lenengo Partean, nola bigarren, ta irugarrenean: ta ori bera Eusqueraren Berri onetan.

Libru chiquien artean preciatu ena, ta bere pareric ezduena. Aita Dutari rena da. Moldean gueiena galdu cidaten, ta nere paperetan ez dauden gauza asco beren buruic atera cituzten: ala berriro moldatu bear du

Irugarren Parte, edo Eriotzaco Indulgencia ren gañean: *ad impetrandam* dion leguau: *ad impertiendam* bear du.

a
g

bere p
Moldea
peretan e
tic atera c
Iruga
gencia
gu

Universidad de Deusto
Biblioteca